



**ALDI
HARETAN**

PARABOLAZ PARABOLA



**ALDI
HONETAN**

A. MARTZEL ANDRINUA

SARTU BARRURA

Parabola eta guzti nator gaur zugana. Berrogeita hamar urte eta gehiago predikari lez ibili ondoren, neure esperientziaz oretutako lanabesa lez eskeintzen deusut.

Nire eritxiz eta esperientziz, parbolea aproposko heziketa bidea da: Norberak suposatzen eta asmatzen dauan jazoera baten kontaketa da; gero antzekotasun edo alegoria bidez moralezko ikasbideren bat aterateko. egoki dator ume edo jente xumeagaz erabilteko. Baina bai zera! Historian zehar gizon jakintsuak maila guztietako gizakiakaz erabilteko lanabesarik ederrenak eskeini deuskuez. Jakintsu batek inoanez: "Herrira heldu gura badozu, bere berbakera erabili egizu, jo sarri pasadizoak eta istorioak kontatzera.

Parabolak, gehienetan, giza-balioetan gizakia heziteko erabilten dira. Parbolea zuzen-zuzenean gunera, harira doa; ez dabil jirabueltaka lur hartu ezinik. Hori bai, parbolea aukerako bidea da alkarrizketa sortzeko, errealitateari beste alde batzuetatik begiratzeko eta aztertzeko. Eta hori zorrozkeri gitxi eta jantzi dotorea erabiliz.

Historiako Maisu Nagusia Nazaretoko Jesus dogu. Bere Ebanjelioko parabolak gogoangarriak dira, bere mirari eta ekinza askok baino eragin haundiagoa euki dabenak. Holan dinosku Markos ebanjelariak: "*Horrelako parabola askoren bidez, Jesusek mezua iragarten eutsen, eurak ulertzeko eran. "Ez eutsen ezer irakasten parabola bidez izan ezik. (Mk 3, 33-34). Zertan geldituko ete litzateke Ebanjelioa Jesusen parabolak barik?*

Jakina, nik neure arlora begira aukeratu, landu eta erabili dodaz han-hemen aurkitutako parabolak. Batzuk aurkitu dodazan moduan, eta beste batzuk zertxobait moldatuta datoz hemen. Bizian Gora Jubilatuen Mobimentuko jenteagaz nabilen ezkerro, euron izaera eta egoereari begira eratu dot parabola txorta hau. Eta egikerea ere horretara moldatu dot.

Parabola bakotxa hiru ataletan bananduta dator, gure artean hain ezaguna eta erabilia dan "Bizitz-azterketa" erara.

Lehenengo atala BIZITZARA BEGIRA dago: darabilgun gaiari buruz, gaur zer zelan dagoan aztertuz, alde guztietatik begiratu eta zertzeladak jasoz.

Bigarren atalean "LAGUNGARRIA": Parbolea bera osorik. Izan ere, parboleak gozo baina zorrotz epaitzen ditu giza-jarrerak, ingurumariko ohitura eta giroak. Aurrean ipinten dan ispiluaren antzera da

Hirugarren atalean JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN": Hemen dator Nazareteko Maisuaren irakatsia: zertan aldatu, zelan jokatu behar dogun zehazteko, dagokiguzan erabagiak hartzen lagunduz.

Ikusten dozunez, ez da prixaz irakurteko txostena, aspergarri egingo litxakizu. Horregaitik hiru ataletatik bakotxean a.b.d. gogoetarako ataltxoak daroaz eta azkenean: "*Zer deritxazu?*". Begibistakoa da azken gehigarri honen helburua: gero taldekideak parte hartu dagien, euren eritxiak, itaunak, kezak...agertzeko. Gainera ideia hutsak eta hotzak baino errezago hartzen ditu gogoan jenteak parabolak. Kontuak atera: Ebanjelioko pasarte luzerik ezin izaten dogu gogoan jaso; parboleak, osterak, gehienak eta osorik.

Dana dala, nik ahal dodantxoa eskeintzen deusut; eta zeurearen zain gelditzen naitzu. Bakotxak daukagu zer emonik ere, uste dogun baino gehiago eta hobea. Egia esan, parabola txorta hau landu eta bideratzen lankide onak izan dodaz, beste arlo askotan lez, Bizian Gora bihotzean eta eskuartean darabilen lagun bi: Mila Egiguren eta Marianajeles Angoitia. Eskerrik beroenak bieri guztion izenean. Gehiagoko barik, adiskide, pozik bizi eta oparitxo honek onik asko egin deizula.

Aita Martzel

2011. uteko Gabonetan



AURKIBIDEA

ADARRAK ENBORRAK SUSTRAIAK.....	1
ALKAR BIZITZA	5
ANTZARRAREN ZOPEAREN ZOPEA.....	9
ARRANOA IZAN BEHARREKOA OILO GELDITU	13
ASTOA ETA POTZUA	19
BANBU KAINABERAREN BALIOA	21
BEGIRA EGUZKIARI, BAINA JATSI TABORRETIK.	25
BENETAKO ZORIONTASUNA	29
BIHOTZ-HONDOAN	33
BIHOTZIK EDERRENA	37
EGURGINAREN ARAZOAK	41
ERBIA ETA TIGREA	45
ERRATZA	49
ERREMULARIA ETA FILOSOFOA	53
ESKER ONA	57
ETA GERO ZER?	61
EZAUGARRIRIK IZTEN AL DOZU?	65
FRUTUA EMOTEN DAUANA GARBITU ETA	
INAUSI EGITEN DAU.....	69
GABONALDIAN ZER EROSIKO	73
GAIXO BI	77
GARDANTXILO BI	81
GATZEZKO PANPINA	85
HAREZ BETERIKO ZAKUA.....	89
HARRIAN DAGOAN ZALDIA	93
HARRI ZUKUA	97
HAZIA, EGUZKIA, LAINOA	101
HIRU AGUREAK	109
HIRU BURDIN SAREAK	105
ITSUA ETA HERRENA	113
JAINKO BERAREN BILA	117
JAUNGOIKOA ETA BESTEAK	121

JAUNGOIKOAREN ERREPORTAIA	125
JAUNGOIKOAREN ESKUAK	129
JAUNGOIKOAREN SAKRAMENTUAK	133
JESUS ORAINGO GABONETAN BIHURTUKO BALITZ	137
KONPARTIDU EGIZU ZURE BIZITZA	141
KREAZINOKO GAUZARIK EDERRENA	145
LUZIPERREN ETA JESUSEN ISPILUAK	145 bir
MALUKIA	149
MAMUA DA	153
MONJEAREN JAKITURIA	157
MUNDUA KONPONTZEN	161
NEURE JAIOTEGUNA DALA-ETA	165
NUN BEHARTSUA, HAN JAUNGOIKOA	169
ORAINTE IKASI DOT BEGIRATZEN	173
OTSO BI BURRUKAN BIHOTZEAN	177
POZ GEHIAGO DAGO EMOTEAN HARTZEAN BAINO	181
PRESO BIZI DAN ELEFANTEA	185
SAMARIARRA	189
SANPEDROREN DENDAN	193
SANTOKRISTOREN ARGIPOSTEA	197
TITIRITERUAREN DEBOZINOA	201
URKETARI ZINTZOA	205
ZAPOEN ARTEKO NORGEHIAGOKA	209
ZERUA ETA INPERNUA	213
ZETARRA	217
ZORIONTSU IZATEKO SEKRETUA	221
ZU NOR ZARA?	225
ZUK BARDIN BALIO DOZU	229
ZURE ALTXORRIK BALIOTSUENA	233



ADARRAK, ENBORRAK ETA SUSTRAIAK ALKAR BEHAR ARBOLA IZATEKO

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Inok ez dau bere burua egin; inor ezin da inor barik izan, ez bizi. Ez hori bakarrik, nahitaez alkarri asko zor deutsogu. Alkarregaz bizi beharra onartu ezkerro eta horrek eskatzen deuskun erara bizi ezkerro, a zelango aberastasuna geuretzat eta besteentzat!

Zer deritxazu: *Zetan aberastu daikegu alkar?*

b.- Begiratu ingurura: Moltzoka edo pilaka bizi gara; inoiz baino aukera gehiago dogu alkartu eta edozetarako. Baina, halan eta guztiz be, gure artean bakarkeri larregi dago; batu bai, askotan eta asko batzen gara, baina alkartu... beste gauza bat da. Haundikeri asko erraietan eta baztarretan; nor baino nor jokatzen dogu.

Zer deritxazu: *Ze alde dago batu eta alkartu bien artan? Nun batzen gara eta nun alkartu?*

d.- Alkartasunean bizitzeko, alkarlanean jokatzeke, hartuemon gozo eta sakonean bizitzeko, partedun diranen artean baldintza eta jarrera batzuk beharrezkoak dira. Hartuemoneko bizitza landu egin behar da.

Zer deritxazu: *Alkarteko bizitzan bizi eta jokatzeke zer giro eta jarrera behar dira barruan eta agirian?*



Arboladi zabal batean erdian, bazan arbola tantai eder ikusgarri bat. Bidez-bide joiazanak a zelako atsedenaldiak egiten ebezan bere kerizpean; eta txoriak txio-txioka bere adarretan kabiak eginez.

Baina egun batean, adarrak gora-goraka jarri ziran: “Begira zein ikusgarria garan eta zein beharrezkoak arbola honetan! Ikusten gaituen guztientzat miragarri gara eta txoriak ere zein pozik dagozan gugaz. Gainera gure orriak dauken kolorearen ederra! Zer dogu guk zerikusirik hor beheko enbor zikin lotsagarri horregaz, eta han beheko lurpean gau ta egun lupetz artean sartuta dagozan sustrai hatsitu horreekaz? Eta erabagi sendoa hartu eben: Gaurtik geu bakarrik biziko gara, ez dogu inor behar.

Enborra ere bere aldetik ez egoan isilik egoteko: “Ze arbola modu izango ete litzateke hau ni barik? Neuk eusten deutset adarrei eta indar emoten arbola osoari. Ni nagoan lekuan ez banengo, adarrak ez leukee eusgarririk izango, ezta kolorea eta bizia emoten deutesen zuku izerdi bizigarririk. Begibistan dago: neu naz hemen baliozkoena, beharrezkoena.

Sustraiak ere ez egozan euren balioa galtzeko: “Gu bai garala hemen beharrezkoenak, baliotsuenak: arboleak ezin dau iraun gu barik, guk lurretik zurrupatzen dogun zumo bizigarriaz, bai enborrari eta bai adarrei ezinbesteko janaria emonez. Horregaitik, guk ez dogu nahi hartuemonik geu zapaltzen gaituan enbor lodi motz horregaz, eta gitxiago adar harro ganorabako horreekaz. Hemendik aurrera geuk geure burua janarituko dogu eta ez deutsogu inori gure zumorik zerbiduko.

Arbola tantai ederra ihartzen hasi zan. Orriak orbelduta jausi ziran eta enborra zumo barik gauzeztanduta gelditu zan. Sustraiak ere inoizkorik tristeenak egozan. Txoriak euren kabiak itzita, ihesi joan ziran, eta basotik zehar joian jentea ez zan bere kerizpean gelditzen. Arboladi osoa tristetu zan, euren harrotasuna zan arbola nagusia hiltzen ikustea.

Baina orduak eta egunak joan ahala, enborra, adarrak eta sustraiak konturatu ziran ezin zirala bakotxa bakarrean bizi, bata bestearentzat eginak egozala eta garrantzitsuena ez zala bakotxa banan, guztiak batera osotzen eben arbola tantaia baino. Beste barik, sustraiak eurentzat gorde eben zuma enborrari luzatu eutsen. Enborra, kostata, baina hartuemonera zabaldu zan. Adarrak zer poza lehengo zuku bizigarri-tantatxoak hartzean! Eta enborrari eta sustraietara eskatu eutsen, aintzat hartu ez ebezalako. Dana lehenera bihurtu zan: txoriak kabi polit barriak adarretan egiten hasi ziran eta bidariak bere kerizpean abaro gozoa hartzera inguratzen hasi jakozan.

Horra arbola tantai nagusia lehen baino ere zoriontsuago eta arboladi osoa beragaz batera pozez zorutzen.



a.- Ez da gauza erreza norbere burua ezagutzea dan bestean, ez gorago, ez beherago. Hortik hasten ei da benetako jakituria: norbere burua ezagutzetik: zer nazan, zer ahal dodan, eta zer ezin dodan. Norbere burua ezagutzea gizaki gitxiren kontua ei da.


Zer deritxazu: *Norbere burua ezagutu, nun eta zelan ezagutzen da ondoen?*

b.- Harrokeria eta neukeria dagoanean, bihotza haunditu egiten da eta begiak lausotu. Jakina, orduan ezin gauzak euren neurrian ikusi eta erabili, ez norbere burua, ez lagun hurkoa. Zergaitik ete doguz begiak bakarrik besteen gauzak ikusteko eta ez norberenak? Besteen gorabeherak ikusten emoten dogun denporearen erdia emongo bagendu geureak ikusteko eta zuzentzeko...

Zer deritxazu: *Zer da errezago: norbere burua ala hurkoa ezagutzea?*

d.- Bakotxa bera benetan eta osorik izanda, bera zoriontsuago, lagun hurkoak zoriontsu eginez. Bakarkeriak arbolea goitik behera igartu egiten dau: bata bestearentzat izaten eta parte hartzen hasi eta arbolea sendo eta emonkor bihurtu zan. Badogu gaur ondasunik lehenago baino gehiago eta ondo biziteko; baina gure arteko bizitza ihartuten doa, zoriontasuna gero eta urrunago.


Ze deritxazu: *Ez litzateke gure etxea, auzoa, parrokia aldatuko, alkarlanean jokutzen hasiko bagina? Zergaitik ez gara hasten?*



3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (1Ko 12,4-6. 14-23)

Era askotakoak dira dohaiak, baina Espiritua bat bakarra; era askotakoak zerbitzuak baina Jauna bat bakarra; era askotakoak egintzak, baina Jainkoa bat bakarra, guztiei egintza guztietara eragiten deusena.

Gorputza, izan ere, ez dau atal bakarrak osotzen, askok baino. Oinak «Eskua ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» esango baleu, ez leuskio horregaitik gorputzarena izateari itziko. Eta belarriak «Begia ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» esango baleu, ez leuskio horregaitik gorputzarena izateari itziko. Gorputz guztia begi balitz, nun entzumena? Eta dana belarri balitz, nun usaimena? Baina Jainkoak bere lekua jarri eutson atal bakotxari gorputzean, berak gura eban lez. Danak atal bat balira, zelangoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, oster, bat bakarra. Begiak ez daikio eskuari esan: «Ez dot zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dot zuen beharrik». Hori barik, makalenak iruditzen jakuzan gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gitxieneko iruditzen jakuzanak, lotsa eta begirune haundienaz inguratzen eta zaintzen doguz.



a.- Gorputza, hau da gure enborra, baina askotariko dohai eta atales ornidua. Harrigarria atalen arteko hartuemona; atalik txikiena bada ere, minduten bada, beste guztiak hara doaz, baktotxak ahal dauana haren onerako egiteko. Areago, atal baktotxak egin behar dauana egiteko, besteen laguntza eskatzen dau. Baina osasuntsua, atal guztiak onik diituan gorputza!

Zer deritxazu: Etxeko eta eleizako atalen artean ba al dago holango hartuemonik, holango alkar zerbitzerik? Zeuk zelan ikusten dozu zeure burua?

b.- Gorputz osoak atal guztiak behar ditu, eta baktotxak bere lekua eta egiekoa ondo bete dagiala, bestelan gorputz osoa dago kezkatzen. Makalena iruditzen jakuzan gorputz atalak, sarri eurak dira beharrezkoenak. Txiki nahiz haundi, inok ezin dau esan: "Nik ez zaitut zu behar"; ezta "ni ez nau inok behar".

Zer deritxazu: Txiki sentitzen al zara etxean, herrian, parrokian? Ez dozu pentsatzen uste dozun baino gehiago dagozala zure erantzunaren zain?

d.- Jakina, gorputzeko atal guztien arteko hartuemona behar dan bestekoa izateko, gorputz horretako espirituak sendo egon behar dau: "Gorputz sendoan, espiritu sendoa" esan ohi da. Espiritu bat bakarra eta sendoa danean, atal guztiak dagoz haren esanera. Etxeko nahiz gizarteko pertsonen artean ez bada spirituen batasunik, ez da posible inungo pozik, ez bizitzarik.

Zer deritxazu: Zelan lortu gure arteko batasuna, alkarlana?

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Hau konpondu ezina! Alkarregaz biziteko eginak gara, eta alkartean gero eta tirabira gehiago sortzen dira. Alkarbizitzan sortzen dira pozik eta laguntzarik haundienak, baita min eta atsekabe zorrotzenak ere. Alkarbizitza etxetik hasten da, baina auzoan, herrian, parrokian, alkarte guztietan jokatu behar alkarbizitzan eta ekintzan

Zer deritzazu: Alkartasunean ala bakartasunean egiten da gizakia helduago eta zoriontsuago?

b.- Alkartean sortzen diran gorabeheratan gehienetan errudun bestea izaten da, eta beste hori konpontzera jotzen dogu. Baina kontuz! Bakotxak geure burua garan modukoak garala-, alkarteko buztarria zelan egokitu ondo aztertu eta erabagiko bagendu, behar bada askoz ere hobeto ibiliko ginake.

Zer deritzazu: Alkarteko bizitzan zer da errezago konpontzea: norbere burua ala besteena?

d.- Alkarbizitzan ondo konpontzeko ez dago asko jakin, euki eta egin beharrik. "Asko" horixe bihurtzen da "sarr" alkarbizitzako tirabiren sustrai eta iturburu. Alkarbizitzan uste gitxien danak dauka ahalmenik haundiena: biztuten dan sua amatatzeko, errezeluak gozatzeko, eztabaidak argitzeko, hasarrealdiak bake bihurtzeko...

Zer deritzazu: Gogora ekarri egizuz alkarbizitzan (etxean, auzoan, parrokian, edozein alkartetan) benetako batasun egile diran batzuk.



3.- LAGUNGARRIA "ALKARBIZITZA"

Ezkonbarri batek, kezkaz beterik, esperientzi haundiko bere aititari itaundu eutsan:

- Aitita, zelan eroan geinke pozezko alkarbizita geure artean?
*- Ezkontza bizitza, etxe barri bat egiten hasia lez da, erantzun eutsan aititak. Askotariko harriak behar dira, baina ez ahaztu gehien balio dauana hauxe dala: harriak batzeko **zementoa**.*

- Eta zelangoa da, ba, alkarbizitza gozo-gozo erroteko zemento hori?

Bizitzako jakituriz beteriko aititak, lurrera makurtu, eta eskubete hondar lurretik hartuta, badinotso:

*- Zorioneko **zemento** horrek parte bi ditu: **hondarra** eta **karea**. Berez, bata baino bestea xeheagoak eta hutsagoak dira. Haize pixka bat naikoa da, biak aidean hara eta hona erabilteko.*

*Alkarbizitzan ere zeuok zaree harri bi nagusienak; eta zeuokaz batera, zeuon seme-alabak, gurasoak, auzokoak etabar. Zuen arteko alkarbizitza maitasunez batzen dauan **zementoa**, zeuon **makaltasunaren hondarra** eta zeuon **pobretasunaren karea** da. Ez zaree bata baino bestea haundiago, ez txikiago: inor ez zaree nahiko bakarrik, alkar behar dozue, bai hartzeko eta bai emoteko. Alkarbizitza maitatzea da, eta alkar maitatzea, alkar zerbitzea. **Alkarren alkar** izanaz osotzen da alkarbizitza. Gogotan hartu eizu hauxe: Alkar behar dozuela eta alkarren menpeko izan, alkarbizitza gozoa eta iraunkorra egiteko.*



a.- Pozezko alkarbizitza egiteko zer egin eta zelan jokatu behar dan ondotxi ekian halako aitita harek. Alkarteko bizitza bera da alkarbizitzako eskolarik onena eta ezinbestekoa. Gogo onekoa izan ezkerro, buztarrian bertan ezagutzen da bai norbere burua eta bai bestearena, eta zelan zer egin batagaz eta besteagaz, gogoko jakunagaz eta ez jakunagaz.

Zer deritxazu: Zelan ikusten dozu zeure burua alkarbizitzan (etxean, auzoan, parrokian, herrian) besteentzat lasaigarri ala kezkarri zara?

b.- Zementoa gauza hutsa da, eta hutsagoak bera osotzen daben hondarra eta karea. Biak ondo alkartzeak dakar zementoa, milaka baztarretan hain ongarri jakuna. Alkartzeak eta alkar ondo hartzeak, bakotzak daukana besteak daukanagaz bat eginaz, noraino heldu leiteken!

Zer deritxazu: Ukapena, alkarrizketa, maitasuna, apaltasuna... Gauza txiki honeekaz zelango "zementoa" egin leiteken! Zer gehiago gehitu zeinke?

d.- Ez ahaztu: "Makaltasunaren hondarra eta pobretasunaren karea". Hortik zer onik lortu leiteke? Harri landu ederrez jauregi dotoreak egiten dira; bai, baina harriak batu eta alkarregaz bat eginez hormak jasoteko zementoa behar. Egin kontu egun batean aitita-amamak plat no egiten dabela euren zerbizio apalak prestatzen. Eguzkia ere ilundu egingo litzateke...

Zer deritxazu: Zer jarriko zeunke hare eta hondarraren lekuan alkarbizitza on bat erroteko?



JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Fl 2,2-8)

“Bete nagizue pozez, danok eritzi eta sentiera bereko izanez, alkar maitatuz eta ondo hartuz. Ez egin ezertxo ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baino, besteak norbera baino hobeak dirala pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiratuz, besteena ere bilatuz baino. Izan egizuez zeuen artean Kristo Jesusek izan ebazan sentipen berberak .

Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik, ez eutson gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baino, hustu egin zan bere haundi-izateaz eta esklabo-izaera hartu eban, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts lez agertuz, apaldu egin eban bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, kurutzean hiltzeraino.

a.- Krisinau ona izateko otoitz, meza, sakramentu etabar beharrezkoak doguz; baina horreek guztiok bizitzarako janaria doguz, gugan geure jokera gaiztoak barik, gizatasun garbi eta sendoak erabazi dagian, Jesus Jaunaren jarraitzaile izanaz. Bizitzeko jan behar da, eta ez bizi jateko.

Zer deritxazu: *Alkarbizitza da gutariko baxotxa zer eta zelangoa dan ezagutzeko lekurik egokiena.*

b.- *“Eritzi eta sentiera berekoak izan, alkar maitatu eta ondo hartu”... zementu horregaz etxe ikusgarriak egin daitezke. Ez dabe behingoan lur joko. Ez dau aitatzen aginpiderik, dirurik, titulurik, abilidadarik; barrua ondo landu ezkeru, ondorengoa haren frutua da.*

Zer deritxazu: *Jesusen jarraitzaile batek zelangoa izan behar dau etxean, auzoan, parrokan, herrian? Ze ezaugarri euki behar dau?*

d.- *“Izan egizuez zuen artean Kristo Jesusek izan ebazan sentipen berberak”.* Ez zan ibili nork aginduko, ez nor aberatsago, ez nor jakitunago; hori barik, *bereaz hustu egin zan eta danen morroi, zerbitzari bihurtu.* Besteen alde bizia emoteraino. Euskaldunok aspaldi bizi gara indarkeriaren menpe eta bildurrez. Hortik aparte, etxean, auzoan, alkarteetan dogun ikusiez in eta garratasun hau zaharragoa da.

Zer deritxazu: *Neu, zeu, hori alkarbizitzan bakegile izateko zer pausu emon behar doguz?*



1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Amama argi batek inoan: *"Hartzeari emonak emoten deutso zapore"*. Aintxinako esaera da: *"Hartzeko pronto, emoteko tonto"*. Hartuemonak behar da bizitzan, orduan dau zapore bizitzak berak. Zoritxarrez maitasun bako hartuemonak frutu gitxi eta gordinak emoten ditu. Maitasunez heldu eta umotutakoak dira gustagarriak

Zer deritxazu: *Emonik ez daukan hartzeak gizakia aberastu ala pobretu egiten dau?*

b.- Zer gauza pozgarria eta onuragarria dan hartu ahala emoten dauan *erretena!*. Hartu ahala emoten daualako, gehiago hartu daike. Hartuemonak ez dau pobretzen. Gaur egun ere betikoa: Danok *mihinluze* eskabiberako, baina *besamotz* eginbiderako. Beharleku bako behargin asko dago, baina gogo bakoak askoz gehiago. Gustuko beharlekurik alperrak ezin egundo aurkitu.

Zer deritxazu: *"Mihinluze asko eta besamotz asko" dagoala entzutean, zer sentidu dozu? Nun ikusten da hori?*

d.- Ereiten dan hazi guztiak ez dau frutu emoten; baina gitxien, ereiten ez danak. Ereindako asko aroak edo xomorroak galtzen dabez; ereiten ez dana lehendik dago galduta. Jantxakurrak kopau gozoak harrapatu ohi dabez, baina lepobete harrikadak ere bai.

Zer deritxazu: *Ez dago dana daukanik, ez ezer ez daukanik. Hartuemonan beharrezkoena zer da: Jarrerea ala zenbatekoa?*



Behin baten, baseritar batek antzar bat eroan eutson bere auzotar aberats Honek ganoraz hegazia prestau eban eta bien artean jan eben. Handik aurrera, ba zan han bisitari jente ugari, adiskidearen adiskide zirala, esanez: "Antzarra ekarri eutsun gizonaren adiskideak gara" Euren ustez, eurak ere bazkari gozoa eta ostatu atsegina hartuko ebezan, dalako adiskidearen antzar horren kontura. Ikusia ikusita, nagusi hori aspertuten hasita egoan. Halako egun batean, ezezagun batek atean deitu eta badinotso: "Ni naz antzarra erregalatu eutsun senidearen adiskidearen adiskide". Eta aurrekoen antzera, mahaian nasai jesarri zan, jaten noiz emongo ete eutson zain. Nagusiak jarri eutson aurrean lapiko bete ur bero. - "Zer da hau?", itaundu eban "senidearen senide" horrek. Eta nagusiak irribarrez: - Hau da nire adiskideak erregalatu eustan antzarraren zopearen zopea"



a.- Zopa gozoa nori ez jako atsegin? Baina nork prestau eta eskeini falta. Ikusten danez, asko dabil baztarretan zopa gozoaren bila. Baina norbera ez bada hartuemon zintzoan sartzen, laster entzungo dau: "Agindua da bat eta emona bi, aginduaz kontenta hadi".

Zer deritxazu: Aberastasuna hartuemonen dago. Hau egitzat badaukazu, zergaitik eta nundik dator aberastasun hori?

b.- Aberatsak mila senide, pobreak ez dauka bat ere. Baina aberatsen senidetzat euren buruak agertzen dabezanak gitxien uste dabenean, kale gorrian gelditu daitekez. Senidearen senidearentzat zoparik ere ez. Lapiko bete ur hotz.


Zer deritxazu: Lapiko- kirtena ala gizon kirtena, zein da kirtenago?

d.- Zenbat lapiko bete leiteken lagunartean banatzeko, bakotxak apur bana batu ezkerro! Esku bi emon deuskuz Jaungoikoak eta bihotz bat; baina bihotz bakarrak agindu ezik, esku biak hartzeko luze eta zabal, baina emoteko orduan patrikaran sartuta bero-bero.

Zer deritxazu: "Senidearen senideak hartu eban antzarraren zopearen zopeak gustu ona euki ete eban? Bizitzara etorrira, holango kasurik ezagutzen al dozu?"

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN “Lk 8, 16-18)

«Inork ez dau kruseilua biztu eta ontzipean gordeten edo ohepean ipinten, bestelan baino, argimutilaren gainean ipinten dau, sartzen diranak argia ikusi dagien. Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez danik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez danik. Kontu izan, bada, zelan entzuten dozuen; izan ere, daukanari emon egingo jako; ez daukanari, ostera, euki uste daukana ere kendu egingo jako».



a.- Ontasuna hartuemonean dago, hor agertu behar dau kristinauak benetako zintzotasuna. Hori da ingurukoentzat argia izatea: “*Argia argi-ontzi gainean ipinten da sartu daitezanak ikusi dagien*”. Ikusten ez dan zintzotasuna ez da sinisgarri. Ikusten ez dan egintza ez da testigantza izateko gai.

Zer deritxazu: *Argia biztu eta ontzi bategaz estaltzea edo ohepean jartzea zer esan gura dau gure bizitzan?*

b.- Emona galdua dalakoan, berez egiten dogu gordetera. Euki nok nork? Norberak dirua ala diruak norbera? Jabe izatea zer da? “*Euki daukanari emon egingo jako, ez daukanari, ostera, badaukala uste dauana ere kendu egingo jako*”. Badaukala uste dauana, orduan ez dauka. Ez baleuka lez bizi da gorde eta gorde.

Zer deritxazu: *Diru-jabeak zelan jokatzen dau eta diruaren morroi danak zelan?*

d.- Okerrena azkenean datorrena: “*Frutua dakarrenari emon egingo jako; fruturik ez dakarrenari, ostera, daukan apurra ere kendu egingo jako*”. Asko zein apurra izan, hartuemonean fruturik emon ez badau, dana alperrik. Kontuak emoteko orduan esku-hutsik.

Zer deritxazu: “*Hartuemoneko kutxa*” dala diru-kutxarik onena esan ohi da; *bateko ehun hartzen ei da, Jaunak dinoskunez. Sinisten al dozu hau?*



ARRANOA IZAN BEHARREKOA OILO GELDITU

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gizakia Jaunak egin dau munduko errege, piztien eta frutarbolen jabe. Eta bateoaren bidez, kristinaua Jainko seme-alaba izateraino jaso izan da: errege, profeta eta abade kategoria dauka. Espirituaren bizileku eta lantegi izatera deitua dago, bere indarrez eta dohaiez ornidua.

Zer deritxazu: *Bai al zenkian kristinau lez hainbesteko kategoria zeunkanik?*

b.- Baina haundi izateko bidean arerio asko dagoz barrutik eta kanpotik:

Barrutik: harrokeria, bide luzean aspertzea, sinismenezko ondasunen bila hasita, bestelakoak -hurrekoak eta itxuraz deigarriagoak- bidean agertzea. *Kanpotik:* irabazira jo, beste guztiak horretan dabiltzala ikusita...

Zer deritxazu: *Pertsona lez heldutasuna zetan dago? Horren bila asko dabil?*

d.- Errezena: beste guztien erroldan sartu eta bizi, huskeri batzuk eginaz, inork igerri barik ibili. Holan inork ez deutsu deituko "zoro", "kaskotik ikutua". Pertsona heldua izateko karreran gehienak biderdian gelditzen dira; gizaki eta "santu frakasatu" asko gure artean.

Zer deritxazu: *Beste gauza askotan errez jokatzen dogu nor gehiagoka; on izatean zergaitik ez?*



Baserritar kazari batek arrano-arrautza bat aurkitu eban mendiko hatxarte bat Etxera joan eta oiloloka baten azpian jarri eban oilo-arrautzakaz nahastean.

Bere sasoiari, arrano kumea ere jaio zan, txitatxoan artean. Handik aurrera, txitak egiten ebena egiten eban arranoak berak ere, bere burua ere txitatzat hartuz: azterka lurra astindu eta kokarrak eta xomorroak janez. Haren ahaleginak pio-pio eta geroago kakara egiten ikasten! Noizipein astintzen ebazan bere hegotsarrak, hegazkada labur batzuek eginez, oilategiko besteen antzera. Zer ba? Beste oiloak ere ez dabe bardin egiten, ala?


Hori bai gero! Bere piko eta erpak ez ziran bardinak, eta pixka bat dotoretu eutsozan jabeak, hegoak ere moztuz, oilo-itxura gehiago emonez.

Urteak joan eta urteak etorri, arranoa ere nagusitu egin zan. Halako batean, zeru urdinean zehar, hegazti haundi harrigarri bat ikusi eban, hego zabalei haizetara eraginez eta hegazkada miresgarriak eginez. Euren ondoan errege jauna zirudian. Arrano zaharraren begiratu beharra!

- Zer dogu hori?, itaundu eutson bere ondoan azterka egoan oiloari.

- Horixe dozu, ba, arranoa, hegazti guztien errege jauna, erantzun eutson oiloak. Baina zuk eta nik ez dogu horretan zertan kezkatu. Zu eta ni beragandik ezbardinak gara, oiloak.

Eta halan zalakoan, arranoak ez eban horren kezkarik gehiago izan. Eta oilategiko beste oilo bat gehiago zalakoan hil zan.



a.- Jatorriz eukan arrano haundia izateko behar eban dana. Baina arrano-arra galanta oilo-arrautza txatxar artean ezarri ezker...; eta oilolokiek arranoku atera, baina inguruak txita izatera eroan eban. Arrano trakets itsusia izateaz lotsatu egin zan. Eta txitak egiten ebena egiten hasi zan. Baina ezin ikasi pio-pio egiten, ezta ibili ere euren pausu dotorez.

Zer deritxazu. *Barruko eraginak baino inguruko indarrak gehiago ahal ete dau?*

b.- Txitak euren tamainuan eta eurenak eginez, gustura bizi ziran, baina arranokumea galduta, zer zanik ere ez... Janaria urri eta egurra ugari bere trabeskeriakaitik. Gu ere bagara ba! Zentzun eta kontzientzi dohaiez orniduta sortu, geroago kristinau bateoz Jainko seme-alaba egin, eta... Zer dakarren nortasunaren jabe ez izateak.

Zer deritxazu: *Zertan dago kristinau baten nortasuna? Zer ezaugarri izan behar ditu?*

d.- Txita-arranoak bere antzeko bat aidean ikusita, odolak ere biztu, hegoak astindu... baina alperrik. "Zu eta gu oilo izateko gara". Ugazabak. badaezpadan erpak, pikoa eta hegoak moztu eta apaindu eta txita jarraitzeko prest.

Zer deritxazu: "Arrano", santu izateko jaio, bateatu eta "txita" gelditu. Ez al dogu parabola honen ispiluan geure burua ikusten? Zelan?



3.- JAUNAREN BEERBEAREN ARGITAN (Jn 3, 1-8)

Nikodemo eritxon gizon batek, fariseuen taldekoa eta juduen buruetakoa bera, gauez Jesusengana etorri eta esan eutson:

–Maisu, ziur gagoz Jainkoak guri irakasteko bialdu zaituana, inork ezin daikez egin-eta zuk egiten dozuzan mirarizko seinaleak, Jainkoa beregaz ez badau.

Jesusek erantzun eutson:

–Bene-benetan dinotsut: Ezin dau inork Jainkoaren erreinua ikusi, bariro jaioten ez bada.

Nikodemok itaundu eutson:

–Zelan jaio daiteke norbait, dagoaneko zaharra izanik? Sartu ete daiteke amaren sabelean eta bariro jaio?

Jesusek erantzun eutson:

–Bene-benetan dinotsut: Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaioten ez bada. Gizakiagandik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu bariro jaio behar dozula esan deutsudalako. Haizeak edonundik jotzen dau; entzuten dozu haren hotsa, baina ez dakizu nundik datorren, ez nora doan. Gauza bera jazoten da Espiritutik jaioagaz.

a.- Harrigarria izan zan Nazareteko Jesusek herriz herri hasi zanean, atera ebar burrundarea: itsuak argitu, herrenak bizkortu, gaixoak eta ezinduak sendotu... Gorputzez baino harrigarriagoak egin ebazan espiritu-aldetik. Hamaika "oilo bus arrano bihurtu ebazan, Jaungoikoa gure Aita dala iragarritz!

Zer deritxazu: *Horra Nikodemo, gizon jakituna eta aginteduna, baina legepean katigu. Gure artera begiratuta, zer ikusten dozu?*

b.- Ilunabarrean, lotsaz eta esamesen bildurrez, Jesusengana doanari, halango kolpea bota eutson: "Ezin dau inork Jaungoikoaren Erreinua ikusi, barriro jaioten ez bada". Hau da, bere nortasunaz jabetu eta erantzuten ez badeutso, Jaungoikoaren seme-alaba lez biziz eta jokatzuz.

Zer deritxazu: *Jesus ez dabil arranoak oilo bihurtzen, oiloak arrano bihurtzen baino. Hori da jaiotza barria. Zer egin hori lortzeko?*

d.- Pertsonaren birjaiotza ezin da gauzatu, Jainko Espirituak lagundu ezik: "Ezingo da inor Jaungoikoaren Erreinuari sartu, uretik eta Espiritutik jaioten ez bada". Jainkoak bere antzeko egin gaitu; bere Seme Jesus bialdu deusku, zelango seme-alabak gura gaituan erakustera.

Zer deritxazu: *Zer sentitzen dozu kristinau izatea santu izatea dala entzutean? Ez pertsona arraroak, zuzen, zintzo, solidario, jainkozale baino. Hau guztia gogoan hartuta, zertara jo behar dogu?*



ASTOA ETA POTZUA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Bakotxak gure burua landu behar dogu; horretarako hartu doguzan ahalmen eta dohaiak alperrik galdu barik. Sarri esaten da gizonik gehienak euren ahalmen erdiak gitxienez estreinatu barik daukezala. Horregaitik da hain garrantzitsua bakotxak bere burua zehatz ezagutzea eta dagokion bizibidea hartzea.

Zer deritxazu: *Ezagutzen al dozu zeure burua? Ahalegindu al zara ezagutzen?*

b.- Pertsonak errez egiten dau gogoko jakon bidera, edo-eta inguruko gehienak hartzen daben bidera. Bideko neke eta arazoak askori eragiten deutse -negar malko eta guzti- beste bide zuzenago bat hartzen; eta lehengoa galtzea, azkena zalakoan, hartu behar izan dauan barria askoz beretzat askoz ere agokiagoa izan da.

Zer deritxazu: *Bizitzako neke-arazoak zelan laguntzen deuskue geure bidean sartzen?*

d.- Azkenean ere, bizitzako eskarmentua, esperientzia da eskolarik onena norbere burua ezagutzeko. Orduan ere, arriskurik haundiena norbere burua engainatzeko joera da. Zorionekoa bizitza sakonetik hartu eta bizi dauana!

Zer deritxazu: *Zaran baino helduago, eginago izan zeintekezala? Zek lagundu deutsu zarana izaten, edo-eta galazo izan behar zeunken mailara heldutea ?*



2.- LAGUNGARRIA “ASTOA ETA POTZUA”

Behinola baserritar baten astoa potzu sakon batera jausi zan. Abere erru ordu luze eta latzak emon ebazan negarrez arrantzaka, bere baserritar ugazabak zer egin erabagiten eban bitartean. Azken batean, baseritarra kontuak ateraten hasi zan bere kautan: Astoa zaharra ere bada-ta, potzua siku ere badagoanez, lurrez beteta hobeto dagonez... egia esateko, ez dau merezi astoa ateraten jardutea. Orduan auzotarrei dei egin eutsen laguntzen etorteko. Danak pala eta guzti jardun eben potzua beteten.

Astoa jazoten zanaz konturatu zan eta atsekabez negarrari emon eutson. Gero guztiz baretu zan, danak harri eta zur itziz.

Palakada batzuk lur bota ondoren, baserritarrak badoaz potzu ondora begiratzen, eta harriturik, zera ikusi eben: palakada bakotxeko, astoak ere jardunean ekiten eutsola: gaineratik lurra astindu eta berak gorago igoten eban apurtxo bat. Laster baten ikusi eben astoa potzuaren ahorraino igonda, ertzetik kanpora brinko egin eta hor doa lauhankan.



a.- Bizitzak guri ere itzelezko "palakadak" botaten deuskuz gainera. Horra astoaren eskolea. Sekretua jakitea ez da txarra: Bizitzako nekeak, sufrimen kurutzak onartu eta erabili behar doguz norbera gehiago izateko bidetzat; astinduago eta norbera gorago. Joko ona, baina gatxa.


Zer deritxazu: *Sufrimentua gizona helduago, gizonago izateko bide izan leiteke?*

b.- Astoaren jokabidea onartzekoa da: besteak bere kalterako egindakoa, norbere mesederako bihurtu. Orduan, ez alperrik galdu indarrak, besteen kontra amorrut bizi eta norberak ezer egin barik. Askatu zeure barrua gorrototik, inbiditik, kontrako esamesetatik. Batu zeure indarrak zeure burua askatzen, kurutze eta guzti sendotzen.

Zer deritxazu: *Astoaren potzuko bidea hartu barik, izan al da kristinau?*

d.- Zure bizitza zeuk egiten dozuna da; ez ibili gehiegi besteei begira eta eurei erruak botaten. Zeure burua landu, arazoak eta sufrimentuak zeuganatu, alperriko eta kaltegarritzko ardurak eta nahasteak bota zugandik urrun. Ziur egon, bidean zehar zoazela, zeu sentiduko zara askatuago, helduago, zeu zeuago. Eta urtengo dozu potzutik.

Zer deritxazu: *Ezagutzen al dozu lagun bat, bizitzako neke eta sufrimentuak gizon eta kristinau helduagoa izaten lagundu deutsonik?*



3.-JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (2Ko 4, 7-11. 5, 1-5)

Baina altxor baliotsu hau buztinezko ontzietan daroagu, garbi agertu dedin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaitue, baina zapaldu ez; larri gagoz, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik itzita ez; lurrera botaten gaitue, baina hondatzen ez; nunahi eta beti Jesusen heriotza daroagu gudan, Jesusen bizia ere gudan agertu dedin. Bizi garan bitartean, beti heriotzara garoaze Jesusgaitik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere agertu dedin.

Jakin badakigu, mundu honetan bizileku dogun oihal-etxola hau hondatzen bajaku ere, Jainkoak prestatutako bizilekua dogula zeruan betiko, giza eskuz egin bakoa. Horregaitik, hain zuzen, intzirika gagoz, oraingoaren gainetik zeruko geure bizileku ha jantzeko irrikaz, orduan lurreko geure gorputzaz jantzirik bagagoz behintzat, eta ez biluzgorri. Bai, oihal-etxola honetan bizi garanok, intzirika gagoz larri, ez dogulako oraingo jantzi hau galdu nahi, hori barik, eta honen gainetik beste jantzia hartu nahi dogu, hilkor dana biziak bereganatu dagian. Horretarako egin gaitu Jainkoak, eta horren garantiatzat Espiritua emon deusku.

a.- *“Altxor baliotsu hau buztinezko ontzietan daroagu”*. Eta lapur asko ingurue Holan dala, arduraz ibili beharra dogu, Jaunagan uste osoa jarrita. Areririk txarrena ingurumarian zabal eta indartsu dabilen bizikera labana da. Etxeko ugazaba makal bada, a zelango hondamendia gitxien uste dan orduan!

Zer deritxazu: *Bere barrua hutsik sentitzen dauanak ez dauka zer galdurik. Zer arrisku ikusten dozu gaur eta hemen kristinauontzat kaltegarriena?*


b.- *“Nunahi eta beti Jesusen heriotza daroagu guregan, Jesusen bizia ere guregan agertu dedin”*. Jakina, hemen harroputzak ez dauka irabazterik.

Apaltasunez Jaunagan uste osoa jarrita lortu leiteke askatasuna. Kanpotik eta barrutik sortzen diran eragin gaiztoak menderatzeko ez gara gauza geu bakarrik.

Zer deritxazu: *Eta geure benetako arerioari burua emon ezkeru, zer? Izan daiteke norbera, norbere heldutasunaren areririk okerrena?*

d.- Astoa karobian ez dago gustura, hawaitik egiten ditu ahaleginak handik urteteko. Gizakia baleiteke gustura egotea bizitzako karobiren baten katigu. Egarri bizia behar da handik urteteko. *“Jakin badakigu mundu honetan bizileku dogun oihal-txabola hau hondatzean, Jainkoak prestatuiko bizilekua dogula zeruan betiko”*.

Zer deritxazu: *Gerokorik ezer benetan sinistu ezik, zeri oratu potzutik urteteko?*



1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Egia esan, ez gara geure buruaren jabe eta helburu. Gure existentzia ez dago gure eskuan. *“Urliak bere burua hil dau”* esaten dogu zoritxar aldi batzuetan. Baina burua hilterik ez dago. Jainkoak bere antzeko egin gaitu, Beragan betiko gara. Gauzak euren sakonean hartuta, “misterioak” dira, batez ere, geure burua, gizakia.

Zer deritxazu: *Sarri egoten zara zeure existentziaren misterioari begira? Zer sentitzen dozu? Bildur deutzazu zeure buruari?*

b.- Nahitaez, gure existentzia alde guztietatik misterioak oratuta dago. Arraina itsasoan lez, gu geure itxaso dan Jainkoagan gagoz. Ez daukagu handik urteterik. Haundiak gara Jainkoaren aurrean; handik ihes eginda, geure burua txikitu baino ez dogu egiten.

Zer deritxazu: *Ba dakizu zer jatzun ongari eta zer kaltegarri?*

d.- Zalantza barik, gure Egile Jainkoak holan egin gaitu. Geure burua onartzeak, berez eroan behar gaitu gure Egile hori ezagutzera, maitatzera eta geure bizitzan onartzera. Jainkoa izan daiteken Aita-Amarik onena izanik, beti bilatzen dau gure zoriona, gure haunditasuna, nahizta sarri ez holan gauzak agertu.

Zer deritxazu: *Bizitzako gorabeherak Jaunaren eskutik hartzea erreza al da?*



2.- LAGUNGARRIA "BANBU KAINABERAREN BALIOA"

"Ba zan loretegi zoragarri bat, ikusita beste barik, amets gozotan jarten eban. Han egoan Ugazabaren etxe ondoan. Arratsaldero bisitatxo bat egiten eutsor maitekiro. Bere begiak beti jotzen eben, sartuaz batera, loretegi erdian tente egoan banbu kainabera lerdan batengana. Ikustekoa zan, izan ere, bere luzera, lerdentasun, liraintasun eta guzti. Eta banbu kainabera bera ere laster konturatu zan bera zala loretegiko Jaunaren begikoena. Halako egun baten, Ugazaba hurrerratu jakon. Bere arpegia ez zan bestetan baizen distiratsua. Ahost samur isilez esan eutson:

- Ene banbu kainabera maite, zu behar zaitut! Banbu kainabereak ez eban ulertzen Jaunak zergaitik berba egiten eutson hain misteriotsu, eta adore emon nahirik, erantzun eutson:

- Osorik nozu zurea, Jauna... Kontau egizu nigaz nahi dozun guztirako". Baina ez eban lortu Jaunaren arpegia alaitu eta gozatzea.

- "Ene banbu kainabera maitea, zugaz kontatzeotan, atera egin behar zaitut".

- "Atera? Baina benetan dinozu? Holan bada, zergaitik egin nozu zure loretegiko arbolarik ederrena? Ez, mesedez! Nahi dozuna, baina horixe ez, gero!"

Jaunak ez eban atzera egin.

- "Ene banbu kainabera maite, ateraten ez bazaitut, niretzat ez zara gauza ezertarako". Biak gelditu ziran isilik, zer esan ez ekiela". Haizea ere gelditu egin zan eta txoriak hegazkadarik ere ez, eta mutu: astiro, oso astiro, banbu kainabereak bere orri dotoreak makurtu ebazan eta ahots apalez esan eban:

- "Jauna, atera barik ez banaiatzu ezertarako gauza, atera nagizu!"

- "Ene banbu kainabera maite, jarraitu eban Jaunak, oraindik ez deustut dana esan: orriak eta adarrak ere ebagi egin behar deustudaz."

- "Jauna, ez egidazu holangorik egin!. Orduan zertarako nozu loretegian? Itxura bako ezgauza bat izango naz!" Eta barriro ere Jauna berean:

- "Orriak eta adarrak ebagiten ez badeustudaz, ez deustazu balio ezertarako".

Orduan eguzkia ilundu zan eta txoriak igesi joan ziran loretegitik. Dardara baten, banbu kainabereak berba honeik esan ahal izan ebazan:

- "Ebagi egidazuz!" Eta Jaunak aurrera egin eban, esanez:

- "Ene banbu kainabera maitea, oraindik ere ba dot, zuri eskatzea asko kostatzen jatan gauza bat: Erdetik zati bitan ebagi behar zaitut eta barruko zumo guztia atera behar deustut. Hori barik ez deustazu ezertarako balio". Banbu kainabereak ez eban tutik atera. Burua lurrera bota eban eta osorik eskeini jakon Jaunari. Holan dala, loretegiko Ugazabak banbu kainabera lerdana atera eban, orriak eta adarrak kendu eutsozan, zati bitan ebagi eban eta barru osoa hustu eutson. Gero ur fresko eta garbia eriola egoan iturrira hurrerratu zan, eta kontuz lotu eban Jaunak banbu kainaberaren mustur bata iturrira eta bestea inguruko solo eta zelai zabaletara luzatu eban. Iturritik erion ura hasi zan astiro-astiro solo-zelaietara joaten banbu kainaberean zehar. Behingoan hasi ziran baztarrak berdetuten. Udabarria heldu zanean, Jaunak arroza erein eban, hazia erne eta hazi zan, eta hango uzta ugariz herri osoak nahibeste jan ahal izan eban. Banbu kainaberea lerdan eta lirain zanean, bera bakarrik eta

beretzat bizi eta hazi izan zan. Orain, lurrean apal eta luze etzunda, urbide aberasgarri bihurtu zan, eta, berari esker, Jaunak bere etxeokak janaritu ahal izan ebazan eta bere Erreinua frutu ederrez bete.

a.- Dana galdu behar, dana eta gehiago hartzeko. Bagenki hainbeste haizkorakada zetarako diran edo zergaitik emoten deuskuzan gure gainetik dagoanak. Eta, gainera, dana geure onerako, gure onguraz eta maitasunez egiten dauala... Hau bai dala "misterioa", hor isilean dabilen Aitaren eskuari oratu eta mun eginaz onartzekoa.


Zer deritxazu: *Osagilearen eskuetara errez moldatzen gara? Eta Jaungoiko Aitaren eskuetara bizitzako ebakuntza gogorretan? Zer alde dago?*

b.- "Osorik nozu zurea, Jauna. Egizu nigaz nahi dozuna". Sarri negar malko eta guzti esan behar. Hemen ez dago buruz eta logikaz jokatzetik; hemen ezin doguz geure erara kontuak atera. Guk dana hondatu dala uste dogunean, orduan izan daiteke bizitzan gorakadarik haundiena egiteko ordua.

Zer deritxazu: *Zeintzuk ete dira Jaunaren guraria eta helburuak gure bizitzan?*

d.- Banbu kainaberea bai liraina eta lerdena, ikusgarria; baina bera bakarrik. Zeozertarako baliogarri izateko, ebagi, hustu egin behar. Besteentzat ongarri izateko, norbere burua ukatu egin behar. Bizi barria sortzeko, bide barri bat hasteko, adar eta abar ebagi egin behar.

Zer derixazu: *Bizitzan noiz sentitzen zara besteentzat baliogarri?*



3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 22, 39-46)

“Ondoren, Jesus urten eta Oliamendirantz abiatu zan, ohi ebanez, eta ikasleak ere bai haren ondoren. Hara heldutean, Jesusek esan eutsen: «Egizue otoitz, tentaldian ez jausteko». Eta, hareekandik harrikada bat bide aldendurik, belauniko holan egiten eban otoitz: «Aita, nahi badozu, urundu egizu nigandik edari samin hau. Halan ere, egin bedi zure nahia, ez nirea». Zeruko aingeru bat agertu jakon, adore emonez. Eta, larriak harturik, oraindik lehiatsuago egiten eban otoitz. Izerdia tantaka erion lurrera, odola baizen lodi. Otoitzetik jagirik, ikasleengana joan zan; nahigabearen nahigabez lokarturik aurkitu ebazan, eta esan eutsen: «Zelan zagoze lo? Jagi eta egin otoitz, tentaldian ez jausteko».



a.- Jesus benetan maisu argia eta zuzena da, ez dau inor engainatzen, ez dabil inori eder egiten. Bere bizitza da eskolarik onena. Hagaitik, Ebanjelioak dinonez, *“Jesus egiten eta irakasten hasi zan”*. Kainaberaren ordurik gogorrena heldu jakonean, Aitaren aurrera doa, guztioi mandatu zuzena emonez: *“Egizue otoitz tentaldian ez jausteko”*.

Zer deritxazu: *“Ez naz etorri neure gogoa egitera, bialdu nauan Aitaren gogoa egitera baino”*. Erakutsi ona, ezta?

b.- Burruka latza heldu jako Jesusi ere. Berak esan eban lez: *“Galgaraua lurrera jausi eta usteltzen ez bada, ez dau fruturik emongo”*. Nahi eta ezin iruntzi edari garratza: *“Ahal bada, kendu Nigandik... (“ez egidazu hori egin”...) baina egin bedi Zeuk gura dozuna”*. Berak galdu behar, Beragaz batera beste guztiok bizibarrizteko, irabazteko.

Zer deritxazu: *Kurutzean, sufrimentuan dana galtzea, Jaunaren asmoetan askoren salbamenerako dala? Balio deusku honek ezertarako?*

d.- Eta kainaberaren antzera Jesus ere: *“Burua lurrera bota eban eta osorik eskeini jakon Jaunari”*. *“Aita, egin bedi Zuk gura dozuna. Zure eskuetan izten dot nire espiritua”*. Aitak daki, eta ez nik, hemendik zer atera gura dauan. Maite nauana badakit, hori ikusita daukat bizitzan; larritasun honegaz zer gura dauan ez dakit; dakidan bakarra: neure eta beste askoren onerako izango dala.

Zer deritxazu: *Fiatzen al zara Jaungoiko Aitagaz, Berak gura dauana gugaz egin dagian? Zelan geugandu horrenbeste indar eta argi?*

BEGIRA EGUZKIARI, BAINA JATSI TABORRETIK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Zein gatxa dan bizitzan oreka zuzena gordetea! Behin lurreko zomorro bihurtuta, behin zeruko izar artean dantzan. Anbotoko dama gogoangarriak lortu ei eban oreka hori: *“Sasi danen gainetik eta laino danen azpitik”* ibili ohi zan. Gizakia nahiko errez puztuten dan puxika da, edo-eta errez narraz dabilen zomorroa.

Zer deritxazu: *Zerk eragiten deusku gorantz eta zerk beherantz?*

b.- Gehiegi lurrera begira bizi danean, gizarki materialista bihurtzen da: lan eta lan eta irabazi, irabazi eta gozamenean murgildu... Hori da gaurko gizakiaren helburua eta ametsa. Agur orduan alkarlaguntza, errukia, otoitz egitea, atsedena, adiskidetasuna. Holangoa atseginkeria menpe eta zerbitzura dago.

Zer deritxazu: *Posibleal da gizaki-aberea izatea? Zer ezaugarri dau holako batek?*

d.- Baina bada beste giza-erraza bat, aingerukerietan nahastuten dana: munduko ardura eta eginbeharretatik urrun aldenduten dana, mundua inpernu gorria dala-eta. Kontenplazino luzeak eta konpromiso motxak. Eta ez uste holakoak ere, materialistak baino ardura gehiago hartzen dabenik inguruko arazoetan. Geroko bizitzaren atxakiz, hemengoari lepoa emonda bizi dira.

Zer deritxazu: *Zuk zelan orekatuko zeunkez jokabide biok?*



Halako gazte batek espiritu-maisuagana hurreratu eta itaunduten deutso:

- "Urte askotan nabil goi-argiaren bila; susmatzen dodanez, hur-hurrean nabil. Jakin gura neuke zein dan hurrengo pausoa".

- "Zertatik bizi zara?", itaundu eutson maisuak.

- "Oraindik ez dot ikasi neure kontura bizitzen; aitak eta amak lagunduten deuste. Dana dala, horrek gitxi ardura deust".

- "Hurrengo pausoa hauxe dozu: minutu erdi eguzkiari begira egon, gaineratu eutson maisuak. Eta holan bete eban agindua.

Gero maisuak zera eskatu eutson:

- "Kontau egidazu zelango zelai eta mendi inguruak dozuzan aurrean".

- "Ezin dodaz ikusi; eguzkiaren argiz nire begiak itsutu egin jataz", erantzun eutson ikasleak.

Maisuak orduan:

*- "Argia bakarrik bilatzen dauan gizona,
bere ardurak besteen kontura itzita,
goi-argia aurkitu barik gelditzen da.
Eguzkiari adi-adi bere begiak daukazan gizona
azkenean itsu gelditzen da".*



a.- Gaztea berez da ameslari, eguneroko bide latzean errez itoten da. Egunerok aren laztasunak eragiten deutso errealtatetik ihes egitera. Itxurosoagoa, lirainag gura. *“Orandik ez dot ikasi neure kontura bizitzen... Gainera horrek gitxi ardura deust niri”*. Bizitza holan dalakoan! Ur gaineko bitsetan igeri.


Zer deritxazu: *Ahuntza lez, eguneroko taketari kate motxean lotuta zer arrisku dago?*

b.- Monastegiko maisuak laster antz emon eutson gazteari: *“Egon minutu erdi eguzkiari begira”*. Argiaren argiz begi biak bete arte. Ilunaren ilunez ez dira gauzak ondo ikusten, baina argiaren argiz ere... Aurreko zelai-mendiak ezin ikusi. Eguzkiaren argiz begiak itsutu.

Zer deritxazu: *Gaurko bizi-giroan, zeren arrisku gehiago dogu: ilunarena ala argiarena? Zer sentitzen dozu familiari, Eleizeari begira?*

d.- Tabor mendiko gozotan ondo, baina eguneroko tanborra bete behar. Haizearen erara beti hegaz egiterik ez dago. Etenbako eguzki bero eta gozotan ere ez da arto solorik beteten; danetarik behar dau, bizarra baltzitu eta buru biribil ederra erakusteko.

Zer deritxazu: *Eguzkia, berari begira egoteko da, ala bere argiz lan egiteko?*



3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN: (Mk 9, 2-10)

Handik sei egunera, Jesusek Pedro, Santiago eta Joan hartu eta mendi goi t eroan ebazan aparte. Eta antzaldatu egin zan hareen aurrean: jantziak distiratsu bihurtu jakozan, zuri-zuri, munduan inork jarri leikezan baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu jakezan Jesusegaz berbetan. Pedrok esan eutson Jesusi: «Maisu, zein ederto gagozan hemen! Zergaitik ez egin hiru etxola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat?» Ez ekian zer esaten eban ere, bildurrak jota egozan-eta. Orduan, hodei batek estaldu ebazan eta berbeta hau izan zan hodeitik: «Hauxe dot neure Seme maitea. Entzun berari!» Eta haretan, inguruan begiratu eta Jesus bakarrik ikusi eben beragaz, eta besterik inor ez. Menditik beherakoan, ikusitakoa inori ez aitatzeko agindu eutsen, harik eta Gizonaren Semea hildakoen artetik biztu arte. Agindu hau bete eben, baina «hildakoen artetik biztute horregaz zer adierazo gura ete eutsen ziharduen euren artean.



a.- Eguneroko bizimodu latzetik urtenda, egoki jatorkuz atsedenaldir batzuk. Gizakia ez da lan eta lan diharduan makina bat. Behar dau bestelako janari bat ere; *“Ez da ogi hutsez bizi”*. Baina, kontuz! Errez bertakotuten da, *“txabolak”* egiteko prest sentitzen da. Noizbehinka bizitzatik apartatzea mesedegarri jaku baina aparte gelditu barik; handik bizitzari beste alderdi batetik begiratzeko.

Zer deritxazu: *Taborreko Jesus da benetakoa? Eta Kalbariokoa?*

b.- Pedroren ametsa ulertzekoa da: *“Maisu, zein ederto gagozan hemen! Zergaitik ez egin hiru txabola?”* Holan balitz, orduan bai eleizak beterik! Orduan bai Jesusek jarraitzaile ugari! Gizaki gixajoa era askotara mozkortzen da: *“Ez ekien zer esaten eben ere”*. Beti holantxe izango dalakoan, ametsetan.

Zer deritxazu. *Tabor mendiko pozaldia alperrikoa ete da? Zer onik atera geinke bizitzarako?*

d.- Ametsetatik itzartu ziranean, barriro ere lehengo Jesus bakarrik ikusi eben. Besterik inor ere ez. Ikusi ebenaren poza benetakoa izan da, Jesus bere osotasunean hori ere bada ta, baina geroko geroan: *“Ikusitakoa ez inori aitatu, harik-eta Gizonaren Semea hilen artetik biztu arte”*. Taborretik barik, Kurutzetik, Kalbariotik biztuerara.

Zer deritxazu: *Tabor eta Kalbarioaren arteko Jesusi jarraitzeak zer eskatzen deusku?*

BENETAKO ZORIONTASUNA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a. Sasoian sasoiko egarriari erantzunez, gizakia beti dabil zoriontasun-egarriz iturri bila. Jakina, ez da bardin potzu zikinetako urez asetzeari edo polpol darion mendiko iturri garbitik edatea. Eta bai batak eta bai besteak edanago eta egarriago; baina batetik edo bestetik asetzuz, gizakia ez da bardin gelditzen.


Zer deritxazu: Ondasuna eta ontasuna biak behar zoriontsu izateko. Zoriontsuak bien arteko oreka lortu dabenak! Zelan lortu oreka hori?

b. Gehienek ustez, zenbat eta gehiago euki, zoriontsuago. Itxurak egin bai behintzat. Banaka batek, barrutik argituak-edo, zenbat eta besteakaz gehiago konpartidu, zoriontsuago.

Zer deritxazu: Zure inguruan bietakoak izango dira. Talde bakotxak zelan eta zelan agertzen dau bere zoriontasuna?

d. Bakotxak zoriontasuna zertan ipinten dauan jakiteko, ona da zer modutako jentteagaz egiten dauan hartuemonari. Benetako zoriontasunak gizartea bardindu egiten dau, ustelak ezbardindu. Goikoak eta behekoak, haundiak eta txikiak...

Zer deritxazu: Izan ete daiteke maitasun bako zoriontasunik?



2.- LAGUNGARRIA “BENETAKO ZORIONTASUNA”

Behin baten, amerikar bankari bat portu baten begira egoan, arrantzal bere txalupatxoan bertara hurreratzen zan bitartean. Txalupa barruan hainbat atun eder agiri ziran. Bankariak arrantzalea goraldtu egin eban, arrantzu ona egin ebalako, eta horretan zenbat denpora emon eban itaundu eutson.

- “Denpora gitxi”, erantzun euson arrantzaleak. Amerikarrak barriro ere:
- “Zergaitik ez dozu luzaroago arrantzuan jarduten eta arrain gehiago harrapatu?”
- “Nik honegaz nahiko daukat neure familiarentzat”. Amerikarrak barriro ere berean:
- “Eta zer egiten dozu gainerako denpora guztian?” Arrantzaleak behingoan erantzun eutson:
- “Berandura arte lo egiten dot; pixka baten arrantzura noa, neure seme-alabakaz jolas egiten dot, lagunartean gitarra ere jotzen dot. Nire bizitza betea eta gozoa da” Amerikar bankariak arrantzalea ulertu ezinik badinotso:
- “Ni Harvard-ko MBA bat naz eta nahi dozun arazoan lagundu neizu. Denpora gehiago emon behar zeunke arrantzuan eta handik lortutako diruaz arrain-ontzi haundiagoak erosi, eta flota ikusgarria bideratu zeinke. Bai, arrainak harrapatzea eta salmentako hartuemonak hobeto zaindu behar zeunkez. Herritxo honetatik urten eta Mexikora aldatu, gero Angeles-era eta azkenean Nueva York-era, handik zure entrepesa osoa errez eta zabal moldatuko zeunke”. Dana isilik entzun ondoren, arrantzaleak itaundu eutson:
- “Eta guzti horretarako zenbat denpora behar da?”
- Eta bankariak erantzun:
- “15 urtetik 20ra bitartean”
- “Eta gero zer?” Amerikar bankariak barre egin eban eta horixe zala zatirik gozoena, erantzun eutson:
- “Une egoki baten zure entrepesako akzinoak salduko zeunkez. Aberats egingo zintzatekez, miloi pilo bat eskuratuz”. Eta arrantzaleak ere bereari eutsiz.
- “Miloiak..., miloiak... Eta gero...zer?”. Amerikarrak buruari eraginez:
- “Gero itsas ertzeko herritxo batera aldatu zeintez; han bai egin zeinkela lo nasai berandura arte, arrantzu pixka bat egin, zeure lagunartean gitarra jo, ezelango ardura barik”. Arrantzalearen azken erantzuna gogoan hartzekoa izan zan:
- “GAUR bertan ez al daukat hori guzti hori?”.



a. Benetako zorientasuna barrutik sortzen da, ez kanpotik. Benetako zorientasunak ez dago bakotxak daukazan ondasunen arabera. Gizakia ez da gauza ondasun askoren jabe izateko; morroi bai, jabe ez. Jabe izateko, nahi dauana barik, behar dauana egin behar dau.

Zer deritxazu: Ondasunen jabe danak baditu jarrera eta ezaugarri batzuk. Gogora ekarri bi edo hiru.

b. "Eta gero zer"? Itaun bardinak egiten eutsozan Loiolako Inaziok Xabierko Frantziskori. Gero, gero... Gerokoaren esperantzan, eskuan daukaguna alperrik galdu. Eta *geroko* hori arrantzaleak aurretik eukan beragan, gauza gitxiagogaz.

Zer deritxazu: Geroko hori sinistek indarra kentzen ete dau, hemengoa eta gaurkoa pozik eta zoriontsu bizitzeko?

d. Gaur asko erabilten dan berba bat hauxe da: "Heziketa": gazteak eta nagusiak bizitzarako hezi, eskolatu, trebetu, bide onean jarri. Jakina, guraso eta maisu, eleizgizon eta jakitun, balio batzuetan oinarritzen dau bakotxak bere heziketa.

Zer deritxazu: Gaur egun karrerak, tituluak, "kurrikulumak" eta abar zeri begira dagoz? Zer helburu jarten jake aurrean? Zoriontsu izateko egokiak?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 6, 19-23. 31-34)

Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko dozuen pentsatuz. Fedebakoak arduratu ohi dira horreek guztiekaz; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra dozuena. Arduratu zaiteze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia beteteaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emongo deutsue Jainkoak. Ez arduratu, bada, biharko egunaz, biharkoak ere ekarriko dau-ta bere ardurea. Nahiko ditu egun bakotxak bere buruhaustek.



a. Jesusen begiradea zorrotza da eta azaletik barruko unetaraino sartzen da. *“Ondasun batzuk ez pilatu”* dinosku, eta *“beste ondasun batzuk bilatu”*. Lehenengoak lurrezkoak dira, bigarrenak espirituzkoak; lehenengoak gizona morroi bihurtzen dabe, bigarrenak jaun eta jabe.


Zer deritxazu: *Ondasunak pilatu ala ontasuna bilatu, zerk egiten gaitu gizonago?*

b. Honetan datza gorabehera dana: *“Zure begia onik badago..., zure begia gaixorik badago...”*. Bihotza zelangoa, begiak halangoak; bihotzak zer egarri dauan, bere gustuko iturri bila dabil.

Zer deritxazu: *Nazaretako Maisuaren heziketa honek balio ete deusku gaurko bizitzarako?*

d. Maisuaren kontsejua: *“Bilatu egizuez Jaungoikoaren Erreinua eta haren zuzentasuna, eta gauza guztiok gehigarri emongo jatzuez”*. Goragoko balioz betetzen badozu bihotza, beheragokoetatik erdiak ere nahiko izango dozuz, hartu nahiz itzi errezago egingo dozu.

Zer deritxazu: *Lagunartean ondasunak konpartitzean, emon baino hartu gehiago egiten dala dīnoe. Bai gero? Zuk zer dīnozu?*



BIHOTZ-HONDOAN

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Ez dalakoan ere, gaur egun guk uste dogun baino gehiago dabil Jainko-bila, bide guztiz ezbardinetatik ibiliz. Euretari gehienak liburuetan, erlijino ezbardinak ezagutuz, esperientzi arraroak eginez. Norbere ahaleginez Jainkoa harrapatuko dabelakoan. Esperientzia egin eban batek inoan: *“Neuk Jainkoa harrapatuko nebalakoan, Berak harrapatu nau neu”*.


Zer deritxazu: *Geu gabiltz Jainko-bila, ala Bera dabil gure bila?*

b.- Jainko-bila dabilenetatik zein gitxi sartzen diran euren barrura, bihotz-hondora. Beragaz bat egitekotan, norbere barruan egingo dogu bat Jainkoagaz. Norberagan aurkitzen ez dauanak, ezin dau kanpoan aurkitu. San Austin honetan maisu haundia dogu, esperientzia-bidez: *“Jauna, ni zure bila luzaro ibili naz, baina ezin izan dot Zugaz bat egin. Orain konturatu naz: zelan Zugaz bat egin kanpoan, Zeu neure barruan egonda?”*

Zer deritxazu: *Jainkoari zeure barruan leku, denpora eta gogo gehiago emonda, ez zeunke Beragaz errez bat egingo? Zer uste dozu?*

d.- Jainkoaren bila astiro ibili behar ei da, eta ibilaldiak barrurantz egin. Zeugaz etxean dozunaren bila ez daukazu inora bila joan beharrik. *“Erromes zaleak nekez santutzen dirala”* inoan Santa Teresak. Jainko-bila ibili barik, egon eta egon egin behar da, Berak txandea noiz emongo.

Zer deritxazu: *“Santiagorako bidea” egiten daben gehienak “Santiagoren bidea” egiten dabela uste dozu?*



2.- LAGUNGARRIA "BIHOTZ-HONDOAN"

Euskalerriko kontu zahar batek dinonez, Jainkoa aspertu egin zan jenteagaz, eten barik eskatu eta eskatu jarduten ebelako, gogogaikarri izateraino.

Behin batean Jainkoak badino bere kautan: "Aldi baterako ezkutatu egin behar naz". Bere lagun kontseilariei itaundu eutsen:

- "Zuen ustez, nun ezkutatu naiteke? Nun da lekurik egokiena?"

Batzuen ustez, lurreko gailurrik gorenean izan leitekela. Beste batzuen ustez, itsas-hondoan. Baziran iretargitik goragoko izarren artean, uste ebenak ere, sekula inortxo heldu ez dan lekuren bat.

Orduan Jainkoak bere aingeru argienari deitu eta:

- "Zuk zer dinostazu? Nun ezkutatu naiteke ondoen gizonen bistatik"?

Aingeruak, orduan, arpegia irribarrez eta pozez beterik dinotso:

- "Ezkutatu zaitez gizonaren bihotz-hondoan; horixe da eurak egundo sartzen ez diran lekua".



a.- Jainkoaren bila zenbat eta urrunago joan, Bera urrunago sentitzen da. Jainkoa Bera ere aspertu egiten da zerura begira egiten jakozan eskabideakaz. Kontseilariak ere gehienak urruneko lekuak ipinten deusot aurrean. Baina... Jaungoikoa ezin da joan dagoan baino urrunago. Urruntasuna ez da lekuz egiten

Zer deritxazu: *Zure ustez, asko al dira Jainko-bila barrurantz egiten dabenak?*

b.- Aingerua bai argia! Benetan leku sakona gogora ekarri eutson Jaunari: *"Ezkatatu zaitetz gizakiaren bihotz-hondoan, horixe da eurak egundo sartzen ez diran lekua"*. Hori ere badok, ba! Bera geugan, geu baino hurrago egon, eta gu jo ta ke urruneko Jainkoari deika. Bera guganaino jatsi eta gu lainoetara goaz bere bila.

Zer deritxazu: *Hain gatxa ete da, ba, norbere bihotz-hondora sartzea?*

d.- Urpekariak itsas sakonera sartzeko oxigenoa eroaten dabe. Gure bihotz-hondora jasteko ere ondo prestatu beharra daukagu, bestelan ito egingo gara edo ur azalean gelditu. Espiritu Santuaren oxigenoa beharrezko dogu. Bestelan gure meza, sakramentu, otoitz etabar zertan gelditzen dira?. Otoitz-bide dira?


Zer deritxaxu: *Jainkoaganako bidean zelan hasten zara? Zeu bakarrik?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 6, 5-7)

«Otoitz egitean, ez egin itxurazaleak lez: gogoko dabe sinagoga eta plazetan zutunik otoitz egitea, jentearen agirian. Benetan dinotsuet: Hartua dabe euren ordaina. Zu, ostera, otoitz egiteko, sartu zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan dagoan zeure Aitari, eta ezkutukoa ere ikusten dauan zeure Aitak emongo deutsu ordaina.

Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak ohi daben lez, uste dabelako euren berba-jarioari esker entzungo deutsela Jainkoak.


Ez izan horreen antzeko, zuen Aitak bai badaki zeren beharra dozuen, zuek eskatu baino lehen



a.- Otoitzerako ez dago inora joan beharrik; noiznahi eta nunahi Aita guri entzeko eta berba egiteko prest dago. Sinagogetan eta kaleburuetan alperrik zarataka ekin. Hori azalhutsak egiten dabe, barrura sartzeko adorerik eta zintzotasunik ez dauke-ta. *“Zuk otoitz egin dagizunean, sartu zaitetz zeure gelan”*. Gela hori zeu zara, hortxe daukazu gau eta egun zeure zain.
Zer deritxazu: *“Gelan sartu”, beste zeregin eta ardura barik. Ez dago bide batez Aitagaz otoitz egiterik? Legea betetzea ez al da nahiko?*

b.- Guk gelan sartu-urtenak errez eta arin egiten doguz, batez ere, barruan inor sentitzen ez badogu. Jesusek baekian honen barri: *“Atea itxita gero, otoi egiozu han isilean dagoan zure Aitari”*. Han dagoan Aitari, baina atea ondo itxita, hau da, bestelako ardurak eta zereginak itzita. Ateak ondo ixten ez badira, ez eleizan, ez etxean, ez inun ezin da Aitagaz bat egin.
Zer deritxazu: *Zer garrantzi eta ardura emoten deutsozu otoitz, meza hasierako isiltasunari, prestaerari?*

d.- Jakina, Aita honegaz ez dago zertan zarataka ibili, entzumen ona dauka, berba barik ere entzuten daki; eta, gehien batean, berba bako otoitza -begiz begi, bihotzez bihotz- Berari isilean egitea nahiago.
Zer deritxazu: *Aingeruaren kontsejua jasota, zer argi edo gogo hartu dozu?*



BIHOTZIK EDERRENA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Horrek dauka bihotz ederra!, esan ohi dogu. Marrazkiz edo argazkiz ikusgarriak moldatu leitekez, baina paperean erakusteko. Osagileak ere badakie zer dan bihotz ederra, baina haragizkoa, sarritan maitatzen gitxi gastatutakoa. Mosu asko eta berba laban ugari isuritakoa.

Zer deritxazu: *Bihotza esatean maitasuna esan gura da askotan. Zenbat eratarata agertu daiteke benetako maitasuna?*

b.- Maitasuna hartuemonean agertzen da; batez ere, hartu danari eta hartuko danari begira egin barik. "On eginaren pagua, ate ostean palua" egi bihurtzen danean, orduan da benetako maitasunaren ordua.

Ze deritxazu: *"Egizu on, ez dakizula non". Zer esan gura dau?*

d.- Eguzkiarena argi ta bero egitea da, baina sarri ez dogu bere argirik ez berorik hartzen; bitarteko lainoak eragozten dabe edo norbera ezkutuan gordetzen da. Baina eguzkiak bere aldetik berotzen irauten dau.

Zer deritxazu: *Eta seme-alabok zeruko Aitaren antzekoak izan behar dogula, dinosku Jesusek. Horren aurrean zer dinozu?*



Halako egun eder batean, gizon gazte bat oihuka herriko plaza erdia daukat hemen inguruko bihotzik ederrena”. Jentetza haundia batu zan bere inguruan, eta guztien eritxiz, benetan bihotz eder haundiko gizona zan; ez zan bere bihotzean ezertariko zauririk aurkitzen. Gaztea gero eta harroago, guztien eritxiz ezagutu zanik bihotzik eder sendoena berak eukala eta.

Ustekabean, aguretxo bat hurreratu eta badino: “Zer esaten zabiltz, zure bihotza ez bada nirea baizen eder sendoa”? Harrituta, jentek eta gazteak ikusi eben agurearen bihotza: benetan ederra zirudian, baina zauriz eta zimurrez beterikoa, baztar batzuetan zatitxo batzuk ere falta jakozan. Areago, han-hemen zuloxo batzuk ere agirian. Jentek harrituta inoan: “Zelan esan leike horrek bere bihotza hain ederra danik?” Gazteak ikusi eban agurearen bihotza eta hain hondatua ikusita, barreari emon eutson:

- *“Zu ez zagoz sano! Zer da zure bihotza nirearen ondoan? Nirea osoa eta sendoa; zurea, barriz, zauriz eta zuloz beterikoa”.*
- *“Egia dinozu, gazte; baina nire bihotzaren edertasuna beste bide batetik doa. Begira, zauri bakotxak, gehiago ezinean maite izan dodazan pertsonak, esan gura dabe. Nire bihotzaren zatiak hartu eta maite izan dodazanei banandu deusdaz. Euretari askok euren bihotz-zati bana bihurtu deuste, nirean zabalik gelditu zan zuloa beteteko. Jakina, zatiak ez ziran bardinak, horregaitik gelditu dira ertz batzuk desegoki; eta hau pozgarria da niretzat, konpartidu dogun maitasuna gogoratzen deustelako. Bai, badira beste zati batzuk emonak, eta ordezkorik jaso ez dabenak ere. Horreek dira hutsuneak, zuloak. Maitasuna emotea harriskatzea da; baina gelditzen diran zuloak, hain mingarriak izan arren, oraindino ere maitatzen jarraitzen dodala gogoratzen deuste eta baleiteke egunen batean konturatu eta itzitako hutsune horreek beteko deustezala. Ulertzen dozu orain, gazte, zergaitik dan ederra nire bihotza?”*

Gaztea isilik egoan, bere begietatik malkoak eriozala. Agurearengana hurreratu zan, bere bihotz gazte eta ederraren zati bat hartu eta eskeini eutson. Agureak hartu eta bere bihotzeko zulo baten ezarri eban; ondoren, bere bihotz zaharreko zati bat hartu eta gaztearen bihotzeko hutsunea bete eban. Zuloa bete bai, egin eban, baina ertzak itziaz. Ez zan hain itxuroso gelditu, zatiak ez ziran bardinak eta. Gazteak ikusi eban bere bihotza, eta ez zala hain perfekto gelditu, baina lehengoa baino argitsuagoa zan, agurearen maitasuna bor-bor egoan barruan-eta.



a.- Gaztearen maitasuna gozoa, ameslaria, borborka dariola dagoana, akal bakoa. Aititaren maitasunak beragan daroaz irribarre eta malko asko nahas: Bera ere gazte izandakoa da, bera ere gaztetan amets asko egindakoa da, baina lore asko orbel bihurtu jakoz.

Zer deritxazu: *Zertan dira ezbardinak gaztearen eta aititaren maitasunak?*

b.- Parabolak agertzen danek, aititaren bihotzaren edertasuna zauri, akats, hutsune eta guztikoa da. Bere bizitza osoko maitasun esperientziaren zauriak emon deutsoe maitasunean garbitu eta sendotzeko aukerea.


Zer deritxazu: *Zertan agertzen dau aititak bere bihotzaren edertasuna?*

d.- "Ni Jaunagana noanean, neure bihotza izenez beterik erakutsi gura deustat", inoan aitita batek. Askok pago gerrietan-eta idazten dabe maite dabenaren izena, aititak bihotzean eta sarritan malkoz idatzita. Badira, izan ere, zahartzaroan gazteak eurak baino ere samurrago eta gozoago maitatzen jarraitzen dabenak. Adoragarriak dira.

Zer deritxazu: *Bihotzak gero eta ederrago egiteko bidean ba al dago jubilazinarik?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 5, 43-48)

«Badakizue legean agindua: Maitatu lagun hurkoa eta gorrotatu arerioa. Nik, barriz, hau dinotsuet: Maitatu arerioak eta egin otoitz pertsegitzen zaituenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko seme-alaba izango zaree, harek zintzoentzat eta gaiztoentzat ateraten dau-ta eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzenbakoentzat isurtzen euria. Izan ere, maite zaituenak bakarrik maite badozuez, zer sari zor jatzue? Zergalariak ere ez al dabe beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badozuez, zer egiten dozue apartekorik? Jentilak ere ez al dabe beste horrenbeste egiten? Izan zaiteze, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona dan lez.



a.- Guretzat gatxa da Jesus Maisuak maitasunari buruz erakusten deuskuna betetzea, geuretzat bakarrean ezinekoa. Holan dala, maitatzea, benetan maitatzea benetan gatxa da. Arerioak maitatzeko agintzean, zeruko Aita ipini deusku aurrean. Ez deusku auzoko bat, ez gotzain edo Aita Santua eredutzat ipinten, bada ezpadan ere gora jotzen dau.


Zer deritxazu: *Benetako maitasuna beti da ezfi gozoa, ala malkoz bustitakoa ere izan ete leiteke?*

b.- Batzuetan berez eta errez egiten jaku maitatzea; beste askotan bihotzaren berezko sentimentuen gaintik jokatu beharra izaten dogu. Maitasun kontuan ez dago bere esperientzia ez dauanik inor. Eta hauxe izango ei da Jaunaren aurrean bakotxaren azterketa gaia.

Zer deritxazu: *Parabolako gazteak ala aititak dauke Kurutzeko Jesusen Bihotzaren antz gehiago?*

d.- Jesus Maisua, beste ezertan baino gehiago, bere neurribako maitasunean da gure eredu. Hagaitik Berak bitariko maitasunak bereizten ditu: Jentilen maitasuna eta bere Aitaren antzeko seme-alaben maitasuna. Horretarako, bere antzera, sarri Aitaren arpegira begiratu behar.

Ze deritxazu: *Kurutzeko Jesusen zauriak ez al dira guganako maitasunaren ezaugarriak?*



EGURGINAREN ARAZOAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Hau da aldrebeskeria! Sekula baino aurrerapen gehiago eskuartean euki eta ezin heldu beharrezkoenak jakuzan gauzak egitera. Niri gogora etorri jat behin entzundako hau: *“Hobe dala bide zuzenetik herrenka ibiltea, orduko 30 kilometro eginez, bide okerretik lauhankan orduko 200 kilometro ibiltea baino”.*

Zer deritxazu: *Helmugak ba al dauka zer ikusiñik bidean zelan jokatu jakiteko?*

b.- Aspaldion sarri entzuten eta irakurten dogu holako edo antzeko esaldia: Euskalerrian *ondoizatea* ikusgarria dogula: beste inun baino gorago gagozala. Hobeto ulertzeko: zer gura eta haxe euki, neurri barik danetik gozatzeko ahalmena. Biribilago esanda: Kontsumoko askan belarrietaraino sartuta bizitzea. Gizakia narruz asetzea, barruz hutsik itzita.

Zer deritxazu: *Ondo izatean ala ona izatean, zertan dogu gaur krisisik haundiena?*

d.- Eutsi “artaburu” bat zeure barruko errotan eiho dagizun: Lur gainean bizi garanotatik % 25ek jaten dogula munduko ondasunetatik %75, eta %75 lagunek munduko ondasunetatik % 25 bakarrik. Ba al dago eskubiderik horretarako? Zer modutako krisisak jo ete gaitu?

Zer deritxazu: *Zu ta ni suertez aberaskumeen artekoak gara. Eta kabidu ezinik? Bere barruan bakez kabidu ezin dana kabidu al daiteke munduan?*



LAGUNGARRIA "EGURGINAREN ARAZOAK"

Behinola egurgin bat agertu zan egurtegi baten lanera. Eskeintzen eutsuten soldata ona zan, eta lanerako baldintzak are hobeak; holan dala, egurgina gustura hasi zan lanean. Lehenengo egunean han etorri jakon kontramisua, eta haizkorea eskeiniz, baso-sail bat ezarri eutson lanerako. Eta egurgina, gogotsu eta bixkor, hasi zan su ta gar arboladia botaten. Egun bakar batean hamazortzi arbola bota ebazan. Zorionak emon eutsozan kontramaisuak: - "Jarraitu holantxe".


Kontramaisuaren zorion-berbakaz berotuta, egurginak ondu gura izan eban lehenengo eguneko marka. Horregaitik gau haretan lehenago oheratu zan. Hurrengo goizean, besteak baino lehenago jagi eta hor doa lanera. Ahaleginak eta bost eginda, hamabost arbola baino ezin izan ebazan bota.

- "Nekatuta nago, antza", inoan bere kautan; eta eguzkia joanaz batera bera ere oheratu zan. Biharamon goizean, hamazortzi arbolen kopurua onduteko asmoz joan zan lanera. Baina horren erdirik ere ez eban bota. Hurrengo egunean zazpi baino ez, hurrengoan bost; eta azken egunean, arratsalde osoa emon eban bigarren arbolea bota ezinik. Kontramaisuaren bildur bat bai! Bera joan jakon zer jazoten jakon kontatzera, eta mila bider zin eginez, lurra joteraingoak egin ebazala autortu eutson.

Kontramaisuak itaundu eutson:

- "Noiz zorroztu dozu azkenengoz haizkorea?"

- "Zorroztu dinozu? Ez dot astirik izan horretarako: arbolak bota eta bota jardun dot denpora guztian".



a.- Egurginaren ahaleginak benetakoak dira. Baina ekinaren ekinaz, makina bihurtu da; eta gizakia gizaki da, ez makina. Ondoizatearen egarriz, bere nortasuna galtzeko arriskuan dabil beti. Lo gehiago eginda ezin da lortu; itzartu eta zuhur jokatuta baino.

Zer deritxazu: *Gizakia marina bihurtuta. Hau hondamendia! Zertan igarten da?*

b.- Egunetik egunera gehiago eta gehiago. Gehiagokerian jausi zan. Gehiago lan, gehiago irabazteko eta eukiteko. Eta etxeakoak, auzotarrak, (Jainkoa bera ere auzoko!), gaixoak...nun? Neu, neuretzat, neugaitik...


Zer deritazu: *"Itsurik txarrena ikusi gura ez dauana". Zerk sortzen deutso ikusi ezina ?*

d.- Haizkorea zorrotzeko asti barik, alperrikoa bailitz... Gizakiaren bizitzan zer da "haizkorea zorrotzeko astia hartzea"? Hainbeste makina, hainbeste aukera lanerako eta sekula baino asti gitxiago. Mihina aterata bizi gara. "Prixaka nabil" dinotsogu sarri alkarri.

Zer deritxazu: *Zu zeu izateko zer egiten dozu? Zeure zereginen artean zenbatgarren daukazu? Eta horretarako asti barik? Eta etxeakoakaz egotea eta bizitza konpartitzea zenbatgarren?*

JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 10, 38-42)

Bidean joiazela, Jesus herritxo baten sartu zan, eta Marta eritxon emakume batek etxean hartu eban. Baeban honek Maria izeneko ahizta bat, eta hau, Jaunaren oinetan jarrita, honen berbea entzuten egoan. Marta, barriz, lanpetua ebilen etxeke zereginetan. Orduan, Jesusengana joan eta esan eutson: - "Jauna, ondo ikusten al dozu nire ahizteak etxeke lan guztiak nire gain iztea? Esaiozu laguntzeko". Jaunak, ostera, erantzun eutson: - "Marta, Marta, gauza askogaitik zabiltz kezkaz eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderik onena aukeratu dau Mariak, eta ez deutso inork kenduko



a.- Gizakiari on egiten deutsona, hori da egitada ona. Gauza guzti dira onak gizakiari on egiten deutson neurrian. Horretarako egin ditu Jaungoikoak. Ezin da Jaungoikoa goraldtu zerbait egiterakoan, egitada horrek gizakiari bere gizatasunean kalte egiten badeutso.

Zer deritxazu: *Ba zabiltz hara eta hona gelditu barik, arnas estuka. Zer gehiago eta zer gitxiago egin behar dozula uste dozu, patxadaz biziteko?*

b.- Marta eta Maria Jesus zerbitzen dagoz, bakotxak bere erara. Ez dagoz bata bestearen kontra. Txarrena zera da: Martarentzat Jesusen ondoan gogoeta egitea, Beragaz bizia konpartitzea, denporea alperrik galtzea da. Jesus ez zan jateko bakarrik joan aizta bien etxera: adiskidetasuna, bizitza bera barrutik gozatzeri eta Aitarene "kontuak" kontatzeri ere bai.

Zer deritxazu. *Otoitz egitea, astebete Gogartetxe batean bizitza Jesusen oinetan hausnartzen egotea, alperrik galtzea ete da? Jan barik ezin da bizi; eta Mariarena egin barik bizi daiteke kristau jator bat?*

d.- Jesusek emoten dau ebatzia: *"Marta, Marta, arduraz eta urduri diharduzu gauza askotan, eta gitxi dira beharrezkoak, edo-eta bat bakarra. Mariak hartu dau zatirik onena"*. Haizkorea zorrozutea astia alperrik galtzea dalakoan, azkenean norbera moztu, ahuldu.

Zer deritxazu: *Bizitzako enborrean lan egiteko ere, "haizkorea sarri zorroztu egin behar da". Zer da hori bizitzara begiratuta?*



ERBIA ETA TIGREA

1.- BIZITARA BEGIRA

a.- Guztiok gabiltz zorionaren atzetik, egarri hori ezelan ere asetu ezinik. Egarri horrek eraginda edo, lagun hurkoa ere sarri geure zorion-iturri bihurtzen dogu, gure zorion-bidean traba egiten deuskula uste izanik. Zein gitxi diran nire zoriontasuna besteak zoriontsu egitea dala sinisten eta halan jokutzen dabenak!


Zer deritxazu: *Ingurukoak zure zorion-bidean lagungarri ala eragozpen jatzuz?*

b.- Jakina, horretarako ez da nahiko zor deustuenei trukean on egitea, edo-eta zerbait itxaroten dozunari on egitea. Esaera zaharra da: "Egizu on, ez dagizula non". Zalanza barik, honetan ere ingurugiroak asko esan gura dau: neukeri hutsean jokutzen dan giroan, gizartean, oso gatxa da maitasun garbiz jokatzea. Justizia jarri da lehenengo lekuan, maitasuna eta errukia dagoanik ere ez; baina ez beti, norbera zelan dagoan ikusi behar.

Zer deritxazu: *Justizia hutsa dan Jainkoagan sinisten al dozu?*

d.- Bestalde, benetako maitasunez jokutzen ikusita, asko dira bihotz- bigunduta antzekoren bat egin gurarik gelditzen diranak. Orduan ere, batek baino gehiagok mila eta bost atxaki eta sasierrazoi asmauko dabez, neukeri hutsean geldizeko. Dana dala, holan jokutzen dabenak ez dagoz nok zer esango edo egingo begira; euren jokabidea hauxe da: *Egin behar dodana egin.*

Zer deritxazu: *Ontasunean hobea izateko egunero ahaleginak egitea, hori ei da zintzotasun bidea. Zu ere horretan al zagoz?*



2.- LAGUNGARRIA “TIGREA ETA ERBIA”

Zein triste egoan kontakizun honetako gaztea! Atsekabeturik egoan, pertsonen arteko jokabidea hain txarra zalako. Inor ez zan besteakaz arduratzen. Egun batean, mendian bakarrik ebilela, harrituta gelditu zan: Erbi txiki batek, zaurituta egoan tigre haundi bati janaria eroan eutsola ikustean, tigreak ibili ere ezin eban-eta.

Bai, harrituta gelditu zan hori ikusita. Hurrengo egunean, barriz, joan zan leku aretara, erbiak gauza bardina egingo ete eban ikusteko, etaharrituta gelditu zan, erbiak tigreaken aldamenen barrero ere haragi zati haundi bat izi ebala ikustean.

Egunak joan eta egunak etorri, egunero gauza bera egiten eban erbiak. Behin baten, ostera, tigrea osatu egin zan eta bera arduratu zan janaria bilatzeko.

Gaztea konturatu zanean, abereak alkarri laguntzen deutsoela, esa eban bere kautan: “Abereak gizakiak baino adimen txikiago izanik, holan laguntzen badeutse alkarri, gizonak zelan ez dabe egingo, ba, hori eta gehiago? Eta proba bat egitea erabagi eban: Lurrean etzun zan, gaixorik balego lez, eta laguntza emongo eutson norbaiten zain gelditu zan.

Orduak eta orduak igaro ondoren, gaua heldu zan, baina inor ez zan laguntzera etorri. Hurrengo egun osoa ere holan emon eban. Istorioaren hasieran baino atsekabe askoz haundiagoa eukan. Gizakiok inoiz ez ginala aldatuko pentsau eban. Oso atsekabetuta, triste eta bakarrik sentitzen zan, goserik, gaixorik eta abandonatuta egoten diranak lez. Ia ez eukan zutunduteko gogorik ere. Baina orduan entzun eban zerbait. Zein pozik entzun eban ahots hori! Zer poza! Bere barrutik etorren hatos horrek hauxe esan eutson: “*Beste pertsonak aurkitu nahi badituzu, maitatu nahi badituzu, ez egizu tigreak lez jokatu, erbiak lez baino*”.



a.- Parabola honetakoa benetan harritzekoa da! Erbia tigreari janaria ekarten, hau ibili ezinean egoalako. Holakoren bat gizartean ikusi ezkerro zer? Orduan hasi dira bat baino gehiago Jainkoagan sinisten. Gizakia ez da erreza maila horretara bere indar hutsez heltzea. Horretarako bihotz garbia eta sendoa behar da.

Zer deritxazu: *“Maitasuna dagoan lekuan, han dago Jaungoikoa”. Beste barik? Zuk ontzat hartzen dozu kredo hau?*

b.- Hau ikusi eban gazteak bai ondorenak arin atera: *“Abereak gizonak baino zentzun gitxiago izanik, holan laguntzen badeutse alkarki, gizonak zelan ez dabe egingo?”*. Eta tigrearena egiteko etzun zan. Benetan nahiz olgetan izan, baina ni etzunda, besteak ekarri deistela jaten. Hau ez da harritzekoa, hau zoritxarrez, normala da gizartean. Hagaitik gagoz zorientasunetik urrun. Bizkorragoak gara kontuak eskatzen, emoten baino.

Zer deritxazu: *Erbiarena egiteko zer behar da bihotzean?*

d.- Kontzientzia ere hor dago-ta, haren deia bai zuzena: *“Beste pertsonak aurkitu nahi badituzu, ez egizu tigreak lez jokatu, erbiak lez baino”*. Hori, hori da bidea. Tigrerik ez dau inok ondoan gura, erbia bai. Zeuk egizu probatxu bat eta zeugan ikusiko dozu.

Zer deritxazu: *Parabolako tigrea ala erbia da haundiago, indartsuago?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 24, 42-44)

“Aldi haretan esan eutsen Jesusek: “Zain egon, ez dakizue-ta zein egunetan etorriko dan zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko jaunak lapurra gaueko zein ordutan etorriko dan jakingo baleu, zain egongo litzateke, eta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Egon, ba, zuek ere prest: gitxien uste dozuen orduan etorriko da-ta Gizasemea”.



a.- Gizakiaren berezko jokerea tigrearena da, ez erbiarena; barruan indar hau eta buruan helburu argia euki behar dira, bestetara jokatzeko. Hor ezagutzen da egiazko kristaua, Jesus beraren jarraitzaile dan ala ez. *“Etxeko jaunak lapurra gaueko zein ordutan etorriko dan jakingo baleu, zain egongo litzateke”*. Zain egotea da gatxa, Jaunaren argitan prest burrukarako, kontuak emoteko, on egiteko. Zer deritxazu: Hemen “lapurra” zeri deitzen deutso Jaunak? Zerbait ostuten deusku?

b.- *“Ez leuke bere etxea zulatzen itziko”*. Norbere barrua bigundu, makaldu eta zulatu, barruan sartu, eta barruagaz jabetu. Orduan gizonak ez dau egiten egin behar dauana, bere barruan “dagoanak” agintzen deutsona baino. Hemen gizon indartsua izatea ez da aberatsa, jakituna, agintaria edo Aita Santua izatea; barru garbia eta zintzoa daukana baino. Zer deritxazu: Barruko sendotasuna zelan lortu? Zelan izan norbere buruaren jabe?

d.- Sinismen-bidean benetan aurrera doana, gero eta gehiagora doa bere zintzotasunean. Harrakalatu bako bihotza, osorik jokatzen dakiana, ezerk bere bidetik aterako ez dauana. Holangoari munduak bakean izten deutso, zorotzat edo kaxkajotzat jo eta kito. *“Egon zuek ere prest, gitxien uste dozuenean etorriko da-ta Gizasemea”*. Zein gaur, zein bihar etorri, ez dago aldaketarik, zintzoa egunetik egunera doa bere bidean aurrera. Zer deritxazu: Noizko izten dozu zure benetako baietza? Jauna gaur baletor...?



ERRATZA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Buru-haundia eta burutsua ez da bardin; zentzun gehiago izan leike txiki beteak, haundi hutsak baino. Buru argia izatea gauza ederra da: hainbeste karrera, berbeta, kurrikulun aberatsa. Baina gizakiaren berezko sena, zentzuna beste gauza bat da. Hori ez da liburuetan lortzen, eta bizitzan beharrezkoago da.

Zer deritxazu: *Zer dozu gurago buru argia ala zentzun betea? Zergaitik? Zertarako?*

b.- Eta bihotza nun izten dogu? Bihotz bako burua zertarako dogu? Azken batean bihotzak agintzen dau gure bizitzan. Nahizta gauza asko jakin eta eskuartean erabili, azkenean bihotzak agintzen dauana egin ohi da. Argi dago: bien gaintetik agintzen dauana maitasuna dalako. *“Nun zure gogoa, han zure zangoa”*.

Zer deritxazu: *Zer dozu nahiago etxean, eleizan, herrian agintaria: buru-haundia ala bihotz-haundia?*

d) Zenbat ahalegin eta jaiobarritan hasita, ikastola eta bestelako ikastetxeetara jira-bueltaka urteak urte! Bihotza hezitzea beharrezkoagoa izan, eta zer ardua hartzen deutsogu? Zentzuna, errespetua, alkarlaguntza, alkarri parkatzea, emondako berbeari eustea... Bihotzez eta zentzunez bizitzen ikasi... Txistua jotzen ikastearren, asko dira katekesiara joan ezin diranak...

Zer deritxazu: *“Jauna, emoidazu bihotz zuzena eta zabala”. Bai zeuretzat eta bai lagunentzat eskari ederra Jaunaren aurrean egiteko, ezta?*



3.- LAGUNGARRIA: "ERRATZA"

Erratza, etxeko lanabesa apala, hor egoten da ate-ostean, etxez kanpoko trasteleku batean gordeta, edo eskailarapean botata, edo nunbaiteko baztarren batean ezkutuan. Baina a zelango zerbitzua egiten dauan etxean! Mahaitik jausten diran apur hondarrak batzen ditu, ohepeko zaborreri guztia garbitzen, baztarretan lotsagarri agertzen diran amaraunak kentzen...Dana dala, hor dago beti prest erratza, nork hartuko eta nork erabiliko zain; bera bakarrik ez da gauza mobitzeko ere, beti hara-hona erabiliko dauan eskuaren menpe.

Beti nahi leuke zeozer mesedegarri egin, baina hori ere bera erabiliko daben eskuen arauera dago. Esku egokietan jausten ez bada, bera darabilen esparrua ez da garbi geldituko; dana nahastu, muskildu eta lehen baino txarrago itzi.

Honetan-horretan dabilela, bere bizitza ere amaitzeaz dago, zurdak gastatzen jakozanean, ezertarako balio ez dauala. Orduan, jabeak, zabor karraioko kamioaren turuta entzutean, behingoan botako deutso eskua gauzeztanduta dagoan erratzari, eta hor doa zabor ontzira. Eta hor hasten da arlo barri bat: zurdak bai gastatu dira, baina ez erratzaren kirtena. Oraindik baliogarri izan leiteke.

Egia esateko, gizakiaren bizitzak ere badau erratzaren bizitzaren antza: Bere bizitza Jaungoikoaren esanak betetzera eskeiniz, Jaunak Berak zuzenduko deutsoz bideak, bere esanak bete dagizan. Norbera ez da protagonista ezertan ere; holan balitz, norbera protagonista nagusi izanik, eginbeharra ez litzateke sekula amaituko. Hauxe da hartu behar dan jarrera: Jainkoak hartu gaizala garan guztia eta garean modukoak, eta itzi Berari Berak nahi dauan erara gu erabilten, Berari deritxon ekintzetarako. Egia esan, gure bizitzan aldikada ezbardinak izango dira, eta urteak joan-ahala, gure indar eta abildadeak ere urrituz joango dira: horra gure bizitzako eginkizuna, misinoa guztiz aldatuta.

Baleiteke gure bizitzako eginbeharra burutzen dihardugula, erratza lez atari-baztarrean bertan behera itzita gelditzea. Eta zer ardura deutso?

Gure bizitza osoa Jaungoikoaren alde eta bere esanera emon badogu beste dana gainez emongo jaku.



a.- Ate-osteko erratza bai lanabesa apala, gauzeztana! Lotsaren lotsaz bere burua gorde egiten dau, antza. Beti inoren eskuan egitekorik apalenak egiten. Hainbeste atzera-aurrera egin, eta barriro ate-ostera., ezelango saririk, ez txalorik jaso barik.

Zer deritxazu: *Erratza apala, baina geldirik dagoan ala badiharduala laster igarten da etxe inguruan. Eta ama zintzo baten presentzia?*

b.- Eta zenbat zerbizio txiki, baina baliogarri prestatzen dituan etxean! Erratza baino gauza txikiagorik, ezerezagorik! Eta saririk eskatu barik. Ezertariko konplexu eta lotsari barik. Hamaika aitita-amama huskeriak egiten etxean, auzoan, eleizan.


Zer deritxazu: *Espiritu Santuaren eskuetan nor litzateken erratza!*

d) Erratza beti dago prest nork erabiliko, bere aldetik egin ahal dauana egiteko. Beti prest zerbitzeko. Santu batek inoana: "Ni ez naz gauza ekintza haundietarako, haundia izango naz ekintza txikietan". Gure kasuan, ez goaz ate ostera edo zakarrontzira, Aitaren eskuetara baino.

Zer deritxazu: *Fedez gauzak ikusi ezkerro, ez al da hobe erratz izatea, erregekoroi izatea baino?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 1, 39-45)

Handik egun batzuetara, Maria etxetik urten eta Judeako mendialdeko uri batera joan zan arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin eutson. Mariaren agurra entzun baizen laster, Elisabeti punpaka hasi jakon umea sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zan Elisabete, eta goraka esan eban: «Bedeinkatua zu andra guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko frutua! Nor naz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etorteko? Zure agurra nire belarrietara heldu orduko, pozez punpaka hasi jat umea sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan deutsuna beteko dala sinistu dozulako!»



a) Maria "erratza" sentitzen da: *"Hona hemen Jaunaren mirabea. Jazo bekit Zuk dinozun lez"*. Bere burua ondo ezagutzen dau; ezer haundirik badauka, dana Jaunarena da, bera ezereza da. Mariarentzat zerbitzari izatea egoerarik ederrena, datorrena datorrela.


Zer deritxazu: *Maria hain haundia eta hain apala; zer egiten dau? Hamaika aitita-amama isilean etxeko "erratz" lanetan! Zer egiten dabe?*

b.- Kontua zera da: Erratz izateaz ondo sentitzea, pozik gainera: ziur dagozalako horixe dala euren lekua eta egitekoa Jaunaren aurrean. Eskerrak eurai hainbeste poz, bake, zorientasun baztarretan. Eta guzti hori baldintza barik, orduko honebeste eskatu barik.

Zer deritxazu: *Atera kontuak: auzoan, herrian, egoitzetan... "erratz" bedeinkatuak ez balegoz, zenbat hutsune izango gendukez?*

d) Gizakiaren buru-bihotzak munduko ardura nagusietan, arlo txalogarrietan jardutea gurago izaten dabe. Espiritu Santuaren eraginez diharduan "pertsone erratzak" bakarrik onartu daike zerbitzari apal zintzoa izatea. Orduan da bat pozgarri eta onuragarri edonun.

Zer deritxazu: *Lehengoan inoan Caritas erakundeko arduradunak: Borondatezko zerbitzaririk ez balego, agur gure Caritas! Zuk nun eta zertan ikusten dozu zure borondatezko zerbitzuaren lekua?*



ERREMULARIA ETA FILOSOFOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Mutilak! Bada gaur ikasi beharra! Nork baino nork karrera luzeago eta hobe, kanpo nazinoetan egin bada, askoz hobe. Eta jakitunak? Diran baino askoz ere gehiago. Ustez diran guztiak ez dira, eta ustez ez diranak badira jakitun. Eta harrokeria, barriz, kabidu ezineko bestean. Haizez puztuta baino gehiago.


Zer deritxazu: Benetako jakituriak derrigor sortu behar dau harrokeria gizakiagan?

b.- Bizitza bera da karrerarik onena egiteko lekua, baita eskolarik beharrezkoena ere. Liburu asko eta buru gitxi... Ganbaran haizeak putz, eta artakamara huts. Burua dinogunean, batez ere, zentzuna esan gura dogu. Liburuetako jakituri asko, eta buruan zentzun gitxi, holangoagaz tratuan ez hasi. Lainoak jorratzen barik, bizitza lantzen ezagutzen da gizonen jakituria.

Zer deritxazu: Nori deitzen jako zentzun haundiko gizona?

d.- Bizitzako joan-etorrian zintzo ibili danak egiten dau karrerarik onena. Ez dago titulurik, ez dirurik esperientzia sakon aberatsagaz bardintzekorik. Pobrezia eta ondasuna zer dan, gaixorik eta sendo egotea zer dan, dakianari egin jaramon. Hagaitik sarri esan ohi da: "*Kontsejua eskatu ule zuridunari*". Hogeita bost urteko injenieruak ez daki larogeita bost urteko aititak dakiana.

Zer deritxazu: Gogoko jatzu bizitzako esperientziak zeure bizitzara ekartea?



2.- LAGUNGARRIA “ERREMULARIA ETA FILOSOFOA”

Greziar filosofo jakintsu bat Nilo aldera joan zan, ikerketa barriak egiteko a . . . Bere jakituriak eraginda, lurralde haretako naturak daukazan sekretu harrigarriak aztertzeraz joan zan.

Halako egun batez, erreka haundi bat zeharkatu behar eban, eta zeregin honetan ziharduan ontzi batean sartu zan. Erremulari zaharrak astitsu eta eratsu mogitzen ebazan erramuak, alde batera eta bestera begiratu. Erreka erdi aldera, jakintsuak, zerbait esan behar-ta, harroxko eraso eutson:

- *Astronomiari buruz ba al dakizu ezer?*
- *Ez, jauna!*
- *Gixajo galanta! Zeure bizitzaren laurena galdu dozu.*
- *Filosofiarik ba al dakizu?*
- *Ez, jauna! Zer danik ere ez dakit.*
- *Hara, beste bizitz-laurena galdu dozu*
- *Eta munduko historia unibertsalari buruz bai ezer?*
- *Tutik ere ez, jauna!*
- *Gizon, hirugarren laurena ere galdu dozu*

Honetan, mendabal haize indartsu batek gogor astindu eban bateltxoak. Olatu harroen bultzadeari eutsi ezinik, alborantza egin eban ontziak eta biak uretara jausi ziran. Erramularia blista eta blasta, besakada luzeak emonez, behingoan jo eban erreka baztarra. Baina jakintsu hori, itoteko zorian, ezinean eta laguntza-eske txilioka eragoion bere burua salbatzeari.

Orduan, erramulariak eraso eutson baztarretik:

- *Adiskide filosofo jakintsu horrek ba al dakizu igeri?*
- *Ez, jauna!*
- *Holan bada, zuk bizitza osoa eta batera galdu dozu, ez laurenka bakarrik.*



a.- Filosofoak bai jakin! Uste eban baino askoz gitxiago, baina jakin bai gero! Bateleko erremulariak ez ekian ezertxo ere: ez zero, ez lehor, ez itsaso, ezetan ere ez. "Laurenka" ea dana galdu eban bizitzan, filosofoaren ustez. Erremulariak bizitza alperrik galdu eban. Berak bai, berak goiak eta beheak aztertuta eukazan.

Zer deritxazu: Harroak diran jakitun asko al dago gaur gure artean? Zertan igarri?

b.- Txarrena hauxe da: Lanean bakarrik dakian erramulariaren lepotik barre egitea; behargina zapaldu, baztatu. Erremulariak ez dauka baliorik, bere izena ez da inun agertuko. Historia unibertsala jakin behar da horretarako, bere antzera. Aproposko aukerea etorri jakon, historia partikularrean zenbat ekian agertzeko.

"Filosofo jakintsu horrek, ba al dakizu igeri? Ez badakizu, ez laurenka, bizitza osoa batera galdu dozu"


Zer deritxazu: Ez ete da apaltasuna biderik onena benetako jakituria nun dagoan igerteko?

d.- Benetako jakituria azken errematean agertzen da, bizitza jokatzen dan orduan. Bestelako titulu eta harrokeriak zertarako dira? Ondo dago asko ikastea, baina gitxien uste dozun batek jakingo dau zeozer, zuk baino hobeto, gainera. Bizitzako itsasoan ezusteko asko jazoten da, orduan ikusten da bakotxaren jakituria.

Zer deritxazu: Giza-jakiturari zer gehitzen deutso Jainkozko jakituriak?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 16, 24-27)

Orduan, esan eutsen Jesusek bere ikasleei: «Nire ondoren etorri gura dauanak uko egin begio bere buruari, bere kurutzea hartu eta jarraitu beist. Izan ere, bere bizia gorde gura dauanak galdu egingo dau; bere bizia Nigatik galtzen dauanak, ostera, eskuratu egingo dau. Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau? Eta zer emon daike gizakiak barriro bizia bereganatzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruakaz; eta, orduan, bakotxari bere jokabidearen arabera ordainduko deutso.



a.- Jesus da bizitzako itsasoan zehar erremularirik argiena; esperientzia dauka, eta ez makala!, eta Espirituaren argiz ondo betea. Ezelango harrokeri izpi barik, Bera aurretik dala, dinosku: *“Nire ondoren etorri nahi dauanak, uko egin begio bere buruari, bere kurutzea hartu eta jarraitu beist”*. Holan ikasten da ondoen bizitzako itsasoan igeri.


Zer deritxazu: *Familian, herrian, eleizan... nun ikasi dozu gehien bizitzako barri?*

b.- Erremulariak emon eutson kokotekoa filosofoari! *“Zuk bizitza osoa eta batera galdu dozu”*. Beste guztia zertarako dozu? *“Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau?”*. Bizia galdu, hainbeste karrera eginda gero? Mundua eta munduko baztarrak ondo ezagutu, eta norbere burua beti *“artaburu berdea”*.

Zer deritxazu: *Mundua hobetzeko hasierarik onena norberagandik hastea ei da. Zuk zer dinozu?*

d.- Gure bizitza horixe da: itsasoz batetik bestera igarotea. Bitartean zenbat olatu eta arrisku! Hor neurtzen gaitu bizitzak gutariko bakotxa. Gure azkena Aitaren eskuetan dago, Bera da gure helburu. Berak daki ondoen bakotxaren barri: *“Berak orduan bakotxari bere jokabidearen arabera ordainduko deutso”*.

Zer deritxazu: *Guzti honen argitara, zer egiteko gogoa sortu jatzu?*



ESKERRONA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Eskerronekoa izatea gizaki helduaren ezinbesteko ezaugarria da. Izan ere, geure burua zehatz-mehatz aztertuta, uste dogun baino gehiago zor deusogu alkarri. Kontuak atera ea zenbategaz geldituko ete gintzatekezan, besteakandik hartu doguna kenduko baleuskigüe.

Zer deritxazu: Zure hartuemonetan -hurkogaz, Jaungoikoagaz- eskerronekoa al zara? Zertan agertzen dozu hori?

b.- Gaur egun, han edo hemen salaketa zorrotzak eta manifestapen zaratatsuak egiten dira, geure ustez, zor jakuna emoten ez deuskuelako, eta, adiskide, ezagutzen al dozu autormen edo manifestapenik eskerrona agertzekorik? Eskubideak gora eta eskubideak behera. Eta eginbideak?

Zer deritxazu: Salatu behar danean salatu, eskertu behar danean, eskertu. Bietatik zeri emoten deusogu garrantzi eta balore gehiago?

d.- Hori baino okerrago: “Eskerrik asko” errepikatzen badozu, edo norbait txalotzen badozu on egin deusulako, laster entzungo dozuz entzutekoak; baina salatari eta kritikalarri zorrotz zitala bazara, txalotua eta aurrelari trebetzat autortuko zaitue. Hori ei da gizon zintzoa izatea!

Zer deritxazu: Zer da hartuemonetan zintzoa izatea? Eta eskerronekoa, kaxkajoa?



2.- LAGUNGARRIA “ESKERRONA”

Behin baten, heldu zan gizon bat zerura eta hasi jakon Jesus hanga “esparruak” erakusten.

Eta ikusi eban “Eskariak” eta “Bedeinkapenak” ipinten eban departamentuen arduradunak ekin ahalean ziharduela; han hartzen ziran pertsonak egindako eskariak eta eskatutako bedeinkapenak.

Harantzago ikusi eban esparru bat inortxo barik eta aingeru bat arduradun, egonean begira. Orduan Jesusi itaundu eutson:

- “Zertarako da esparru hau?”

Eta Jesusek erantzun:

- “Hau da lortu diran eskari eta bedeinkapenakaitik hartzen diran eskerronak batzeko.



a.- Eskabideak” mila, “eskerrik asko”...joan hadi bila. Eskabideak eta eskubideak alkarregaz erdibana egitekoak izango dira, ezta? Geure artean esker txarrekoak bagara, zelangoak ete gara Jaungoikoagaz? Eskariak ugari, eskerrona urri. Zeozetan huts egin badeusku, -santu nahiz Jaungoiko-, zelango marmarra ahopean! Kontu zorrotzak eskatzen deutsalaguz, letania eta guzti.

Zer deritxazu: *Eskerronekoa izateko, zer behar dogu bihotzean?*

b.- Zenbat meza eta promesa zerbait lortu arte; eskerrak emotean -emotekorik badago behintzat- laster izaten dira patrifiloak. Santu batek inoan: “Eskerrak Jaungoikoak ez deustala emoten neuk eskatu ahala; bestelan nire erruki”.

Zer deritxazu: *Hartutakoakaitik eskerronekoa izatea ez ete biderik onena mesede barriak eskatu eta lortzeko?*

d.- “Mesedeak idatzi harrietan, eta kalteak hautsetan”, dino esaera zaharrak. Euskalerriko hormak eta baztarrak ikustekoak egoten dira! Ekarri gogora holango “lore” batzuk. Danen artean aurkitu ete dozu eskerronekorik?

Zer deritxazu: *Kanpotik datorren batek gure horma eta baztarrak ikusita, zer kalifikazino emongo ete leuskigu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 11, 25-30)

Behin baten, Jesusek holan berba egin eban: «Goresten zaitut, Aita, zerulurren Jauna, gauza honeek jakintsu eta ikasgai ezkutatu deutsezuzalako eta jente xumeari agertu. Bai, Aita, bedeinkatua Zu, horixe izan dozulako gogoko. Nire Aitak nire esku itzi dau dana. Eta inok ez dau Semea ezagutzen, Aitak baino; ezta Aita ere inok ezagutzen, Semeak baino eta Semeak agertu gura deutsonak».



a.- Beste gauza askotan lez, hemen ere ume izan behar, bihotzez garbi, apal, samur, zabal eta xumea izan behar, gauzak holan ikusi eta bizi ahal izateko. Jakintsuak, haundizaleak, harropuzak ez dauke inogandik hartutakorik ezer; eurak beti ei dira emoile, ez hartzaile. Ez deutsoe inori ezer zor.

Zer deritxazu: *Onik asko hartu dozu Jaunagandik bizitzan. Kontau egiozu Jaunari esker beroak emonez.*

b.- Haundi-maundiak -Jerusalengo eleizara otoitzean ziharduan farisearrak lez-badauke Jaunari zeozergaaitik eskerrak emon beharra: *“Besteen antzeko gaizto pretalak ez diralako”*. Txiki eta apalak dira gai, bai euren buruak eta bai hurkoa dan bestekoa ezagutzeko, ez haundiago, ez txikiago.

Zer deritxazu: *Jaiotzatik hasita, zenbat mesede jaso dozun besteakandik.*

Gogora ekarri egizuz banaka bat, eta eskerronez zeure ongileen alde otoi egin Jaunari.

d.- Erakutsi ederra Jesusek emon deuskuna: *“Ikasi Nigandik, bihotzez otzana eta apala naz eta”*. Lehenengo eta bat, Jesus Bera da Aitagaz eskerronekoa, dan guztia Aitagandik hartu dauala-eta, seme leial lez eta harrotu barik Aitagaz jokutzen dau. Holangoak hartzen dabe “atsedena” Jaunagandik.

Zer deritxazu: *Kapaz al zara santu haregaz Jaunari esateko: “Eskerrak, Jauna, eskatu deutsudan dana emon ez deustazulako”. Eskatu deutsozun dana emon baleutsu, gaur zaran bestekoa izango ete zinan?*



ETA GERO ZER?

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jakin, gauza asko dakiguz buruz, bihotzez gitxiago. Azken batean, bihotzez dakiguna bizi dogu; sakonagoa da, aberatsagoa da bihotzeko jakituria. Egiaren bidean, Jaungoikoa Bera da, Espirituaren bidez, egi osora eroaten gaituana.

Zer deritxazu: *Bardin al da osagileak gaixoaren eskua ebagitea, eta osagileari berari eskua ebagitea? Noiz daki zer dan eskua ebagitea?*

b.- Berba bakotxean dinogun egia astiro aldatzen da bizitzara; esperientzia egin ahala: aita, ama, bizitza, maitasuna... Bizia da misteriorik haundiena, eta Jaungoikoak bizi izateko sortu gaitu. Jaungoikoak Berak beteko gaitu, ez dago beste baliozko betegarririk.

Zer deritxazu: *“Gauza bat dakit, ez dakidala ezer”. Zergaitik dinoe ustezko jakitunak dana dakiela?*

d.- Gizakia argiaren arabera, bera ere barrutik hazten doa. Eta norbera aldatzean, niretzat dana aldatzen da: lehengo haundi asko txikitu egiten dira, lehengo txiki asko haunditu. Eta bizitzako misterioaren aurrean, nork jakin zer izango garan?

Zer deritxazu: *Bizitzaren aurrean, Jaungoikoaren aurrean, egarriz bizi al zara?*



2.- LAGUNGARRIA "ETA GERO ZER?"

Baziran seintxo bi sortubarriak, euren amatxoren sabelean egozanak. Bata neskea zan eta bestea mutikoa. Behin badinotso neskeak nebeari:

- "Badakizu zer? Somatzen dodanez, hemendik urtendakoan beste bizitza bat badagoala. Ez dala dana hemen amaitzen. Ez dakit zer eta zelangoa, baina beste zerbait badagoala" Seintxo mutikoak erantzun eutson:-

- "Nondik atera dozu holango zorakeri hori? Bizitza hau hemen hasten da eta hementxe amaitzen; ez dago besterik ezer" Isilune baten ostean, barriro ere neskatoa berean:


- "Beste zertxobait ere esan behar deutsut: Uste dot, hemendik urtendakoan, ama bat ikusiko dogula aurrez-aurre. Hemen barruan somatu besterik egiten ez dogun ama bat ezagutuko dogula" Mutikoak hasarre:

- "Zureak egin dau, arreatxo! Gure bizitzak daukan gozotasun guztia, hementxe daukaguna da. Ilunpetan gagoz, baina gitxienez berotasuna eta janaria emoten jakuz. Gozatu daigun hemengoa, ez dago amarik, ez besterik ezer eta"

Isilune luzagoa oraingoan. Baina neskatoa ez egoan isilik egoteko:

- "Gehiago ere esan behar deutsut: "Azken boladan sentitzen doguzan estualdi, taupada eta ondoezak beste bizitza horretara laster joateko unea erakusten deuskuela; saminaldi honeek bizitza barri horren atarikoak dira". Mutikoak bere onetik urten eban:

- "Esaten dozun horrek ez dauka ezelango sentidurik; zeure burutazinoen frutua baino ez da. Gozatu daigun hemengoa, besterik ezer ez dago eta"



a.- Neskato-mutikoak amaren sabelean: biziaren hasiera. Nun eta zertan amaituko ete dabe? Jarrera guztiz ezbardinak bien artean: Neskatoa ametsetan, itxaropenez, bizi barriaren zain; eta mutikoa materialista hutsa: hauxe baino besterik ez dago, bizitza honi atera zukua...

Zer deritxazu: *Lurraren sabelean bizi garanon artean ez al dozuz ezagutzen jarrera bi antzekoak?*

b.- Bizitza barri bat sumatzen dau neskatoak, guztiz ezbardina, aita-ama aurrez ikusi eta ezagutuko doguz. Bizi barriaren seinaleak ere sentitzen ditu, gero eta sendoak eta argiak . Bitartean mutikoa betiko lotan, arrebatxoaren kontura barrez eta bulazahar.

Zer deritxazu: *Gure geroko bizi barriaren seinaleak, susmoak zeintzuk doguz?*

d.- Neskatoa bizi barriaren atean sentitzen da; saminaldi berezi batzuk ere horren ezaugarri dira. Kolpeka ere hasi da, berezko lege batek bultzatuta. Mutikoarentzat burutazinoak izaten jarraitzen dabe. Zahartzaroan, gaixoaldian nork leukezan sentzatzino horreek!

Zer deritxazu: *Geroko bizi barriaren itxaropenez bizi zara? Zer sentidu erazoten deutsu sinismen honek?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 3, 1-8)

Nikodemo eritxon gizon batek, fariseuen taldekoa eta juduen buruetariko bera, gaez Jesusengana etorri eta esan eutson:

–Maisu, ziur gagoz Jainkoak guri irakasteko bialdu zaituana, inork ezin daikez egin-eta Zuk egiten dozuzan mirarizko seinaleak, Jainkoa beragaz ez badau. Jesusek erantzun eutson: - “Bene-benetan dinotsut: Ezin dau inork Jainkoaren erreinua ikusi, barriro jaioten ez bada. Nikodemok itaundu eutson: - “Zelan jaio norbait, jadanik zaharra izanik? Sartu ete daiteke amaren sabelean eta barriro jaio? Jesusek erantzun: - “Bene-benetan dinotsut: Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaioten ez bada. Gizakiagandik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu barriro jaio behar dozuela esan deutsudalako. Haizeak edonundik joten dau; entzuten dozu haren hotsa, baina ez dakizu nundik datorren, ez nora doan. Gauza bera jazoten da Espiritutik jaiogaz.



a.- Misterioa danez, gu ez gara geure indarrez maila horretara heltzen. Sinismen dohaiaren laguntzaz bizi gara itxaropen horretan. Eta ez daukagu hau esateko eta autortzeko lotsarik. Areago, honek emoten deutso gure bizitzari bere argia, adorea, poza eta emonkortasuna. *“Goitik jaioten ez danak, ezin ikusi daike Jaungoikoaren Erreinua”*. Lurrezkoa lurretik dator, baina espirituzkoa Jaunagandik. Nikodemo jakintsuak ezin dau ulertu, farisearren legepean ez eban goi argirik hartu-eta.

Zer deritxazu: *Eskerrak emoten al deutsozuz Jaunari sinismen argiagaitik?*

b.- Neskatoaren argiz bizi garanok ez gara bat edo bi; mila miloika gizon eta andra. txiki eta haundi, erraza guztietakoak bizi eta jokatu dabe bizia emoteraino, bizi barri horren egarriz. Nikodemok ezin dau iruntzi hain egi pozgarria. Amaren sabelagaz lotuta egoan orandik. *“Uretik eta Espiritutik jaioten ez dana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren Erreinuari”*. Begiak itxi eta maitasun hutsa dan Jaungoiko Aita-Amaren besoetara salto egitea da bide bakarra.

Zer deritxazu: *Jaungoikoak gugaitik eta guretzat egindakoak ulertzeko, oraindik zeure burua estutzen zabiltz? Zer jarrera daukazu?*

d.- Jakina, lur hau Jaungoikoaren lurraldea da, ortozik eta burumakur hurreratu behar da, *“Aitearen”* eginda. Umetasunez hartu izan dabe gure anai-arreba santuak. Haundikeriz ez dago hemen zereginik. *“Nahi dauan tokian joten dau haizeak, baina zuk ez dakizu nundik datorren, ez nora doan”*. Bizi barriaren dohaia ez da irabazten, merezi barik, Jaunak emoten deusku.

Zer deritxazu: *Gogoeta honen ondoren, zegaz gelditzen zara? Zer gogo sentidu erazo deutsu?*



EZAUGARRIRIK IZTEN AL DOZU?

1.- BIZITZARA BEGIRA


a.- Mutil abilak gara gaur, berba biribil potoloak asmatu ta erabilten: demokrazia, sozialismoa, askatasuna, herria, eskubideak...zeuk jarraitu aurrera. Guztiak aztertzen eta bere lekura ekarten dituana EGIA da. Baina eta "egia" zer da? Horixe itaundu eutson Pilatok Jesusi eta erantzuna entzuteko astirik ez eban izan.
Zer deritxazu: *Errez sinisten ete deutsogu gaur alkarri? Zergaitik?*

b.- Ekarri daigun aurrera beste berba potolo bat: BENETAKOTASUNA. Erditik bi eginda errezago ahozkatu eta ulertzeko: "Benetako" eta "tasuna". Hau da, bere jarrera eta egikeretan zintzoa dala, esaten dauana bat datorrela egiten dauanagaz.

Zer deritxazu: *Berba hau gogoan hartu eta esatea ez da erreza; eta betetea? Zergaitik?*

d.- "Benetakoak" izatea, hauxe eskatzen deutsegue gaur besteei orroaka: agintariei, politikoei, gotzainei...Honetan ere errezago da eskatzea, emotea bainio. Berben esanhaia aztertzeko neurria bizitzako praktika da. Jakina, orduan datoz atxakiak, sasierrazoiak eta itxurakeri faltsuak, batez ere, norberari ikututen deutsoenean. Eta beti "benetakotasunean" doguzan hutsuneak justifikatzeko.

Zer deritxazu: *Benetakoak diranak platika gitxi eta praktika asko. Ez ala?*



2.- LAGUNGARRIA: “EZAUGARRIRIK IZTEN AL DOZU?”

Jesus Berbiztuagaz topo egin eban gizon bat bixkor eta gogoz ebilen bizitzako bidean aurrera, baztar guztietan bila eta bila. Bide ertzean jesarrita egoan aitita batengana hurreraturik, itaun hau egin eutson benetako jakinminez:

- “Mesedez, jauna, ikusi al dozu hemendik igaroten kristinauren bat?”

Aita beneragarriak, sorbaldak jasoz, erantzun eutson:

- “Zelangoa dan bila zabilzan kristinau hori?”

- “Parkatu, jauna, ni arazo horretan ezjakin bat nozu, ez dodaz ezagutzen dagozan kristinau mota guztiak; Jesus bakarrik ezagutzen dot”

Eta aititak holan jarraitu eban:

- “Entzun, adiskide, modu eta mota guztietakoak dozuz: Badira kunplimentu hutsezko kristinauak; tradizinozko kristinauak; legez eta ohituraz bakarrik kristinau diranak; azalezko siniskeraz bakarrik diranak; komenentziz kristinau diranak, eta benetako kristinauak...”

- “Honeek, nik azkenengo honexek ezagutu nahi dodaz! Honexek dira nik bilatzen dodazanak! Egiazkoak, benetakoak!”, gaineratu eban gizonak.

Begiak zerumugara luzatuz, hauxe izan zan aititaren erantzuna:

- “Tira, benetakoak aurkitu eta ezagutzea ez da gauza erreza. Orain urte batzuk igaro zan hemendik horreetariko bat, eta harek ere zeure itaun berbera egin eustan”.

Gazteak berean aurrera:

- “Zertan antz emon ahal deusat?”

Eta aititak bare-bare eta goxo-goxo erantzun eutson:

- “Ez hainbeste kezka eta ardura hartu, lagun! Ez dozu neke haundirik izango ezagutzen. Benetako kristinau bat ez da igaroten gaurko gizarte honetatik inork igerri barik, hainbeste jakintsu-usteko eta haundigurakoen artean. Bere egiteetatik ezagutuko dozu. Dabilzan leku guztietan izten dabe ezaugarriren bat”



a.- Aintxinako filosofo argitsua, Dionisio Areopagita, gizon baten bila ebilen eguerdiko eguzki galdatan, eskuan farol eta guzti. Izan ere, *“prakan prakan ez dago gizona”*. Horrez gainera, benetako kristinau baten bila hasi ezker... Halako batek inoanez: *“Kristinau bat ezagutu dot, eta bera kurutzean josi eta hil eben”*
Zer deritxazu: *Kristinau gitxi mezan. Eta plazan? Banan ez dabe balio?*

b.- *“Entzun, adiskide, modu eta mota guztietako kristinauak dozuz”*. Zenbat modutakoak? Bakotxeko bat? Tradizinozkoak, kunplimentu hutsezkoak, ohiturazkoak, azaleko itxurazkoa... Umetatik hauxe ikasi eta ikusi dogulako, konpromisorik ere ez dagoala-ta...


Zer deritxazu: *Guzti honeetatik zeintzuk dira ugarien gure artean?*

d.- ...*“eta benetakoak”*. - *“Honeek dira nik bilatzen dodazanak”*. Zertan ezagutzen dira? Aititak astiro jarraitu eban: *“Dabilen leku guztietan izten dau ezaugarriren bat”*. Agiriko egitadak dira ezagarririk ziurrenak.

Zer deritxazu: *Ekarri egizuz gogora “benetako kristinau” baten 3 ezaugarri.*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 6, 43-45)

«Ez dago zuhaitz onik frutu txarra emoten dauanik, ezta zuhaitz txarrik ere frutu ona emoten dauanik. Bere fruetatik antzemoten jako zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik batzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona danak ona ateraten dau bere barruko ontasun-altxorretik; eta gaiztoak gatxa bere gaiztakeri altxorretik. Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten dau-ta”



a.- Bizitzako egintzak dira bakotxaren frutu eta ezaugarri; egintzak dira izerdiz eta nekez eskeintzen doguzan ezaugarriak, eta ez berba polit eta biribilak. Egintzak ez dabe behar azalpenik, eurak dira nahiko testigu. Egintzarik ez dakarren berba hutsak, ostera, haizeak daroaz.

Zer deritxazu: *Euskalduna berbetan labur eta egintzetan samur*”, esan ohi da. *Gaur ere bai?*

b.- “*Ona danak ona ateraten dau bere barruko ondasun-altxorretik*”. Frutua itxurak baino hobea da. Barruko dendan doguna eskeintzen dogu bakotxak bizitzako azokan. Mezea, Sakramentuak eta antzeko guztiak geure barruaren osagarri dira; frutuetatik ezagutzen doguz, mesede egin ete deuskuen ala ez.

Zer deritxazu: *Holan dala, benetako kristinauaren ezaugarria meza eta sakramentuen kopurua da ala egintzaz beteriko bizitzako arbolea?*

d.- Jesus Maisuaren begiradea sakonera doa, frutuetara, lore-orbelak alde batera itzita. Eta, jakina, barruan bizi dogunak urteten dau azalera, bai egintzak eta bai berbak: ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten dau.

Zer deritxazu. *Benetako kristianuak badau lotsarik nor eta zer dan agertzeko?*



FRUTUA EMOTEN DAUANA GARBITU ETA INAUSI EGITEN DAU

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Berezko frutu on gitxi dago. Horra garia: lurra landu, hazia erein, usteldu, erne, hazi, ebagi, eiho, erre eta ogi bihurtu arteko sufrimentua. Gizakia sortu eta heldu arteko prozesua ere luzea eta neketsua da. Goxo eta xamur, zer gura eta haxe bizi diranen kerizpean leku gitxi.

Zer deritxazu: Nekea, sufrimentua beharrezkoak ete dira, frutu on eta ugaria emoteko?

b.- Alde batetik, nekerik eta negarrik gura ez, eta bestetik, horreen aurrean atzera egiten dauana ez da zugatz lerdin egingo, ez frutu gozo askorik emongo. Geure arteko pertsona askoren bizitzara begiratuta, gure aurreko guraso zaharrak aurrean doguzala, asko eta ondo sufridutakoak, bai frutu ederra emon ebela!

Zer deritxazu: Zuretzat zer da frutu ona emotea?

d.- Bizitza bera da lantegirik onena ta beharrezkoena. Hortxe izan ezik, ez dago ganorazko frutua emoterik. Asko dira buruz eta liburuz azkarrak, baina eskuz eta lanez baldarrak. Zorionekoa bizitzaren jokoan txapeldun urteten dauana!

Zer deritxazu: Bizitzako nekeak eta sufrimentuak onartzea eta behar dan zentzunez hartzea erreza al da?



**LAGUNGARRIA “FRUTUA EMOTEN DAUANA
GARBITU ETA INAUSI EGITEN DAU”**

Baserritar batek, hainbeste jente munduan gosez hiltzen ikusita, Jaungoikoagana jo eban:

- “Zu Jaungoiko zara eta Zuk sortu zenduan mundua, baina ez zara nekazaria, nekazaritzako abd ere ez dakizu”.

Jaungoikoak apaltasunez erantzun eutson:

- “Zein da zure kontsejua?”

- “Emoidazu neuri urte beteko epea, eta itzi egidazu gauzak neure erara egiten. Ziur nago ez dala gehiago goserik izango munduan”.

Jaungoikoak onartu eban proposamena eta urte beteko epea emon eutson. Jakina, nekazariak gauzarik onenak eskatu eutsozan, bere ustez: ez ekatxik, ez haizerik, ez bestelako arriskurik ez daitela izan garauarentzat. Garia inoiz baino haundiago egin zan: eguzkia nahi ebanean, eguzkia; euria nahi ebanean, euria. Baegoan baztarretan behar zan beste gari eta gehiago! Urte haretan dana joan zan ondo baino hobeto. Hain arlo ederrak ikusita, nekazaria Jaungoikoagana joan zan:

- “Begira, Jauna, aurten, bai, aurten! Jenteak beharrik egiten ez badau ere, badogu urte birako nahibeste gari”. Baina garia batu ebanean, ene! galburuak hutsik egozan. Harri eta zur eginda Jaungoikoari itaundu eutson:

- “Jauna, zer jazo da hemen?” Jaunak laster erantzun eutson:

- Ezelango kontrako erronkarik ez da izan hemen, ez gatazkarik, ez erasorik; gariarentzako kaltegarri zan guztia zeuk bialdu zenduan, eta garia makal eta gauzeztan bihurtu da. Burruka pixka bat ezinbestekoa da; ekatxak, trumoiak eta tximistak beharrezkoak dira, barrua astintzen dabe eta sendoagoa eta ederragoa hazten da.

Arazoak dira, bizitzak gu eskolatzeko daukan modua; holan ikasten dogu biziteko behar doguna eta behar dogun lekura helduteko.

Badira haizearen zain dagozanak, haren bultzadaz aurrera egiteko, baina....kontrako haizeak laguntzen dau hegaz egiten”.



a.- Ez ekatxik, ez haize zakarrik, ez bestelako gatxik, ez gaixorik... eta zeru eta lur guztiak gariaren onerako. Baserritar argia, ezta? Egizu zeu zarala Jaungoikoak munduan erein dauan garia. Zure ustez bizitzako neke-lorrak izan ez bazenduzan, gaurko esperientzia eta heldutasuna izango ete zenduan?

Zer deritxazu: *Sufrimentuetatik probetxu aterateko, ba al da sekreturik?*

b.- Halango garitzarik! Lerden, sendo, ugari, ikusgarria. Mundu guztiari jaten emoteko beste. Jaungoikoari ere kontuak hartzen... Kontsumoko gizartean bada gizon-emakume lerden, ikusgarririk; baina hainbeste aukera barik hezi eta bizi izan diranak ez dira txikiagoak.


Zer deritxazu: *Gizakiaren heldutasunari begira, zein da giro egokiagoa: erosotasuna eta ugaritasuna, ala neurritasuna eta neketsua?*

d.- Baina azkenean dator etortekoa: itxura ikusgarria, baina buruak hutsik. Indar dana galtzuan eta bizar luzean joan jako. Begietarako ikusgarri, baina bizitzarako probetxu gixi.

Zer deritxazu: *Kontrako haizeak laguntzen ei dau hegaz egiten. Eta bizitzan?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 15, 1-5.8)

«Neu naz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Fruturik emoten ez dauan aihena ebagi egiten dau Aitak, eta frutua emoten dauana garbitu eta inausi, frutu gehiago emon dagian. Zuek garbi zagoze dagoaneko, adierazo deusuedan mezuaren bidez. Zagoze Nigaz bat eginda, Ni zuekaz lez. Aihenak, mahatsondoari ezarria ez badago, fruturik emon ezin dauan lez, ezta zuek ere, Nigaz bat eginda ez bazagoze. «Ni naz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait Nigaz bat eginda badago, Ni berari lez, horrek frutu asko emongo dau; Ni barik ezin dozue-ta ezer egin. Nigaz bat eginda ez dagoana kanpora botaten dabe, ebagi eta ihartzen dan aihena lez; gero, batu, sutara bota eta erre egiten dabe. Nigaz bat eginda bazagoze eta nire irakatsiak zuengan tinko irauten badabe, eskatu gura dozuena eta izango dozue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, frutu asko emotean.



a.- Kontua frutua emotea da, eta horretarako gizatasun heldua ezinbestekoa da. Eta hemengo Jauna, Jesus Bera da eta Beragaz bat eginda egon behar: *“Nigan fruturik ez dakarrena”* Hori da sekretua: Jaunagazko hartuemon biziaren frutua dala bizitzako gorabehera guztia.


Zer deritxazu: *Hasieran kaltegarritzat uste genduana, gerora mesedegarri bihurtu ete leiteke?*

b.- Hemen dator gehien sufriduazoten deuskun ebakuntza: *“Frutua dakarrena inausi egiten dau, frutu gehiago emon dagian”*. Ez da nork penitentzi gehiago egitea, nork frutu gehiago eta hobe emotea baino.

Zer deritxazu: *Zeintzuk dira inausi beharko zeunkezan “alperriko adarrak”?*

d.- Horra zertara datorren Aitaren Erreinua, Aitaren gorapena: guk frutu ugari emotea. Maitasunezko egintzak dira. Hori da Jesusen ikasle izatea: Bizi-zugatz sendo eta emonkorrak izatea. Jakina, bakotxari tokatu jakun lekuan.

Zer deritxazu: *Izango dituzu “adar igarrak”, alperrikoak. Jesusek sutara botateko dinosku parabolan. Ba al dozu horretarako adorerik?*



GABONALDIAN ZER EROSIKO

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gainean doguz Gabonak, Urte Zahar-Barriak, Erregenak. Zenbat ardura eta buruhauste erosketak dirala-eta! Herriko eta erbesteko dendak arakatu eta orduan ere nahibeste ezin aurkitu. Zerbait ondo dago, baina hainbeste ere ba... Zer ospatzen dogu, edo nor dator ba? Hori ez itaundu, Gabonaldia dator, baina hutsik! Zeozegaz bete behar da.


Zer deritxazu: *Gabonetan inor badator? Zetan dator?*

b.- Gero eta gehiago entzuten da Olentzero. Eta hori nor da, ba? Maisu bakotxak emoten dau bere erantzuna eta eritxia. Baina gure Gabonetako "Mutikoagaz" ez dauka zerikusirik. Bati "Haurtxo txiki" abesten deusagu, besteari "Olentzero tripa haundia". Aukeratu egin beharko da bien artean, biak batera ganoraz ospatzerik ez dago.

Zer deritxazu: *Gabonaldia euskaldun jentilen ospakizun bihurtu ete dogu?*

d.- Jakina, askoz aurretik hasita, baztar guztietan egiten dan zabalkundea ikaragarria da. Izar-anbeluak eta antzeko batzuk agertuko jatzuz sal-erosketen denden inguruetan, baina hortik kanpo neurribako bonbonkeria. Belen aldeko izarra amatau da, antza, edo eta beste miloika izarren artean ezkutatu.

Zer deritxazu: *Belen aldeko izarrak Jesus Umeagana gidatzen dau, beste izarrok norengana edo norantza?*



2.- LAGUNGARRIA “GABONALDIAN ZER EROSIKO”

Gabonjaiak datozala-eta, erosketak egitera joan nintzan, nire senide ta lagunentzat gogokoenak zeintzuk izan daitekeza gogoan hartuta. Aurtengorako apartekotxoak izatea gura neuke. Nire oparitxoak hartzerakoan, poza eta atsegina dastatu dagiela gura neuke, eta, gainera, urte guztirako baliogarri izango jakezanak. Ibili eta ibili, hona iragarki egoki bat aurrez-aurre, Gabon-izar eta guzti: “ZERUKO DENDAN”

Bertara hurreratuz batera, dendako atea edegi jatan. Uste baino lehenago barruan nengoan. Aingeru batek agurtu eta hartu ninduan, eta erosketak egiteko otzaratxo bat eskeiniz, esan eustan: “Kontuz, gero, zer erosten dozun”

Nik behar neban guztia egoan denda haretan. Eta aingeruak gaineratu eustan: “Izan gogoan, orain eroan ezin dozuna, geroago ere eroan zeinke”

Hasi nintzan: Lehenengo Pazientzia eta gero Maitasuna, han azkenengo apalean egoan; beherago Poza egoan, alaitasunez egoteko. ondoren, Bake-fardel bi beti lasai eta bare egoteko, eta Fedez beteriko boltsa bi, datorren urte osorako. baita behar nebazan neure bizilagunakaz ontasuna, samurtasuna eta Otzatasuna; eta ez gitxiago Neurritasuna, neure izakerea beti kontrolpean eukiteko; danetatik bana erosi neban.

Urteerako atera heldu nintzan eta aingeruari itandu neutsan:

- “Zenbat zor deutsut?”

Berak iribarrez erantzun eustan:


- “Ene adiskide, Jesus Jaunak ordaindu ebazan zure zor danak, aintxina baten”.

Eta holantxe jarraitu eban:

- “Entzun, lagun, zu zeu zara denda hori eta egunero zabaldu ahal dozu; aingerua neu nozu, zeure barruan bizi naitzun Espiritu Santua, eta opariak Espiritu horrexen frutuak dira”

Eta hau esanez amaitu eban:

- “Zeure amets horretatik itzartu baino lehen, Gabonjaien benetako zentzuna adierazo gura deutsut. Entzun eidazu ardura haundiz: “Opari honeek egoki eta bereziak dozuz jaietarako, baina urtean zehar zabaltzen badozuz, sekulako poza emongo deutsue zeuri eta alkarbanatzen deutsezuzanei. Eta areago: Konturatu zara zure seme-alabak eta lagunak hobeto hartzen dabela zuk egitez erakusten deutsezuna, egiteko aginduten deutsezuna baino? Tira, zuk opariok urte osoan zehar bananduten badozuz, hartzen dauana ere zeu imitatzen hasiko da, eta opari-olatu ongari hori luzaroen luzaro luzatuko da. Itzartuten zareanean, kontau amets eder hau ahal dozunik-eta lagun gehienei”



a.- Amets ederra parabolako amatxorena! Benetan Gabon "apartekotxoak" gura ebazan: guztien ongarri eta urte guztirako izango ziran opariak etxeratzea. Ikusten danez, holango opariak erosteko, dendea ere apartekotxoan izan behar, izenak dinonez: "ZERUKO DENDAN". Apartekotxoan ez dakit, baina hemendik guztiz aparte dagoana bai behintzat.

Zer deritxazu: *Jaungoiko Aitak eskeini deuskun Oparia hartuta, guk zer opari eskeintzen deusaguz eskerronez?*

b.- Pazientzia, maitasuna, poza, bakea, fedea, samurtasuna... Esatea be holangorik! Horreek gero ere hor egongo dira, horreek ez dabe balio jan-edateko, janzteko edo erakusteko. Baina hobeto bizitzeko bai! Lehendik ere Kontsumo jaunaren dendatik gehiago daukagu, "Zeruko Dendatik" baino.

Zer deritxazu: *Ez litzateke hobeto izango lurreko dendetatik eta zerukotik erdibana erostea? Ez litzateke merkeagoa eta betegarriagoa izango?*


d.- Hemen dago sekretua: "Zeu zara denda hori eta egunero zabaldu behar dozu urtean zehar"; egon seguru etxeko eta auzoko zorion-iturri izango zara. Hau be bada! Opari onenak daukazan dendea hain hur euki eta nora goaz opari bila?

Ze deritxazu: *Ez al dira honeek Belengo "dendan" banatzen diran opariak?*

3.- JAUNAREN BEBEAREN ARGITAN (Mt 13, 44-46)

«Jainkoaren erregetzagaz, landan ezkutatua dagoan altxorraz lez jazoten da. Norbaitek aurkitzen daualarik, barriro ezkutatu egiten dau, eta pozaren pozez joan, daukazan guztiak saldu eta landa ha erosten dau.

«Era berean, Jainkoaren erregetzagaz, harribitxi bila dabilen tratulariaz lez jazoten da. Balio haundiko bat aurkitzen dauanean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten dau.



a.- Izan ere, Belengo apaltasun eta pobretasunean agertu jakun Jainko Semeak erakusten deuskun bidea guztiz apartekoa da, baina onena; geu gabiltz hortik aparte. Haregana hurreratzeko ortozik jarri behar da, eta gerria asko bihurtu, harrokeriak alde batera itzita. Ondasun guztien jabe izanda, Semea emoten deusku oparitzat.

Zer deritxazu: *Zer? Ez al dogu aintzat hartzen Aitak emoten deuskun opari hau?*

b.- “Landan gorideriko dirutza edo altxorra”, oparia; gaineko eta inguruko lur eta zaborrak kendu egin behar dira, beragaz jabetzeko. Belengo ondasunaz jabetzeko, zabor asko, huskeri asko kendu behar deusogu ingurutik, bestelan ezin dogu susmatu ere egin. Orbel gehiegi daukagu opariaren gainean batuta, eta hor galtzen jaku oparia eta orbelakaz gelditzen gara.

Zer deritxazu: *Begiak itxita ikusten ei dira gauzarik ederrenak hobeto. Egizu horixe otoiz giroan, Belengo misterioaren aurrean. Ea zer dinotsun?*

d.- Hau ere egi galanta da: Pitxi baliotsu hori aurkitzean, *daukan guztia saldu eta pitxia erosten dau*”. Baina pitxi, altxor hori aurkitzea da gatxa; Belengo Pitxi ederra emon euskunak berak erakutsi behar deusku gordeta dagoan pitxi hori. Eta, zalantza barik, horren bila dabilenak ere aurkiu egiten dau. Etorri ere, geugaz alkartzera etorri zan. Misterioa da eta otoitz giroan eta alkarlaguntzan aurkituko dozu. Hori da Berak guganuntz ekarri eban bidea

Zer deritxazu: *Belengo dendako Pitxi horregaz jabetuko bazina, zelango erosketak egingo zeunkez aurten? Zeren bila ibiliko zinake?*



GAIXO BI

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Maitasunari buruz asko berba egiten da, eta, egia esan, esan ahal dan guztia ere gitxi da. Izan ere, maitasuna da munduari eragiten deutsona. Santu batek esaten ebanez, *“maitasuna da muduko indarrik haundiena”*. Maitasuna *zabalkorra* eta *ezarkorra* da, txarrerako nahiz onerako eragin haundia dauka. Bakotxak berak bizi dauanetik emoten eta zabaltzen dau.

Zer deritxazu: *Zer gehiago gaineratu nahi dozu maitasunari buruz zeure esperientziatik?*

b.- Begibistan dagoana hauxe da: maitasuna *eraginkorra* eta *eginkorra* dala. Ez dago beste indarrik maitasunari gehiago egingo deutsonik. Eginak egin, beti dago prest gehiago egiteko, sarritan bizia emoteraino. Eta bere ekinaren frutua, zuzen erabili ezkeru, itzelezko ugaritasuna da. Zabaldu zure begiak familietara, gaixoen egoitzetara, behartsuen zerbitzu askotara, misinoetara...

Zer deritxazu: *Hasarreak, gorrotoak zarata asko, maitasunak egintza asko. Zer dozu nahiago?*

d.- Beste alderdi on askoren artean, maitasuna *iraunkorra* ere bada. Maitasunaren benetakotasuna bere iraunkortasunez neurtzen da; zintzoa eta garbia bada, emoteak berak, agortu beharrean, iraun erazo egiten deutso, pobretu beharrean aberastu egiten dau. Maitasunak mirariak egiten ditu.

Zer deritxazu: *Zure inguruan zertan agertzen dozuz maitasunaren beroa eta poza?*



2.- LAGUNGARRIA "GAIXO BI"

Baziran gizon gaixo bi -benetan gaixoak!- ospitaleko gela berean egozanak. Eurretaniko bat arratsaldero ordubete jagi ahal zan, ohe ertzean jesarrita, birikietako zikinak bota arte. Bere ohea gelako leiho bakarraren ondoan egoan. Beste gizonak egun eta ordu guztiak etzunda emon behar ebazan.

Gizon biok ordu luzeak emoten ebezan kontu-kontari: euren familia, euren beharlekuak etabar erabilten ebezan. Eta arratsalde bakotxean, leiho ondoko gizona jagi eta jesarten zanean, denpora osoan jarduten eban gela-lagunari kontata kontata, kanpoan ikusi ahal eban guztia esan eta esan. Beste gizona bixkortzen hasi zan, jardunaldi honeei esker; bere mundua zabalagoa eta ederragoa egiten jakon, kontatzen eutsozan joan-etorri eta gorabehera guztiekaz.

Goiz batean, gaixozaintzaileak hilda aurkitu eban leiho ondoko gizona. Atsekabez tristerik, eroan eban bere gorpua, eta beste gaixoa aldatu eban leiho ondoko ohera. Honek jaso eban pixka bat bere burua, kanpora begiradaxo bat botatzeko; azken batean, berak ere bere begiz hainbeste gauza ikusteko aukerea izango eban, bere lagunak hain argi eta garbi kontatzen eutson guztia. Baina aurrez-aurre horma lodi bat besterik ez eban ikusi, ez egoan leihorik.

"Lagunari adore emon gura izan eutson, antza; hildakoa itsua zan"



a.- Maitasunak bihotzeko begiak argitzen ditu, eta orduan gauzak eta egoera guztiak beste era baten ikusten dira; bihotzeko argitasunak haragizko begiak ere argitu egiten ditu. Horregaitik benetakako maitaleak beste era batean jokutzen dabe. Azken batean, egintzetan agertzen da bihotzean dagoana.

Zer deritxazu: *Zure ustez maitasun-argiak zergaitik ikusten ditu gauzak beste era baten?*

b.- Gaixo itsuak bihotzez ikusten ebazan kanpoko gauzarik ederrenak; eta bihotzez lagun ezinduari kontatzean, bientzat ongari, biak zeruan. Mobidu ezinik egoan gaixoa gozatzen eta gaixo itsua bihotzez bakarrik ikusten ebana kontatzen pozik. Maitasunak egoerarik latzenak ere gozatu egiten ditu.

Zer deritxazu: *Maitasunak ezindua eta itsua biak gauzarik ederrenak ikusten ipinten ditu. Ikusi al dozu holango edo antzeko mirariak?*

d.- Leiho ondoko gaixoa itsua zan, baina bihotzeko begiak soli eukazan maitasun indarrez. Hormarik lodiena ere zulotu egiten dau maitasunak eta gaixo itsua zerua gozatzen ipinten eban.

Zer deritxazu: *Alkarbanatzen dan atsekabea erdiratu egiten da, eta erdibanatzen dan poza birritan gehitu. Egia al da? Probarik egin al dozu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mk 8, 22-26)

Betsaidara heldu ziranean, itsu bat ekarri eutsoen Jesusi, ikutzeko erreguka. Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora eroan eban. Begiak txistuz igurtzi ondoren, eskuak ezarri eutsozan eta itaundu: –Ikusten al dozu ezer? Harek begiratu eban, eta erantzun: –Gizonak-edo nabaritzen dodaz: zuhaitzak dirudie, baina ibili dabiltz. Orduan, barriro eskuak ezarri eutsozan begietan, eta argi ikusten hasi zan gizona; osaturik gelditu zan, guztia garbi-garbi ikusten ebala. Etxera bialdu eban Jesusek, herrian sartu ere ez egiteko aginduz.



a.- Jesus itsuagaz bat egiten da, hori da maitasunaren lehenengo pausua; bere eskaria aintzat hartzen dau, bere egoereaz mindu egiten da. Maitasunak eraginda, zenbat zehaztasun: “eskutik oratu, herritik atera, kanpora eroan, begiak txistuz igurtzi, eskuak ezarri... *“Ikusten al dozu ezer?”* Hori da maitasun beroa, interesatua!

Zer deritxazu: *Zuk Jesusen pasadizo honetan ikusten dozu ezer? Zer?*

b.- Apurka daroa argi betera; bien artean egiten dabe miraria. Apurka eta bien artean, batak lagunduz eta besteak sinistuz. *“Ikusten dozu ezer? -Gizonak-edo begistatzen dodaz, zugatzak dirudie, baina ibili dabiltz”*. Argi-bidea luzea da, argi egarri bizia behar da azkenera arte irauteko.

Zer deritxazu: *Zenbat ete dabiltz argi-bila eta nork lagundu ez. Zuri nork eta zelan lagundu deutsue fede-bidean aurrera egiten?*

d.- Jesus errukitsuak mirari osoa eginez, argi ikusten dauala ipini dau itsua. *“Osaturik gelditu zan, guztia garbi-garbi ikusten ebala”*. Hori da maitasuna! Maitasunak mirariak egiteko ahalmena dau. Gorrotoak, harrokeriak ilundu, itsutu, maitasunak argitu, bizibarritu.

Zer deritxazu: *Maitasunak mirariak egiten dituala. Zahartzaroan ere bai? Ezagutzen al dozu zahartzaroan sinismen bizitzan argitu danik? Eta besteei argitzen lagundu deutsenik?*

GARDANTXILO BI

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Egia zer dan jakin-mina berezkoa dau gizakiak; ez bakarrik jakiteko, batez ere, halan biziteko. Egia zer dan jakitea ez da erreza; egiak alderdi asko daukaz; gainera itxura bat dauka azaletik eta beste bat da barruan. Gainera, betiko egi osorik ez dago gure bizitzan; egiagaz nahastean mila eratako ipingiak dagoz ezarrita, eta horrek aldakorak dira. Kultureak ere asko esan gura dau; hemen txartzat dagozan gauza batzuk, indioen artean normalak dira.

Zer deritxazu: *Egiaren bila dabilena Jainkoaren bila dabil; Bera da EGI BAKARRA. Sasimasuak zer dinoe honen aurrean?*

b.- Bizitzaren barruko egia zein dan ez dakie bardin, Europan zer gura eta haxe bizi diranak eta Afrikan gosez hiltzen dagozanak. Alkarri entzunda, alkarrizketaren bidez hurrago dago egi osoa. Gainera bestea dagoan lekura joanda, bere egoerea esperimentatzen badozu, egia osotzen joan ohi da.

Zer deritxazu: *Hurkoari, -edozein dala ere- gogoz entzuten ikasi dozu?*

d.- Umearen, gaztearen, helduaren eta zaharraren egiak berbaz esateko bardinak dira, baina bakotxak bere esperientziak jantzita, beteta esaten eta agertzen ditu egiak. Buruz gehiago jakin leike gazteak, baina aitita-amamak bizitzako egia osoago dakie. Bizitzako eskolan "egiak" asko aldatzen dira.

Zer deritxazu: *Egiak buruz ala esperientziaz ezagutzen dira hobeto?*



Gardantxilo bi egozan kantu baten, zumar baten gainean. Euretari bat goikaldean egoan, zumarraren gorengo adarrean balantzaka. Bestea behekaldean, adar bitarte batean. Halako batean goiko gardantxiloak isiltasuna urratuz esan eban:

- “Hau da hau! Zumar honen orriak bai orlegi dotoreak!”

Behekaldean egoanak, goiko laguna adar joten jakola ustez, zorrotz erantzun eutson:

- “Hago isilik, itsu halako hori! Ez dok ikusten zuriak dirana ala?”

Eta goikaldekoak hasarre batean:

- “Hi bai itsu ta erdi! Orriok orlegiak dozak”

Eta behekaldekoak hegoai erainez, badinotso:

- “Nahi badok, buztaneko lumak jokatuko deuzat zuriak dirala”.

- “Hik zera jakingo dok, halako kirtenko horrek!”

Goikaldekoari odola bor-bor berotu jakon, eta berehala jatsi jakon ondora, erakutsi on bat emon nahirik. Besteak zirkinik ere ez. Biak aurrez-aurre jarri ziran, samako lumak hazarrez harrotuz. Halanbeharrez biak begiratzen dabe gorantz, eta biak alderdi bardinetik. Eta goitik jatsi zan gardantxiloak “ene bada” luze bat bota eban:

- “Egia gero! Orriok zuriak dozak. Euk dok errazoia”.

Baina adiskidetu nahirik, badinotso lagunari:

- “Hator, arren, neu lehen nengoan adarrera”. Joan ziran, bai, zumarraren gorengo adarrera eta biak batera jo eben:

- “Benetan orlegiak dira!”

Ez egizu epaitu, zeu bestearen ikuspuntuan jarri aurretik, edo-eta bere zapatakaz ordu biko bidea egin banik.



a.- Bata goitik eta bestea behetik, batari eguzkiak alde batetik emoten eutson, eta besteari bestetik. Gauza bardina ikusten dabe, baina lekuak eta inguruak eraginda, ezbardin ikusten dabe. Biak errazoia eta biak gauza bardinagaitik hasarre. Lekuz aldatu eta biak bardin ikusten dabe. Zer dan bestearen lekuan jartea...

Zer deritxazu: *Alkarrizketa eta eztabaidea gauza bardinak dira? Zer alde dago?*

b.- Bestearen lekuan ipinita gero berba egin; ez hain errez bestea epaitu guzurtizat edo... gardantxilo biak ateraten daben ondorena bihotzean ezarrita erabili behar geunke: *"Ez eizu inor epaitu, zeu bestearen ikuspuntuan jarri aurretik, edo-eta bere zapatakaz ordu biko bidea egin barik"*. Arinegi hurkoa epaitzen badogu, ez egirik, ez lagunik ez dogu izango.

Zer deritxazu: *Eztabaidan hasarretzen bagara, zergaitik izan ohi da hori: egia zaindu nahirik, ala nik neugaz urteteagaitik?*


d.- *"Benetan orlegiak dira"...* *"Benetan zuriak dira"...* Lekuz aldatuta, alkarri emon behar errazoia. Eleizan, Euskal Herrian, auzoan zenbat eztabida, zenbat burruka, zenbat alperriko heriotz eta hondamendi! Azkenean zertarako?

"Holangorik ez da sekula jazo gure artean" esaten dogu sarri. Eta zelan esaten dabe jakitunak: *"Eguzkipean ez dagoala gauza barririk?"*

Zer deritxazu: *Hau hausnartu ondoren, zer erabagi hartzen dozu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN ("Mt 7, 1-5)


«Ez gatxetsi inor, Jainkoak ere ez zagiezan gatxetsi; izan ere, zuek besteak zelan epaitu, halan epaituko zaitue Jainkoak, eta zuek zein neurriz neurtu, neurri beraz neurtuko zaitue Jainkoak. Zelan ikusten dozu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hageaz ez zara konturatzen? Eta zelan esan daikeozu senideari: "Itzi begian dozun lasto-izpia ateraten", zuk zeurean hagea dozula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik hagea, eta orduan ikusiko dozu garbi, senidearen begitik lasto-izpia aterateko.



a.- Jesus egizale amorratua zan; egia egoan lekuan egoala autortuko eban eta goraldtu. Jaungoikoaren aurrean egian bizi danak dauka errazoia, ez Legeak, ez ohitureak, ez jentearen esamesak ez dauke zerikusirik. Arerioak ere autortzen eban hau: *“Badakigu egizalea zarana eta inoren bildur barik egia defendatzen dozula”*.
Zer deritxazu: *Egia maite dauanak ez deutso Jesusi bildurrik, beti doa argitara. Egia onartzen ez danean, zer atxaki eta errazoi antzeko erabili ohi da?*

b.- Eta jakin, barriz, gaur egun edozeinek daki edozer, nahiz eleizako gauzetan, nahiz herriko arazoetan. Beste danak faltsuak dira, interesakaitik dabilzanak. Egia garbia guk eta gutarrak dakigu. Jesus hori baino egizaleagoa zan: *“Zergaitik ikusten dozu zure anaiaren begian dagoan samarra, eta ez dozu zeure begian dagoan habea ikusten”?* Hori da kontua: begiak garbiak behar dira egia ikusteko.
Zer deritxazu: *Zelan garbitu begiak egia ikusteko dan modukoa?*

d.- Sekulo baino karrera haundiagoak egiten dira gaur egun, eta inoiz egia nok daukan jakitekotan, gaur seguruenez. Eta zer? Baztar guztietan epaitegi etxe haundiak beterik? Eta zer? Epaitegietan egiak irabazten dau? Indar eta pixu bardina ete dauka txikiaren egiak eta haundiaren egiak?
Zer deritxazu: *Jesus Nazareteko Maisuaren egibideak betiko balio dau? Zelan eta nun ikasi bere egibide hori?*



GATZEZKO PANPINA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Itsasoa bere sakontasun, aberastasun, zabaltasun eta ezkutuko misterioak gogotan hartuta, sarri Jaungoikoaren irudizat hartzen eta erabilten dogu. Itsasoa barik ezin gara bizi. Planeta honen zatirik haundiena itsasoa da; gure bizitzatik hori baino gehiago da Jaungoikoa. Itsasoa ezagutzen dogulakoan, beti da ezezaguna alderdi askotatik.

Zer deritxazu: *Jaungoikoagan sinistea arriskutsua da, kezka garria, arduragarria...?*

b.- Itsasoa bere sakon-zabal guztian nork ezagutu? Itsas azpian dabilzan urpekariak, eurak aurkitu ahala, ezkutuko altxor batzuk erakusten deuskuez; gero eta harrigarriagoak. Santuak, mistikoak dira Jaungoikoazko itsasoko urpekariak. Entzun euretariko bati, San Paulori: *“Ez gizonen begik ikusi dau, ez belarrik entzun, ez bihotzek susmau, han ikusi dodanaren antzekorik”.*

Zer deritxazu: *Jaungoikoa buruz ala bihotzez ulertzen da? Zenbat ardura deitsu?*

d.- Penagarria da, baina egia, gizaki askoren egoerea: itsasorako arrainak izan eta munduko erreka toetan sartuta bizi ezinik. Izan ere, errekak itsasoko urez sortutakoak dira eta, lainoak han-hemen zabaldu arren, barriro ere itsasora jo behar. Holan balitz gure bizitzan!

Zer deritxazu: *Guk zergaitik ez dogu jotzen sortzaile dogun Iturburura??*



2.- LAGUNGARRIA “GATZEZKO PANPINA”

Bazan behin papina bat besteakandik guztiz apartekoa. Egizu kontu, itsasoan hain ugari dan gatzez egina zala. Jakin ere, baekian ibiltan eta gainera pentsatzen. Benetan panpina bitxia.

Entzunda eukan itsasoa urdina zala, sakon-zabal-luzean neurribakoa, edertasunez eta indarrez betea, eta itsaso hori ikusteko gogo bizia sortu jakon.

Geroago batean, bera itsasoaren alaba zala esan eutsoen, bat-batera harako bidea hartu eban, hainbeste gauza onez beteriko aita-ama ezezagun hori ezagutzeko gogoz.

Ibili eta ibili, heldu zan eguzki galdatan egoan hondartza batera; hantxe agertzen jako aurrean lehenengoz ur urdinezko zabaldi zoragarria.

Olatuak hara-hona urduri jolasean, haizeak putz eginda.

- “Nor zara?” -itaundu eutson aurreko ur potzu urdinari gatzezko panpinak, harrituta.

- “Ni itsasoa naz” -erantzun eutson ahots batek.

- “Eta nor da itsasoa?”

- “Neu naz”.

- “Ulertu nahi zindukedaz, baina ezin dot. Esaidazu, arren: Zer egin behar dot?”

- “Ikutu nagizu”.

Panpinak bai agudo ere ikutu. Bildurrez, behatz puntakaz igurtzi eban ura. Berehala halako zirrada arraro bat sentidu eban: zertxobait ulertzen hasi zala begitandu jakon. Gerotxoago atzeko hondartza bero lehorrera aldendu zanean, harriturik konturatu zan, oineko behatzak, ura igurtziterakoan, desagertu egin jakozala. Ziria sartu eutsoela pentsatzen hasi zan.

- “Benetan gaiztoa zara! -eraso eutson hasarrez itsasoari. Nire behatzak desagertu deustazuz”.

- “Kontuz, ez zintzatekez hasarretu behar -erantzun eutson itsasoak. Ulertu ahal izateko, zeuretik zerbait emon behar izan dozu. Eta zuk ulertzea nahi zenduan, ezta?”

- “Bai, hori da nik nahi nebana”.

- “Gehiago ulertu nahian bazagoz, zeure burua emon behar dozu. Gehiago emoten dauanak, gehiago hartzen dau”.

Panpina, beste barik, apurka-apurka itsasoan sartu zan. Behatzak emonaz, gitxi ulertu eban.

Berehala sentidu eban samintasun eta zoriontasun-sentsazino arraroa, era batera. Barrurago sartu ahala, itsasoak gehiago kenduten eutson, baina bere burua argituz eta bihotza berotuz joakon.

- “Zer da itsasoa?” -itaundu eban urdin zabalean sartzen joiala, eta pozez oihiu eginaz, esan eban:

- “Neu naz”

Jainko bila dabilana, azkenbako zoriontasun itsasoa izanik, benetan aurkitu gura badau, bere burua osorik emon behar deutso, bere hondobako maitasun itsasoan murgilduz, gatzezko panpinak itsasoan egin eban lez.

a.- Ur potzu haundiko misterioa ulertzen da, bertan sartzen dan neurrian; esperientzia da bide bakarra. Zenbat eta gehiago sartu, orduan eta hobeto ulertu. Jakina, sartzeak galtzea dakar, baina gehiago irabazteko. Ezer galdu edo sufridu barik, benetan gozaterik ez dago.

Zer deritxazu: "Nire atzetik etorri gura badozu, ukatu zeure burua". Ez al deusku antzekoren bat esan gura? Hori al da Jesusi jarraitzea?

b.- "Gehiago ulertu nahian bazagoz, zeure burua emon behar deustazu". Hemen ere, antza, gehiago emoten dauanak, gehiago hartzen dau. Gitxi emonda, gitxi gozaten da. "Itsasoak gero eta gehiago kentzen deustu, baina zeure burua gero eta gehiago argituz eta bihotza berotuz doa". Zer pena hau dastatu barik joatea!


Zer deritxazu: Egin gura al dozu antzeko esperientziarik? Itsasoan sartu barik? Eta zer da itxasoan sartzen joatea?

d.- Barru-barruraino sartuta gero: "Zer da itsasoa?". - "Neu naz itsasoa". Jaungoikoa nor da? Sartu zaite, baina benetan, osorik. Egon, sartuta zagoz, handik kanpora ezin zara existidu ere egin. Baina kanpotik bazengoz lez bizi bazara... Ez al dakizu zeure etxeko barri?

Zer deritxazu: Zer da zuretzat Jaungoikoa dan itsasoan sartzea? Zelan da hori?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 14, 15-21)

«Maite banozue, beteko dozuez nire aginduak. Nik Aitari eskatuko deustot eta beste Laguntzaile bat emongo deustue, befi zuekaz izango dana, egiaren Espiritua. Mundutarrak ezin dabe hartu, ez dabelako ikusten, ez ezagutzen; baina zuek ezagutzen dozue, zuengan bizi da-ta eta zuekaz egongo da betiko. «Ez zaituet umezurtz itziko, bihurtuko naz zuengana. Laster munduak ez nau gehiago ikusiko; zuek, ostera, ikusiko nozue, Nik bizia badot-eta zuek ere biziko zaree-eta. Egun haretan ulertuko dozue Ni Aitagaz bat eginda nagoala, zuek Nigaz eta Ni zuekaz. Nire aginduak onartu eta beteten dituanak, horrexek nau maite. Ni maite nauana, barriz, nire Aitak maite izango dau, eta Nik ere maite izango dot eta agertuko naiako berari».



a.- Hemengo kontua alderdi bien esku dago: Jaungoikoa eta gu bakotxa. Jaungoikoak gura dau bere maitasun itsasoan gu murgildu eta bihotz betean gozatzea. Baina hori geuk agertu behar deutsogu praktikan: materialkeri guztiak alde batera itzi eta *ortozik* Beragan sartzen joatea. Gugandik Bera ez dan guztia kendu ahala, Beragan barrurago joango gara.

Zer deritxazu: *Egin al dogu behin ere holango esperientziarik? Entzun edo irakurri?*

b.- Misterio zoragarri hau gudan gauzatzea Espiritu Santuaren egitekoa da, hau ez dago gure eskuan, hau ez da buruz ulertzekoa, bihotzez hartu eta gozatzekoa baino: *“Nik Aitari eskatuko deutsot eta beste Poz-emoile bat emongo deutsue, beti zeukaz egon daiten”*.

Zer deritxazu: *Emoten al deutsogu lekurik Espiritu Santuari gudan hori egin dagian?*

d.- *“Ni maite nagiana, maite izango dau nire Aitak; eta Neuk ere ahalakoa maite izango dot, eta Ni agertu egingo naiako”*. Gudan dagoan Jainkoa irabazten eta gudan dagoan lurrezko buztina gitxitzen doan arabera, joango gara “maitasun itsasoa” dan Jainkoa gustatzen, dastatzen. Eta Jaungoikoa nor eta zer dan ez dago jakiterik, Bera gustatzen, dastatzen ez dan bitartean.

Zer deritxazu: *Zer jarrera hartu behar dogu, Jaunak hori gudan bizi azo deiskun? Ba al dago biderik?*



HAREZ BETERIKO ZAKUTOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gaur zenbat lekutan entzuten dan: “Ez dago pekaturik; abadeak asmatutako lelokeriak dira...” Lehen behar baino gauza gehiagotan ipinten zan pekatu kontu hori, eta sarri behar ez dan gauzetan. Azken batean, pekatuak zer ikusia dauka Jaungoikoagaz eta norbere kontzientziagaz. Eta bata eta bestea galdu ezker, egia da, horreentzako “ez dago pekaturik”. Izan ere, norbere bizitzan pekatura aurkitzeko begi zorrotza behar da, goi-argiz garbituta.


Zer deritxazu: *Zuk izan al dozu aldaketarik zeure kontzientziako gauzetan aspaldi honetan?*

b.- Zer? Ez dagoala pekaturik? Ez ba! Sekulo baino gehiago! Zabaldu eguneroko komunikabideak: pekatura besterik ez dago munduan. Baina.... beti inorenak. Betikoa: norbere pekatura aurkitzeko begiak itxi eta norbere barrura sartu behar da; inorenak ikusteko beti zabalik.

Zer deritxazu: *Zurea eta nirea, txarrena nahiz onena izan, ez da bardina. Zergaitik?*

d.- Gure artean, eskubideak, askatasuna, duintasuna etabar inoiz baino gehiago aitatzen eta agertzen dira, aintzat hartu eta defendidu. Ordua izan da! Eta goikoa nahiz behekoa izan, erruduna zigortzen da. Baina hemen ere zintzotasunak huts egiten dau sarritan: Pertsonaren altxor horreek ez dira niretzat bakarrik, baita bestearentzat ere. Eta hor galtzen doguz neurriak. Ez gabiz zuzen eta zintzo.

Zer deritxazu: *Epaille zintzoa izateko zer da beharrezkoena?*



2.- LAGUNGARRIA "HAREZ BETERIKO ZAKUTOA"

Behin basamortuko eremuzale batek gaiztakeri haundi bat egin eban. Bai agudo jakin ere inguruko eremuetako agura beneragarriak! Arazo hori garbitzeko, batzar bat antolatu eben eta Moises eritxon abata jaunari deitu eutsoen, epaimahaian batzarburu izateko. Abatak jaramonik ere ez. Eta bigarrenez deitu eutsoen. Horra nun datorren Moises abata, zakuto bete hare bizkarrean atzekalderuntz eskegita dauala. Ondora hurreratu jakenean, eta holan ikusi ebenean, harrituta badinotsoe: - "Ene abata jauna! Zer dala-ta zatoz holan?"

- "Hor bizkarrean dakardaz neure pekatuak, neuk ez ikusteko moduan. Eta zuok batzarrera deitu nozue, inoren pekatuak epaituteko?"

Bete-betean jausi jaken erantzun argia; eta lagunari parkatu egin eutsoen egindako gaiztakeria. Gehiago ez eutsoen holakorik aitatu ere egin.



a.- Jakina, holako batzarrak beti egiten dira “Jainkoaren izenean”; agnostikoa banaz, “Neure duintasunaren izenean”. Eta gaurko erara esanda, indarra hartu daben *sasijainkotxo*en izenean: Askatasunaren, herriaren, eskubideen izenean. Baina bitartean egirik ez ba dabil, estalki haundia behar da azpiko guzur-nahasteak ezkutatzeko. Eta aurkakoak ere horren esperientzia dabelako, azpikoak agirian.
Zer deritxazu: *Erreza egiten jatzu gaur sinistea? Zergaitik?*

b.- Parabolako abataren antzeko asko balego! Harek berba gitxi behar izan eban gauzak euren onera ekarteko. Bere pekatuz beteriko zakutoa atzera botata, bada ezpadan. Orduan ez dira begibistan agertzen, baina zeure atzekoak nahiko dira zureak begiaurrean ikusteko... Beti inorenak begiaurrean, norberarenak atzean gordeta.

Zer deritxazu: *Zer asmatzen dogu geure pekatuak “atzeko zakutoan” gordeteko?*

d.- Abata bai maisu argia! Horretarako ez da behar karrera haundirik, zuzena izatea nahiko da. Noizean behin norbere *morrala* aurrean ipini eta barrua astindu, ea zer moral kontu agertzen dan. Jakina, Jaunaren aurrean egin behar dogu, badaezpadan, Harek gugan ikusten dauana gogoan dogula.

Zer deritxazu: *Nun ete da aintxanako “kontzientziaren azterketa”? Bizi al da?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 8, 3-11)

Orduan, lege-maisu eta fariseuak andra bat, adulterioan harrapatua, ekarri eutsoen. Erdi-erdian ipiniz, esan eutsoen Jesusi:

–Maisu, andra hau adulterioan harrapatu dabe. Moisesek legean holangoak harrika hiltzeko agindu euskun; zuk zer dinozu? Itauna azpikeriaz egin eutsoen, ha salatzeko atxakiaren baten bila ebiltzan-eta. Jesus, ostera, makurturik, atzamarrez lurtean idazten hasi zan. Hareek, ostera, itaun eta itaun jardun jakozan-eta, zutundu zan Jesus eta esan eutsen:

–“Zuetan pekaturik barik dagoanak jaurti dagoila lehenengo harria”. Eta barriro makurturik, lurtean idazten jarraitu eban. Hareek, ostera, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziran, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zan, andrea aurrean ebala. Jesusek zutundu eta esan eutson:

–“Andrea, nun dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gatxetsi?” Harek erantzun: – “Inork ere ez, Jauna. Orduan, Jesusek:

–“Nik ere ez zaitut gatxesten; zoaz, eta ez egin barriro pekaturik.”



a.- Jesus gure Maisu haundia zorrotza izan zan arazo honen aurrean. Jakina, lege danen gaintik maitasuna ipinten eban, eta, jakina, zulentasuna. Biak batera jartzen eban, beti ere maitasunari lehenengo lekua emonez. *“Irakasle, emakume hau ezkontz-hausten aurkitu dogu agiri-agirian”*. Holakoak “harrika” zatitzeko errudun ziran, Lege santuak agintzen ebanez..

Zer deritxazu: *Eta...nun zan emakune horregaz pekatu egindako gizona? Eta hari zer?*

b.- Baina gizonak euren aldera egindako “lege santua” egoan bitartean. Jesusek pazientziz hartzen dau arazoa; epea luzatu, ea baretzen eta senera sartzen baziran. Artaburu galanta bota eutsien aurrera: *“Zuen artean pekatu barik egon daitenak, jaurti begio lehenengo harria”*. Inori botatzeko ekarri ebezan harriak bota ez... eskutik jausi egin jakezan lotsaz.

Zer deritxazu: *Jesusen jarrera honek zer erakusten deusku? Zelan jokatu?*

d.- Euren ustez, pekatu barik etorri jakozanak, orain “pekatari” doaz etxera. Ederto! Neurri bardinaz neurtu eban-eta. Eta hor daukazu Jesus eta Andrea, pekataria aurrez-aurre. *“Zoaz, eta ez egin pekatunik aurrerantzean”*. Ziur egon, andra horrek seguruenek itziko eban pekatu-bidea, baina ez Lege santuaren izeneko salakuntzakaitik, Jesusen errukiagaitik baino.

Zer deritxazu: *Jesusen bidea jarraitzeko, guk kristauok zelan jokatu behar dogu gaur eta hemengo giroan?*



HARRIAN DAGOAN ZALDIA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gizakirik gehienak euren giza-mailarik onena hartu barik hiltzen dira, erdieginean. Batzuk aukerarik izan ez dabelako; beste batzuk nok lagundu izan ez dabelako. Baina gehienak eurak gura ez dabelako. Gura bai, baina ez benetan. Penagarria dohairik ederrenak estreinatu barik mundutik joan beharra!

Zer deitxazu: *Bagenki Jainkoak gu bakotxagaz zer egin gura izan dauan eta zertarako dohaiak isuri dituan guran, zer ikusiko ete geunke?*

b.- Guk geure izatean geuk uste dogun baino ahalmen ta dohai gehiago doguz. Baina ahalmen eta dohai horreek hazitan hartzen doguz, bakotxagan dago landu beharra. Gizakia beti hazten egon daiteken izakia da, baita zahartzaroan ere.

Zer deritxazu: *Geure burua lantzen joateko bidean ez dagoala jubilazinarik entzutean, zer sentimentu eta gogo jatortzu?*

d.- Gure bizitzako ekintzarik ederrena, beharrezkoena, baliotsuena, pozgarriena hauxe da: Geure burua landutea, geure izatean ezkutuan doguzan ahalmenak indarrean jartea. Behin batean bizi behar eta erdieginean joan behar...

Zer deritxazu: *Jaunak zu zaran baino helduagoa, eginago gura zaitu. Hau gaur entzutea dei bat dozu. Erantzuteko gogorik bai?*



2. LAGUNGARRIA "HARRIAN DAGOAN ZALDIA"

Patxi eskolamutiko argi bat da. Behin, eskolara bidean doala, Kaxinto argina dinbi eta danba, zintzel eta mailuz, harritzar batean kolpeka ziardual aurkitu dau.

Patxi han egon jakon begira adi-adi. Halako baten, Kaxintok atsedendaldi bat hartzeko gelditu zanean, badinotso Patxik:

- "Zer diharduzu hor harrian kolpeka? Zer dago, ba, hor barruan?"
- "Hemen, Patxi, zaldi polit bat dago eta bera argitaratzen dihardut".
- "Jum, hor zaldia? Leku onean, egon ere!"
- "Hator hemendik hamabostera, eskolatik etxerantza hatorranean, eta ikusiko dok".

Halantxe, esandako egunean han zan Patxi zolia, Kaxintoren lantokian.

- "Ikusten dok, Patxi, zelako zaldia egon dan han harritzar haren barruan?"
- "Ez da izango! Hau zaldi hau han harritzar haren barruan egon dala? Neuk sinistu horixe!"
- "Bai, bai, Patxi, hementxe bertan egon da. Dotorea, ezta?"
- "Ete dan dotorea! Eta zelan atera dozu, ba?"
- "Ikusiko dok: kolpe han eta kolpe hemen, ekin eta ekin egin ezkero..".
- "Egia da, gero, Kaxinto? Kontau egidazu argiago".
- "Begira, Patxi: Lehenengo, norberak euki behar jok argi ta garbi zer nahi dauan handik atera; gero borondate sendoa, kolpe eta kolpe jarduteko; ondo jakin eta neurtu nun eta zelan emon. Kontuz ibili beharra iagok, ertzak-eta egoki aterateko. Jardunaldi luzea dok, baina apurka-apurka hor agertzen dozak buztan, belarri, begi etabar. Norbera ere gero eta pozago. Azkenean hona hemen zaldiko-mandiko polita".
- "Hori da eskua daukazuna, Kaxinto!"
- "Eskua, irudimena eta bestelako ahalmen guztiak Jainkoak emoten jeuskuzak, Patxi. Zaldi hori, harrian baino lehen, norbere buruan egon dok, gero bihotzean eta handik eskuetarako luzatzen dok; pertsona osoak hartzen iok parte".
- "Kaxinto, hor zaldia besterik ez da egon?"
- "Bai, bai, Patxi; hor harri-barruan zaldia lez, katua, tximinoa, San Jose, Jesukristo...gauza asko egon dozak; baina nik zaldia aukeratu juat eta zaldiak urten iok".

Patxi begira-begira gelditu jakon harritura Kaxintori. Honek, esku bata mailuan eta bestea Patxiren bizkarrean jarrita, badinotso irribarrez:

- "Hara, Patxi: Harritzar bategaz hain gauza ederrak atera ahal badozak, areago hi lango mutiko bategaz!"
- "Bai gero?"
- "Ziur egon, Patxi. Baina lau baldintza behar dozak horretarako:
 - 1) Euren buru-bihotzetan argi euki, zer gizon-mota izan nahi dokan bizitzan, eta benetan horixe nahi izan.
 - 2) Egunero eta gogotsu ekin kolpe batzuek emoten, aspertu barik.
 - 3) Eta Jaungoikoari bihotzez eskatu, lagundu deizula aurrera jarraitzen zeure burua lantzen.
 - 4) Eta zeuk ahal dozunaz pozik eta konforme bizi".

a.- Harrian dago zaldia, baina aurretik norbere buruan eta gogoan euki behar. Jakina, harrian bardin dago zaldia, Jesus, Ama Birjina, astoa, txarria... Baina harginak zer gura dauan, harexek urtengo dau. Bardin gure bizitzan: zer gizon edo andra mota izatea gura dogun, harexek urtengo dau. Horretan "bokazinoak" ere asko esan gura dau, Jaunak bakotxari egindako deia.

Zer deritxazu: Erabagi al dozu benetan zer gizaki mota izan gura dozun?

b.- Zintzel eta guzti, egunero kolpe eta kolpe ekin behar, handik eta hemendik zatiak kentzen, zaldi egina eta betea agertu arte. Ondo jakin behar da nun eta zelan emon kolpeak. Kolpeak, txikiak izan arren, bat ere ez da alperrikoa. Geure burua landuten ere kolpe asko emon behar doguz, eta berez datozen kolpeak ere ahal dan ondoen hartu eta eroan behar.

Zer deritxazu: Zugan dagoan gizakiak zer falta dau gizaki heldu eta egina izateko? Zer ekin behar deutsozula uste dozu?

d.- Jaungoikoak badauka honetan zerikusirik, Berak sortuak eta halango dohaiz orniduak gara. Bere nahia da zu, ni, hori garan baino gehiago izatea gizaki lez. Jakina, aurrera baino lehen, garanaz pozik eta konforme bizi behar dogu. Hortik aurrera, gogo beroz egunero hasi eta jarraitu.

Zer deritxazu: Ez ete deusagu Jaunari poz hori emongo bizitza amaitu baino lehen?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (1Pe 2, 4-5.9-10)

Hurreratu zaitzeze Jaunarengana. Bera da harri bizia, gizonak baztartua , baina Jainkoaren begietan aukeratua eta bikaina. Horrela, zuek ere harri bizi az osoturiko espirtuzko tenplu egingo zaitue Jainkoak eta abade sagaratuko, Jainkoari atsegin jakozan espirtuzko opariak Jesu Kristoren bitartez eskeintzeko.

Zuek, ostera, jatorri aukeratu zaree, errege-abadetza, nazino sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri, ilunpetatik bere argi zoragarria deitu zaituen Jainkoaren egintza bikainak iragarri dagizuezan. Sasoi batean herri ere ez zinetenok, orain Jainkoaren herri zaree; erruki barik zengozenok, orain errukia lortu dozue.



a.- Gizaki garan aldetik kreazinoko izakirik bikainenak gara. Jainkoak gizona ipini eban kreazinoko buru eta zuzendari. Bai, dana gizakiarentzat, baina gizakia bera Jainkoarentzat. Gizaki garan aldetik hau da daukagun kategoria! *“Zuok ere harri biziaz osoturiko espirituzko tenplu egingo zaitue Jainkoak”*. Kristinautasunak are ederrago egiten gaitu. Kristogan Jainkoaren seme-alaba, bere bizileku atsegingarri.

Zer deritxazu: *Kristinauok galdu egin dogu “kristinau karneta”; edo zaharraren zaharrez gauzeztandu egin jaku. Zelan barriztu karneta?*

b.- Jakina, kristinau zintzo izateko, lehenengo eta bat gizaki lez heldua, egina izan behar da. Gure lur gainean bateatutako basakristau asko dabil. Eta, jakina, kristau izatearen nortasuna galdu ezkerro, lege hutsak ez dau betetzen. *“Zuek jatorri aukeratu zaree, errege-abadetza, nazino sakratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri”*. Holakorik! Benetan merezi bako kategoria.

Zer deritxazu: *Zelan erantzun Jainkoak gudan eta guretzat egin dauan guztia? Ze pausu emon behar doguz?*

d.- Gizakia dan harri zakarretik Jainko seme-alaba aterateko gai danak osotuko dau gure ahalegina. Besteak lagunari esaten eutsana: *“Oraindik zu onenak emoteko zagoz”*. *“Ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu zaituen Jainkoaren egintza bikainak iragarri dagizuezan”*. Jainkoak gugaz egin dauana egin daike besteakaz ere. Kontua hori da: *“ilunpetatik argi zoragarrira urtetea”*.

Zer deritxau: *Zelan urten ilunpetatik Jesusen argira? Benetan gura badozu, ez al dozuz ezagutzen hor inguruan argi horren bila dabiltzan zure adinekorik?*



HARRI-ZUKUA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jaungoikoak mundua sortzerakoan, erdieginean itzi eban, baina munduan bertan itzi ebazan mundua hobegotzen joateko aukerak, dohaiak, arduradunak. Gainera, gizakiari ezarri eutsozan dohai bereziak, kreazinoan gordeta dagozan baliabide horreek argitara ekarteko. Hori da Jaungoikoaren bidea: Egilea Bera da, baina partaidetzat gizakia hartu eban. Hortik gaur egun begibistan jartzen deuskuezan atal harrigarriak. Eta oraindik agertuko diranak!

Zer deritxazu: Gizakia noiz da haundiago: bera bakarrik dabilenean, ala Jaunagaz bat eginda diharduanean?

b.- Gizaki baxotxa hain harrigarria bada, bere ahalmenez jantzita, zer lortu ete daike eurentariko asko alkartuta, alkarlanean jokatzeko hasi ezker? Harrigarriena, zoritxarrez, hauxe da: horretariko bi edo hiru alkartzea, eta ekintza harrigarri horren aintza eta ohorea euren artean eta Jangoikoagaz konpartitzea.

Zer deritxazu: Gizakiaren ahalmenak -Jaungoikoak emonak- zuzen erabili ezik, bardin dira onerako nahiz txarrerako. Honek zertarako deia egiten deitsu?

d.- Inor ez da munduaren jabe, morroiak, zerbitzariak baino. Danok gara sortuak, alkarren laguntzarako jaiok. Txarrena, mundua hobegotzeko, banaka batek jo ta ke dihardu; besteak begira egon ezker, ahal dan probetxurik ezin atera.

Zer deritxazu: Zeure buruari begira, zertan lagundu zeinke guztien onari begira bizimodua hobetzeko?



2.- LAGUNGARRIA "HARRI-ZUKUA"

Halako egun batez, ondo jantzitako gizon bat heldu zan herri batera eta etxeoandra bati jateko zerbait eskatu eutson:

- "Penaz dinotsut -erantzun eutson- baina oraintxe bertan ez daukat etxean ezertxo ere".
- "Ez izan ardurarik, erantzun eutson bare-bare ezezagun horrek; ba daukat hor zakutoan **zuku-harri** bat. Topin bete ur irakinetan berau sartzen itziko bazeuskit, munduko zukurik gozoena neuk prestatuko neuke".

Joan zan etxeoandrea, eukan topinik haundiena urez bete eban eta sutan berotzen ipini; eta behingoan zabaldu eban auzoko andren artean harri-zukuaren sekretoa. Ura irakiten hasi orduko, han batu zan auzodi osoa, kanpotar horren inguruan. Honek zuku-topinera bota eban harri miragarri hori eta handik laster koilarakada bat dastatu ere bai. "Hau bai gozoa!" esanaz, haren ezpanak miazkatu beharra!

- "Patatatxo batzuk baino ez ditu behar", gaineratu eban. Andra batek behingoan badino:
- Neuk ekarriko ditut etxetik. Gizon horrek barriro dastatu eban zukua, eta askoz gozoago egoan, baina haragi pixka bat falta jakon. Eta han doa beste andra bat haragi bila etxera.

Eta zukua dastatu ahala, zoragarria benetan, baina ortuariak eta gatza behar, aingeruen janari izateko. Eta "aitaren" batean han eukan eskatu ahala guztia eskuetan. Azken batean badino:

- "Betoz nahi daben guztiak plater eta guzti". Hango perrotsa etxera plater bila, eta han batu zan jentetza, askok sagar eta madariak ekarriz. Ondoren mahaikada ederra batu zan, ezin esan ahalako poztasun giroan bazkari miragarri hori alkarbananduz.

Eta gizon ezezagun hori desagertu zan, zuku-harri miragarria itziaz; ba ekien, behar ebenerako, zelan egin munduko zukurik gozoena.



a.- “Harri-zukua” ala “zuku-harria”? Dana dala, kanpotar horrek ekarren “harri” harrigarria, danentzat beste zuku gozo egiteko. Baina eginak eginda gero, “harri-zuku” bihurtu zan. Hemen harritzekoa zera da: berak ekarren sekretua aintzat hartu eta sinistea; sinistu eta martxan jatzea. Jakina, harri hutsak ez eukan ondoren onik. Zukuak *osagai* gehiago eta hobeak behar ditu.

Zer deritxazu: Zuk antzeko gauzetan errez ala nekez hartzen dozu parte?

b.- Gero dator sekretua agirian ipinteko bidea: Bakotxak eukan apurra etxetik topinera botatea, bakoxak eukana. Eta zenbat eta gehiagok parte hartu, guztiak pozago eta zuku gozoago. Jakina, zuku hori udalak edo ahaldundiak egin balebe, danok prest platerakaz. Baina honek beste ahogozo bat dauka.

Zer deritxazu: Besteak holango ekintzetan parte hartzeak zertara eragiten deutsu? Begira egotera ala parte hartzera, ahal dozuna eginez?

d.- “Zuku-harria” itzita joan zan gizon hori; baekien zelan egin munduko harri-zukurik gozoena. Parte hartu ebenak bai pozik! Guztien artean egindakoa zan-eta.

Zer deritxazu: Gizon ezezagun horrek ez dauka ala badauka Jesusen antzik? Zertan? Eta guk jarraitzaileok ikasi dogu “harri-zukuaren” sekretua?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 2, 1-10)

Hiru egunera, ezteguak izan ziran Galileako Kanan, eta han zan Jesusen ama. Jesus eta beronen ikasleak ere konbidatu ebezan ezteguetara. Eta ardaua amaitu zan-eta, esan eutson amak Jesusi:

–“Ez dauke ardaurik”. Jesusek erantzun eutson: –“Itzi egidazu bakean, andrea. Oraindik ez da etorri nire ordua”. Jesusen amak holan esan eutsen zerbitzariari: «Egin horrek esango deutsuena». Baziran han harrizko sei ur-ontzi, juduak euren garbikuntzetarako erabili ohi ebezanak, ehunen bat litrokoa bakotxa. Jesusek esan eutsen zerbitzariari: –“Bete ontziak urez. Hareek goraino bete ebezan. Orduan, esan eutsen: –“Atera pixka bat eta eroan mahaizainari”. Halan egin eben hareek. Mahaizainak arda bihurtutako ura dastatu eban, nungoa zan jakin barik; zerbitzariak, bai, baekien, eurak atera eben-eta ura. Ardau barria dastatu ebaneko, senarrari dei egin eta esan eutson: –«Jente guztiak ardaurik onena atera ohi dau lehenik eta, jentea nahiko edanda dagoanean, arruntagoa; zuk, barriz, orain arte gorde dozu ardaurik onena».



a.- Miraria gehienetan holan hartzen dogu: Geure indarren gaintetik dagoan egintza harrigarri bat jazoten danean. Hau da, Jaungoikoaren presentzia derrigorrezko egiten danean. Lehenago baztar guztietan ikusten ziran mirariak, santuak eurak ere "mirariz" beteten genduzan, guzur nahiz egi: zenbat eta harrigarriagoak egin, santu haundiagoa.


Zer deritzazu. *Zuretzat zer da miraria? Jaungoikoak zetan parte hartzen dau?*

b.- Kanango ezteguetan ardaua amaitu. Etorri da "harri-zukua" egiteko ordua. Maria konturatu da, Semeagana doa erreguka. Kostata, hau martxan jarten dau. Ondoren zerbitzariak bialtzen ditu Jesusengana eta honen aginduetara jarten dira. Ondoren egundoko zukurik gozoena danentzat. Nork egin dau zuku hori? Jesusek? Baina bere esanera jarri ziran guztiak parte hartuz.

Zer deritxazu: *Beharizanaren aurrean guztiak parte hartzea ez al da hori miraria? Hori barik egingo ete zan miraririk Kanaanen? Eta geurera etorrira, zer?*

d.- Jakina, holango mirariak egin ezkeru, errezago egiten da sinismena: "Haren ikasleak Beragan jarri eben sinistea". Etxetik hasita, herrian, eleizan, auzoan, munduan... zenbat arazo. Deiak, aukerak, ahalmenak badagoz, baina bizitzako zuku gozoa egiten parte hartzaileak falta. Arazo danak ez, baina zuk eta nik benetan sinistuta, ahal doguntxo egingo bagendu, uste dogun baino arazo gehiago konpondu baietz?

Zer deritxazu: *Gaur jenteak holangoetan zer ekarten dau lehenengo: platerekoa ala platera? Zuk zertan parte hatu zeinke Jesusen "zuku" gozoa egiteko?*



HAZIA, EGUZKIA, LAINOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Neu gora eta neu behera; hau sarri erabilteari “neukeria” deitzen jako. Ona bada, zein hartzeko, zein emoteko, zein egiteko, neu agertzen da lehenengo lekuan eta danen gaintetik. Bakotxak berea ezagutzea eta neurtzea legezkoa da; eta hori eginez, bestearena ere ezagutzen eta baloratzen laguntzen deusku.

Zer deritxazu: *Zertan agertzen da gaur nabarmen “neukeria”?*

b.- Jokera gaizto eta indartsu honek kontrola-ezineko indarra hartzen dau. Esaterako, “neu” hori “geu” bihurtzen bada, orduan dira kontuak: dana taldearen kontura eta izenean hartzen eta erabiltzen da, eta orduan ez dago pekaturik, orduan bestea arerio bihurtzen da eta haren aurka egiten dan guztia ontzat botaten da. Gainera, behingoan agertzen dira liderrak, “haundiak”, “santuak”... eta bestetik...?

Zer deritxazu: *Politika partiduak, kirol taldeak etabar maite dozuz? Zenbat arerio dozuz besteen alderdian?*

d.- Onik badago, gutarrak egina da; besteak ez dakie zer zer dan, ez zelan dan. Txarra beti da besteen ortuko frutua. Benetan, zein ederra dan bizitza, bakotxak berea eginez eta alkar onartuz, burutzen danean! Alkarte, auzo, herri edo eleiz mobimentu izan, zein garrantzi haundikoa dan bakotxak bere lekua eta zeregina betetea, eta besteena ere errespetatzea eta ahal bada laguntzea!

Zer deritxazu: *Zure inguruko pertsonak onerako ala txarrerako, laguntzeko ala kontra egiteko jarten dabe ardura, denpora eta gogo gehiago?*



2.- LAGUNGARRIA "HAZIA, EGUZKIA, LAINOA"

Hazi batek bainoan behin:

- "Izan nire antzeko. Sartu zaitez lur azpian, ez txalorik itxaron. Lan egizu isilean, neuk egiten dodan lez, eta jantziko dozuz zelaiak landarez, lorez eta frutuz".

Ondoren eguzkia bereak esaten hasi zan:

- "Egizu irribarre, argi egizu, emon beroa; holan bakarrik, neuk egiten dodan lez, beteko dozuz zure bizitza eta zelaiak landarez, lorez eta frutuz. Egin neure antzera"

Orduan lainoak erronka gogorra jo eban:

- "Isuri zarra-zarra euria, neuk egiten dodan lez, beratu egizuz zelaiak, orduan bai orniduko dozula lurra landarez, lorez eta frutuz"

Hau dana entzuten egoan txantxangorri batek badino:

- "Jo lur azpira, haziak lez, egizu irribarre, eguzkiak lez; bota euria lainoak lez. Hiruroen baterako alkarlaguntzaz orduan bai urtengo dabela landarak, lorak eta frutuak, zelaien edergarri eta bizidunen bizigarri. Ni barik, **GU** da bizi-ardatza. "**Ni**" gorrotogarri da!"

Eta txantxangorriak jo ta jo jardun eban:


- "Izan Jainkoaren antzeko. Bera leku guztietan dago: lur azpira doan hazian, irribarre egiten dauan eguzkian, negar egiten dauan lainoan. Halan eta guztiz ere, isilean eta ezkutuan dago".

Txantxangorriaren erakutsiak entzunaz, haziak, eguzkiak eta lainoak, alkarturik, kantatzeari emon eutsen: "Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure Izena lurbira osoan" (Salmo 8, 1)

Eta Jaunari eskerrak emon eta emon jardun eben, hirurak bedeinkatzen ebazalako hain seme-alaba ederrez (landarez, lorez eta frutuz). Eguzkiak, gari-sailen edertasunez liluraturi badino:

- "Galburu honeek euren sortzailearen irudi bizi dira".

Eta barriro ere irribarreari emon eutson.



a.- Hazia, eguzkia eta lainoak, bakotxak bereak botatzen; ondo baino hobeto egiten dabe bakotxak bere burua ezagutu eta bere balioak goraltzean. Baina dana galtzen dabe bakotxak berea bakarrik ikustean, inorenik aintzat hartu barik. Eta, jakina, bakarrean ez dago probetxurik, hiruren dohaiak alperrik galdu behar. Eta ezin onartu bakotxaren kontsejua: *“Izan neure antzekoa”*.

Zer deritxazu: *Eta lurak ez eukan zer esanik? Eta lurra landu ebanak?*

b.- Txantxangorriak bai gauzak zehatz eta zuzen ikusi! *“Izan Jaungokoaren antzeko”*. Bera hiruretan dago, hirurei indar emoten. *“Halan eta guztiz ere, Bera isilean eta ezkutuan dago”*. Hori da bide garbia eta eraginkorra. Bakotxak berea, hartu dauana erabili eta eskeini dagiala, baina Jaungoikoaren parte hatzea ahaztu barik.

Zer deritxazu: *Zer garrantzi eta balio emoten deutsozu: “isilean eta ezkutuan egoteari”? Eta zer erakusten deusku?*

d.- Bakotxak berea emotea eta bestearena onartzea lortu ebenean, jakina, hirurak batera hasi ziran frutua emoten eta Jaungoikoari abesten, eskerrak emoten. Orduan era bitara goraltzen da Jaungoikoa: bihotzez abestuz eta frutua emonez, Jesusek dinonez: *“Isilean ikusten dauan zure Aitak saria emongo deutsu”*.

Zer deritxazu: ***NI** asko eta **Gu** gitxi erabiliz ala **Ni** gitxi eta **Gu** asko erabiliz lortzen da fruturik gehien? Zergaitik?*

3. JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Er. 112, 3-6)

“Jainkoak emon deustan dohaiaren izenean, hau dinotsuet guztioi eta bakotxari: ez hartu zeuen burua behar dan baino haundiagotzat; izan zaitezte neurritsu, Jainkoak bakotxari emon deutson sinismenaren arabera. Izan ere, gorputza bat dan arren, atal asko ditu, eta ez dabe atal guztiak eginkizun bera; bardin guk ere: asko garan arren, Kristogaz alkarturik gorputz bat egiten dogu eta guztiok bata bestearen atal gara. Dohai ezbardinak doguz, Jainkoak emon gura izan deuskuzan araberakoak. Beraz, Jainkoaren izenean berba egiten dauanak iragarri begi Jainkoaren berbea sinismenari dagokionez”



a.- Eleizeak Jesus dau bere oinarri eta, bere Espirituaren bidez, mila eratako dohaiak banatzen ditu eleiztarren artean, Eleizearen onerako, eta munduaren zerbitzurako. Hagaitik dino: *“Zeure burua ez egizu zaran baino gehiagotzat hartu, neurriz baino, Jaungoikoak baktxari sinismena banatu deutson neurriz”*. Argi honen aurrean, ezagutu al dozu zeure burua eta daukazu dohaia?


Zer deritxazu: *Ispilu honen aurrean, zelan ikusten dozu gaur zure inguruko Eleizea? Eta zeu Eleiza horretan?*

b.- Eta San Paulok erabilten dauan gorputzaren irudia errez ulertzekoa da: Txiki nahiz haundi, atal baktxak bere zeregina dauka eta guztien onerako da, ez bera harrotzeko. Batek huts egiten badau, gorputza ez da osoa, hutsune haundi bat dauka. *“Atal baktxak dauka bere egitekoa”*. Bitariko egitekoa da: Bere egitekoa ondo bete eta besteena onartu eta alkarlanean jokatu.

Zer deritxazu: *Ba al dogu gure artean -Eleizan batez ere- alkarlanaren kontzientziarik eta esperientziarik?*

d.- Lehenengo kristinauen kontzientzia eleizbizitzan aberatsa zan, guztien dohaiak onartzen eta indarrean jarten ziralako. Hori da Eleizearen aberastasuna: ez diruaren edo jakituriarena, alkar-zerbitzuan agertzen dan maitasuna baino. Orduan txikientzat daukaguzanak ere badabe euren egitekoa besteen onerako. Horixe bai! Eta sarritan eurak dira beharrezkoenak, gorputzeko atalen artean lez.

Zer deritxazu: *Kristinau bizitzari buruzko dotrina eder hau indarrean ipinteko zer giro eta espirtua behar da atal ezbardinen artean?*



HIRU BURDIN SAREAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Santiago Apostoluak esandakoa da: *“Berbetan jausten ez dana, hori gizaki bikaina da”*. Bai gero! Hau da daukagun joera gaiztoa: lagunarteko giroa nahastau eta garraztuteko grina. Eta mihina da horretan erabilten dogun puntzeta. Hamaika negar eta kalte zabaldu dau ohitura honek baztarretan!

Zer deritxazu: *Mihinak al dauka hemen errua? Nundik, bestelan, joera hori?*

b.- Huskeriakaitik hasten da lagunarteko marmarra, eta sugar haundiak isiotzen ditu. Esana esanda gero, “uste neban”, “begitandu jatan”... eta holako batzuk esanda, dana konpontzen dalakoan. Susmoaren sunda barruntatu dozulakoa... Eta bigarrenaren mihinetik urten orduko, egitzat dabil bala-bala.

Zer deritxazu: *Lau haizetara oilo lumak zabaldua, erreza al da batzea? Eta holan zabaltzen dan faltsokeria?*

d.- Kontakatilu asko dago baztarretan, eta komunikabideak nahaste-borraste ikaragarria zabaltzen dabe egunero. Eta sarri zenbat eta kalte gehiago egin, pozago. *“Besteak ere egiten dabe-ta”* esan, eta jo ta ke. Munduaren hasieratik aidean ei dabiltz esandako danak, eta laster hasiko ei dira eskuratzen... Tximinietatik baino kutsudura kaltegarriago doa gizakumeen ahominetatik.

Zer deritxazu: *Susmoak, usteak, “ei” aurretik dakarren kontuak... aintzat hartu eta gordeteko pitxiak ete dozuz?*



2.- LAGUNGARRIA "HIRU BURDIN SAREAK"

Gizon filosofilari jakintsu baten ikasleak behin badinotsoe maisuari:

- Maisu, halako lagun batek zutaz kristonak esaten jardun dau
- "Ixo, ixo lagun", eten deutse marmarra filosofilariak. Esan behar deustazun hori irasi al dozu hiru saretatik?
- Zeintzuk hiru sare?
- Lehenengo sarea egia da. Ziur al zagoz esan gura deustazun hori benetan egia dana?
- Ez, auzotar batzuen arteko jardunean entzun dot
- Gitxienez bigarren saretik irasiko zenduan; hau da, ontasun saretik. Esan gura deustazun hori bai al da inorentzat ona?
- Ez, egia esateko, inorentzat ere ez. Alderantziz, danentzat kaltegarri.
- Tira, tira! Hirugarren sarea beharrezkoa da. Hainbeste arduratzen zaituan hori beharrezko jatzu niri jakitera emotea?
- Egia esateko, ez, jauna!
- Holan bada, -maisuru argiak eraso eutson irribarrez-, ez bada ez egia, ez ona, ez beharrezkoa, behin betiko ahaztu daigun.



a.- *“Halakoak hau eta hau esan dau zutaz”*. Jakina, beti “konfiantzaz”. Ezin gorde, barruan ezin kabidu esan barik. Hiru sare horreetan irasiko bagendu baztarretako jario zikina... Lehenengo kolpean: *“Ziur al zagoz esan gura deustazun hori egia dana? – “Ez, auzotarren arteko jardunean jaso neban”*.

Gorde egizu zeutzat, edo hobe botaten badozu, kalte gitxiago egingo deustu. Zer deritxazu: *Eta egia danik ez badakizu, zergaitik entzuten, gordeten dozu?*

b.- Ez, ez gara konturatzen zenbaterainoko kaltea egiten deutsalgun alkarri mihinez. Batek baino gehiagok uste dabe, egia jakin egin behar dala. Hori on egitea dala. Bigarren sarea ere estua da: *“Esan gura deustazun hori ba al dakizu inorentzat ona danik?”*. Ai ene! Horretarako barrua garbia behar da.


Zer deritxazu: *Erreza al da barruan sare hau erabiltea? Zergaitik?*

d.- Zerk eragiten ete deusku barrutik holakoak atera eta zabaltzera? Esan beharra sortzen jaku. *“Beharra”* zerk sortzen deusku barruan? Baina egon, ez dago hori esan beharrik. Zer poza gau bakotxean, ohera aurretik, egunean isilean gorde doguzan “kontu” batzuk Jaunari eskeintzeko ohiturea bagendu”

Zer deritxazu: *Holako kasuetan hiru sare horreek erabiltea ez litzateke ona izango? Zer erabagi hartzen dozu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 7, 1-5)

«Ez gatxetsi inor, Jainkoak ere ez zagiezan gatxetsi; izan ere, zuek besteak zelan epaitu, halan epaituko zaitue Jainkoak, eta zuek zein neurritz neurtu, neurri beraz neurtuko zaitue Jainkoak. Zelan ikusten dozu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hageaz ez zara ohartzen? Eta zelan esan daikeozu senideari: “Itzi begian dozun lasto-izpia ateraten”, zuk zeurean hagea dozula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik hagea, eta orduan ikusiko dozu garbi, senidearen begitik lasto-izpia aterateko.



a.- Joera makurra eta maltzurra benetan, ikaragarritzko kalteak baztarretan egiten dituana! Nazaretoko Maisuak ezin izan eban hau iruntzi, eta berba latzak erabilten ditu horren kontra eta neurri zorrotzak jarri: *“Ez epaitu, epaituak izan ez zaitezten”*. Bai, zelan-halango epaia egiten da barruan, ez da kontu neutrala, petrala baino; mesede egitekotan, esan isilean eta bakarrean berari. Kasu bardinean besteak zeuri esatea gura zeunken lez.

Zer deritxazu: *Huts eginaren eginez, kontzientzia galdu ete dogu honetan?*

b.- Begiak gaurko girora zabaltzen badoguz, zer ez da esaten bat eta besteagaitik... Geroago, sarri epaiketa zehatzak eginda gero, holan ez dala izan jakiten danean, nork eskatzen dau parkamena? *“Zergaitik ikusten dozu zure anaiaren begian dagoan samarra, eta ez dozu zeure begian dagoan habea ikusten?”*. Jesus Maisua zuzen doa susterrera: Bihotza dago zikin, eta inoren ustezko zikinagaz garbitu gura.

Zer deritxazu: *Mihinez agertzen dogun zikina bihotzeko zikinetik ete dator?*

d.- Benetako gizon-emakume zintzoak, euren barrua gabitzen eta zuzentzen dauke nahiko zeregin, horregaitik ez dauke inoren joan-etorrietan sartzeko gogorik, euren buruan aurkitzen dabe zer garbiturik nahiko. Hortik dakie zein makala dan gizakia, eta zein errukitsua eta bihotz-zabala dan Jaungoikoa.

Zer deritxazu: *“Atera egizu lehenen habea zure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu samarra zure anaiaren begian”*. Betaurreko hoberik ezagutzen al dozu?



HIRU AGUREAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gizakiak -beraz, gizon-emakume guztiok- doguz joera antzekoak; “*guztiok gara amaren semeak*”. Batzuk alde batera joera biziagoa izango dabe, bestera baino; baina guztiok “buztinez” eginak. Amets haundiak, ederrak, baina egintzetan galtzen gara. Buztinezko izaera honek erabiltzen gaitu bere erara. Nori ez jakoz gogoko aberastasunak? Eta euren artean zuzen zintzo gitxi dagoala...

Zer deritxazu: *Zergaitik gura dau gizonak aberats izatea?*

b.- Gizakiak *norbait* dala ere agertu gura dau. Horregaitik derrigorrez inoren azpian egoterik ez dau gura. Bere bizitzan *arrakasta* izan gura dau: onartua, aintzat hartua, izen onekoa. Inork ez dau lotsagarri gelditu gura. Nire berbea eta kontsejua gogo onez jaso dagiezala, nire joan-etorriak itxurosoak izan daitezala.

Zer deritxazu: *Hainbeste balio ete dau arrakastak gure bizitzan?*

d.- Halan eta guztiz ere, gizakia maitatzeko egina da; ederrena izanda ere, ez dau betetzen poltzarik, agiriko haunditasunik ez dau ekarten. Eta gizakia berez haundizalea da. Maitale eskasa eguzkiak ondo heldubako sagarra da. Gozotasun gitxi, edo-eta barruan harrak jota.

Zer deritxazu: *Benetan gizakiaren barrua ondo ulertu ezineko ltxaso sakona da. Barruzale ala kanpozale zara? Zergaitik?*



2.- LAGUNGARRIA "HIRU AGUREAK"

Andra batek, bere etxetik urtekeran, hiru agura ikusi ebazan, bizar zuri luze eta guzti, euren etxe aurrean barriketan. Eta bere kautan pentsatu eban: "Ez dot uste ezagutzen dodazanik, baina gose-itxurea dauke, antza". Eta eurakana hurreratu eta esan eutsen:

- Mesedez, sartu zaitez eta hartu egizue jateko zeozer.
- Etxeko jauna barruan al dago?, itaundu eutsoen agurok.
- Ez ba, kanpotik da.
- Holan dala, ezingo gara sartu.

Iluntzean, senarra etxeratu zanean, andreak kontau eutson jazo jakon guztia.

Senarraren erantzuna zabala eta bixkorra izan zan:

- Joan zaitez eta esan egiezu etxean nagoala eta sartu daitezala. Etxekoandreak urten eta sartzera konbidatu ebazan. Baina agura lagunon erantzuna bat-baterakoa izan zan:

- Gu ez gara danok batera etxera sartzen.
- Zergaitik ez?

Eta euretariko batek erantzun eutson:

- Nire lagun haren izena ABERASTASUNA da, -euretariko bat seinalatuz; eta harek besteak, ARRAKASTA eta nik MAITASUNA. Eta bere bizar zuria igurtziz, gaineratu eban: "Orain sartu zaitez zeure etxean eta senarraren eta bion artean erabagi egizue, hirurotatik zein hartu gura gaituzuen etxean"

Etxekoandrea etxean sartu zan eta dana kontau eutson senarrari. Oso egoki begitandu jakon senarrari:

- Horixe da egokiena! Geure eskuan dagoenez, konbidatu daigun ABERASTASUNA; itzi egiozu sartzen eta bete dagiala gure etxea ABERASTASUNAK. Baina andrea ez egoan beragaz bat:

- Maitea, zergaitik ez sartuazo ARRAKASTA?

Bien arteko eztabaidea entzuten egoan kanpokaldean euren errana eta bere eritzia agertzera sartu jaken barrura:

- Ez litzateke egokiago izango MAITASUNA konbidatzea? Holan gure etxea MAITASUNAK beteko leuke; eta zer ederragorik?

Orduan senarrak andreak irripartsu:

- Onartu daigun gure erranaren kontsejua. Zoaz eta konbidatu egizu MAITASUNA. Andreak urten eta badinotse hiru agureei:

- Zuetatik zein da MAITASUNA? Mesedez, bera sartu dedila gure etxean, bera hartzen dogu konbidadutzat.

Maitasuna jagi zan eta hartu eban etxerako bidea. Eta horra, beste biak ere bere atzetik abiatu ziran. Eta etxekoandreak harriturik badinotse ABERASTASUNARI eta ARRAKASTARI:

- Zuek zergaitik zatoze? Nik MAITASUNA bakarrik konbidatu dot.

Eta hona agure bien baterako erantzuna:

- Zuk ABERASTASUNA edo ARRAKASTA konbidatu baginduzuzan, beste biak kanpoan gelditu beharko ziran. Baina MAITASUNA konbidatu dozun ezkerro, geu ere beragaz batera sartzen gara; bera sartzen dan lekuan, guk ere lagun egiten deutsogu. MAITASUNA dagoan lekuan, han dago ABERASTASUNA eta han dago ARRAKASTA.

a.- Hiru agura, hiru bihotz betegarri... eta hirurak batera ezin batera kabidu. *Aberastasunak* eskuan dago nahi dan guztia, bertan zorientasuna, baita besteei on egiteko aukera ugari ere. Baina hirutatik bat bakarrik aukeratu behar eta, hor istuluak. Besteak ere onak dira, baina hirurak batera ezin. Hau saltsa!
Zer deritxazu: *Aberastasunak bakarrik ez al dira nahiko zoriotsu izateko?*

b.- *Arrakastak* daukan indarra ikaragarria da. Andreak haren alde jo eban. Hain onartuak, goralduek, izendatuak bagara, beste guztiak berez etorriko jakuz. Baina senarrak ez eban arrakasta bakarrik gura; beste bien zatitxo bana ere... Baina ezin, bat bakarra aukeratu behar. Eta ezin.
Zer deritxazu: *Hain gatxa ete da hemen auketak egitea? Eta jenteak zelan egiten ditu hain errez? Eta gero...?*

d.- Hau dok hau egi galanta! Maitasuna aukeratu, maitasuna etxean sartu eta beste biak ere atzetik. Bai ba: "*Maitasuna dagoan lekuan, han dago aberastasuna, han dago arrakasta*". Hona hemen zelan sartu ahal diran hirurak batera, maitasuna aurretik dala.
Zer deritxazu: *Honetaz zer dinotsu zure esperientziak?*

3.- JAUNAREN BEBEAREN ARGITAN (1Jn 4, 7-13)

Ene maiteok, maitatu dagigun alkar, maitasuna Jainkoagandik dator eta, eta maite dauan edozein Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen dau Jainkoa. Maite ez dauanak ez daki ezer ere Jainkoaz, Jainkoa maitasuna da ta. Hara zelan agertu dan Jainkoaren gudanako maitasuna: Jainkoak bere Seme bakarria mundura bialdu eban, beronen bidez bizia izan dagigun. Hau da benetako maitasuna: ez guk Jainkoari izan deusogun maitasuna, berak guri izan deuskuna baino, hau da, gure pekatuen parkamen-oparitzat bere Semea bialduz erakutsi deuskun maitasuna. Ene maiteok, Jainkoak holan maite izan bagaitu, guk ere maitatu egin behar dogu alkar. Jainkoa ez dau inork inoiz ikusi; alkar maitatzen badogu, Jainkoa geugaz bat eginik dago eta beraren maitasuna bere betera heldu da gudan. Jainkoa eta gu alkarregaz bat eginik gagozan seinalea hau da: berak emon deuskun Espiritua



a.- Jaunak behintzat maitasuna ipinten dau lehenengo lekuan. Eta Harek badaki gure kontuen barri. Jaungoikoa Bera maitasun hutsa da, bere izatez da maitasuna, maitatu besterik ezin dau egin, hori da bere aberastasuna, bere haunditasuna: *“Alkar maite izan dagigun, maitasuna Jaungoikoagandik dator-eta; maitasuna dauan edonor Jaungoikoagandik jaio da”*.

Zer deritxazu: *“Holangoak Jaungoikoa ezagutu egiten dau”. Orduan Jaungoikoa ezagutzeko, liburuak baino lehenago, maitasuna da? Baietz uste dozu?*

b.- Jaungoikoaren maitasuna da Jesusek iragarri euskuna, eta hau sinisten dauana benetan da kristinau; hau sinistuta hasten da bera ere Jaungoikoaren antzeko izaten. *“Guganako Jaungoikoraren maitasuna honetantxe dago: Jaungoikoak bere Seme bakarra lurrera bialtzean”*. Maitasunaren sua da Jaungoikoaren presentziaren ezaugarria.

Zer deritxazu: *Holangoa da guk sinisten dogun Jaungoikoa?*

d.- Maitasuna, ez berba hutsetan, onezko egintzetan agertzen eta maminduten da. *“Jaungoikoa ez dau inok behin be ikusi; alkar maite badogu, Jaungoikoa gugan dago”*. Hementxe bai emon behar deusogula lekua Espiritu Santuari; gu ez gara gauza holan maitatzeko; Jaunak Berak gugan maitatzen jarri beharko dau.

Zer deritxazu: *Maitasunak gu geu lehenengo eta gero inguru guztia pozez betetzen dauala? Zelan?*



ITSUA ETA HERRENA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gehienetan, guk gizakiok garana baino itxura haundiagoa emoten dogu; haundi-itxurak hartzen eta haundi agertzen maisu onak gara. Inori laguntza eskeintzea ere kosta egiten jaku; baina sarritan inori laguntza eskatzea areago. Norbere ezin-ezak autortu beharra... Eta esperentziaz dakigu, sarri dogula alkarren beharra. Hori onartzea eta halan agertzea ez da zorionbide makala!

Zer deritxazu: *“Zuk niri, nik zuri, agur eginaz alkarri”, euskal topa egiteko keinua ez litzateke bide txarra izango, ezta?*

b.- Preminaldi edo larrialdi bat sortzen jakunean, ezinaren eraginez, laster agertzen dogu inoren beharrizana. Harrokeriak ez dau salbatzen, apaltasunak baino. Azken batean, apaltasuna da egia. Bizitzako burdia astunegia da eta bidea luzegia bakarrik jokatzeko. Maitasunez eratutako buztarriak behar doguz edonun.

Zer deritxazu: *Bazara inoren buztarri-lagun zereginen batean?*

d.- Bi edo hiru alkarren preminan sentitzea baino bide hoberik ez dago, alkarlana indarrean jarteko. Eta zer gauza ederragorik, ezinean dagozan bi alkartuta aurrera egitea baino! Zenbat aukera bizitzan horretarako! Eta zenbat gauza eder gelditzen dan ezerezean, batek edo bik alkarlanerako eskurik luzatu ez dabelako!

Zer deritxazu: *Oraintxe bertan zer ikusten dozu egin beharreko edozer, beste bategaz alkartuta egin zeinkena?*



2.- LAGUNGARRIA “ITSUA ETA HERRENA”

Udako egun bat zan. Jente asko batzen zan mendi batean sute ikaragarria biztu zan. Guztiak ihes egin eben, bildurraren bildurrez nori edo hara. Gizon bi gelditu ziran ezer ezinean: isua eta herrena. Ikara bildurrak jota eta jausi-jagika, itsua bajoian, baina norabide okerrean, sutearen alderuntz. Mogidu ezinik egoan herrenak badinotso zarataka:

- *Horruntz ez! Sugarretan kixkalduko zara!*
- *Noruntz, orduan?*
- *Neuk erakutsiko neuskizu bidea; baina ezin naz ibili. Zuk zeure lepoan hartuko baninduzu, biok alde egin geinke hemendik arin baino arinago, eta leku suguru bat aurkitu.*

Itsuak herrenaren kontsejua onartu eban eta biak salbau ziran inpernu gorri haretatik: herrenak itsuaren begiz ikusten eban eta herrena itsuaren hanken gainean ihesi joian sutatik. Biak alkar behar salbatzeko.



a.- Egoera gogorra: sugarren erdian itsua eta herrena. Batak ere ezin zuzer jokatu, ezin arriskutik urten. Herrenaren abisu larriak itsua sutatik aldendu eban, baina norantz joan ezin erakutsi. Bide ederra aukeratzen dau: Bera lepoan hartu eta harek zuzenduko eban leku segurura. Eta bera ere salbau haren lepoan.
Zer deritxazu: Jarrera aldatuz, ezinean dagozan bik euren burua salbau. Ez deitsu honek ezer erakutsi?

b.- Hau erakutsi ederra bizitzarako! Itsuak herrenaren begiz ikusten dau eta herrena itsuaren oinez dabil. Penagarria holakoak derrigorrez eginbeharra! Eta bide batez, norbere burua salbatzearen. Kasu gehiago dira, beste norbait egoera larrian egonda, nire laguntzaren premia gorrian egotea.
Zer deritxazu: Norbaiten bizitza salbatzea -nahiz gorputzez nahiz espirituz izan-nahiko dala, norbere burua salbatzeko. Honek zertara eragiten deitsu?

d.- Baleiteke itsu-herrenak hemen hasita, bizitzan aldaketa bat izatea, eta beste batzuetan ere antzeko alkarlanen batean eskuhartzea. Eta biren artean hori egiten ikusteak, beste batzuk ere argitu eta bidean jarten ditu.
Zer deritxazu: Jarrera hau askoz gehiagok hartuko bagendu, zenbat malko gitxiago isuriko litzateken! Ahal izan eta egin barik iztea zer da?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (1Ko 12, 22-27)

Danak atal bat balira, zelangoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, oster, bat bakarra. Begiak ez daieo eskuari esan: «Ez dot zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dot zuen beharrik». Hori barik, makalenak iruditzen jakuzan gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gitxieneko iruditzen jakuzanak lotsa eta begirune haundienaz inguratzen eta zaintzen doguz. Izan ere, berez goralgari diranak ez dabe ardura horreen beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore bako ziran atalei ohorerik haundiena emon eutsen. Horrela, gorputzean zatiketarik ez dago eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Honela, atal batek min dauanean, min dabe atal guztiak beragaz; eta atal bat goraldua danean, poza dabe beste guztiak beragaz.

Zuek Kristoren gorputz zaree, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal.



a.- *“Begiak eskuari ezin esan daikeo: Ez dot zure beharrik”*. Hori da sekretua gorputz-atalen artean ez bakarrik, gizartean gure artean ere benetako bakea izateko: alkarren beharrizanean sentidu eta bizitzea. Jakina, alperrik begi zoliak euki, eskuak laguntzen ez badeutse, ezin ezertxo ere egin; besterantza ere bardin. Gatxena betikoa: Alkarren beharrizan hori sentitzea eta bizitzea.


Zer deritxazu: *Alkarren beharrizanaren espirituz bizi bagina, zer ondoren izango geunke?*

b.- Honetan arriskurik haundiena gizarteko ahaltsoak, haundiustekoak izango leuke; holakoak joko bereziak asmatzen dabez besteak ere euren beharrizanean eukiteko, orduan eurak inoren beharrizanik ez; edozelako trikimailuz morroi sentiduazo. Baina ez da holan: *“Makalenak dirudien gorputz-atalak beharrezkoenak dira”*. Gorputzean holan da, gizartean, Eleizan... auskalo! Ibili ere gero holan dabil artegia!

Zer deritxazu: *Itxuraz apalak, baina izatez beharrezkoenak diranak ez dozuz ezagutzen etxean, herrian, elizan?*

d.- Gure artean bardintasuna, anaitasuna dagoan arabera, bizitzako giroa ere halakoa izaten da, bai ordu onean eta bai ordu txarrean. *“Atalen bat mintzen bada, atal guztiak mintzen dira haregaz; eta atalen bat ospatua bada, beste atal guztiak pozten dira haregaz batera”*. Hor ezagutzen da atalen arteko batasuna benetakoa dan ala ez. *“Zuek danok Kristoren gorputz zaree, eta zeutariko bakoitza Haren atal”*. Hori da Jesus Jaunaren ametsa, hori behar leuke izan Eleizeak.

Zer deritxazu: *Zure etxean, lagunartean, parrokian zenbatekoa da atalen arteko batasuna? Zuk zeuk hobetu zeinke giro hori? Zertan eta zelan?*



JAINKO BERAREN BILA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Guztiok gabiltz bila, bakotxa bere barruko egarriak darabil hara edo hona. Azken batean, zorion bila, bila dabilena baleuka... Lagunei laguntza eskatuta, bakotxak bere interesen arabera erantzuten deutsue. Ez ni beteteko, nire lepotik eurak betetzeko baino.


Zer deritxazu: *Zeren bila zabiltz? Seguru zagoz zer behar dozun? Norantza zoaz?*

b.- Ingurukoei begiratu, liburuak irakurri, eta burutazino ederrak eskeintzen dabez, beste batzuei entzundakotik; gitxik, eurak bizi eta beteten dituana. Zein gitxi diran zeugaz batera bidelagun egiten jatzuzanak, bila joateko.

Zer deritxazu: *Bila dabilanagaz zeuk zer egiten dozu? Zer eskeintzen deutsazu?*

d.- Bila dabilenari eskatzen dauan guztia ere ezin daikeo emon: mozkorrari arda gehiago ezin deutsazu emon; ez drogarik, hori eskatzen deutsunari. Bila ez dabilena bila ipintea, edo bide txarretik bila dabilena zuzentzea, sekulako karidade egintza dozu.

Zer deritxazu: *Bila zabiltzana behar bada eskuan, zeugan daukazu, eta zergaitik zabiltz bila?*



LAGUNGARRIA "JAINKO BERAREN BILA"

Gaztetxo bat abadeagana hurreratu eta itaundu eutson:

- *Emoidazu Jainkoa!*

Eleizgizon argiak sermoi luze bat bota eutson, eta gaztea arduraz entzuten egon jakon.. Sermoia amaituaz batera, gaztea burumakur, gotzainagana joan zan:

- *Emoidazu Jainkoa! -eskatu eutson malko eta guzti.*

Jaun agurgarriak eleizbarrutiko boletinean argitaratu-barri eukan pastoral-idazki mardula irakurri eutson; baita gazteak begirunez entzun ere. Baina amaitu orduko, gaztea atsekabez Aita Santuagana joan zan eske:

- *Emoidazu Jainkoa!*

Aita Santua bere azken enziklikaren laburpena eskeintzen hasi jakon; baina gazteak negarrari emon eutson, bihotz-larriari eutsi ezinik.

- *Zergaitik egiten dozu negar? -itaundu eutson Aita Santuak arduraz.*

- Hara, Jainko-bila nabil eta zuek berba hutsak baino ez deustazuez eskeintzen, -erantzun eutson gazteak erdi ikaraz eta erdi lotsaz.

Gau haretan abadeak, gotzainak eta Aita Santuak amets bardina izan eben: Egarriz itoten egozala, eta norbaitek urari buruz berbaldi luze politak eskeintzen eutsezala.



a.- “Emoidazu Jainkoa”. Ez eutsan gitxi ere eskatu! Eta holan gazte bati sermoia bota, berba eta berba eginez, dotrina haundiak emonez. Alperriko ahalegina, baina besterik ez daukanak horixe egin behar. Gaur egun Jainkoaren bila dabilzanetatik gitxi argituko dira dotrina bidez. Eta mingarria da Jainkoaren barri ganoraz emotekorik hain urri egitea.

Zer deritxazu: Jarri zaitez zeu gaur gazte horren lekuan, eta berbaldi luzeak entzunez, Jainkoa ezagutzera eta maitatzera helduko zintzatekez?

b.- Gorago jo eban gazteak, ea gorago dagozanak argi gehiago emoten eutsen. Gotzainagaz eta ondoren Aita Santuagaz berba egiteko aukerea ere izan eban. Biak eskeini eutsoezan pastoral idazki eta enziklika ederrak. Jainko bizia eskatu eta paper hutsa eskeini...

Zer deritzazu: Egizu zeugana hurreratzen jatzula holako gazte bat (zeure iloba bat), Jainkoa emoteko eta erakusteko eskatuz. Zer esango edo egingo zeunke?

d.- Parabolaren azkena dator polito: Abade, Gotzain eta Aita Santuak gaez amets bardina izan ebela: Egarrri itoten egon, ura eskatu, eta norbaitek urari buruz sekulako berbaldi ederrak eskeini eutsezala. Eta egarriz ito zirala.

Zer deritxazu: Jainkoa bizi da eta gaur ere deika dabil. Zer egin geinke Jainko hori sinisgarri egiteko?

JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Jn 4, 8-15)

Ikasleak urira joanak ziran janaria erostera. Horretan, Samariako andra bat etorri zan potzura ur bila. Jesusek esan eutson: –Emoidazu edaten. Orduan, andra samariarrak esan eutson: –Zelan zuk, judegu izanik, eskatzen deustazu edatekoa niri, samariar nazen honi? (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez daukela hartuemonik) Jesusek erantzun eutson:

–Jainkoak emoten dauana ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen deustun jakingo bazendu, zeuk eskatuko zeunskio berari, eta harek ur bizia emango leuskizu. Andreak esan eutson: –Jauna, ez daukazu ura zerez atera, eta potzua sakona da. Nundik aterako dozu, beraz, ur bizi hori? Geure aita Jakobek itzi euskun potzu hau eta bertatik edan eben berak, beraren seme-alabak eta abereak. Ha baino haundiagoa al zara zu? Jesusek gaineratu eutson: –Ur honetatik edaten dauana barriro ere egarrri izango da; Nik emongo deustodan uretik edango dauana, ostera, ez da sekula egarrri izango; Nik emongo deustodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko jako-ta barruan. Orduan, andreak:

–Jauna, emoidazu ur horretatik, barriro egarritu ez naiten, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dagidan.



a.- Samariar andrea ur-potzura doa, eta gitxien uste ebanaz, Jesus Maisuagaz topo egiten dau. Jesus astiro baina gogotsu sartzen da beragaz alkarrizketan. Ez pekatu konturik aitatu, ez samariar izateaz harritu, ez andra bategaz agirian berba egiteaz Legea haustenebala eta... Jesus bera ere egarri da, galduta dabilzane Aitaren barri emotearen egarri.

Zer deritxazu: *“Bazenki... ur bizia emongo leuskizu”. Andrearen uretik hasi eta Jesusek bere iturrira eroan eban. Hurtasun eta maitasun bidea ez al da biderik onena?*

b.- *“Ur honetatik edaten dauan edonor, barriro ere egarri izango da; baina Nik emongo deusodan uretatik edango dauana, ez da inoiz ere egarrituko”.* Hori da eskutik oratu eta astiro eta pausuz-pausu salbamen iturrira eroatea. Ez dau Biblia irakurtera bialtzen. Beragaz daroa bidez-bide eta maitekiro *“betiko bizitzaraino txirristaka darion ur-iturrira”.*

Zer deritxazu: *Gitxien uste dan lekuan topo egin geinke ur garbi bila dabilenen bat. Ba al dogu astirik, gogorik, pozik holako bati bidean laguntzeko?*

d.- *“Jauna, emoidazu ur horretatik, barriro egarritu ez nadin”.* Haren poza herritarrei dei egitera joanda! Andra hau beste iturri bateko bidean ipini dau Jesusek; inoiz sentidu ez dauan poza eta barru-giroa susmau dau beragan. Jesusek agertu deutson bihotz ona, hurtasuna, itxaropena, maitasuna beste bide bat da. Bitartean ez egoan paperik, ez agindurik.

Zer deritxazu: *Gaur laikoen ordua dala dinogu sarri; munduan (zuen etxean, auzoan, lagunartean...) asko dabiltz euren erara iturri bila. Kristinau testigu batek zer jarrera hartu behar dau holako bategaz topo egitean?*



JAUNGOIKOA ETA BESTEAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- *“Agindua da bat eta emona bi, aginduaz kontenta hadi”*. Zoritxarrez uste dan baino gehiagotan egi bihurtzen da aintxinako esaera zahar hau. Nik uste dot guztiok gura dogula onak izatea; kontua honetan datza: ahaleginak hamabi mailatakoak dirala, dinoenez.


Zer deritxazu: *Zaran onagaz konforme al zagoz?*

b.- Gizakia sarri sentitzen da hegoak urteten deutsoen inurriaren antzeko. Baina hegaz ikasita, errezago izaten dira elaien janari gozo. Pertsonak, lehenengo eta behin, bere ahalmenak neurtu behar ditu, baina goi helburua ahaztu barik, egunero ekin eta jardunez, otoitza amaitu baino lehen “amen” esan barik. Zer balio dauan iraupenak!

Zer deritxazu: *Itxaropenak eta iraupenak ba al dabe alkarregaz zerikusirik?*

d.- Txinoak dinoena: *“Zuk erein hazi ona, baina ez hurreratu haregana goizero, zenbat hazi dan ikusten”*. Gure bizitzako batelak baditu kontrako eta aldeko olatuak eta haizeak. Eutsi, ez aldatu norabidea. Eguraldi txarretan aingura bota eta geldi egotea ere beharrezko da.

Zer deritxazu: *Eroapenak ba al dau hemen zerikusik edo zereginik?*



2.- LAGUNGARRIA “JAUNGOIKOA ETA BESTEAK”

Mendi arteko erreka haundi baten ertzean, itsasgizon errime bat jentearen zain egoan, erreka bestaldera jentea aldatzeko. Berba gitxiko gizona zan; baina mendiak baizen haundia eta ura baizen garbia.

Halako egun batean, bidez galduta ebilen gazte bat heldu jakon eta erreka bestekaldera eroatea eskatu eutson itsasgizonari. Hau txitik egin barik hasi zan erramu-lanean. Bidean joiazala, erreka erdialdean, gaztea honetaz konturatu zan: erramu baten “Jainkoa” berbea egoala idatzita. Eguneroko jardunean ezabatu egin ziran beste izki batzuk. Gazteak ez eban gogo onez ikusten “Jainko” berbea, modaz kanpo egoalako edo. Eta haren esan beharra:

- Gaur egun gizakiak bere adimenez eta ahalmenez eskuratu ditu munduko eta bizitzako sekretuak; “Jainko” hori lekuz kanpo dago gaur egun.

Itsasgizonak isilean jarraitu eban. Hartu eban “Jainkoa” idatzita eukan erramua, eta ontzian itzi eban; eta beste erramu bakarragaz jarraitu eban lanean, “NEU” idatzita eukanagaz. Jakina, ontziak ez eban aurrera egiten; leku berean jirabiraka eginez eta korrontearen arabera joanez. Gaztearen burua ere jirabiraka hasi zan.

Halako batean, itsasgizonak eten eban isiltasuna:

- Ai ene gazte! Beharrezkoak doguz Jaungoikoa eta BESTEAK (Hauxe zan ezabaturik egoan beste berbea)

Eta “Jainkoa” idatzita eukan erramua hartu eta erreka bestekalderaino lagundu eutson gazteari.



a.- Gizakiari zenbat kostatzen jakon oinez ikastea eta bere heldutasunera heltzea! Hanka bi eta laukoen artean gizakia bera da beranduen ikasten dauana. Eta heldutasun bidean narruko asko hartu behar da; “zauriak” zintzotasunaren ezaugarriak dira, eta ondo eroan ezkeror, on asko dakartso norberari
Zer deritxazu: *Asko al dira behar leuken mailara helduten diran gizakiak?*

b.- Jainkoa gaur lekuz kanpo dago; ez dago modan. Atzeratuentzat dala dinoe askok. Gizakia bera da nahiko bere burua eta mundua konpontzeko. Bai gero? Eta zergaitik hainbeste gerra, heriotz eta hondamendi? Zergaitik hainbeste gosez hiltzen?
Zer deritxazu: *Denporea aurrerago eta gizakia helduago? Zertan igarten deutsozu?*

d. Hemen dago, ba, gaurko gizakia, gaurko Europa, gaurko Euskal Herria: “Neu” naz nahiko. Neu gora eta neu behera. Azkenean gaztea ere zorabiatu: ez atzera ez aurrera. “Ai ene gazte! Biak dira beharrezkoak. Bakar bategaz ez dago urrun joaterik.

Zer deritxazu: *Gaur zerk huts egiten deusku, benetan aurrera ez egiteko? Jaungoikoak ala besteak?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 8, 23-27)


Jesus txalupara igon zan eta ikasleek jarraitu egin eutsoen. Bat-batean, ekatx gogorra sortu zan itsasoan, eta olatuak txalupa ia azpian hartua eben. Jesus, barriz, lo egoan. Ikasleak hurreratu eta itzartu egin eben, esanez:

–Salbau gagizuz, Jauna! Galtzera goaz!

Harek esan eutsen:

–Zergaitik zaree hain bildur, sinesmen gitxikook?

Eta, zutundurik, hasarre egin eutsen haizeari eta itsasorari, eta dana bare-bare gelditu zan. Ikasleak, harriturik, holan inoen: «Nor ete dogu gizon hau, esana egiten deutsoe-ta haizeak eta itsasoak ere?»»



a.- Hasiera liburuan ere Adan bere kautan bizi gurarik agertzen da, tentatzailearen esanetara jarriz. Babel torre asko eta era askotakoak asmatu eta egin ditu gizakiak, Jaungoikoagandik ihes egiteko. Baina hamaika eperdiko hartu dau gizaldietan zehar! Harrokeriak asko ahal dau, baina hondatzeko.


Zer deritxazu: *Jaungoikoagan uste osoa jarteak, geuri zer eskatzen deusku?*

b.- Ikasleak eurak euretara bakarrean olatuak menperatu gurarik, eta ezin. “Jesus, barriz, lo egoan”. Egon behar, ez eukan beste zereginik eta. Ez eben Jesusik behar, eurak askoz gehiago ekien itasoko barri. Larrialdiak estututa, ondoren dator autorpenik ederrena: “Jauna, salbau gaizuz, galduak gara-ta”.

Zer deritxazu: *Larrialdiak beharrezkoak ete doguz, ba, Jesus geugaz dogula konturatzeko?*

d.- Jaungoikoak ez dau gizona baztartzeko, ezta gizonaren orde ez egin. Bai gizakiak eta bai Jaungoikoak, bakotxak bere lekua dauka; beraz, ez atera Jaungoikoa bere lekutik, baina ezta ez euki Jaungoikoa “lotan” bere lekuan. Biak tokatzen jaken lekuan eta orduan erabiliz eta jokatuz, orduan bai bidean aurrera egin!

Zer deritxazu: *Zelan ulertzen dozu San Inazioaren esaldia: “Egizu dana zeuk bakarrik egin behar bazendu lez; eta egizu dana Jaungoikoak bakarrik dana egin behar baleu lez”.*



JAUNGOIKOAREN ERREPORTAIA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Errez eta sarri engainatzen dogu geure burua aukerak egiterakoan, batez ere, gogo-gogoko jakun zerbait tartean sartzen jakunean. Egin daigun azterketa batera goazela eta bizitzako gauza garrantzitsuenei erantzun behar deutseguela. Ipini egizuz hurrenez-hurren hiru gauza garrantzitsuenak zure bizitzan.


Zer deritxazu: *Lehenago sarri aitutzen eta erabilten zan "kontzientziako esamina" geure bizitzako gorabeherak fede argitan aztertu eta zuzentzeko. Hiru gauza garrantzitsu horreetan egiten al dogu esaminarik?*

b.- Gauza batzuetan "koherente" izateak ez deutse askori buruhausterik emoten. Hau da: sinisten dogunagaz, inori eskatzen deutsogunagaz norbere burua eta bizitza ados egotea. Baleiteke noizean behin huts egitea. Baina orduan bere kontzientzian ere "huts egingo" leuke eta zuzentzen ahaleginduko litzateke. Hori egitea ere koherente izatea da.

Zer deritxazu: *Inazio santuak esan ohi eban: "Jauna, arren, logikoa, koerentea izan nadila". Bai eguneroko bizitzan eta bai sinistedun lez erreza al da?*

d.- Koherente izateko atxaki, eragozpen eta tentazino asko gainditu behar dira. Koherentziz bizi eta jokatu gura dauan kristinanuak, Nazareteko Maisuaren antzera, klabe eta oinarri sendoak behar ditu beragan.

Zer deritxazu: *Jesusen jarraitzaile batek, koherente izatekotan, klabe batzuk behar ditu. Zeintzuk?*



2.- LAGUNGARRIA “JAUNGOIKOAREN ERREPORTAIA”


Kazetarari karrera amaitu-barri neukala, albiste zoragarri bat zabaltzea erabagi neban.

- “Bai, aurrera, erantzun eustan Jaungoikoak. Dana dala, zuk erreportaia bat egin gura deustazu?”
- “Tira, ahal bada, horretarako astirik eta gogorik badozu”, erantzun neutson.

Bizar luze artean irribarre zabal bat eginez, halako erantzuna emon eutsan:

- “Nire denporea eternitatea da eta danetarako emoten dau. Zer itaundu gura deustazu?”
- “Zuretzat ez da ezer barririk, ez erantzuteko ezer gatxik. Hara, gizakien aldetik zer da gehien harrituden zaituana?”
- “Haundi hazi guraz, ume izaten aspertu egiten dirala; eta gero ume izatera bihurtzeko irrikaz dagoz. Lehenengo, dirua irabazi beharrez, osasuna galtzen dabela; eta berehala dirua galtzen dabela osasuna berreskuratzeko. Etorkizunean zer izango arduraz, orain eta hemengoa ahaztuten dabela, eta holan ez dabela benetan bizi ez oraingoa eta ez gerokoa. Hil beharrik ez baleuke lez bizi dirala, eta hiltzen dirala inoiz bizi izan ez balira lez; eta jakin Nik...

Begiak malkoz beterik eta ahotsa hagin artean etenka, isildu egin zan. Oratu eustan bere eskuz nire esku bietatik eta isilean jarraitzen dogu gaur ere biok.



a.- Jaungoikoarentzat ere harrigarriak diran hiru aldrebeskeriak ez dauke koherentziarik. Ume dala, nagusi agertu gura; nagusi dala, umekeriak egiten hasi. Pertsona lez zuzen zintzoa izateak, antza, ez dau merezi koherentziz jokatzetik; askorik ez behintzat.

Zer deritxazu: Lehenengo koherentzi falta agirian dago: Posible al da gizon heldu bat Jaungoikoaren aurrean ume izatea? Zer seinale izango leukez?

b.- Lehenengo, diruaren atzetik osasuna galdu, gero osasunagaitik diru eta ingurua hondatu. Azkenean ez bata, ez bestea. Hainbeste atzera-aurrera eta azkenean eskuhutsik.

Zer deritxazu: Zelan jokatu beharko leuke kristinau batek, biak alkarregaz tamainu baten euki eta gozatzeko?

d.- Hanka bata atzo, bestea bihar... eta hankaduna nun? Atzoko penaz eta biharko arduraz, gaur dago arranguraz... Gaurkoa euki bakarrik eskuan eta gaur ezin bizi. Hil ere asko bezperan hiltzen dira. Behin irakurri neban honako hau: "Asko 65 urtegaraz hiltzen dirala eta 85 urtegaraz lurperatu"

Zer deritxazu: Zer da gaur bizitzea? Gaur bete-betean biziteko sekretuaz jabetu al zara? Zer egin?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 12, 16-21)

Gero, parabola hau kontatu eutsen: «Gizon aberats bati lurrak uzta haundia emon eutson. Eta holan hasi zan bere kautan pentsatzen: "Zer egin, uzta nun jasorik ez daukat-eta?" Eta beretzat esan eban: "Badakit zer egin: garautegi zaharrak bota eta haundiagoak egingo dodaz eta honeetan jasoko dodaz neure garia eta gainerakoak. Gero, esango deusot neure buruari: Ea, mutil, badok hor gordeta urteetarako ondasunik nahiko; hartu atsedean, jan, edan eta bizi hadi nasai". Baina Jainkoak esan eutson: "Burubakoa halakoa! Gaur gauean bertan hil behar dozu. Norentzat izango da pilatu dozuna?"» Eta holan amaitu eban: «Horra zer jazoten jakon, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat ondasunak pilatzen dituanari».



a.- Nazareteko Maisuak Aitagan ondo ikasi eta Berak ondo baino hobeto bete dauan eskolea eskeintzen deusku: *“Zer egingo dot nik, nire frutuak gordeteko lekurik ez daukat eta”*? Hori gixajo hori jausi da sarean: Biziteko sobra euki, eta gorde eta gorde. Garautegi haundiagoak egin eta gero...nasai bizi. Jabe dalakoan, katigu eta preso. Hau aldrebeskeria! Zer deritxazu: *Kaxak beterik, eskuak hutsik...Nun dago hemen koherentzia? Zer behar dau hemen itzi eta zer haruntz eroan?*

b.- Pentsatzen dauan moduan bizi ez dana, laster biziko da pentsatzen dauan moduan. *“Ene arima, ondasun asko daukazu batuta urte askotarako. Atsedeen hartu, jan, edan, oparo bizi”*. Atzo eta gaur eten barik bihar zer izango pentsatzen eta prestatzen, eta bihar hori egon ez norbere eskuan. Hau be badok ba!

Zer deritxazu: *“Jesusen burubideak gaur guretzat ere balio ete dabe? Zer dinotsu esperientziak?”*

d.- *“Zoro hori”, gaur gauean bertan eskatuko deusue zure arima*”. Nork eta Jaungoikoak esan “zoroa” gixajo bati! Benetan gixajoa! Hau bai dala koherentziarik eza! Behin jokatu munduko bizitza, hainbeste, neke eta izerdi kostata, eta holako azkena jasan behar, atzera buelta barik. Hori zoro eta erdi izatea da.

Zer deritxazu: *Jesus Maisuaren erakutsiak zertara zuzentzen gaitu bizitzaren aurrean?*



JAUNGOIKOAREN ESKUAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jaungoikoagazko hartuemonetan gitxien uste danean sortzen jakuz ezustekoak. Egia esan, Berak emon deuskuzan ahalmenak landu behar doguz, gero eta trebetasun haundiagoaz jabetzeko. Dana Jaungoikoaren eskuetan iztea baino hobe da, geure ahaleginez geuk egitea. Geuk egin behar doguzan gauzetan Jaungoikoa sartzea joko kanpo dago, alperren zaindari jarrea.


Zer deritxazu: *Eginkizun baten hasieran "Aitearen" egitea ondo dago. Hori egiteak zertara behartzen zaitu?*

b.- Inazio Loiolakoak argi eta garbi esaten eban: "Zeuk jokatu egizu dana zeure eskuan balego lez, baina zure jarrera izan bedi dana Jaungoikoaren eskuan balego lez". Eta heltzen dan lekura heltzen da; handik gorago alperrik da, Jaungoikoagaz nahiz Jaungoiko barik.

Zer deritxazu: *Holan jokatzeko zer jarrera behar da barruan?*

d.- Holan dala, Jaunagandik hartutako ahalmenak landutea, heziketa on bat hartzea, porrotak ondo hartu eta eroatea, usteak erdiak ustelak dirala jakitea... bizitzako jakituria hau beharrezko dogu lur gaineko burrukan. Jaunaren izenean hasi eta Hari begira zuzen jarraitu, datorrena datorrela, onartu, eta bihar ere ekin.

Zer deritxazu: *Zeure burua lantzen egin al dozu planto? Hemen ere jubilatatu?*




2.- LAGUNGARRIA “JAUNGOIKOAREN ESKUAK”

Kontakizun polita dozu honako hau: Maisu ospetsu batek bidaiia luze bat egin behar eban basamortuan zehar, eta ikasle bat eukan, gamelua zaintzeko ardurez. Halako egun batean, bidealdi luzea egin ondoren, ikaslea ere lotara joan zan, aurretiaz Jainkoari eskari beroa eginez: “Zaindu nire gamelua, Jauna; zure kontura izten dot”.

Biharamon goizean, gamelurik ez...

- *“Non da gure gamelua”, itaunka gure maisua.*
- *Nik ez dakit, maisu, erantzun eutson ikasleak; Jaungoikoari itaundu behar deutsozu. Bart bere eskuetan itzi neban, neu oso nekaturik negoan-eta. Ihes egin badau, ez da nire errua; Jainkoarena da erantzunkizuna. Zeuk erakutsi deustazu, maisu, Jainkoagan uste osoa izan behar dogula”*
- *Bai, bai, Jainkoagan bihotz osoz ustea izan behar dozu, baina zeuk lotu behar dozu gamelua, “Jaungoikoak zeure eskuak baino ez daukaz-eta”*



a.- Gamelua nagusiarena, baina gamelua zaintzea ikaslearena. Bakotxak berea, eta hori egin ezik, gamelua bere bidetik aurrera. *“Zaindu nire gamelua, Jauna, zure kontura izten dot”.* Jaungoikoa behar ez eban lekuan sartu eban eta ez eutson balio izan. Jaungoikoa ere lotan...

Zer deritxazu: *Ikusten al dozu holango jokabiderik kristinauen artean? Zertan?*

b.- Gameluaren ardurea norberak hartu eta iges egin badau, Jaungoikoari kontuak eskatu? Gamelua zaintzeko nagusiak agindu deutsu, eta nagusiaren agindua betetzeko Jaunak zure kontzientzian. Ederra kontua! Kristianuon artean hamaika santu eta santa badarabilguz geure erara.

Zer deritxazu: *Zelan zuzendu geinke gaur jokabide oker eta lotsagarri hau?*

d.- *“Bai, Jaungoikoagan uste osoa izan behar dogu, baina gamelua zeuk lotu behar zenduan; Jaungoikoak zeure eskuak baino ez daukaz”.* Jaungoikoa ez dago gure gurari guztiak beteteko, bere antzera, Aitaren nahia beteten laguntzeko baino.


Zer deritxazu: *“Jaungoikoak zeure eskuak baino ez daukaz”. Zertarako? Zeure eskuak prestauko bazeunskioz, zer egingo leuke zure inguruan? Zertan?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 25, 14-30)

«Jainkoaren erregetzeagaz, atzerrira urten behar eban gizonagaz lez jazoten da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak itzi eutsezan. Bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakotxari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin eben. Bost talentu hartu ebazanak inbertidu egin ebazan berehala eta beste bost irabazi. Era berean talentu bi hartu ebazanak: inbertidu eta beste bi irabazi ebazan. Bat bakarra hartu ebanak, ostera, lurrean zuloa egin eta bertan gorde eban nagusiaren dirua.

«Handik denpora askora, etorri zan nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi jaken. Aurreratu zan bost talentu hartu ebazana eta beste bost aurkeztu eutsozan, esanez: “Jauna, bost talentu itzi zeustazan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan eutson: “Ederto, morroi on eta leiala! Gauza gitxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren jaia ospatzera”.

Aurreratu zan, gero, talentu bi hartu ebazana eta esan eutson: “Jauna, talentu bi itzi zeustazan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan eutson: “Ederto, morroi on eta leiala! Gauza gitxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren jaia ospatzera”. Aurreratu zan talentu bakarra hartu ebana eta esan eutson: “Banekian gizon zorrotza zarana, erein ez dozun lekuan hartzen eta zabaldu ez dozun lekuan batzen dozuna; bildur nintzan, eta zure talentua lurrean ezkutatu neban. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun eutson: “Ai morroi gaizto eta alperra! Bazenkian erein ez dodan lekuan hartzen dodana eta zabaldu ez dodan lekuan batzen. Beraz, bankuan jarri behar zenduan nire dirua, bihurtzean bere korrituakaz jaso nengian. Kendu egiozue, bada, talentua eta emon hamar dituanari. Izan ere, frutua dakarrenari emon egingo jako, eta gainezka izango dau; fruturik ez dakarrenari, ostera, daukan apurra ere kendu egingo jako. Eta ezertarako gauza ez den morroi hau jaurti kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han”.



a.- Talentuak, dohaiak, bizitzako urteak, aukerak, ondasunak... Kontua zera da: Gugaz eta gure gauzakaz Jaungoikoak ere badaukala zerikusia. Parabolako ugazabak bati bost, besteari bi eta hirugarrenari bat emon eutsezan. Bakotxak hartu ebanaren arabera erantzun behar. Jaso ere bardin egingo eben: Sari bardina, ez dau begiratzen kopuruaren arabera, hor jarri dauan ahaleginaren arabera baino.


Zer deritxazu: *Ba al dago norberak gura dauana egiterik norbere buruaz eta hartu dituan gauzakaz?*

b.- Talentu bakarra hartu ebanak haren arabera jokatu izan baleu, sari bardina jasoko eban; baina hartu eban apurrari ere ez eutsan erantzun. Atxakiak bai nagusiaren aurka, baina mila atxakik ez dabe errazoi bat egiten. Gitxi hartzea, txikia izatea ez da errazoi bape ez egiteko. Asko nahiz gitxi hartzea ez dago zure eskuan, ez inoren merituetan; zurea hauxe da: Hartu dozunagaz zintzo jokatzeari da

Zer deritxazu: *Nire bizitzako jarrerak eta ekintzak ba al dauke Jaunagaz zerikusirik? Zergaitik?*

d.- Nagusi zorrotza benetan! Alperra izan eta gainera errua nagusiari bota... "Kendu egiozue talentu hori eta ezertako ere ez dan morroi hori bota egizue kanpoko ilunetara". Bakotxak ekarri doguz mundura geure neurriko dohaia, bizitza eta ahalmenak. Tokau jakuna onartu eta gogo onez jokatu, nagusiagaz ahaztu barik.

Zer deritxazu: *Hartu dozuzan talentuei atera al deitsezu dauken zuku guztia?*



JAUNGOIKOAREN SAKRAMENTUAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Hasiera batean gizona gizonareztat laguna eta anaia zan. Laster batean arerio eta hiltzaile bihurtu zan. Harrezkero, alkarren kontra indar bik dihardue gure artean: alkarri zelan lagunduko eta zelan alkarri kalte egingo.

Zer deritxazu: *Ez al dozuz indar bi honeek nabarmen ikusten gure artean? Nun? Zertan?*

b.- Jatorriz eta Jaungoikoaren asmoz gizakia heldua eta egina, alkarri on egitekoa da. Hortik, urrunduz doan heinean, gizatasunetik ere urrunduz doa. Ondoren datoz "astakeriak", txakurkeriak" eta bestelako piztikeri guztiak gizartean. Zintzo dabilena zapaldu eta oker dabilena aupatzeraino.

Zer deritxazu: *Gizakiak piztikeriakaz zertara joten dau?*

d.- Eta, jakina, gizatasunez jokatzek lagun hurkoa aintzat hartzen dau eta bere aurka egindakoa ezergaitik ere ez ditu justifikatzen. Izan dira hurkoaren orde z euren buruak heriotzara eta espetxeko ilunpetara eskeini dituenak. Gizatasuna da berari zor jakozan balioakaz jantzi behar doguna. Ez dago herririk ta benetako erlijinorik hurkoaren kontrakorik agindu daikenik.

Zer deritxazu: *Hau holan bada, zer bide hartu behar dogu zintzoa izateko?*



2.- LAGUNGARRIA: “JAUNGOIKOAREN SAKAMENTUAK”

Ekialdeko jainkozale bat zan. Goizero, jagitean, erlijino ohiturazko bustialdi bat hartzen eban, eta kultu-etxera joaten zan, opariak eskeintzera. Egunean hiru bider egin ohi eban opari-eskeintza hau.

Egun batean, bestetan ohi eban baino sutsuago egin eban jardunaldi hau: “Hara, Jauna, ni zure etxera egunean hiru bider natortzu. Zergaitik ez zatoz neurera?” Bai azkar jaso ebala Jaunaren erantzuna: “Bihar bertan joango niaitzu zuenera”.

Gure gizon hori –auzotarrak “Kaxinto santua” deitzen eutsoen- pozaren pozez gainezka etxeratu zan eta etxe guztia goitik behera astindu eta garbitu eban. Ate-aurrean lore-ontzi dotorea jarri eban eta eskaratz beteko mahai zabala, jan-edari gozoz plen-plen atonduta. Dana prest Jaungoikoa etxean hartzeko.


Goizerdian, handik zehar joian ume galdu batek ikusi eban jan-edari gozoz beteriko mahai leiho ertzetik. Han etorri jakon laster atera, gosea kendu nahirik jateko-eske. Etxejauna hasarre bizitan jarri jakon, eta bultzaka bota eban etxe ondotik, esanez: “Ona zagoz! Zeuri emongo deusut Jaungoikoarentzat prestauta daukadanetik? Zagoz horretan!”

Baina, egonak egonda, han ez zan Jaungoikoa agertzen. Ate ondoan begira egoala, beste eskeko bat hurreratu jakon limosna eske. Betozko astunez bereak eta bost esanda bota eban hau ere etxe ondotik, inguruan itzi ebazan hanka-markak ere ezabatuz.

Arratsalde beranduan han egoan Jaungoikoaren zain. Gitxien uste ebanean, hor agertzen jako itxura txarreko erromes bat, eta ate ondoko jesarlekuan atsedenaldea hartzeko asmotan hurreratu zan, bidez nekaturik etorrela-eta. “Ezta inundik inora ere; jesarleku hau Jaungoikoarentzat atonduta dago”

Biharamonean, eguneroko opariak egitera jauretxera joanda, gizon jainkozale-itxurako horrek sekulako hileta luze ta latza jo eutsan Jaungoikoari: “Jauna, agindu bai, baina ez zinan etorri atzo gurera. Zergaitik ez, Jauna?”

Ez eban egundo ahaztu, jaso eban erantzun-erakutsia: “Hiru bider etorri nintxatzun atera eta zuk hiru bider bota ninduzun kanpora modu txarrean”.



a.- Jainkozaleak gehienetan tenpluko kultura joten dau: errezu, intzentsu eta ospakizun asko. Zuzen eta traba barik goruntz begira jarten da: ni eta Jainkoa. Jaungoikoagaz maitemindua lez agertzen da. Inguruko arazoak ez ditu baloratzen, ez da eurakatik asko arduratzen.

Zer deritxazu: *Tenpluko eta intzentsu arteko Jaungoikoagaz zer balio dauka bizitzak? Eta bizitzako gorabeherak?*

b.- Kaxinto bai pozik, Jaungoikoa etxera jatorkola-ta! Etxean eukazan gauzarik onenak atera ebazan, Bera etorri orduko. Ez eban beste inoren eta beste ezeren trabarik gura. Jaungoikoak hori eta gehiago merezi eban, bere ustez. Jaunak bere presentziaz beteko eutsan etxea.

Zer deritxazu: *Jaungoikoak etxea zegaz eta zelan bete ohi dau?*

d.- Keleto eskekoa bai arin bota ebala etxe ingurutik! Harentzat etxean ez egoan ez ogirik, ez lekurik. Baina...Jaungoikorik ez zan agertzen, itxuraz. Kolpe ederra eroan eban Kaxintok gaueko erantzunagaz: *“Ni egun barruan hiru bider etorri naitzazu ate ondora eta zuk hiruretan bota nozu”*.

Zer deritxazu: *Eskekoak hatsez ala bakez beteko ete eutsan etxea eta...bihotza?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 25, 34-45)

Orduan, erregeak eskumakoei esango deutse: “Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoan erreinua.

Gose izan nintzan eta jaten emon zeunsten; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoak esango deutsoe: “Jauna, baina noiz aurkitu zinduguzan goserik eta jaten emon geuntsun, edo egarriak eta edaten emon? Noiz aurkitu zinduguzan arrotz eta etxean hartu, edo narrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zinduguzan gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?” Eta erregeak erantzungo deutse: *“Benetan dinotsuet: Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsoena, neuri egin zeunsteen”*. «Gero, ezkerrekoei esango deutse: *“Alde nigandik urrun, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestatua dagoan betiko sutara. Gose izan nintzan eta ez zeunsten jaten emon; egarri, eta edaten emon ez; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixo eta kartzelan, eta ez zineen ikustera etorri”*. Orduan, hareek ere esango deutsoe: *“Jauna, baina noiz aurkitu zinduguzan gose edo egarri, arrotz edo narrugorri, gaixo edo kartzelan, eta guk lagundu ez?”* Harek erantzungo deutse: *“Benetan dinotsuet: Txikien honeetako edozeini egin ez zeuntsoena, neuri ez zeunsten egin”*.

a.- Ikusten denez, kristautasuna gizatasunagaz dago lotu-lotu eginda. Biak dauke zerikusi estua lagun hurkoagaz. Banandu ezineko lotura estua. Hurkoari egindakoa Jaungoikoak Berari egindakotzat hartzen dau. Gizakia, txikiena izanda ere, -eta txikiena bada areago- Jaungoikoaren seme-alaba maitea da, bere lekuan dago.


Zer deritxazu: *Lagun hurkoa holan begiratzeko eta hartzeko, zer behar da?*

b.- Jesus Maisuak beherengo mailan ipini eban bere lekua, bai jaioteko, bai biziteko eta bai hilteko, beherengo hurkoagaz bat eginez: gaixorik, goserik, egarririk, erbesteraturik, kartazelaturik dagozanakaz bat eginda. Eta holan dagozanei egindakoa, Berari egindakotzat hartzen dauala argi eta garbi dinosku.

Zer deritxazu: *Holan dala, hurko behartsua Jesusen "sakramentu" lez da? Zelan ulertzen dozu hau?*

d.- Hemen jokutzen dogu "zatoz" eta "zoaz" azken egunean. Jesusek mezatan eta errezueta barik, alkarlaguntzan aztertuko gaituala dinosku. Orduz aurretik esan deusku Maisuak, zertan aztertuko gaituan azken azterketetan.

Zer deritxazu: *Prest al gagoz azterketa horretan erantzuteko? Zer hutsune bete behar dogu, badaezpadan?*



JESUS ORAINGO GABONETAN BIHURTUKO BALITZ

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gizakiaren berezko jokerea da materialista izatea. Egon ere, material ondo sartuta bizi gara. Kapaz da Jaungoikoa eta bere gauzarik ederrenak itxura hutsetara ekarteko. Azaletik hartu eta norbere erara eta gustura erabiltea gogoko jako. Geu Haren esanetara jarri eta bizi beharrean, Bera eta gainerako santu-santa guztiak geure preminetara eta ohituretara moldatzen doguz.


Zer deritxazu: Kontuak atera: zertarako erabilten doguz santuak eta euren jaiak?

b.- Eta, jakina, Jainkoa eta bere gauzak behar ez dan moduan erabiliz, azkenean zertarako diranik ere ez. Lehenengo eta behin, sinismenezko eta erlijinozko ospakizunak izanik, horretarakoxe ez, beste guztietarako erabilten doguz. Hartu, bai, eskuetan herriko jaietako egitarau-paper bat, eta ikusi ea zertan eta zelan agertzen dan sinismen alderdia. Meza ordua bai, ondorengo plazakizunetarako jentea batzeko...

Zer deritxazu: Gure kristinau jaiak mesedegarri ala kaltegarri jakuz fedebizitzarako?

d.- Aukeratu daiguzan urteko jaiegun nagusienak: Aste Santua eta Gabonak. Jesus jaio bazan, ez bazan, biztu bazan, ez bazan, bost ardura. Bonbonkerietan txanpon apurrak eralgi eta beste barik "San Joan joan zan".

Zer deritxazu: Onenera jota, zertan agertzen da gaur egun krisintau aldedirik kristinau jaietan?



2.- LAGUNGARRIA "JESUS ORAINGO GABONETAN BIHURTUKO BALITZ"

Zer jazoko ete litzateke gaur Jesus bihurtuko balitz? Hainbat denpora da frantziar idazle batek Jesusen berretorrera edu honetan ikusi ebala, oriango Gabon jaietan uri jentetsu batean. Gabon jaietan bada gure kaleetan jentearen joan-etorria, zorabiatzeko beste atzera-aurrerakada batean. Giro honetan, Jesus ertzain batengana hurreratuz, itaunduten deutso:

- Zer dala eta honenbesteko joan-etorri hau?
- Eguberri da. Nundik zatoz zeu, horren barri ez jakiteko?
- Belendik.
- Belen? Zer da hori? Izen hori ez dot inoiz entzun.

Jesusek aurrera jo dau eta hotel ikusgarri baten sartzen da. Gabon gaueko afaria zerbitzen hasten dagoz. Andra batek, sekulako jantzi dotorez apainduta bera, jagi eta zerbitzarietara deika hasten da:

- Jaurti egizue kalera itxurabako eskeko hori!

Eta Jesus barrero ere kale gorrian bakarrik. Laster baten, senar-emazte bikote baten atzean aurkitzen da. Eurak sartzen diran etxean bera ere sartzen da. Isilik eta entzuten dago. Euren arteko jarduna gatzbako berbalapiko hutsa da. Gabon konturik ezertxo ere ez. Lurjota urteten dau kalera.

Handik laster ume aldra bategaz topo egiten dau. Euren artean behintzat aurkituko dau ganorazkorik zeozer. Euretarike batengana hurreratuz, badinotso: -Zuk, potxolo, maite al dozu Jesus? Umeak harrituta begiratzen deutso, begibistatik ospa eginez.

Azkenik, Jesus uri baztar batera doa, nun jausi ez daukenak euren mixeriaz lotsatuta bizi diranen artera. Noiz jausiko dagoan etxetxo batera hurreratzen da eta sukaldeko leihotik begiratzen dau barrura. Familia osoa batuta dago, "jaiotza" baten inguruan abesten. Dana da pobre eta apala. Umetxo batek Jesus ikusten dau, eta berehala atea edegiten deutso. Jesus bertan sartzen da...eta beretarren artean gustura sentitzen da; besteak, lehenago baten lez, gaur ere ez dauke lekurik ostatuan.



a.- Goazen, esate baterako, Gabon-Eguberriko ospakizunak aztertzeraz. Lehenago senitarteko ospakizuna zan, gauerdiko meza eta guzti. Gaur egun gauerdian badira beste ospakizun batzuk, Belengoagaz zerikusirik ez daukenak. Etxean gero eta leku gitxiago eta hotzago dago holako ospakizunetarako.

Zer deritxazu: *Zenbat kristinau familietan afaltzen ete da, Gabon gaueko afaria norgaitik edo zergaitik dan aitatu ere egin barik!*

b.- Egia esan, Jesusen "jaiotza" politak ipinten dira etxe eta baztar askotan. Beti ere polito emoten dau eta bestelako konpromisorik ere ez dakar. Kontuak atera: Belengo ume, izar, ganbelu etabar Corte Ingeles-en agertzen dira lehenen. Harako kanpaiak bai ondo entzun! Eta...erantzun!


Zer deritxazu: *Egia esateko, gaur euskaldun gehiengo batek zertan eta zelan ospatzen ditu Gabonak?*

d.- Gaur ere Beretzat etxerik gehienetan ez dago ostaturik, pobreen artera jo behar, horixe da bere lekua. Zorionez, gero eta kristinau gehiago dira gaixo eta behartsuen ondora hurreratzen diranak, kanpoko ume errukarriren bat jaietarako hartzen dabenak...

Zer deritxazu: *Zuk zeuk zertan hartzen deutsezu Gabon jaietari Belengo usainik?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 2, 8-20)

Baziran inguru haretan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen. Jaunaren aingerua aurkeztu jaken eta Jaunaren aintzak argiz inguratu ebazan; hareek bildur-ikaraz gelditu ziran, eta aingeruak esan eutsen: «Ez bildurtu! Hara, barri on pozgarria dakartzu, bai zuentzat, bai herri osoarentzat ere: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna, jaiotze gaur Daviden herrian. Eta hona seinalea: jaiobari bat aurkituko dozue oihaletan batuta eta askan etzunda». Bat-batean, zeruko aingeru-talde handi bat azaldu zan aingeruaren inguruan, Jainkoa goralduz: «Aintza zeru goienetan Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituan gizon-emakumeei!» Aingeruak zerura alde egin ebanean, artzainak zirautsen alkarriz: «Goazen Belenera, Jaunak adierazo deuskun jazoera hori ikustera». Joan ziran aringa eta han aurkitu ebezan Maria, Jose eta jaiobaria askan etzunda. Ikusi ebanean, umetxo haretaz esan jakena kontatu eben. Artzainak esandakoa entzun eben guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, barriz, jazoera guztiok gogoan hartzen ebazan, bere barruan hausnartuz. Artzainak, entzun eta ikusi ebenagaitik Jainkoari aintzaka eta goraka bihurtu ziran, dana aingeruak esan eutsen lez jazo jaken-eta. .



a.- Izan ere, ez da erreza Belengo Jainko txikiagaz bat egitea. Bi mila urte joanda gero ere, guk lainoetara begiratzen dogu Jainko bila. Bistakoa da Jesus orduan eta gaur egun ere behartsuen eta txikien artean jaioten dala: *“Baziran inguru haretan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen”*.


Zer deritxazu: *Zu nora zoaz Gabonetan? Nungo aingeruk esanda?*

d.- Ez da harritzekoa Jaungoikoaren Erreinuko misterioak ume eta txikientzat dirala esatea; txikiak, baina ez urtez, bihotzez eta izatez baino. Jaungoiko txikia behartsuagan sinistea konpromisoa da

Zer deritxazu: *Belengo pobretasunean Jesus “jaioko” dala benetan sinistek zer ondoren dakar?*

d.- Bihotzez apal eta xumeak diranak sinistu egiten dabe eta bidean jarten dira: orain artzainak, gero erregeak, gero...gizaldietan zehar miloika asko. Sinistu ezker, ez dago geldi egoterik. Kontakizun honen erdian Maria agertzen da, umea altzoan dauala. Hona hemen Jaunaren mirabea! Hona hemen txiki-haundia!: *“Mariak jazoera guztiok gogoan hartzen ebazan, bere barruan hausnartuz”*.

Zer deritxazu: *Aurkitu al dozu Belengo Mariagan zer ikasirik eta zer eginik?*




KONPARTIDU EGIZU ZURE BIZITZA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Bibliaren hasieran esana: *“Ez da on gizona bakarrik egotea; egin deiogun berari dagokion laguna”*. Bere antzeko laguna, beragaz bizia konpartiduko dauan laguna. Pizti, arrain eta abar lagun ditu lur azalean, baina bizia antzeko lagunen artean konpartitzen da. Horregaitik munduan zeu bakarrik bazengoz, zer?
Zer deritxazu: *Bizitza ez bada, heriotza konpartidu behar alkarregaz. Alkar osotuz, bizia sortu?*

b.- Antzekoak maitasunez alkartzean, bizi barria sortzen eta ugaritzen dabe. Ez konpartitzeak ekarri eban heriotza, hondamendia lurrera. Ez dago antzekoak alkartzerik, alkartzean bizia sortu barik.
Zer deritxazu: *Konpartitzean alkar aberastu egiten da. Aberastu nor, hartzailea ala emoilea? Zelan leiteke hori?*

d.- Bizia konpartitzea alkar maitatzearen gorengo maila da. Izan ere, bizia maitasunezko egitadarik ederrena da. Berba ona, pentsamentu onak, sentimentuak...onak dira; baina ez dira nahiko bizia sortzeko, bizia zaindu eta zabaltzeko. Nekea, izerdia, itxaropena, maitasuna behar dira.
Zer deritxazu: *“Odolkiak ordainetan” da esaera. Ez dira txarrak, baina trukezko hartuemonan nahiko al da, bizi barria sortu eta lantzeko?*



konpartidu

2.- LAGUNGARRIA “KONPARTIDU EGIZU ZURE BIZITZA”

Behin baten albistari batek itaundu eutson nekazari bati:

- *“Nahi dozu zabaldu dagidan zure artoaren sekretua? Hainbat urte jarraian irabazi dozu lehenengo saria eta jenteak jakin gurako dau”.*
- *“Berba gitxitan esango deusut zein dan: nire arto-hazia auzotarrakaz konpartitzen dodalako”.*
- *“Zergaitik konpartitzen dozu arto-hazirik onena zure auzotarrakaz, eurak ere urtero norgehiagoka horretan parte izaten dira-eta?”*
- *“Begira, jauna, haizeak eroaten dau arto helduaren polena solo batetik bestera. Nire auzotarrak hazi txarragoa ereingo balebe, hango polen txarragoa nire soloetara etorriko litzateke eta nirea hondatu. Arto hazi ona ereitera banoa, nire auzotarrei ere lagundu behar deutset beste hainbeste egiten”.*



a.- Ona eta txarra biak dira zabalkorrak. Zer zabaldu, haxe jaso. Txarra zabaldu eta inor hondatu gura dabenak ere asko dira. Parabolako gizonak benetan azoka askotako sariak merezi ditu. Hazi ona saldu, haren onuraz norbere burua aberasteko... Bide batez, auzokoa ere aberastea biderdi egitea da.

Zer deritxazu: *Portaera horregaz mundua hobetuko litzateke?*

b.- Ona konpartitzeak ona dakar, txarra konpartitzeak txarra. Penagarria da, baina badira haize bihurriak hazi ona beste aldera bialtzen dabenak ere, eta bestaldeko txarra zure solora zuzentzen dabenak. Orduan ere, ahal bada, zuk hazi ona zabaldu

Zer deritxazu: *Txarra konpartitzeak inori onik ekarri ahal deutso?*

d.- Baserritar zintzoaren jokabidea txalogarria da: Zoriontsu danak auzokoak ere zoriontsu ikusi gura ditu. Gure zoriontasuna besteen zoriontasunagaz bat egina dago. Jakina, on egitearen bidea laburra eta neketsua izan ohi da, batez ere erantzun txarra dagoanean. Baina ez dago beste bide onik, norbera ere zoriontsu izateko.

Zer deritxazu: *Baserritarraren bidea hartuko bagendu, zer onura aterako genduke etxean eta auzoan?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mk 3, 13-15)

“Gero, mendira igon zan, eta berak nahi ebazanei dei egin eutsen. Eta hareek hurreratu egin jakozan. Hamabi izendatu ebazan, beragaz biziteko eta barri ona iragartera bialtzeko, deabruak botateko ahalmena emonez”.



a.- Jesusek bialduaren kontzientzia eukan, nork eta zertara bialdua zan. Hori da oinarria bere ekintza osoan. *“Ez naz etorri neure gogoa egitera, bialdu nauanaren gogoa egitera baino”*. Lagunen kontseju okerraren aurrean zirt-zart ebagiten eban: *“Zure burubideak ez dira Aitarenak, gizonarenak baino”*


Zer deritxazu: *Zelako sentimentuaz eta kontzientziaz jokutzen dau “bialduaren” kontzientzi argia daukanak?*

b.- Aitaren Erreinua iragartera bialduak, bai Jesus eta bai bere jarraitzaileok ere. Erreinu hori ez da mundu honetakoa, munduak irakatsi eta zabaltzen dauana; Jaunaren Espirituak munduko bizitzan sendotu gura dauana da: bakea, zoriontasuna, solidaritza, maitasuna.

Zer deritxazu: *Eleizea honetarakoxe da, munduko argi eta lurreko gatz izatera bialdua”. Eleiztarrok ba al dogu horretarako indarrik, kontzientziarik?*

d.- *“Osatu egizuez gaixoak”*: nekatuta, gogaituta dabiltzanak, norantza jo ez dakienak, itxaropena eta bizipoza galdu dabenak... *“Uxatu espirtu gaiztoak”*... Hori da gogoan hartu eta bete behar doguna. Bestelan... *“jentilak ere egiten dabe beste horrenbeste”*.

Zer deritxazu: *Eleizara joan arren, eroan ete leiteke jentil bizitza? Bizitza konpartitzean, zertan bereizten dira kristinaua eta jentila?*



KREAZINOKO GAUZARIK EDERRENA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Kreazinoan zenbat gauza eder eta harrigarri! Jakitunak hor jabiltzuz bertan dagozan sekretuak eskuratu ezinik. Aspaldion zer ez deuskue begibistan ipini! Eta oraindik ikustekoak ei daukaguz. Nork jakin zer dan ederrik ederrena?

Zer deritxazu: *Hori dana Jaungoikoak guretzat egina dala sinistuta, zelakoa izan behar dau gure jarrereak Kreazinoaren aurrean?*

b.- Edertasuna zelan neurtu? Azaletik ederrak diran asko, ustelak jatzuz barrutik tamalez. Kontenplariak liluratutatuta gelditzen dira loretxo bati begira, txoritxo bati entzuten, amaren altzoan lolo dagoan seintxoaren aurrean. Zertan dago egiz edertasuna?

Zer deritxazu: *Kreazinoa ez da amaitu, etenbarik dago gizakiaren ekintzaz ederragotzen. Esaterako....*

d.- Kreazinoa, -hain eder zoragarria!- gizonarentzat egina bada, gizakia bera zer ete da? San Paulok inoanez, *"Gauza guztiak guretzat, gu Kristorentzat eta Kristo Jaungoikoarentzat"*. Kreazinoa zaintzea, daukazan ondasunak ondo erabiltea ondo dago eta guretzat egin beharra da. Baina baldintza bategaz: Kreazinoagaz jabetu barik, gizaki guztientzat dan ezkerro, danen artean ondasunak konpartiduz.

Zer deritxazu: *Ondasunak batu eta gordetzea, ala ondasunak batu eta banatzea da Kreazinoaz zuzen jokatzea?*



2.- LAGUNGARRIA "KREAZINOKO GAUZARIK EDERRENA"

Jaungoikoa munduko gauzarik EDERRENA egitera joian: aurretiaz praktikatu egin eban, beste gauza eder asko eginez: loreak..., izarrak..., egunsentia..., ilunabarra...

Arboladiko haize zurrumurrutxoa egin eban, mila koloretako txori eta hegaztiak egin ebazan.

Eta orduan bai, gauzarik ederrenak eginez esku abilen jabe zala ikusi ebanean, Kreazinoko EGITEKORIK EDERRENA egin eban.

Hau da: AMA EGIN EBAN.

Lehenengo gizona ere harri eta zur gelditu zan amen edertasunaren aurrean, eta esan eutson Jaungoikoari:

- "Ene Jaungoiko Jauna, oraintxe bai emon deutsozula bizia sortu dozun egitekorik ederrenari".

Ama egiterakoan sortu zenduan MUNDUAN IZAN DAITEKEN GAUZARIK EDERRENA, GOZOENA, SAMURRENA, MAITAGARRIENA"

- "Eta hori ez da ezer ere, erantzun eutson Jaungoikoak; zer esango ete dozu AMAMAK egiten dodazanean!"



a.- Edertasunaren iturburua Jaungoikoa Bera da; bere edertasuna Kreazinoko gauza guztietan dago zabaldua geure gozamenerako. Badira artistak -olerkariak, argazkilariak, eskultoreak etabar- Kreazinoko edertasunak jasoten eta eskuratzen ahalegintzen diranak. Nork antz gehiago ezarri, haxe da artistarik onena.

Zer deritxazu: *Zenbat denpora emoten dozu Kreazinoan Jaungoiko Aitaren maitasun arrastoak jasoten?*

b.- Ama...ama...ama...Kreazinoan izan daiteken gauzarik eder, gozo, samur, maitagarriena. Sarri xelebrequeri antzera esaten da: Jainkoak gizona egin ondoren ez zala conforme gelditu; bere eskulana hobeagotzeko andrea, ama egin ebala.

Zer deritxazu: *“Ama Kreazinoko gauzarik ederrena”. Egia al da? Eta zertan dago, ba, amaren edertasuna?*

d.- Ama hain ederra bada, zer ete da birritan ama dana, AMAMA? Baina hainbeste zimur eta ajegaz? Polita da gauza bat, eta ederra beste bat. Gauza ederrak beti irauten dau gehiago.

Zer deritxazu: *Zer, zaharrago eta ederrago? Zer uste dozu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 21, 1-4)

Begira egoala, aberats batzuk ikusi ebazan Jesusek, tenpluko dirutegian limosna botaten. Ikusi eban andra alargun behartsu bat ere xemeiko bi botaten, eta esan eban: «Benetan dinotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiak baino gehiago bota dau. Izan ere, beste horreek guztiak sobra daukenetik egin dabe limosna; honek, oster, bere eskasian, bizitzeko eukan guztia emon dau».



a.- Adiskide, gauzarik ederrenak begiak itxita ikusten ei dira. Dirudienez, arpegiko begietatik aparte badoguz beste begi batzuk. Santu batek loretegiko larrosa ederrari begira, pozezko negar malko eta guzti, esaten ei eutsan: *“Loretxo, zagoz isilik, nahiko da, nahiko da”*.


Zer deritxazu: *Bardin balio ete dabe pertsonak gure eta Jesusen begien aurrean? Zertan daukaguz balio-neurri ezbardinak?*

b.- Amama alargunak egindakoa ederrik ederrena begitandu jakon Jesusi: *“Emakume honek beste danak baino gehiago emon dau: bizi izateko behar ebanetik, eukan guztia emon dau”*.

Zer deritxazu: *Holan dala, aititak eta amamak euren seme-alabak eta ilobak baino gehiago emon daikee Jaunaren aurrean?*

d.- Maitasunak ederrez janzten dau dana; maitasun bako eder gitxi dago. Nork neurtu amama on batek bere bizitza osoan zabaldu dauan maitasuna! Aitita-amamak urte askotan maitasun frutuz beteriko urrezko kutxak dozuz. Ebanjelioko alargunarena entzunda gero, ez ahaztu zertan dagoan edertasuna Jaungoikoaren aurrerako. Zahartzaroan gauza txiki asko maitasun garbi haundiz egiteko argia eta beroa izan daizuzala zeugan

Zer deritxazu: *Hau jakinda, jubiladutzako aldia denporapasa egiteko aldia dala... Ontzat hartu ete daike hau Jesusen jarraitzaile batek?*



LUZIPERREN ETA JESUSEN ISPILUAK

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Nundik eta zelan sortu zan txarkeria, sufrimentua, heriotzea munduan? Gizaldietan zehar era askotako erantzunak emon dira. Gaurko parabola hau lagungarri bat dozu, zeure gogoetarako arrasto batzuk eskeiniz. Dana dala, gu bakotxagan eta gizartean onaren eta txarraren artean bada etenbako burruka bat.


Zer deritxazu: *Zer egin egoera honen aurrean? Zer urtenbide asmatzen dozu?*

b.- Osoan ona edo osoan txarra danik ez dago. Txarra on bihurtu daiteke eta ona ere bai txar. Ingurugiroak eragin haundia dauka gugan: kulturak, ohiturak, eritxiak. Egia esan, bada inor gutariko bakotxaren ona eta txarra neurtu leikenik? Azken batean, zenbateraino gara geure askatasun eta indarren jabe, barruko edo inguruko indarren eraginpean?

Zer deritxazu: *Edadetu batek ba al dauka txarrerako tentaldi berezirik?*

d.- Ona eta txarra ez da bardin zintzoarentzat eta ganora bakoarentzat. Norbere ahaleginak ere ba dauke zerikusia tentaldien aurrean. Izaten diran aukeren aurrean bakotxak zertara jotzen dauan ere kontutan hartu behar.

Zer deritxazu: *Geuk uste dogun baizen onak al gara, eta hurkoa uste dogun baizen gaiztoa?*



2.- LAGUNGARRIA "LUZIPERREN ETA JESUSEN ISPILUAK"

Luziper gaiztoak asmau eban bere burua kontsolatzeko bide bat: deabruzko ispilu bat, berebiziko dohaia eukana: munduan egoan on guztia lotsagarri eta iguingarri bihurtzen ebana; eta era berean, itsusi eta oker guztia, eder eta desiragarri.

Eta harrezkero, hor dabil Luzifer, ispilu hori hartuta baztarrik-baztar. Eta hara begiratzen daben guztiak ikara bildurrez gelditzen dira: dana agertzen jake iguingarri era ikaragarri.

Luziperren poza ispiluari esker! Gauzak zenbat eta iguingarriagoak berez izan, orduan eta gustagarriagoak gizonentzat... Holako egun batez, hain zoragarri agertzen jakon ikuskizun hori, barrearen barrez leherrenak egin ebazan. Baina, halanbeharrez, ispilua eskuetatik jausi jakon eta hamar mila zati egin zan. Gainera etorri zan haize bolada batek ispilu zati guztiak munduko baztar guztietara sakabanatu ebazan. Ispilu zati batzuk, hare garautxoak lez, birrin-birrin egin ziran eta pertsona askoren begietan sartu ziran. Eta horreitarikoak dana okerretara ikusten hasi ziran: txarra besterik ez eben ikusten, dana eta danean txarra.

Beste zati batzuk betaurreko kristal bihurtu ziran. Betaurreko horreekaz ebiltzanak ez eben gauza zuzenik, ez onik ikusten, ez eben ezer behar dan lez ikusten.

Ez al dozuez ganora horreitariko pertsonak ezagutzen inguruan? Ispiluaren zati batzuk haundiagoak ziran, eta etxe batzuetako leihoetan jarri ebezan, eta handik begiratzen eben koitaduak inguru guztia jente gaizkilez eta ganorabakoz beterik ikusten eben.

Halako batean, Jainkoa ere konturatu zan jazo zanaz, eta gizonen errukiz penaz jarri zan. Eta Bera ere gizonei laguntzera jarri zan. Esan ere egin eban bere kautan: "Neure Semea bialduko dot mundura. Bera da nire irudia, nire ispilua. Nire ontasunaren, nire justiziaren eta nire maitasunaren distira. Nik nahi izan dodan gizakia Beragan agertzen da ondoen, ederren. Eta Jesus Aitaren ispilu lez agertu zan gure artean.

Harengan begiratzen zanak danean ontasuna eta edertasuna aurkitzen eban, eta norberekeritik eta guzurretik bereizten ikasi eban, zuzengabekeriatik eta okerkeriatik bereizten. Beragan gaixoak bizitzen jarraitzeko adorea aurkitzen eben, eta lurjota egozanak itxaropen argia. Triste egozanak kontsolatzen ebazan eta gizonei heriotzearen bildurrari gainetik egiten laguntzen eutsen. Gizon askok maite-maite izan eben Jainkoaren ispilua eta Jesusi jarraitzen eutsoen. Oso-osorik eta betiko Beragandu ebazan.

Beste batzuk, ostera, amorrus beterik, Jainkoaren ispilu hori birrindutera jo eben. Jesus kurutzean garbitu eben. Baina laster sortu zan haize bolada indartsu barri bat: Espiritu Santua. Jainkoaren ispiluaren miloika zatiak sakabanatu ebazan munduan zehar eta gizaldirik gizaldi. Ispilu horretako izpitxo bat bere begietan hartzen dauana, beste era batera ikusten hasten da mundua eta pertsonak, Jesusen erara. Orduan, lehenengo eta behin, gauza onak eta ederrak agertzen dira: justizia eta eskuzabaltasuna, alaitasuna eta itxaropena. Okerkeria eta zuzengabekeria, ostera, azpiratu eta aldatu leitekezanak dira.

a.- “Luziper” hori maisu argia da. Esaera zaharra da, “Luziperrek gehiago daki zaharra dalako, deabru dalako baino”. Ona lotsagarri bihurtzen daki, eta txarra harrokeri eta “moderno”. Orduan egizalea, sufrimentuen aurrean eroapentsua dana gixajotzat jotzen da. Gainera, Luziferrek errez eta ugari aurkitzen ditu bere laguntzaile onak.

Zer deritxazu: *Jabetu al zara “barrabas bedar” hau zelan eta nork zabaltzen dauan?*

b.- Kristal hautsagaz begiak zikintzea...eta etxeetako leihoetako kristalak desitxuratzea... Orduan ezin ikusi gauza zuzenik, pertsona onik. Eta txarrena zera: Inguru guztian zabaldu dan kristal kutsaduraz konturatu barik. Danak bardintsu ikusten dabenez, ezin okerrik eta pekaturik aurkitu norberagan.


Zer deritxazu: *Begiak, bihotza lohi dagoanean, ikusten al da ezer garbirik?*

d.- Eta Jaungoikoak hartzen dauan bidea bai egokia!. Begi-bihotzak garbi euki eta gauzak eta pertsonak zuzen ikusteko, Jesus ezagutzeak neurtu ezinezko indarra dauka. Orduan eragiten deusku Espirituaren Haizeak, begiak garbitu eta dana dan modukoa erakutsiz.

Zer deritxazu: *Espirituaren Haizearen eragina nun eta zelan hartzen da?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (“Jn15, 18-20.27)

«Munduak gorroto badeutsue, jakizue zuei baino lehen neuri izan deustala gorroto. Mundukoak bazinee, munduak maite izango zindukiez, nork berea maite dauan lez; baina nik aukeratu eta mundutik atera zinduedazanez, munduak gorroto deutsue, mundukoak ez zareelako. Gogoratu esan neutsuena: morroia ez da nagusia baino haundiago. Ni pertsegidu banabe, zuek ere pertsegiduko zaitue; nire mezua zelan hartu, halan hartuko dabe zuena ere. Eta zuek ere egingo dozue testigantza, hasieratik Nigaz egon zaree-ta”.



a.- Asko nahiz gitxi, danok dana doan hartutakoa dogu. Asko hartu dauanak ez dauka zertan harrotu; gitxi hartu dauanak ere ez dauka zergaitik mindu eta lotsatu. Kontua zera da: Zarana zarala, ahalegindu zaitez dagokizun frutua emoten. Dagokizun arabera, hau da, hartu dozun neurrian.

Zer deritxazu: *Zeu zaran modukoa zarala, zeure burua onartzeak zer ondoren ekarriko leuskizu?*

b.- Geure buruaren dohaien jabe ez bagara, kontuak emon behar Jabeari. Dana beragandik hartutakoa bada... Bat hartu dauana ere bai: beste bategaz erantzun baleu, hamarrekoak beste jasoko eban. Zein egoki datorren mallukiaren jarrera: Ni jabeak malluki gura izan nau, eta mallukirik onena izan gura dot.

Zer deritxazu: *Orduan, bakea, bizipoza eskuan daukazuz, zeuk zeure burua, onartzen badozu? Zer egiteko gogoia etorri jatzu?*

d.- Lurrak, euriak, eguzkiak bakotxari bera izateko indarra emoten deutso. Baita gu bakotxari ere sakramentuak, otoitzak, bizitzak berak. Sekretua honetan dago: Ni hauxe eta hauxe naz, hauxe landuten, hobeagotzen ahaleginduko naz.

Zer deritxazu: *Sarri eskerrak emon Jaunari zaran modukoa egin zaitualako, bizitzan tokatu jatzuna tokatu jatzulako, Jaunaren ontasuna goraldtu. Zergaitik eskerrak emoten deutzazuz eta zer eskatzen?*



MAMUA DA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jakitun gagoz zer dan mamua: gehienetan “parte txarreko” zerbait edo norbait, guretzat ezezaguna, ulertzen ez doguna, sarri askotan bildurgarria. Gaurko barrikuntza asko edadekuentzat “mamu” bihurtu dira. “Mamuen” aurrean jarrera ezbardinak hartzen dira: Norbera “mamu” bihurtu, mozorrotuta leku askotan agertuz; aldian aldiko “mamu” gaiztoekaz adiskidetuz.

Zer deritxazu: *Umetan izan al dozue “mamuen” esperientziarik?*

b.- Umetako “mamu” askok geroago galdu izan dabe euren indarra eta bildur eragina. Baina beste “mamu” barri batzuek agertzen dira, beste era batekoak: krisialdiak, egoera larriak, ezustekoak... Neurtu eta menderatu ezin diranak, geu menpean hartu eta bildur-ikaraz ipinten gaituenak, txarrena pentsatzera eroaten gaituenak.

Zer deritxazu: *Barruan dozun esperientziatik ez al dozu “mamurik” bizi?*

d.- Kontzientziako eta erlijinoko gauzetan beste ezertan baino “mamu” gehiago agertzen dira, “misteriozko” arlo asko landu eta aztertu bakoak doguzalako hor nunbaiten. Gehienetan eurengandik ihesi egiten dogu, baina hor geldizen dira gitxien uste dogunera arte.

Zer uste dozu: *Gaur inoz baino azti, mamu, iragarle gehiago dago baztarretan. Zertara doa jentea? Ez al da hor “mamu” konturik?*



2.- LAGUNGARRIA “MAMUA DA”

Neure bizitzeaz aspertuta nenbilen batan, otoitz antzeko bat egin neban:

“Zugaz topo egitea nahi neuke, Jauna, baina ez dakit norantza jo zure bila. Nire egunsentiak astunak dira eta nire egunak aspergarriak. Beti bat: neure betiko ardurak, betiko hutsegiteak, onartu ezineko mugak, eta igerri barik doa igesi nire bizitza, ezelango zentzun barik.

Zure esku-oinak ikustea nahi neuke. Zure saihetseko zauria ikutu, bihotzez esanaz: “Neure Jaun eta neure Jaungoikoa!”

Hemen naukazu jesarrita, Zeu nire etxera noiz etorriko zain, zeure bakezko agurra noiz entzungo egarriz. Zergaitik ez zatoz? Jesarri zaitetz nire mahaian eta jan nire arrainetik”!

Honetan nengoala, drast edegi da nire leiho bat. Norbaiten abesti-soinu alaiak jotzen dabe nire belarrietara. Aguretxo bat ikusi neban, parkean jesarrita, han inguruan jolasean ebiltzan umetxoei irribarrez begira. Batek badino: “Hau bizitzaren zoragarria!” Baina ez neutsan sinistu: -“Horreek mamuak dira, jardun neban neurekautan, mamuak baino ez”!

Bai, badira euren bizia emoten dabenak, maitasuna iragarten dabelakoan. Beste batzuek mundua aldatuko dabelakoan dabiltz, gizonak anai izatera helduko diralakoan, alkarlanean pozago biziteko ametsetan. Baina nik neurean: “Mamuak, mamuak dira”.

“Neure barruan kilikili gozo bat somatzen dot: “Zergaitik ez dozuz zeuk ere leihoak zabaltzen eta eurakaz alkartzen? Baina mamua besterik ez dot ikusten. Bildurrez nago eta biharkoak larritu egiten nau. Leiho bat edegiten badot, kanpokoak sartuko jataz. Talde bategaz alkartzen banaz, neure burua gerorako katigatu egiten dot. Zure Berbea entzuten badot, barruko bakea galduko dot.

Eta neure baztartxoan kukubilka, zeure zain nago, Jauna. Ez eidazu eskatu bidera urtetekorik, amets egiterik, abestuten jarduterik, ez maitatzerik, ez gogotsu lanean jartzerik. Hor kanpoan mamua besterik ez dago eta bildur naz, Jauna”.

Jesus Berbiztua kanpoan egoan, neure zain egoan eta...nik ikusi ez.



a.- Zenbat eta geure kolkoan barrurago, orduan eta “mamuak” biziago. Izan ere, gure barrunbea itsasorik sakonena da. Eta itsaso sakonean beti agertzen dira ezustekoak, “mamu” bildurgarriak. Sorgin eta mamuak ihes egin ei eben polborearen etorrereaz... Batzuk joan eta barriak etorri, polbora eta guzti.
Zer deritxazu: *Desagertu diran sorgin mamuen; eta etorri barrien konturik ba al dakizu?*

b.- Parabolako aguretxoa irribarrez jolasean egozan umetxoei begira; bitartean etxeko zulotik begira egoanak: “Horreek danok mamuak dira”; umekeriak. Beste askok dihardue herria, kulturea, Eleizea konpondu eta gaurkotu nahirik. Beste askorentzat hori dana: Mamua, mamua, mamua da.
Zer deritxazu: *“Mamua, txatxukeria, ameskeria, iheskeria... zuretzat zer dira holanko jarrerak?*

d.- *“Zergaitik ez dozuz Zeus ere, leihoak zabaldu, eta eurakaz alkartzen?”*. Baina bildur, ea kanpokoak ikusiko ete naberen, eurakaz nahastau eta jentearak nigitik zer esango dauan... Talde baten sartzen banaz, neure burua katigatu, konprometidu egingo ete nazan... Mamuak, dana mamu... eta beti “mamuen” menpe.
Zer deritxazu: *Barruko “mamuak” kanpoan egoan Jesus ikusten itzi ez”. Zer dinozu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 14 22-33)

Berehala, Jesusek ikasleak txalupan sartuazo eta bere aurretik beste aldera joateko agindu eutsen, berak jenteari agur egin bitartean. Jenteari agur egin ondoren, mendira igon zan, bakartadean otoitz egitera. Ilundu ebanean, han egoan bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urrun joan, olatuak astindua, haizea kontra euken-eta. Goiz aldera, ikasleengana joan zan Jesus, ur gainean oinez. Itsasoan ibiltzen ikusi ebenean, ikasleak ikaratu egin ziran, mamuren bat zalakoan; eta bildurraren bildurrez oihuka hasi ziran. Baina Jesusek berehala berba egin eutsen eta esan:

–Nasai! Neu naz. Ez bildurtu! Orduan, Pedrok esan eutson:

–Jauna, benetan zeu bazara, agindu egidazu ur gainean zugana joateko.

Jesusek erantzun eutson:

–Zatoz.

Pedro ontzitik jatsi eta Jesusengana abiatu zan ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, bildurra sartu jakon, eta, hondoratzen hasi zalarik, deiadar egin eban:

–Jauna, salbau nagizu.

Jesusek eskua emon eta heldu egin eutson, esanez:

–Sinismen gitxiko hori! Zergaitik izan dozu zalantza? Txalupara igon ziranean, haizea baretu egin zan. Eta ontzian egozanak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziran, esanez:

–Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!

a.- Sinismenaren lurra “mamuz” betetea ez da harrizkeoa. Gure gaineratik, baina geure barruan dagozan egirik ederrenak ezkutuan daukaguzalako. Itsasoaren erdian, olatu artean galzorian, haizea aurretik eta iluna alde guztietatik. Horra “mamuak” sortzeko aukerarik egokiena. Ikasleak egoera horretan ikaratzea eta orruaka ekitea bidezkoa da: “Mamua da”.

Zer deritxazu: *Bizitzako olatuen erdian eta iluntasunean Jesus, Jaungoikoa, grazia etabar ez al jatzuz “mamu” bihurtzen?*

b.- Itsas gainean eurengana zenbat eta hurrago, bake eta poz gehiago. Batez ere, bere aldetik iluna eta isiltasuna urratzen diranean: “*Izan bihotz*” *Neu naz; ez izan bildurrik*”. Jesusen presentzia hurreratzean, “mamuak” uxatzen dira, desegiten dira. Jesus dagoan lekuan bakea dago, sosegua, prestasuna. Penagarria, holako orduetan, Jesusen presentziaren esperientziarik ez izatea!

Zer deritxazu: *Bizitzako itsasoan, mamu-aldiak datozanean, ba al dozu Jesusen presentziaren esperientzirik?*

d.- Mamuak uxatzen diranean, Jesusen presentziaz indabarrituta, hor doa Pedro arrisku guztien gaineratik. Bizitzako olatuen esperientzia bildurgarria beharrezkoa da, antza, Jesusen presentziaren poza eta indarra sumatzeko: “*Etorri zaitetz*”... baina ikara-bildurrez urperatzean: “*Jauna, salbau nagizu!*”. Eta azkenerako Jesus “mamua”, Jesus “Jaungoikoaren Seme” bihurtuta: “Jaungoikoaren Semea zara benetan!”.

Zer deritxazu: *Ilunaren esperientzia behar da argia zer dan jakiteko?*



MONJEAREN JAKITURIA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jakituria ez da liburuetatik datorrena. Hori gehienetan burura doa. Bizitzatik datorrena barriro ere bizitzara bihurtzen da. Horregaitik bizitzako jakituriz ondo orniduak benetako jakintsuak dira. Berba gitxi, zuzenak eta sakonak dira haren ahotik entzuten diranak. Bizitzako ore barruan gordeta datozelako.


Zer deritxazu: Norengana joaten zara argi eta aholku bila? Liburuetara? Kurutzera? Lagun zintzoengana?

b.- Jakituriz jantzitako gizakia zintzoa dozu; jakituria bere izatearen erdigunean mamintzen jako. Agertzen dauanez, ondo daki bizitzako jokoan barri, ondo txastatu dau barruko gunaren gozotasuna. Ez dau alperriko eta ganorabako berba askorik esango, ez alperriko pausurik emongo. Holakoak dira etxe eta herriko maisuak.

Zer deritxazu: Ezagutzen al dozu holako herri-maisu-maistrarik?

d.- Penagarria da, bizitza berez hain astuna izanik, geure erruz astunagoa egitea! Barruko bakeak eta argiak zerikusi haundia dabe honetan. Egia esan, gizakiok behar dogun hainako bi sufritzen dogu, geure jokera okerrekaitik. Egiazko jakituriaren argi motela dogulako.

Zer deritxazu. Ez al dozu uste behar dozun baino gehiago sufritzen dozula barruko argi faltaz?




2.- LAGUNGARRIA “MONJEAREN JAKITURIA”

Mendi aldeko monastegi bateko abata gazte talde eder baten erdian egoan jesarrita; bertan sartzekotan ebiltzan gazteok, eta abatak egunero kontatzen eutsen parabolaren bat. Oraingo honetan hauxe bota eutsen:

“Bidez doan gizon batek harriztar baten estropezu egin eban; hartu eta beragaz aldean eroian zakutoan. Eta bardin egin eban estropezu egiten eban bideko harri guztiakaz: batu eta batu, azkenerako ezin izan eban aurrera egin. Zer deritxazue gizon horren jokabiadeari?”

- *“Zentzunbako galanta dala”, erantzun eban gaztetariko batek. Zergaitik aldean hartu eta eroan behar ditu estropezu egiten dauan harri guztiak?*
- *“Ene gazte, erantzun eutson monje jakintsuak: Beste horrenbeste egiten dabe bizitzako bidean sortzen diran estropezu-harriak: (irainak, porrotak, zango trabak, eta baita norbere okerrak eta akatsak) kolkoan gordeten dabezanak . Alperriko karga horreek bertan itzi behar dira eta ez batu eta norberagan gorde. Alperriko karga hori baztar batera botaten badogu, geugaz eroaten ez badogu, gure bidea arinagoa egingo jaku, gure pausua seguruagoa izango da eta gure arteko hartuemonak anaikorragoak”*

Abataren erakustaldia amaitu zanean, guztiak hausnarrean gelditu ziran, baina bakotxak beretzat hartu eban erakutsi ederra eta erabagi sendoa hartu ere bai: “Ez dot egundo gorrotoaren eta erresuminaren karga kaltegarria aldean eroango”.



a.- Jaungoikoak ez dau gura guk hainbete sufritzerik. Sufrimentu gehienak eta sarri mingarrienak- geure jarrera txarrakaitik jatorkuz: *“Estropezu-harriak amorruz batu eta batu egiten doguzalako zakutoan*: Bizitzako ezustekoak, ingurutik jatorkuzan zastadak eta kolpeak, banan gorde bihotzean eta gau eta egun erabili egiten doguz, barrua guztiz garrastu arte

Zer deritxazu: *Zer egiten dozu bizitzako bideko estropezu-harriakaz?*

b.- Hamaika alperriko karga badaroagu “barruko zakutoan” gordeta! *“Zentzunbako galanta dala”*. Horixe, eta ez besterik, esan behar dogu, alperriko kargakaz bizitzako bidean herrenka edo balantza doanagaitik.

Zer deritxazu: *Zeintzuk dira kalte egiten deuskuen alperriko kargak?*

d.- Parabolako gazteak erakutsi ederra jaso eben. Baita guk ere ganoraz jokatu gura badogu. Hareek hartutako erabagia gogoan hartzekoa dogu: *“Ez dogu egundo gorrotoaren eta erresuminaren karga kaltegarria aldean eroango”*.

Zer deritxazu: *Merezi dau erakutsi hau gogotan hartu eta bizitzan praktikatzea? Zelan?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Er 13,11-14)

“Horrek guztiak balio berezia dau zein sasotan bizi garan jakinik. Izan ere, ordua da lotatik itzartzeko, sinisten hasi-barri haretan baino hurrago dogu-ta orain salbamena. Badoa gaua, gainean dogu eguna; itzi daiguzan, beraz, ilunpetako egintzak eta prestau gaitez an argitan jarduteko. Gabiltzan duintasunez, egun-argiz lez: ez jan-edanean eta hordikerian, ez lizunkerian eta neurrigabekerian, ez hasarrean eta norgehiagokerian. Bizi zaitezze Jesu Kristo Jaunagaz bat eginik, eta ez ibili giza grinak bete nahian”.



a.- Kristinau izateak gizatasuna ondu eta aberastu egiten dau; batez ere, onbidean aurrera egiteko ahaleginak egiten dituana bada. Giza-makaltasunak ezin dauana, Jaunaren grazia laguntzera dator. Eta, gagozan mailan gagozala, danontzat da gaurko Jaunaren deia: *“Izan ere, ordua da lotatik itzartzeko”*.

Zer deritxazu: *Zer da lotatik itzartze hori?*

b.- Eta gizakia argituz doan heinean, gauzak beste era batera ikusten eta hartzen dira, eta ikusiaren arabera egiagaz jabetzen doa eta bere helburua hurrago ikusten dau: *“Badoa gaua, gainean dogu eguna, itzi daiguzan, beraz, ilunpetako egintzak eta prestau gaitzean argitan jarduteko”*.

Zer deritxazu: *Zer dira argitako eta ilunetako egintzak?*

d.- Entzuten dogun hau debozino batzuk betetea baino gehiago da. Bizitza bera aldatzen doa, barrua goi argiz ta graziz aldatzen dalako. Apurka egun argitan bizitzera moldatzen doa: *“Bizi zaiteze Jesukristo gure Jaunagaz bat eginik, eta ez ibili giza-grinaz bete nahian”*. Hemen gizaki barria agiri da.

Zer deritxazu: *Hemen zer kristinau bizitza eskatzen jaku?*




MUNDUA KONPONTZEN

BIZITZARA BEGIRA

a.- “Mundu barrian bizi gara”. Hau mila bider eta hamar mila aldakuntzakaitik esaten da. “Mundu barria”, bai horixe. Gizaki barria... bai horixe. Barria bai...hobea ere bai?.. Hobea litzateke, gizakia bera lehen baino hobea, egizaleagoa, zuzenagoa, bihotz zabalagoa balitz.
Zer deritxazu: *Hobeto bizi eta hobea izan bardinak ete dira?*

b. Jakina, gaur Japon auzo bihurtu jaku eta auzoa, Japon. Txakurrak hurrago eta behartsuak urrunago. Mundua etxean eta etxea munduan. Iretargia zapaldu eta “iretargian” bizi. Hau da martxa hau!
Zer deritxazu: *Etxea zer da askorentzat gaur egun: tratuleku ala trasteleku?*

d.- Kotxeak 300 kilometro orduko ibilteko modukoak egin eta 120tik gora ibiltea galazo... Bestelan ebilen Anbotoko Mari hankartean erratza hartuta aidean!. Mundubola hau miloika gizaldietan jirabiraka dabil, eta ez da harritzekoa, barruan bizi garanok zorabiatuta egotea.
Zer deritxazu: *Nori deitzen deutso Bibliak gizaki zaharra eta gizaki barria?*



2.- LAGUNGARRIA “MUNDUA KONPONTZEN”

Gizon jakintsu bat arduraz beterik bizi zan: zelan konponduko mundua asmatzen. Egun osoa -sarritan gauerdiraino- emoten eban liburuz beteriko bulegoan.

Halako egun baten, buru-belarri lan horretan sartuta egoala, hor sartzen jako 7 urteko semetxoak. Urduri jarri zan umearen ustebako sarrera eta zaratakaz. Kanpora bialdu gura izan eban, baina alperrik. Zer egingo? Eta paper piloan mundubolaren (esferaren) irudi bat ikusi eban. Behingoan asmau eban isiltasuna egiteko urtenbidea: papera mila zati egingo dot eta mutikoa “mundua konpontzen” ipiniko dot. Esan eta izan: mutikoari gogoko jakon puzzle jolasa eskeini eutsen.

Handik ordu erdira semetxoaren deia:

- “Aita, dana osotu dot, oso ondo gelditu da”.

Aitak ezin dau sinistu ume txiki batek horren arin holako puzzle bat osotu leikenik. Badoa semeagana, eta, egia! Mundua osorik, zati bakotxa bere lekuan ipinita. Ikusita ere sinistu ezin!

- Seme, zuk ez zenkian zelakoa dan mundua. Zelan lortu dozu barriro osotzea?

- Aitatxo, nik ez nekian, ez, zelakoa dan mundua; baina “mundubola” horren irudia aldizkaritik atera dozunean, eta zatika ebagi aurretik, nik paperaren atzeko aldean gizonaren irudia ikusi dot. Holan dala, zatiak azpikoz gora ipini eta gizonaren irudia osotzen hasi naz, gizona zelakoa dan banekian-eta. Gizonarena konpondu dodanean, orria itzulietara ipiniaz batera, konturatu naz “mundua” ere konponduta gelditu dala.



a.- Hau ere bada ba! Liburuz beteriko gela batean gau eta egun murgilduta mundua konpontzen egon, eta bere semetxoak aita deskonpondu, senetik atera. Gauerdiraino mundua hobeto ezagutzen eta aurrerapenez hobeto ipini nahirik, eta semeagaz egoteko astirik ez!

Zer deritxazu: *“Auzoan uso eta etxean otso” Hau lehenago bai, eta gaur hobeto?*

b.- Umea gizona konpontzen eta aita -gizon jakituna- mundua konpontzen. Konpondu: gauz ez diranak barriztu, zuzengabekeriak zuzendu, desbardin-tasunak bardindu, mundu osoa gizakiaren zerbitzura jarri...

Zer deritxazu: *Errezago al da mundua konpontzea, gizakia konpontzea baino?*


d.- Gutariko bakotxak geure burua konpondu eta bakotxaren etxea konpondu ezkerro, horra mundua konponduta. Baina harrokeria, itxurakeria, norberekeria.. “keri” ugari eta “tasun” gitxi dagoanean, kontuz! Asto, txarri, txakur, azeri eta beste pizti askori “keri” atzetik ezarten jakenean, gizakia bera bihurtzen da piztirik txarrena. Orduan zer mundu eta zer munduoste!

Zer deritxazu: *Gaurko munduan gizontasun gitxi eta gizonkeri lartxo?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 4, 16-21)

“Nazaretera joan zan, bera hazi zan herrira, eta zapatuan sinagogan sartu zan, ohi ebanez, eta irakurgaia egitera zutundu. Isaias profetearen liburua emon eutsoen eskura eta, edegitean, pasarte hau aurkitu eban:

Jaunaren espiritua nire gainean dago, berak sagaratu nau-ta behartsuei barri ona adierazoteko; berak bialdu nau katigui askatasuna eta itsuei ikusmena iragartera eta zapalduak askatzera, Jaunak ondonahia azalduko dauan urtea iragartera. *Liburua itxi, laguntzaileari emon eta jesarri egin zan; danak sinagogan begira-begira egokozan. Eta holan hasi jaken: «Gaur bete da profezia hau entzuten deustazuenontzat».*



a.- Jesusek kontzientzia argia dauka: *“Ez naz etorri neure gogoa egitera, bialdu nauan Aitaren gogoa baino”*. Eta Aitaren gogoa agertzen dau gaixoak osatzen, bidegalduak zuzentzen, minez dagozanak baretzen, hasarre diranak adiskidetzten. Hori da Aitaren Erreinua.

Zer deritxazu: *Gaurko munduko bizitza Aitaren Erreinu bihurtzeko, zer eskatzen deusku Jesusek? Balio dau gaurkorako ere? Jarri hiru gauza.*

b.- Gizakiaren osasuna, askatasuna, solidaritza, zorientasuna, hori da Jesusek dinoskunez, Aitak gura dauana. Eleizea ere horretarako bialdu eban mundura, hori da bere jarraitzaile guztion zeregina: lagun hurkoaren alde jokatzeta.

Zer deritxazu: *Zer aldatu behar leuke gaurko Eleizeak -guk geuk kristinauok- Jesusen bidea hartu eta bere egitekoa beteteko?*

d.- Jesus ez dago gerora begira, atzeratu eta atzeratu, eginkizun honetan buru-belarri sartzeko. *“Gaur bete da profezia hau entzuten deustazuenontzat”*. Ezin da gerorako itzi, nahiko berandu da.

Zer deritxazu: *Gaur da gure txanda, nundik eta zer eginaz hasi behar dogu mundua konpontzen? (Geure eskuan dagoanetik hasita)*



NEURE JAIOTEGUNA DALA-ETA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Bada esaera bat: *“Gauzarik onenak, usteltzean, hatsik iguingarriena zabaltzen dabe”*. Fededun lez, antzekoren bat esan behar geure eleiz-bizitzara begira: Sakramentuak, santuen jaiegunak, domekak, debozinoak... gogoratu eta iguina emoteko egoera tristea. Ohiturakeriz eta geure probetxura gauzak hartu eta erabiliz, azkenerako zer diranik ere ez. Euren kontura, eurak adierazoten dauanaren aurka.

Zer deritxazu: *Egoera honek ez al deutsu minik emoten? Jenteak irribarre egitekoa, baina guri negar eragitekoa. Zelan ikusten dozu hau zure inguruan?*

b.- Herriko plazara urten eta: egia, maitasuna, askatasuna, demokrazia, eskubideak... Esan bai, ahoak bota ahalakoak, baina bihotzean zer? Geure inguruko bizitzara begiratuta, jentil bizitzara bihurtu garala dirudi. Argi dago: gaurko giro honetan Jesus Umea baino egokiago dago gure artean Olentzero.

Zer deritxazu: *Ez al gara, konturatu barik, jentil bizitzara bihurtu? Ez al da hauxe euskaldun askoren guraria eta ahalegina?*

d.- Gaur Gabonaldian gagozan ezkerro, egoki jatorku Ebanjelioa eskuan hartu, zer ospatzen dogun kontuan jaso eta zelan ospatu behar dogun erabagi. Besteak beste, nik, zuk, zer? Etxean, kanean, guztien baterako girorik ez dagoala? Badira ospakizunak, aukerak, alkarteak beste era batera ospatzen ahalegintzen diranak.

Zer deritxazu: *Lehenagoko Gabon jaiak eta gaurkoak ba al dabe alkarren antzik?*



2.- LAGUNGARRIA “NEURE JAIOTEGUNA DALA-ETA”

- “Jesusek bere Aitagana hurreratuz, agertu deutso izan dauan ametsa:*
- *Aita, lurrera noa behingoz neure jaioteguna gizonakaz ospatzera.*
 - *Zoaz, Semetxo, hori eta gehiago zor deuntsue-ta*

Astebete lehenago jatsi zan eta hara eta hona ibili zan jentarteko giroa usmaten. Zer ikusiko? Eta: danak zer nahi eta haxe erosten; irratiz eta telebistaz mila eratako iragarkiak bata baino bestea erakargarriagoak. Nire jaioteguna hurrago, orduan eta zorientasun egarria nabarmenago. Pozgarria da, izan ere, urtean behin gitxienez, gizonak Ni gogoan izatea.

Egia esan, orain urte asko hasi ziran nire jaioteguna ospatzen; hasiera baten, ez eben ondo ulertzen Nik eurakaitik egin neban guztia; baina honezkero dana hobeto ezagutu eta eskertuko dabe.

Ametsak amets, usteak erdiak ustelak. Jentea alkartu eta jai egiten aparta da, baina ez dakie norgaitik edo zergaitik dan. Neure jaioteguna heldu da eta neure omenez egindako afaria ospatzen dabe. Badakizu zer? Inork ez eustan afaltzera konbiterik egin. Neure omenez ospakizuna antolatu eta Neuri lekutxo bat eskeini ere ez; afaria neure jaioteguna ospatzeko izan, eguna etorri, eta Neu kale gorrian itzi, Neuri atea itxi... Nik baneukan, ba, gogoia euren mahaian parte hartzeko! (Apk 3,20)

Baina laster urten neban harriduratik, urte askotan bardin jokutzen dabela jakin ondoren. Ez ninduen konbidatu, baina han egon nintzan baztarrean isilik eta geldi. Mahaikideen artean dana zan jan eta edan beharra, askotan kalte egiteko bestean. Hango barriketea, barre algara eta abestiak ez euken amaierarik.

Azken aldera, hor nun agertzen dan agure zahar boldro bat, bizar zuri eta guzti, oihuka baten. Eta danak hasten dira abesten: "Olentzero, buru haundia, entendimentuz jantzia, bart arratsean edan omen du hamar arroako zaragia. Ai urde tripa haundia, tralara tralara..."

Gaueko 12ak ordukoxe, hango oihu eta zantzoak, alkar besarkatuz, zorionak emonez! Neuk ere luzatu nebazan neure besoak norbait besarkatzeko; baina ez zan inor Nigana hurreratu. Eta, sinistekoa ez bada ere, inork ez ninduan besarkatu...

Orduan konturatu nintzan jaialdi haretan ez egoala Niretzat lekurik, ez akordurik. Isil-isilik erretiratu nintzan eta handik urten. Baleiteke eurak uste izatea, Nik ez dodala sentitzen eta negarrik egiten, bertan behera itzitako umezurtzaren antzera.

Noraezean kale ilunetan nenbilela, halako poz zirrada gozoa sortu eustan bihotzean abesti zoragarri batek: "Mesias sarritan agindu zana, aingeru artean dator gugana". Nik atean deitu eta behingoan edegi eusten atea eta besarkada artean jesarriazo ninduen euren erdian errege baten antzera. Han bai ospatu genduala nire jaioteguna! Hagaitik horren antzeko kristinau familiak gogoratu eta gogoan hartu nahi ditut. Nik izan nahi dot konbidatu neure jaiotegunean holakoan etxean. Bai gustagarria han baztartxoan antolatu daben "Belen" txiki dotorea. Eta beste kontutxo bat: Neure jaioteguna izan eta Neuri ez beste guztiei egiten deutsezuela oparixoren bat eta "zorionak" opatu ere bai...

Zuk zeuk, adiskide, zelan hartuko zeunke, zeure jaioteguna izan, eta zeuri ezer opatu barik, alkarri opari eskeinka ibiltea? Behin holango "goxokia" heldu jatan belarrira: "Zuri zer opatuko deusut, ba, inun ikusten ez bazaitut?" Errez asmauko dozu erantzun neutsana: "Niri emon gura deustazuna, oparitu egiozu behartsu bati, hor begibistan eta hur-hurrean daukazuz bat baino gehiago. Zoaz bisitatzera gaixo bat, zahartxoren bat, eta Neuri egindakotzat hartuko deusut"

a.- Parabolako Jesusek ez dauka girorik, ez lekurik gaurko bere JAIOTEGUNEAN. Dana Beragaitik dalakoan, bere izenik entzun ere ez dau egiten. Dana afaria eta jolasa eta Bera izendatu ere ez. Inor ausartzen bada otoitz edo antzekorik egiten, etxe nahiz ostatu, laster izango dira kontrako eupadak, irribarreak eta destainak. Zer deritxazu. *Atrebitzen al zara Gabon gaueko afaria noren izenean dan esaten?*

b.- *“Inork ez ninduan afarira konbidatu”*. Jesus baztarrean, isilik, eta hori bere jaioteguneko ospakizunean. Mutilak! Nora etorri garan! Hor nun datorren nire ordezkotzat “Olentzero, urde tripa haundia” abestuz. Jentearen poza eta algara itzela. Jesus Jaunak esateko moduan: “Honetarako etorri nintzan Ni mundura? Belengo bidea erakusten ahalegindu eta holan ospatzen dabe nire jarraitzaileak? Zer deritxazu. *Zure inguruan Jesus ala Olentzero ospatzen da? Alderik bai bien artean?*

d.- Tira, ibili eta ibili, baserri baten inguruan: *“Mesias sarritan agindu zana”* kantu pozgarria. Bai, holako giro hotz eta aldrebasa dagoan lekuan, banakatxo baten berotasuna ere pozik hartzen da. Belenen jaio zanean ere ez eban *“ondo etorri”* pozgarririk jaso eta badaki mundu gaizto honetako kontua. Zer deritxazu. *Hau dana ikusita, zertarako gogoia emoten deutsu? Zelan hartu Jesus?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 2, 8-13)

“Gero, Belenera bialdu ebazan, esanez: «Zoaze eta jakin zuzen umearen barri eta, aurkitu ondoren, adierazo niri, neu ere gurtzera joan naiten».

Erregearen berba honeek entzunik, abiatu egin ziran. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu jaken eta biziro poztu ziran. Izarra aurretik joan jaken, umea egoan leku gainean gelditu arte.

Etxean sarturik, umea ikusi eben Maria bere amagaz eta, ahuspezturik, gurtu; ondoren, euren kutxatilik zabalduz, esku-erakutsiak eskeini eutsoezan: urrea, intsentsua eta mirra. Gero, Herodesengana ez bihurtzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik bihurtu ziran euren herrialdera. Jakintsuak alde egin ondoren, Jaunaren aingerua agertu jakon ametsetan Joseri eta esan eutson: «Jagi, hartu umea eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora. Egon han nik esan arte, umearen bila ibiliko da-ta Herodes, hilazoteko».



a.- Kristinau Eleizeak sarri jo behar izan dau Ebanjeliora, Jesus Maisuari entzun eta bere bideetara bihurtzeko asmoz. Batez ere, Eleizeak bere barruko indarra galduaz batera, azaleko eta mundukeriazko indarrez baliatzeko arriskuak inguratzen dauanean. Hori egin ezik, errez egiten dau munduaren erara jokatzera. Orduan eta txarrago, hori ez dalako bere bidea eta helburua.

Zer deritxazu. *Zelan ikusten dozu gaur gure Eleiz Ama: Jesusen bideetan zintzo, ala barruko indarra galduta, azalhuskeriekaz arduratuta?*

b.- Jaunaren Berbearen argi eta gidaritza barik, begira zertara etorri diran sakramenuak, mezea, domekea, santuen jaiegunak, debozinoak etabar... Gogora ekarri zertara etorri diran Gabon jaiak. Nun da Belengo Umea eta Berak erakutsitako bidea?

Zer deritxazu: *Gabonaldian nor dator ba? Eta zertan dator? Zuk zeuk zer itxaroten dozu?*

d.- “Ume bat oihaletan aurkituko dozue... Eta horren izenean montaia hau? Hor dabiltz aingeruak deika: “Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea gogo oneko gizonei”. Poza, aintza, bakea, zoriona, solidaritza...
Zer deritzazu: *Hori eskeintzen deusku Jesusek; eta gu zeren bila gabiltz? Zer leku emoten deutsogu Berari gure etxean, herri-bizitzan, gure bihotzetan?*



NUN BEHARTSUA, HAN JAUNGOIKOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a. “Eguzki berua, katuen zerua”. Bai beste askorena ere! Ondo bizi gura eta horretarako eukitsuen atzetik beti, haundikiei eperdia garbitzen. Zugatz tantai haundi mardula egokiena, munduko zaparraden aurrean, ezta?


Zer deritxazu: Zer emonik ez daukan eukitsua, ala beti ere zerbait emoteko daukan behartsua nahiago ondoan?

b. Txikiaren alde jokatzean zoriontsu eta haundi sentitzen danak ere haundi eta zoriontsu izatera jokatzen dau, azken baten. Holakoak bai badaukala dirua baino ondasun hobeagorik beragan.

Zer deritxazu: Zoritxarrekoiei laguntzea zoriontsu izateko bidea... Holako batek agertzen dauan kredoa sinisgarri al da?

d. Bihotz-zabalak beti dauka zer emon, bihotz-zikoitza dabil beti asmatzen zer nori kenduko. “Emotea hobe da, hartzea baino”. Nazareteko Maisuak dino hau. Maisu honen eskolan “bikain” ateratea ez da errez, gaurko giroan batez ere.


Zer deritxazu: Jesus Maisuari zuk zeuk errazoia emoten deutzazu? Berbaz ala bizitzan?



2.- LAGUNGARRIA: “NUN BEHARTSUA, HAN JAUNGOIKOA”

Kondaira zaharretan agertzen da onako kontu esanguratsu eta polit hau: Demetrio izeneko monje batek agindu zorrotz bat jaso eban behin baten: “Zeu bizi zaran monastegiko mendi-ostean Jaungoikoa zain daukazu, eta, eguzkia izkutatu baino lehen, Beragaz topez egin behar dozu”. Monjeak emon eutsan ibiltari, mendian gora, arin baino arinago. Baina bide ertzean zauritutako gizon bat aurkitu eban bere laguntza eske. Monjea ia gelditu ere ez zan egin; martxa azkarrean jarraitu eban, esanaz: “Prixaz nabil, hor mendi-ostean Jaungoikoa daukat zain, eta eguzkia ezkututa orduko, Beragaz egon behar dot. Beragazkoak eginda gero, etorriko naitzu, laguntzera”.

Ordu batzuek geroago, oraindino eguzkia goi samar egoala, Demetrio mendiaren bestekaldera helduta egoan, eta handik luzatu ebazan bere begi zorrotzak, hara eta hona, Jaungoikoa nun aurkituko. Baina han ez zan Jaungoikorik agiri. Hain zuzen ere, berari laguntza eskatu eutsan biderdiko zaurituarengana joanda egoan. Bat baino gehiagoren ustez, zauritu-antzean, Jaungoikoa Berbera ete zan, berak gero laguntzekotan itzi eban zauritua.



a. Jaungoikoa beti agertzen jaku “ostean”: sasi ostean Moisesi, Demetriori “mendi ostean”... Guri ere beti “ostean”: sakramentuen “ostean”, bizitzako kurutzearen “ostean”... Eta “osteko” hori ikusi ahal izateko, fede biziz argitutako begiak behar dira.

Zer deritxazu: “Ostea”...zer da gure sinismenean? Hor “ostean” ba al dago ezer, inor?

b. Demetrio prixaz doa “mendi osteko” Jaungoikoaren bila, arnas estuka, agur egiteko asti barik. Txarrena, “pobrearen ostean” dagoan Jaungoikoagaz ezin bat egin, ezin ezagutu. Gaur prixazko bizimoduak ez deusku astirik emoten, “ostean” dagozan balioak (eta Jaungoikoa bera) ezagutzeko eta txastatzeko.

Zer deritxazu: Prixaz ibilita, topo egin ete daiteke bizitzako bidean gauza askoren “ostean” dagoan Jaungoikoagaz?

d. Jaungoikoa eskeko jantzita, auzoko gaixo-itxuran Jesus laguntza eske, egoitzako burditxoan Jesus zain nork erabiliko. “Holako bati egin zeuntsena, Neuri egin zeunsten”, Jesusek esana.

Zer deritxazu: Sagrarioko eta Mezako Ogi Santuan ere Jesus “ostean” dago. Nun egiten jatzu errezen Jesusegaz lagun izatea? Berak zer gurago ete dau?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 10, 29-37)

“Baina lege-maisuak, bere itauna bidezkoa zala adierazo nahirik, itaundu eutson Jesusi:

–Eta nor da nire lagun hurkoa?


Jesusek erantzun eutson:

–Behin batean, gizon bat joian Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan jausi zan; eukazanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin eben, erdi hilik itziz. Abade bat suertatu zan, hain zuzen, bide haretan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo eban. Gauza bera egin eben handik igaro zan tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo eban. Baina bidaiari zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean, errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu eutsozan, olio eta arduaz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamunean, zidarrezko txanpon bi atera eta ostalariari emon eutsozan, esanez: «Zaindu egizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengo natorrenean ordainduko deusut». Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu eban lagun hurko lez lapurren esku jausitako gizonagaz? Lege-maisuak erantzun eutson:

–Haretaz errukitu zanak.

Jesusek esan eutson, orduan:

–Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.



a. “Lagun hurkoa” hurrean bizi dana,edo bihotzez hurreko egiten jakuna. Hemengo hurtasuna ez da metroz neutzen, maitasunez eta sinismenez baino. Orduan egiten da bat beragaz, nahiz gorputzez hur bizi, nahiz urrun.


Zer deritxazu: *Egon ete daiteke behartsuagandik urrun eta Jaungoikoagandik hur? Eta bestetara bai?*

b. Hurkotasuna behartsuaren egoera larriak gudan sortzen dauanean, horrek argitzen dau gure barruko giroa, orduan emoten dau kristinauak benetako maitasunaren ezaugarria. Bestelako errazoiak, baldintzak, batera jota be, ez dabe balio.

Zer deritxazu. *Gogora ekarri al dozuz benetako maitasunaren ezaugarri batzuk?*

d. Eta behartsua Jesus Beraren “sakramentua” dala, behartsua hartu edo itzi, Berari egiten jakola... Jesusi bisitatxo bat egiteko, gaur eleizetako ateak itxita dagoz; baina “behartsuaren sagraioan” zain daukazun Jesus hurrean eta leku askotan daukazu.

Zer deritxazu: *Sakramentuak atal bi daukaz: bata “agirikoa” eta bestea “ostekoa”. Behartsu batengan bereiztu egizuz biak. Eta zer egin?*



ORAINTXE IKASI DOT BEGIRATZEN

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Bizitza misterioa dala sarri aitaten dogu: zenbat ezusteko, ordu baltz, kezkarriak, gaixoaldiak... Dana eraz jatorkunean, osasun-ondasunez ondo gabiltzanean, azaletik ibiltzen gara; baina bizitzako zaplatekoak negar asko eragiten deuskuenean, dana ez da izaten kalterako. Bihotza garbitu eta begiak argitu egiten dira.

Zer deritxazu: Bizitzan dana zeure gogo betean izan bazendu, gaur baino hobeto egongo zinala uste dozu?

b.- Jaungoikoa ez dabil nori zer emongo edo zer kenduko; zuri kurutzea eta horri dirutzak banatzen. Baina bai badabil "kurutzedunari" zelan lagunduko asmatzen. Asko sufritzean ez dago meriturik, ondo sufritzean baino.

Zer deritxazu: Orduan kurutzetik ere probetxu atera daiteke? Zer eta zelan?

d.- Zahartzaroan gaixotasunak eta ezin-ezak gehitu egiten dira; badirudi zahartzaroa denpora berezia dala norbere buruagaz eta Jaungoikoagaz adiskidetzeko, gauzak beste era baten hartzeko. Zahartzaroa edo gaixoaldi gogorra askorentzat izan da bizitzako denporarik aberatsena Jaunaren aurrean.

Zer deritxazu: Bizitzan atzera jota, barriro hasteko aukera bazendu, zertan aldatuko zeunke zeure jarrera eta jokabidea? Zertan aldatuko zintzatekez?



2.- LAGUNGARRIA “ORAINXE IKASI DOT BEGIRATZEN”

Ni 67 urteko aitita bat nozu, lanetik jubilatuta eta urte bete baino lehen, guztiz aldatu da nire bizitza. Nahi badozu jakin, gogorik onenagaz kontatuko deutsut. Bixente dot izena. Behin baino gehigotan, ikusiko genduan alkar hor nunbaiten, baina alkarri agur egiteko asti barik ibiliko ginan eta... Gaur astitsu nabil: urte honeetan ebakuntza bi egin deustez. Ez neban uste bizirik urtengo nebanik ere.

Halan eta guztiz ere, lurjota egon behar nebana, bazenki zelako poza eta bakea dodan neugan! Kolpe gogor honek ikusi erazo deust bizirik nagoala. Bai, oraintxe konturatu naz bizi nazala!

Bihotzeko adiskide hori, oraintxe konturatu naz zein ederra dan bizitza! Orain arte nik uste neban neu nintzala munduko errege, etxeko jaun eta jabe. Lagunarteko maisu eta epaile; ustez bizirik nengoan, baina benetan hilda: neure harrokerizko haizetan nenbilen aidean, jente moltzoa nora, neu ere hara, txandako haizetara dabilen txoriaren antzera. Gau eta egun lan eta lan jarduteko gauza nintzan. Baina, ni nintzan zoroa! Gaur eguzkia ikusi eta Jaungoikoari eskerrak emoten deutsodaz. 67 urte begiak bizi naz, baina ez naz konturatu euren edertasunez; 67 urte bizi naz mundu honetan, familia batean, herri batean eta ez dot ezagutu ez bata, ez bestea. Mundu barri bat aurkitu dot: sufrimentuaren mundua. Zenbat gauza ikusi eta ikasi dodan gaixoetxean!

Gaur egundoko bakea bizi dot barruan. Begira, lehengo astean, orduak emon nebazan ilobatxo baten malkoak sikatzen; arainegun amatxo galdu dauan umetxo bat belaunetan hartuta, besarkatuz eta laztanduz, pozten ahalegindu nintzan. Gaur goizean auzoan bakarrik eta triste bizi dan aguretxo batengana joan eta a zelako barre-algarakak egin doguzan biok biotara! Danak pozetan ipiniaz, neu nago danak baino pozago. Eta honenbestegaz, 67 urtegez bete ez dodan neure barrua gaur bete-beterik sentitzen dot...



a.- Bixente aititak zelako jakituria hartu dauan gaixoaldi gorrian! Bizitza guztian baino gehiago. Benetan ebakuntza latza egin dau, bai gorputzean eta bai espirituan. Zahartzaroan konturatu da zein ederra dan bizitzea. *“Ustez bizirik nengoan, baina egiz hilda”*.

Zer deritxazu: *Gaixoaldiak edo gorabehera latz batek, ondo hartu ezkeru, horrenbeste on ekarri daikela uste dozu? Ikusi edo bizi izan dozu holakorik?*

b.- *“Mundu barri bat aurkitu dot... Dana aldatu jako: familia, herria, eleizea, lagunak, bizitzea... Aldatu dana bera da, eta lehengo gauza bardinak orain beste itxura eta balio bat hartu dabe. Behekoak gora, goikoak behera.*


Zer deritxazu: *“Munduko errege nintzalakoan, orain guztien lagun eta zerbitzari sentitzen naz”. Noiz bizi izan da bere lekuan? Noiz bizi da egian?*

d.- Eta bere senera etorri danean, sekulako bakez bete da. Begira zetan emoten dituan eguneroko orduak aitita Bixentek; lehen holakoak amamarentzat ziran, gaur bera dabil zerbitzio txiki maitetasu horreek egiten. *“Danak pozetan ipiniaz, neu nago danak baino pozago”*

Ze deritxazu: *Honenbeste indar dauke bizitzako malkoak eta sufrimentuak? Zer dan “begiak garbitzea!”*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 16, 24-26)

Orduan, esan eutsen Jesusek bere ikasleei: «Nire ondoren etorri gura dauanak uko egin begio bere buruari, bere kurutzeta hartu eta jarraitu beist. Izan ere, bere bizia gorde gura dauanak galdu egingo dau; bere bizia Nigatik galtzen dauanak, ostera, eskuratu egingo dau. Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau? Eta zer emon daike gizakiak barriro bizia bereganatzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruakaz; eta, orduan, bakotxari bere jokabidearen arabera ordainduko deutso”.



a.- Jesusen bidea latza da, baina benetako bakarra; gure lurrak, buztin lurra danez, astinaldi asko behar dau, ganorazko fruturik emongo badau. *“Nire ondoren etorri gura dauanak, uko egin begio bere buruari, bere kurutzea hartu eta jarraitu beist”*. Kontua zera da: Bere antzeko izateak hori eta gehiago merezi dauala; holantxe izan ezik, ez dagoalako hori izaterik.


Zer deritxazu: *Horrenbeste egin behar al da gizaki eta kristinau izateko?*

b.- *“Bizia gorde gura dauanak galdu egiten dau”*: gorde, ez inausi, ez adar igarrik kendu. Gordetea, gizatasun mailara ez heltzea, lortu behar dauan maila ez hartzea. Bizitzako kurutzak gogo berroz besarkatu eta gora begira eroatea da. Kurutzepetik, begiak malkoz ondo igurtzita, gauzak hobeto ikusten dira.

Zer deritxazu: *Ba al dakizu kristinauaren bidea Jesusi jarraitzea dala, kurutze eta guzti?*

d.- Azkenean egiten deusku Jesusek itaunik garranzitsuena: *“Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau?”*. Ez da harrizkoa Xabierko Frantziskok bere bizitza osoa goitik behera aldatzea, San Inaziok atal hauxe hiru-lau aldiz bota eutsonean: *“Eta gero zer?”*

Zer deritxazu: *Zatoz zeure bizitzara: zer argi emon deutsu erakutsi honek?*



OTSO BI BURRUKAN BIHOTZEAN

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Inor ez da “santu” jaio; “santua” egin egiten da. Pekatu bako santurik ez da ezagutzen. Santuak ez dira jausi ez diranak, jausita gero beti jagi eta aurrera egin dabenak baino. Bakotxaren bihotzean jokatzen da onaren eta txarraren arteko burruka.

Zer deritxazu: *Bateatuta gagozanok, horigaitik gara danok santu. Gu horretaz jabetu eta holan erantzutea ei da santutasuna. Doan emon jakunari erantzutea.*

b.- Ez dago santurik gaiztoa izan ezin eitekeanik; ezta ez dago gaiztorik, santu izan ezin eitekeanik. Bizitzaren barruan egiten diran aukerak dauke garrantzirik haundiena.

Zer deritxazu: *Santuak (zintzoak) zergaitik dira apalak, errukitsuak?*

d.- Bada esaera zahar bat: “Gizonak ekin, Jaungoikoak egin”. Guk ereiten dogun apurra, Harek eguzkiz berotuz eta euriz beratuz, hazten lagundu egiten deutso. Geure partetxoa jarri ezik, alperrik dira eguzki-euriak.

Zer deritxazu: *Badogu geure joan-etorrietan zerbait, bai geure ekina eta bai Jaungoikoaren egina alperrik galdu leikezana. Aukeraren aukera, azkenean okerra?*



2.- LAGUNGARRIA: "OTSO BI BIHOTZEAN BURRUKAN"

Indiako aitita batek, bere ilobatxoagaz jardunean, badinotso:

"Neure bihotzean otso bi alkarregaz burrukan baneukaz lez sentitzen naz. Euretariko otso bat hasarrekorra da, zakarra eta mendekuzalea. Bestea maitekorra eta errukiorra"

Ilobatxoak aititari, jakin guraz, itaunduten deutso:

- "Aitita, esaidazu: Bietatik zeinek irabazi dau zure bihotzeko burrukan?"

Eta aititak erantzun:

- "Neuk gehien jaten emoten deutsodan haretzek"



a.- Otso bi, aukera bi, indar bi... Onbidea eta galbidea. Eta norberak zeri emon aukera gehiago, orduan eta jokera hori, otso hori, indartsuago. "Grina" kontua lehenago asko erabilten zan. Gaur egun "moda" dala esanda, errezago jarten gara, beharbada, otso horren esanera.

Zer deritxazu: "Nik ez daukat pekatuik", " nik ez daukat bihotzean otso biren arteko burrukarik"... Hau bai aurrerapena, ezta?

b.- Gizakiaren lur gaineko bizitza etenbako burruka dala esan eban aintxinako gizon santu batek. Gizakiaren osasuna -bai gorputzekoa, bai espirituzkoa- burrukan jotzen da. Itzikeriak heriotza dakar.


Zer deritxazu: Posibe al da otso gaiztoa ontzat, eta ona gaiztotzat hartzea?

d.- Aitita harek bai esperientzia! Urte askotako bizitzako eskolan asko ikasten da, ganoraz ibili bada behintzat: "Zein otsok irabaziko? -Neuk gehien jaten emoten deusodanak".

Zer deritxazu: Zer da "otso" bati besteari baino jaten gehiago emotea?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 16, 24-26)

"Orduan, esan eutsen Jesusek bere ikasleei: «Nire ondoren etorri gura dauanak uko egin begio bere buruari, bere kurutzia hartu eta jarraitu beist. Izan ere, bere bizia gorde gura dauanak galdu egingo dau; bere bizia Nigatik galtzen dauanak, ostera, eskuratu egingo dau. Zertarako dau gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau? Eta zer emon daike gizakiak barriro bizia bereganatzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruakaz; eta, orduan, bakotxari bere jokabidearen arabera ordainduko deutso".



a.- “Burua ukatu”, hau da, “otso” baltzari ezetza emon, “zuriari” jaten emoteko. Argi dago: “Ukatzea” ez da ukatzea bakarrik; kontrako haizea eta indarra onerako erabiltea ere bai. Azken batean biziaren alde egitea da.


Zer deritxazu: Orduan, “ukatzea” ongarria da, irabaztea da?

b.- “Bizia gorde”, hau da, nirea neuretzat eta hirea biontzat; “bizia galdu”, baina maitasunez eginaz, norberak irabazi. Ikusten danez, hau kontu astuna da: gizakiak hemen bere bizia, norbere burua jokutzen dau.

Zer deritxazu: Kristinau izatea biziaren aldeko burruka da?

d.- Gordeten dan haziak ez dau bizirik emoten; usteldu egin behar da, bizi barria sortzeko. Gordeten danak barik, galtzen dan haziak emoten dau frutua. Izan ere, maitasuna eskuetatik zabaltzen da, neukeria kolkoan gelditzen da.

Zer deritxazu: Kurutzean bizia emon ebanaren frutuak gara guztiok. Bizia emonaz, guztiontzat bizi barria eta betikoa lortu dau. Badogu zer ikasirik, ezta?



POZ GEHIAGO DAGO EMOTEAN HARTZEAN BAINO

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Nork ez dau gura pozik bizitzea? Ume, gazte, nagusi eta zahar, pobre eta aberats, guztion ametsa da pozik bizitzea. Bakotxak hartzen dau bere bidea pozaren bila. Baina gehienek ustez, zenbat eta gehiago batu, ondasunak pilatu, errezago da pozik bizitzea: Dirua, aginpidea, atseginkeria, izen haundia, tituluak...

Zer deritxazu: Ondasunetan dagoala poz-iturria? Zenbat eta ondasun gehiago poz gehiago?

b.- Baina iturri danetatik ez dator poz jario bardina. Gizakiak ez dau bere burua berak egin; egina hartu dau, eta egileak ezarri deutsoz neurriak eta egarriak. Horreek bete behar ditu pozik bizitzeko. Gainera, Jaungoikoak bere antzeko egin eban gizakia; eta Jaungoikoak emon besterik ez dau egiten. Orduan...

Zer deritxazu: Eta gizakia zertaz eta zelan bete? Nun aurkitu bere poz-iturria?

d.- Bada banaka bat, batuz ez, baina banatuz poza aurkitzen dabenak. Beharrezkoak ez dituan gauzak, beharrezkorik ez daukenen artean konpartituz pozik sentitzen diranak. Jakina, holan ere aberastasuna gehitu egiten da, baina ez danak esku bardinetan.

Zer deritxazu: Ondasuna, ontasuna, poztasuna gehitu egiten dala, alkarren artean banatuz? Ba al dozu horren esperientziarik?



2.- LAGUNGARRIA “POZ GEHIAGO DAGO EMOTEAN, HARTZEAN BAINO”

Berak ere ez ekian zenbat txalet, lantegi eta banketxe eukazan. Ez ekian zetan jarri dirua, ez zertan eralgi. Gogoak zer, haxe erosi: itsasontzi, hegazkin, tren eta berebil, lurralderik onenak... Beti gehiago zer erosiko ametsetan.


Pilatu eta pilatu, danetik eukan; ez egoan ezer berak ez eukanik. Dana zan berea. Baina bazan gauza bat berangandu ezin ebana. Gauzak erosiaren erosiz, ezin izan eban aurkitu POZA. Ez eban inoiz, ez inun aurkitu poza saltzen dan dendarik.

Jo batera eta jo bestera, ahaleginak eta bi egin ebazan horixe beragantzeko; horixe ez, beste danak eukazan. Munduko baztar guztiak arakatu ebazan, baina pozaren arrastorik ere ez.

Herri txiki baten egoala, hara zer jakin eban: Bazala inguruko etxetxo baten aguretxo bat argibideren bat emon leikiona. Mendialdeko muino baten gainean bizi zan, etxola txiki apal batean. Jo eban beragana eta beragaz topo eginaz batera, badinotso:

- *Hor herrian esan deuste zera: zuk lagundu ahal deustazula poza aurkitzen. Aguretxoak irribarrez begiratzuz, erantzun eutson:*
- *Dagoeneko aurkitu dozu, adiskide. Nik nahibeste poz daukat.*
- *Zuk poza?, eraso eutson gizonak. Baina zuk ez dozu txabola ziztrin hauxe besterik eta...*
- *- “Bai hori egia da, eta eskerrak horri daukat, daukadan poza; neuk behar ez dodana, behar dauanari emoten deustadalako”, erantzun eutson aguretxoak.*
- *“Eta zer? Holan lortuten dala poza?” Itaundu eutsan kezka gizonak.*
- *“Nik neuk behintzat holantxe aurkitu dot”, gaineratu eutson aguretxoak.*

Gizon hori pentsakor aldendu zan. Handik denpora batera, berak ere behar ez ebana behartsuei emotea erabagi eban. Eta harritzekoa! Hori egin ahala, pozez beteten hasi ziran bere bihotza eta bizitza. Bere barrutik ikasi eban, bestalan ikasi ezin izan ebana: Emoteak, besteak poztuaz, poz gehiago dakarrela, hartzeak eta alkarbanandu barik, pilatzen diranak baino”.



a.- Gauza danak pilatuta etxean, baina pozik ez bihotzean. Ez eban aurkitu hori saltzen zan dendarik. Azkenean txabola batean bizi zan aguretxo hori aurkitu eban: *“Nik nahi beste poz daukat”*. Harrituta *“aberats behartsua”*, txabola ziztrin batean zer poz izan ete leiteken asmatu ezinik. Txabola hutsa, baina bihotza betea, eta aberatsak kontrara.

Zer deitxazu: *Ondasunak kanpoan gelditzen dira, ontasuna barruan. Zer alde dago?*

b.- Baina txabolako aguretxoak bere ondasun pila diru-etxe berezietan banatuta eukan: *“Nik behar ez dodana, behar dauanari emoten deutsat”*. Ez da errez sinistekoa, baina aguretxoak bere esperientzia eskeini eutson: *“Nik neuk behintzat holantxe lortu dot”*.

Zer deitxazu: *Txabolako agura behartsua pozik, eta jauregiko aberatsa triste?*

d.- Pozik bako ondasunak baino hobe dala ondasun bako poza sinisturik, jo eban aguretxoaren esperientzia egitera. Eta, demontresa! Egia! Behar ez ebana behar ebenen artean banatzen hasi, eta aurrera joan ahala, bihotzeko baztar guztietara poz jarioa zabaltzen. Jakina, beste gauza askotan lez, honetan ere esperientziaz lortzen da frutua.

Zer deitxazu: *Hau ikusita, zer da orduan bihotzaren janaria, poz-iturria?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 19, 1-10)

“Jesus Jerikon sartu eta herrian zehar joian. Bazan han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua, oso aberatsa. Jesus zein zan ikusi nahirik ebilen, baina ezin eban jenteagaitik, txikia zan-eta. Lasterka aurrerago joan eta pikondo batera igon zan, Jesus ikusteko, handik igaro behar eban-eta. Jesusek, hara heldutean, gora begiratu eta esan eutson: «Zakeo, jatsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dot eta». Jatsi zan, bada, berehala eta pozik hartu eban etxean.

Hori ikusirik, danak marmarka hasi ziran: «Pekatarari baten etxera joan dok ostaturik». Zakeok, barriz, zutundurik, Jaunari esan eutson:

–Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emoten deutsedaz eta, inori ezer ostu badeutsot, lau halako bihurtuko deutsot. Jesusek esan eutson:

–Gaur heldu da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa da-ta. Izan ere, Gizonaren Semea galdua egoana bilatzera eta salbatzera etorri da.



a.- Zakeo urte askotan “*sakeo*” izan zan: ahal eban guztiari bere zerga-mahaian honenbesteko bat kenduz. Guztiak bildur eutsoen eta guztien eritxiz “pekatari haundi” bat zan. Asko eutson ardura, dirua batu ezkeru! Han inguruan ebilen Nazareteko Maisuak beste bide bat ekarren. Egunak joan eta etorri, barruko pozik ezak eta Haren eskeintza bereziak jakin-mina sortu eutsoen: “*Arin-aringa aurrera joan eta piko batera igon zan, Jesus ikusteko*”. Ikuste hutsa ez zan, askoz ere sakonagoa zan bere egarria.


Zer deritxazu: Bere diru eta guzti, Jesusen egarri. Zer ikusten dozu hemen?

b.- Halako egun batean heldu jakon Jesusen deia: “*Zakeo, jatsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dot-eta*”. Bai pozik ere hartu ebala bere etxean Jesus! Aberats askoren jokabidea: Jesus ere (bere irudi potit eder bat) etxean hartu eta ondo esan...eta “pax Cristi”. Bai zera! “*Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emoten deutsedaz eta inori ezer ostu badeutsat, lau halako bihurtuko deutsot*”. Orduan bai “pax Christi”.

Zer deritxazu: Ba al dago Kristori jarraitzerik, Zakeok egin ebana egin barik?

d.- Hemen ere garrantzitsuena zera da: Handik aurrera Zakeo zer? Jesusek berak autortu eban: “*Gaur heldu da salbamena etxe honetara*”. Salbamena, hau da, poza, umorea, bakea, zoriona. Batzean barik, banatzean aurkitu eban hori dana. Jakina, esperientzi biak egin ondoren, ez zan bihurtuko lehengora.

Zer deritxazu: Zer banatu zeinke, zeugan poz gehiago izateko?



PRESO BIZI DAN ELEFANTEA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Pertsona librea presondegian ere libre da; pertsona esklabua kalean ere katigu bizi da. Askatasuna norberagan dago, edozein lekutan eta ordutan egiten dau barruak esaten deutsona; ez dabil nork zer esango, besteak zer egingo begira. Ohitura dala-eta, beti holan egin dala-eta, gehiengoak holan egiten dabela-eta... Kate horreetatik aske sentitzen da.

Zer deritxazu. *Pertsona asko dagozala uste dozu libre bizi eta jokutzen dabenak?*

b.- Txarrena hauxe da: norberak gura dauana egiten daualako, libre dala sentitzea. Eta, libre dalakoan, astakeririk haundienak egiten ditu. Beti euren gogoa bete behar dabelala uste dabenak, nahibeste daukazuz gaur. Lagunartean erabagi eta alkarlanean jokatzera ere katigutzat daukenak, eta bakarkerian dabilzanak.

Zer deritxazu: *Libre pentsatu, jokatu eta bizi diranak asko ete dira? Zertan ezagutzen da pertsona libre? Jarri lau ezaugarri.*

d.- Txandako ohiturak, txandako jarrerak eta janzkerak, txandako joan-etorriak, bizikerak... Horra gaurko *jauntxoak*, hamaika bizi da euren esanera! Gainera, hori ei da "*gaur-gaurkoa*" izatea, libre izatearen seinalea. Pentsakera, eritxiak, sinismena etabar gehiengoaren arabera. Holan ez dabilenaren erruki!

Zer deritxazu: *Benetan libre izan eta sentitzea erreza al da? Zergaitik?*



2.- LAGUNGARRIA "PRESO BIZI DAN ELEFANTEA"

"Ume nintzala, zirkua oso atsegin izaten jatan niri; eta zirkuetan ikusgarrienak, piztiak. Batez ere, elefanteak. Bere egitadak, bere tamainua, bere pisua eta bere indarrak harri ta zur izten ninduen. Baina hara: inoiz ezagutu dodan elefanterik haundienak, bere zirkuko zereginak amaitzean, kate lodi batzuekaz taket mehe bati bere hanka batetik lotuta gelditzen zan.

Taket hori mehe samarra zan, hatz bete edo bi lurrean sartuta. Katea bai lodia eta zakarra. Nire ustez, elefante mando horrek, tantairik haundienak hankazgora botatzeko lain indar euki arren, tronpako haizez bota eikean taket mehe horri lotuta egon behar. Eta zergaitik ez dau atera eta iges egiten? Nik txikitan uste osoa neban bere nagusien jakituriaz.

Maisu bati itaundu neutsan, aitari eta osabeari ere bai elefantearen sekretu horrerri buruz. Batek zera erantzun eustan: Elefantea holantxe egotera hezita egoalako.


Baina nire burua ez zan ase erantzun horregaz: Holan erakutsita badago, zergaitik lotuten dabe?

Ez daukat gogoan errazoizko erantzunik inork emon eustanik. Handik urte batzuetara ahaztu nintzan elefanteaz eta taketaz.

Noizean behin gogoratzen jatan, beste batzuk ere kezka bardinagaz hurreratzen izan jatazanetan.

Orain urte batzuk dirala, zorionez jakin neban sekretu hori, buru argiko gizon bati esker:

- "Zirkuko elefanteak ez dau ihes egiten, txiki-txikia zanetik, antzeko taket batera lotuta euki ebelako"



a.- Elefanteak bai indarra! Izan ere, ikusgarria da. Indarraren indarrez, badirudi libre sentitzen dala. Baina bada indar txiki-txiki bat elefantea ere hezi eta menderatzen dauana: Umetan gogorrea jasotako heziketa, negar-antpuz ezarritako ohiturak.

Zer deritxazu: Umetako heziketak horrenbesteko eragina daukala? Gelditzen jakuzan "umekeriak" zer?

b.- Elefante haundia taket ihar bati lotuta mantso. Tronpa luzeagaz berehala aterako eban taket hori; baina betiko ohitureak barrutik lotuta eukan. Alde egin behar ebanik ere ez. Urteetan gauza bardinak bardin egiteak hezi eta moldatu egiten dau.

Zer deritxazu: Zergaitik dauka ohitureak horrenbeste indar?

d.- Zigorrez eta gogorrea ezarten dan ohitureak, legeak, bizikereak bizitza guztirako moldatzen dau bai pertsona, bai aberea. Elefanteari geldi egotera eragiten eutsona ez zan lokarria, ez taketa; barrua eukan lotuta, tirakadarik egin behar ebanik ere ez.

Zer deritxazu: Ba al dago ezer pertsona heziketa txar bateko lokarrietatik askatu daikenik?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 15, 1-9)

“Jerusalemdik etorritako hainbat fariseu eta lege-maisu hurreratu jakozan Jesusi eta itaundu eutsoen:

–Zergaitik hausten dabe zure ikasleak zaharren ohiturea? Ez dabe otordu aurretik eskuen garbikuntza egiten.

Jesusek erantzun eutsen:

–Eta zuek zergaitik hausten dozue Jainkoaren agindua zeuen usadioakaitik? Esate baterako, Jainkoak esan eutsuen: Goraldtu aita-amak, eta: Aita nahiz ama madarikatzen dauanak heriotz-zigorra izango dau. Zuek, ostera, beste hau dinozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badeutso: «Zuri emon behar neutsuna Jainkoari eskeindua deutsot», halakoak ez dauala aitagazko agindu hori bete beharrik; holan, Jainkoaren berbea balio bank izten dozue, zeuen usadioakaitik. Itxurazaleok halakook! Ederto asko esan eban Isaias profetak zuetaz: Herri honek ezpane z goraltzen nau, baina nigandik urrun dau bihotza; alperrik gurtzen nabe; honeen irakaspena giza agindu hutsa.



a.- Nazareteko Maisuak areriorik zitalenak farisearrak izan ebazan, gizaldietatik etozan arau, ohitura eta erritoetan katigatuta egozanak. Gurasoen gurasoak zehatz-mehatz bete eta erakusitakoak, kontzientzipean ezarrita eukezanak. Jakina, agirian egoan ona nor zan: Hori guzti hori ondo beteten ebana, nahizta azaletik izan. Pertsona bera ona nahiz txarra izan bardin zan; legezale fina izan daitela. Horixe: legea bete, nahizta legeak bera bete ez.

Zer deritxazu: *Gure kristinau bizitzan ez dozu holako ohiturakeri asko?*

Esaterako...


b.- *"Hau beti holantxe egin da"*, beti hori geihenetan ez da betikoa, gitxiagorik ere ez. Halako giro batean nunbaiten eta norbaitek ezarritako betebeharrak baino ez. Baina gizaldien pisuak "betiko lege" bihurtu dau. Eta *"Jaungoikoaren borondatea"* da: *"Zure ikasleak zergaitik ez dabez beteten aurretikoen ekanduak?"*. Platerak eta eskuak garbitzea eta holako huskeriak.

Zer deritxazu: *Ez daukazuz gogoan lehenago pekatutzat egozan huskeriak?*

d.- Txarrena hauxe: *"Zuen ekanduakaitik Jaungoikoaren Berbea ustel egin dozue"*. Azalhutsok! Legebetetze hutsa, norbere buruagaz eta bizitzagaz zerikusirik ez eukana. Jesus sakonera joan zan: *"Herri honek ezpaneaz goratzen nau, baina euren bihotza Nigandik urrun dago"*. Hamaika lege eta ohitura astindu doguz Eleiz bizitzatik! Baina, horren ondoren, jo dogu bihotza barriztatzera?

Zer deritxazu: *"Hamaika elefante" gure artean aintxinako taket zaharrei lotuta, ezertarako ganora barik! Horren aurrean zer egin?*

KRISTOK EMON
DEUSKU
ALKARTASUNA



Nor da librea?
Egin behar dauana (ez nahi aduana)
egiteko kapaz dana.

SAMARIARRA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a. Gitxi-asko kristinau guztiok gura dogu gure sinismena mundu guztian zabal eta sendo egon dedin. Beste kontu bat da misinogintzaren kontzientzia euki eta halan jokatzea. Jakina, bakotxa ikasten eta egiten ahalegintzen da, "lapikoaren" berotasunaren arabera.

Zer deritxazu: *Zahartzaroan landu eta hobetu ahal eta behar dogu geure burua? Zelan eta zertan?*

b. Bihotzeko ugaritasunetik ahoak berbaz eta eskuak ekintzaz agertzen dabe. Egia esan, bakotxak dauka bere dohaia eta bere bidea hori gauzatzeko. Ez dago muturik, ez itsurik hori egiten ez dakianik, edo hori egin ezin dauanik.

Zer deritxazu: *Kristinau batentzat jubilatzea zer da? Bardin al da kristinau dan eta ez dan batentzat?*

d. Zahartzaroan agertzen da zeinek bizi izan dauan lehenago benetan fede bidea. Ez da bakarrik txarrik ez egitea, eginbeharrak zehatz betetea baino. Harritzekoa pertsona zaharrak, hainbeste urte eleizara bueltaka ibli ondoren, ordaian bizitzaren azkenetan dana izten doala ikustea. Zergaitik ete?

Zer deritxazu: *Jubilatu kristinau leial batek ezaugarririk ba al dau? Jarri bi.*



2.- LAGUNGARRIA: "SAMARIARRA"

"Kontu zaharrak dinoanez, behin kaperau bat zauritu batengana hurreratu zan guda-burruka gorri batean, eta itaundu ei eutson:

- "Nahi dozu Biblia irakurri dagitsudan?"

- "Lehenengo emoidazu ura, egarri naz-ta", -erantzun eutson zaurituak.

Eta kaperauak bere ontzian eukan ur hondar guztia emon eutson, inguru guztian beste ur arrastorik ere ez egoala jakin arren.

- "Eta orain nahi al dozu?" -itaundu eutson barriro.

- "Lehenengo emoidazu jaten, gose naz-ta".

Kaperauak motxilan gelditzen jakon azken ogi hondarra emon eutson.

- "Hotz naz", izan zan hurrengo garraxi-eskaria. Eta kaperauak bere gaineko kapa kendu eta emon eutson, nahizta bera hotzak hilten gelditu, eta zauritua jantzi eban.

- "Orain bai -esan eutson kaperauari- orain berba egidazu nahi dozun beste Jaungoiko horretaz, zure azken ur pixka, zure azken ogi hondarra eta zure kapa niri emoteko esan deutsun Jaungoiko horretaz. Benetan ezagutu gura dot bere ontasunean".



a. Gosez hiltzen egon eta haginak garbitzeko “profiden” eskeini... urkoaren premina-orduetan beharrezkoena zera da: Norbera jarri bere lekuan, eta orduan eta handik erabagi zer egin.

Zer deritxazu: Urkoa “zaurituta” ikustean, zer jarrera hartu ohi dau eleizjenteak?

b. Preminan dagoanak berak agertzen dau ondoen zer behar dauan; ez da norbera ondo gelditzea, edo huskeri bategaz kontzientzia nasaitzea. Ez da norberak nahi dauana, berak behar dauana baino. Hurreratzea gorputzez baino gehiago bihotzez da.

Zer deritxazu: Zer da bihotzez hurreratzea”

d. Hotzez dardar dagoana berotu bai egiten dogu, baina biraoka ipinteraino, berogarriaren orde “bedeinkazioak” emonaz. Munduko “zaurituengandik” Jaungoikoa urrundu egiten dogu, holan jokatzuz.

Zer deritxazu: Jaungoikoa bedeinkatu ahal da, “zaurituari” hor konpon eginaz?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 10, 29-337)

“Baina lege-maisuak, bere itauna bidezkoa zala adierazo nahirik, itaundu eutson Jesusi:

–Eta nor da nire lagun hurkoa?

Jesusek erantzun eutson:

–“Behin batean, gizon bat joian Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan jausi zan; eukazanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin eben, erdi hilik itziz. Abade bat suertatu zan, hain zuzen, bide haretan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo eban. Gauza bera egin eban handik igaro zan tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo eban. Baina bidaian zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean, errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu eutsozan, olio eta ardauz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban.

Biharamonean, zidarrezko txanpon bi atera eta ostalariari emon eutsozan, esanez: «Zaindu egizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengo natorrenean ordainduko deusut». Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu eban lagun hurko lez lapurren esku jausitako gizonagaz? Lege-maisuak erantzun eutson:

–“Haretaz errukitu zanak”.

Jesusek esan eutson, orduan:

–“Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste”.



a. Eleizkizunetik etxera datoz biak; bidean eginkizunak urteten deutse aurrera, eleizkizunak on egin ete deutesen aztertzeke. Atxakiak asmau eta “bakez” aurrera. Legea bete dabe, baina legeak ez ditu eurak barrutik bete.

Zer deritxazu: *Bizitzatik eleizara, eta eleizatik nora? Alkarri lotuta al dagoz?*

b. Jaungoiko Aita-Amak ezin dau onartu intzentsurik eta oparirik, gosez edo hotzez dagozan seme-alabei laguntza ukatzen jakenean. Zuk, nik, horrek... urkoagaz darabailgun neurria erabiliko dau Aitak gugaz. Holan jokatzuz, geuk kristinauok gogaikarri eta iguingarri bihurtzen dogu Jaungoikoaren izena.

Zer deritxazu: *“Zaurituak” salbatuz, zeure burua salbatu? Hau al da bidea?*

d. “Orain bai”, “orain bai”... Zeure burua ukatuz, niri lagundu ondoren, “orain”... lehenengo nire “zauriak” osatu ondoren, erakutsi egidazu “orain” dotrinaz nor eta zelakoa dan, zuri nigaz hori egiteko agindu deutesun Jaungoiko hori.

Zer deritxazu: *Dotrina hutsez iragarri ete leiteke Jesusen Jaungoikoa?*



SAN PEDROREN DENDAN

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Jaungoikoak gizona jarri eban berak sortutako munduaren jabe, eta gizonari emon eutsozan hainbeste dohai eder eta baliotsu, mundu hori egokitu eta berarentzat bizileku on bat izan dedin. Gizakia ez da sortzaile, baina bai antolazailea, han-hemen bananduta dagoan indarra eskuratu eta behar dituan aldaketak egiteko.

Zer deritxazu: *Gizakia Jaungoikoaren seme-alaba lez dago munduan. Zer jarrera izan behar dau Jaungoikoaren aurrean?*

b.- Munduan kontau ezineko beste indar eta aukera dagoz zabaldua. Harrezkero gizonak osotzen joan behar dau Jaungoikoaren lana. Horretarako daukaz gizonak Jaungoikoak emondako ahalmenak. Eta hor dihardu gizakiak mundua lantzen; izerdiz eta nekez, baina gero eta gehiago mundua bere mendean hartzen.

Zer deritxazu: *Munduko jaun eta jabe bakarra gizakia bera dalakoan bizi bada, harrotu egiten da, Kainen antzera, munduko bizilagunak hondatuz. Zelan deituko zeunskio holango bati?*

d.- Mundua eta bertako ondasunak guztien onerako egokitzea gizonaren eginbeharra da. Aurrerapena horretarako da, gizakia gero eta hobeto bizi daiten. Baina ez banaka bat bakarrik, guztiak baino. Ezin ahalako aldrebeskeria da ondasunak banaka batek eskuratu eta erabiltea, beste guztiak premina gorrian hondatuz.

Zer deritxazu: *Ikusten al dozu holakorik inguruan?*



2.- LAGUNGARRIA “SAN PEDROREN DENDAN”

Kontu hau kontua da, bai, baina kontuz hartzeko kontua!

Jainkoari gero ta eskabide gehiago helduten jakozan lurretik: gizonen bizitzan dana zan arazoa ta konpondu ezina. Danak konpontzeko behar dan guztia Berak emon gizonari, eta hurrengo egunean ere, “jainko konponarraren” aurrera eskean.

Behin gogoak hauxe emon eutson: Agindu deiodan Pedrori jarri dagiala denda bat zeruko atarian, munduko arazo eta premina guztiak sal-erosian ipinteko azoka antzeko bat. Esan eta egin: denda apain, zabala benetan, bi aingeru ikusgarri zerbitzari zirala.

Goiz goizetik han agertzen da pertsona behartsu bat, hazur bakoitzeko premina bat gitxienez aldean dakarrela. Harrituta gelditu zan halako ikuskizun ederrez! Aingeruetako batek badinotso:

Aingeruak: Esan, zeintzuk dira kezkatzen zaituen arazo eta preminak?

Eskaleak: Hara, nire preminak eta arazoak haundiak eta ugariak dira, baina ez daukat dirurik danetarako.

- Ez izan horren kezkarik! Hemen borondate onaren trukean saltzen dogu dana.

- Zer? Neuk nahi dodan guztia eskatu daikedala?

- Bai, ba, nahi dozun guztia.

Eta hemen hasi zan eskalearen azkenbako letania

- Ederto! Hartu kontua, mesedez! Aingerua jarri mahaian eta papel ta guzti prestatu zan.

- Ea, hasi eskatzen. Zer nahi dozu?

- Egia esan, bihotzeko minak jota nabil, ez dot lo onik egiten; umorea ere galdu egin dot.

- Argi dago: osasuna behar dozula. Zer gehiago?

- Neure ezkontz-lagunagaz ere gero ta larriago bizi naz; egunik gehienak hasarre baten amaitzen doguz.; berba baino zarata gehiago egiten dogu alkarregaz

- Oso ondo: bikote baketsua nahi dozula. Zer gehiago?

- Nire semeak gaztetxoak dira, baina biak droga munduan samaraino sartuta.

Lehengo egun batez, kotxea hartu eta baztarra jota haustu deuste..

Argi dago: seme leialak nahi dituzula. Zer gehiago?

- Begira, gure herriko politika-saltsa hau ere garratzegia suertatu jaku, alkartu beharrean banandu egin gaitu; % 25 lan banik egotea arazo-iturri bihurtu da; European sartze horretan ere mailara heldu ezinik gabiltz.

- Dana jasota dago. Zer gehiago?

- Zer gehiago? Drogaz eta alkoholez hondatuta dagozanak, gosez hiltzen dagozanak haurrak, bertan behera itzita dagozan zaharrak, alkar ulertu ezinik dabizanak..

Eta aingeruak orduan:

- Hori da guztia?

- Bai, horixe da guztia! Ez al da nahiko?

Aingerua barruko gelara sartu zan, kontu-papela aldean ebala, eskatu eutson guztia prestatzera. Handik laster han agertzen da zakuto bat eskuan dakarrela,

esanaz:

- Hortxe daukazu eskatu dozun guztia.

Gizonak, eskuko zakutoari harriturik begira, badinotso:

- Baina...hemen dagoala nik eskatutako guztia?

- Baietz, ba, hortxe dagoala guztia.

- Ez dot ulertzen tutik ere!

- Ez, ez dozu ulertzen bapere! Entzun ondo: Denda honetan haziak saltzen dira bakarrik, ez frutuak. Zeuk landu behar dituzu, zeuk ongarritu eta zaindu. Orduan eta horrelaxe bakarrik zuzendu eta beteko dira zure preminak eta nahiak


Gure gizontxo hori, bere harrimenetik urten ezinda, itaundu eutsun aingeruari:

- Entzun!...Eta ezin dau Jainkoak Berak mirari harrigarri bat egin eta hau dana kolpe baten konpondu?

- Zer uste dezu, ba? Jainkoak eginda dauka mirari hori.

- Noiz? Non? Zelan?

- Zeu jaiio zinanean emon eutsun behar zan guztia, zeuk nahi zeunken moduko mundua egiteko. Hola bada, aurrera! Orain da hatxurrari oratzeko ordua. Zeugan dago miraria!



a.- Jaunak gu baktxagan bizi-haziak bananduta daukaz: Dohaiak, ahalmenak. Berak bakarrik daki gutariko baktxak zenbaterainoko ahalmenak doguzan. Baina dohai horreek, nahizta banaka batek euki, guztien onerako dira, ez euren probetxurako bakarrik.

Zer deritxazu: Ez al dozu ezagutzen zeugan edo besteengan haundi egin dan giza-hazi txikiren bat?

b.- Gitxien uste dan pertsona batengan egon daiteke ahalmen dohai ikusgarri bat, baina ez da hazten, aukerarik izan ez daualako, edo norberak nahi izan ez daualako. Holan dala, baztartuei, aukerarik izan ez dabenei bideak zabaltzea, aukerak eskeintzea, egitekorik ederrena da Jaunaren aurrean.

Zer deritxazu: Zer kondizino behar dau hazi txiki horrek haundi egiteko, bai gudan eta bai besteengan?

d.- Besteak zer egingo begira egotea ez da jarrera ona: baktxak hartu dauana landu egin behar dogu; gitxien uste dogunak dauka beragan dohaia estreinatu barik. Zer pozgarria dan pertsona nagusiak euren burua landuten ikustea: lehenago aukerarik izan ez dabelako, orain jo ta ke. Ez dago jubilazinerik.

Zer deritxazu: Geure burua landutea Jauna goratzea al da? Eta hori ez egitea?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mk 4, 30-33)

Beste hau ere esan eutsen: «Zeren antzeko dala esango geunke Jainkoaren erregetza? Zein parabolaren bidez adierazo geinke? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ostera, gora egiten dau eta beste ortuari guztiak baino haundiagoa egiten da; eta txoriak habia egiten dabe haren kerizpean, hainbestekoak diralako emoten dituan adarrak».

Holako parabola askoren bidez, Jesusek mezua iragarten eutsen, eurak ulertzeko eran.



a.- Guztiok gara munduko lurrean ereindako hazi txikiak. Asko izan arren, ez gagoz bi bardinak munduan. Jaungoiko Aitak banan sortutakoak gara. Horregaitik bakoixaren eginbeharra da norbere burua ezagutu eta Jaunagandik dogun izate hori aztertu eta lantzea. Hori Jaungoikoa goratzeko modurik onenetarikoa da. Jaungoikoak holako bidez dihardu mundua hobeagotzen.

Zer deritxazu: *Zer gizarte aberatsa izango litzateken mundua, pertsona bakoitza holan ezagutu eta landuko balitz!*

b.- Guk geure artean burua lantzean, heziketa on bat egitean ere, sarritan norgehiagoka edo burruka-lekua ipinten dogu: zu baino ni gehiago, haundiago. Horregaitik dinoe askok: "Eskoleak galdu gaitu". Aurrerapenak alkar hondatzeko indar eta bidetzat erabilten doguzalako.

Zer deritxazu: *Aurrerapenak bai, baina gizakia hobetzeko, guztiak gizatasunez haundi egiteko, Aitaren antzeko. Zergaitik doguz aurrerapenak, alderdi askotatik, sarri geure kaltegarri?*

d.- Haziak, ereitean, hartzen dauan lurra ere zer ikusia izango dau, ezta? Dana dala, urteak joan ahala, hazi eta garatu beharra dogula, gero eta helduagoak izan Jaungoikoaren eta bizilagunen aurrean. Jaungoikoak emon beharrekoak emonda daukaz, gure artean bananduta; orain geuk jokatu behar dogu zuzen eta zuhur, guztien onari begiratuta.

Zer deritxazu: *Geure dohaiak landu beharrean, Jaunari hau edo hori eskatzea, zuzena al da?*

SANTOKRISTOREN ARGIPOSTEA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Bizitza, pertsona bera lez, misterio bat da. Gitxien uste danean, egiten dau argitik ilunera, edo ilunetik argira. Gaur dago gailurrean eta bihar zokondoan. Pertsonaren eguraldiari igertea guztiz gatxa da, eguzki eta lainoen artekoari baino askoz gatxago. Berez da mugikorra gizakiaren bihotza.


Zer deritxazu: Zeure bizitzako misterioa zelan bizi dozu?

b.- Hori dala-eta, milaka dira ezustekoak gure bizitzan; era guztietakoak, une bateko eragina dabenak eta bizitza osoa aldatzen dabenak. Batzuetan zertatik sortzen diran errez antz emoten jake; baina gehienetan ez nundik, ez zertatik, arrastorik ere ez

Zer deritxazu: Ezustekoak aukera on bihurtu daitezke. Zelan jokatu euren aurrean?

d.- Behin sasoi batera ezkerro, maisu sentitzen gara, badakigu bizitzak zer emon leiken. Horigaitik-edo, zahartzaroan gehientsuenak planto egiten dabe; eurak dinoenez, ez gura ez dabelako, gauza barririk itxaroten ez dabelako baino: berezko maisuak dozuz. Baina badira lanetik jubilatua arren, euren buruak lantzen jarraitzen dabenak. Zahartzaroa aukera barri bat da eurentzat.

Zer deritxazu: Prest eta zabalik al zagoz, ezustekoaren aurrean aldatu behar dana aldatzeko?



2.- LAGUNGARRIA "ARGIAREN SANTOKRISTOA"

Sarri uste dogu aldaketa sakonak, bihotz-barritzeak gaztaroan bakarrik gertatzen dirala, odolak zanetan borbor egiten dauan artean. Baina zahartzaroan ere holakoren batzuek jazoten dira, bizitzari azpi-azpitik zerbaitek eragiten badeutso. Hona, Kalixto jubilatuari jazo jakona.

Behin, Bizian Gora jubilatuen alkar-eguna ospatu eben baten, berak emon euskun bere aldaketaren barri pozgarria.

Kalixto argi-indarraren entepresa batean urte askotan behar egindakoa zan; hain zuzen ere, argiposteak zaindu eta aldatzeko ardurea eukan. Kalixto, izan, bateatu zanetik, kristinau on bat zan, aparteko ezertxo barik, kristinau praktikatzaile horretariko bat. Dana dala, ganorazko bat, gehiegizko ezer egin barik, hainbesteren arteko bat.

Jubilatu aurretxoan, erdi-jausian egoan argiposte bat kendu beharrean aurkitu zan: onenak emonda egoan, zaharraren zaharrez gauzeztanduta. Argipostea han egoan bide baztarrean, ezertarako gauz ez zala, nork kenduko zain.

Honetan, bere parrokiari Santokristo haundi eder bat erosi eben; baina aidean eusteko kurutzerik ez. Zer izango, eta argiposteaz gomutau ziran; eta herriko arotz batek egin eutsazan egokitzeko eginbeharreko guztiak. Eta, horra goizetik gauera, ezertarako gauz ez zan argiposte zaharra, Jesus Bera agirian eutsi eta erakusteko kurutze bihurtuta. Harrezkero, SANTOKRISTOREN ARGIPOSTEA deitzen deutsoe.

Jazoera honek pozez bete ebazan, hau jakin eben herritar guztiak eta Kalixtoren bihotza pozaren pozez blai sentidu zan. Eta bere kautan ekin eta eragin jardun eban: "Nire behar-sasoia agortu da; neuk baztatu nahi neban argipostea lez naz. Eta argiposte zahar gauzeztan harek zenbateko balioa hartu dauan, Santokristo eder bat gainean ezariz; gaur egun herriko eta auzoetako gizon eta andrazko asko jatorkoz pozez ikustera eta bere edertasunez gozatzeri. Ni ere, Kristo barik, argiposte huts bat baino ez naz. Baina Kristo eta guzti, neure inguruko danei argia eskeintzeko lain banaz."

Gaur egun Kalixto Bizian Gora mobimentuko lagunik bizienetariko bat da; gordezineko poz eta ahaleginez dihardu, bizipoza eta bizi-argia eskeintzen. Izan ere, Jesukristo gauza da, baderitxo, Tarsoko Saulogandik San Paulo apostolua sortzeko. Eta horretarako eskura datorkion edozegaz baliatzen da: zaldiaz nahiz argiposteaz.



a.- Kalixto ere aitita jakintsua da, antza danez. Kristinau lez, piloko bat gehiago, aurrera egiteko egarri haundi barik. Ez da karrera haundikoa: argiposteak zaintzen. Ezertarako gauz ez dan argiposte batek eskeini eutson aukerea bere bizitza osoari jirabuelta osoa emoteko. Berak hori uste eban: Poste zaharraren antzera, onenak emonda egoala.

Zer deritxazu: Gauz ez dana bihurtu ete daiteke gauz dana?

b.- Santokristo ederra, baina jentearen aurrean zutunik eusteko modurik ez. Eta argiposte zaharra gogora. Halako pitxia Santokristo eder batentzat! Izatez eta izenez ere aldatu: “*Santokristoren argipostea*”. Kalixtok laster atera ebazan beretzat ondorioak: “*Neu ete naz, ba, aldatu leiteken argiposte zaharra?*”

Zer deritxazu: Ez dozu holako aukerarik, deirik izan jubilatatu ondoren?

d.- Gehiagoko barik, Kalixtok aurkitu eban bere “argipostea”: Bizian Gora jubilatuen Mobimentua. Pozik emon eban pausua eta pozago jarraitu dau adiskide alkartean. Dana amaitu jakolakoan, sekula baino bixkorrago dabil batetik bestera, gaixo eta ezinduen artean bizipoza zabaltzen, han-hemen argi pozgarria eskeintzen.

Ze deritxazu: Horra argiposte zaharrak Santokristogaz hartzen dauan balioa. Eta Kalixtok Jesusegaz?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 5, 14-16)

“Munduaren argia zaree zuek. Mendi tontorrean dagoan uria ezin gorde daiteke. Argi iziotua ere ez dabe ohepean ipinten, argi-ontziaren gainean baino, etxean dagozan guztiai argi egin deioen. Bego horrela dizdiz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zeruetan dagoan Aita goratu dagien”



a.- Inor izan bada munduko argia, Jesus Jauna da. Ez dago holako eguzkirik; gizakiak argitu eta pozteko primerakoa. Eta betiko argia emon eban, argi guztiak amatatzen diran lekuan bertan: Kurutzean. Hori bai sekulako argipostea!

Zer deritxazu: *Ez ez al zaitu argi honek bihotzean ikutu?*

b.- Eta kristinaua horretarakoxe da deitua eta bialdua: munduko argi izateko: *“Zuek zaree munduko argia”*, dinosku Jesusek. Baina leku askotan zutunik eutsi eta erabilteko “argiposterik” ez, Jesusi agirian eusteko... Penagarria kristinau gehienak ez dabela euren burua horretarako eskeintzen. Jesusen deia argia da: *“Argi iziotua ere ez dabe ohepean ipinten, argi-ontziaren gainean baino, etxean dagozan guztiei argi egin deioen”*.

Zer deritxazu: *Zer behar dau kristinau batek Jesusen argiposte bizia izateko?*

d.- Egia esan, ez dago inor benetan balio ez dauanik. Gainera, aukera eta dei ugari heldu jaku ingurutik. Holako ordu baten, kristinaua “Santokristoren argipostea” izaten lotsatzea, benetan lotsagarria da; ingurukoentzat Jesusen argipostea barik, ilunpetako mamu bihurtzen da.

Zer deritxazu: *Zer da ni, zu, hori, Jesukristoren argipostea izatea?*



TITIRITERUAREN DEBOZINOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Guztiok gara Aita baten seme-alabak; Berak banan maitasunez sortutakoak. Bakotxari ezarri deuskuz dohaiak alkarren onerako. Batzuek gorputzean hartu dabez ikusgarriak, dohai bereziz orniduak; beste batzuek espirituz dira aberatsak. Horrez gainera, espirituzko bizitzan harrigarriagoak egiten daki. Zoritzarrez, guk ez doguz aintzat hartzen eurak merezi daben tamainuan. Beti haundien atzetik.


Zer deritxazu: *Aita bakarraren seme-alaba garana zertan agertzen da?*

b.- Gizartean onik gehien egin dabenak beti izan dira apalak, txikiak, ezertariko haundi usainik bakoak. Geure amagandik hasita. Baina mundua beti izen, diru, titulu, karrera haundien atzetik dabil. Eta txikiak, izenik bakoak morroi eta neskame. Hamaika berba huts erabilten dogu ahominetan!

Zer deritxazu: *Munduan haundia nor da? Eta Jaungoikoaren aurrean?*

d.- Eleizara bertara etorrita, zenbateraino sartu dan munduko harrokeria eta jokabidea! Jesusen Ebanjelioko bideak alde batera itzita, nor baino nor dabil jentea. Eleizako zerbitzarien artean zenbat aldrebeskeri, Ebanjelioko ispilu aurrean jarrita! Zerbitzaria dala haundiena?!

Zer deritxazu: *Zu zer eta zelan sentitzen zara Eleizan?*



2.- LAGUNGARRIA "TITIRITERUAREN DEBOZINOA"

XII. gizaldiko kontakizun bat dozu. Titiriteru arlote bat, Klarabal eritxon monastegi ospetsura heldu zan. Munduko bizikereaz gogaituta, monastegiko horma barruan bake bila sartu zan; baina uste baino lehenago konturatu zan, bera ez zala monje-bizikerea eroateko gauza. Ez ekian irakurten, ez idazten, eta eskulanean tutik ere ez. Gainerako monjeak eskulanari eta otoitzari emonak ikustean, buruz eta gogoz larritzen hasi zan.

Halako goiz baten, monjeak otoitzean ziharduela, titiriterua isilean eta gordeka, eleiz azpiko kriptara jatsi zan. Han aurkitu eban Andra Mariaren irudi dotore bat, aulkian jesarrita. Bere arpegi iribarretsua ikusita, lotsa emon eutson, maite ebal

agertzeko ezertxo ere ez ebala egin-eta. Burura etorri jakon berak egiten ekian lan bakarra, eta Andra Mariaren omenez horixe egitea erabagi eban. Bere monje jantzi luzea erantzi, eta hor hasi jako salto eta brinko eta gainburuzka Andra Mariaren aurrean, bere bizitza guztian egiten jardun eban lez bardin. Ekiazan itzulipurdi eta ikotikak amaitu ebazanean, badinotso Andra Mariari: Dakidana eskeintzen deutsut, hartu egizu nire maitasun haundiaren erakusgarritzat. Luzaroan jarraitu eban bere eguneroko jardunaldi horretan. Egun baten, ezustean harrapatu eban monje batek eginkizun horretan ziharduala; eta han zan laster abatari dana kontatzen. Biak jatsi ziran, isilean, kriptara eta zutabe lodi baten atzetik ikusi ahal izan eben bere jardunaldi osoa, harik-eta titiriterua nekearen nekez lurjota jausi arte. Orduan ikusi eben ikustekoa, ikusita ere sinistu ezinekkoa: Andra Maria bere aulkitik jatsi zan eta titiriteruaren bekokiko izerdia txukatuz, irribarrez eskertu eutson Beraganako bedozinoz eta maitasunez emondako erakustaldia.



a.- Jaunaren deia gitxien uste danari helduten jako; begiratu Zakeo, Mateo eta abar Ebanjelioan. Zenbat arrote, ganorabakotzat egozanak, ez irakurten, ez idazten ez ekienak aukeratu ditu Jaungoikoak bere zerbitzaritzat! Titiriteruak zelan ikusten ete eban bere burua monje "santuen" artean? Giro haretan berak ezertarako ez eban balio. Monastegian ere inork ez eban aintzat hartu, galduta gixajoa...

Zer deritxazu: Gizonez gizon, nork jakin gehien nork balio dauan? Zer balio?

b.- Eleizpeko Ama Birjinak bai pozik ikusiko ebala seme titiriterua hautsak eta putzak jasoten bere aurrean! Monjen otoitzen artean ederrena egin eutsan titiriteruak: "Dakidana eskeintzen deutsut. Hartu egizu nire maitasun haundiaren erakusgarritzat". Otoitzaren indarra ezpanetan barik, bihotzean neurtzen da.


Zer deritxazu: Monjeak ez baina, Ama Birjinak aintzat hartu eutsan bere eskeintza. Zergaitik uste dozu?

d.- Koruan kontu eta kantu ziharduena monjeak barik, titiriterua kontsolatu eban Mariak, izerdia sikatuz eta egin ebana eskertuz. Seme txikientzat egoanak agertu eutson, izerdi eta guzti, maitasunik samurrena. Ezkututik begira egon jakonak zer sentidu ete eban hori ikustean?

Zer deritxazu: Ohituta al zagoz holako debozinorik ikusten eta aintzat hartzen?

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (1Ko 1, 28-31)

“Munduak baliobakotzat eta mespretxugarritzat dauana, munduaren begitan ezereza dana, aukeratu dau Jainkoak, zerbait dirala uste dabenak ezerezteko; holan, ez dau inork Jainkoaren aurrean harrotzerik. Berari zor deutsozue izatea, Jesu Kristori esker. Berau egin dau Jainkoak guretzat jakituria, berorren bidez askatu gaitu pekatutik, salbatu eta bere egin. Holan beteten da Liburu Santuak dinoen ha: Harrotu nahi dauana, harrotu bedi Jaunagan.



a.- Jesusengandik sortu zan jarraitzaileen alkarteetan ez egoan munduko haundiki usainekorik: *“Giza-neurriz ez dago zuen artean jakitun askorik, ez ahaltsu askorik, ezta haundiki askorik ere”*. Jaungoikoaren aurrean horrek ez dau balio, maitalearen bihotza ikusten dau Jaunak bakarrik. Jakituna, haundikia, diruduna izatea ez da txarra; horigaitik besteak baino gehiagotzat bere burua erakusten ez badau.

Zer deritxazu: *Benetan haundia dan bakarria, Jaungoikoa munduan agertu zanean, txikien arteko egin zan. Hori dala haundi izatea? Zergaitik?*

b.- Bide horretatik aurrera joanda, Jaungoikoa agertzen da bakarrik haundi, munduko txikiakaz hainbeste harrigarri egiten daualako. San Paulok hau argi eukan: *“Gizarteko zabor, hondar, ezer ez dana aukeratu dau Jaungoikoak, zerbait dana hondatzeko”*.

Zer deritxazu: *Txikiena Jaungoikoagaz haundi da, haundiena Jaungoiko banik zer eta zertarako?*

d.- Jakina, gaurko munduarentzat hain arraroa dan bide honetan Jesukristo ipinten deusku aurrean: *“Zuek ere Beragandik dozue izatea Jesukristogan”*. Kurutzean lapur biren erdian hilteraino bere burua jatsi eban Jainko Semearen aurrean, nor harrotu? *“Harrotu daitena, Jaunagan harrotu bedi”*. Jainkoak txikien alde holan jokutzen daualako.

Zer deritxazu: *Pozgarri ala min garri izan jatzu titiriteruaren gaia? Zergaitik?*



URKETARI ZINTZOA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gaur egun harrigarriak egiten dira: etxegintzan, bidegintzan... Zeru, itsaso eta lur gizonak menpean hartu dituala dirudi, bertako sekretuak eta indarrak eskumendean daukaz. Medikuntzan bertan zelako aurrerapenak! Gaur edozein etxetan daukazuz maisu-maistrak, injenieruak, abokatuak... Zer ez! Hor dagoz guztien artean ezkutuan hainbeste aitita-amama huskeriak egiten, traba besterik egiten ez dabelakoan. Ez izenik, ez titulurik.

Zer deritxazu: *Gaur egun zahar batek, gaixo batek zer balio dauka?*

b.- Hor dabiltz lau haizetara gizon-emakume haundien izenak, haundikien egintza miragarriak. Bitartean, hor dozuz etxe barruko arazoetan ordurik gehienak emoten dituenak; inun ez da euren izenik agertzen. Deitu ere askotan ez deutse izenez deitzen. Ezertarako gauz ez diranak.

Zer deritxazu: *Ez al dozuz ezagutzen isilean eta doan diharduen pertsonak?*

d.- Haundi-maundiak errez jokutzen dabe ikusi dagiezan eta goraldtu. Txikiak, bitarteak beteten dabiltzanak errezago jarduten dabe "Jainkoaren aurrerako". Euren barruari erantzunaz dabiltz hara-hona, inoren aupadarik itxaron barik.

Zer deritxazu: *Zein kalean, zein etxe zokoan, Jaunaren aurrean bizi eta jarduteak merezi al dau?*



2.- LAGUNGARRIA “URKETARI ZINTZOA”


Behinola bazan gizon zintzo baizen behargin kementsu bat. Herrian ia inok ez eukan urik etxean. Gure gizon honek beragandu eban urketari izateko ardurea. Bizkarrean ondo moldatzen jakon buztarri bat eskuratu, kantin haundi bana atze-aurreko musturretan eskegita jari, eta egun osoa emoten eban urketan herriko etxeetara. Aurrekaldeko kantina barria zan, atzekaldekoa, barriz, zuloz betea. Ituritik herrira orduko, erdia eta gehiago galtzen eban.

Horretan joan zan urte biko ur-lorra neketsua. Aurrekaldeko kantina harro ere harro sentitzen zan, bere burua urketarako egokia eta oso-osokoa ikusten ebalako. Kantin zulutua, ostera, bere egoera desegokia zala-ta, lotsaz beterik egoan; eta zoritxarreko sentitzen zan, egin behar ebanaren erdia ere egiteko ez zalako gauza.

Urte biren buruan atzera-aurrera ibili ondoren, badinotso egun baten urketariari: Guztiz lotsaturik naukazu, jauna, neure zuloak dirala-ta, eta zugaz kontuak argitu gura dodaz: neure egoera haugaitik, nik ekarri neiken erdia baino ez dakartzu, eta irabazi ere, erdia baino ez dozu irabazten”. Urketariak, atsekabeturik, bihotz gozoz esan eutson:

–“Etxera bihurtzerakoan, begiratu eizu, arren, zenbat lore polit agertu dan bidean zehar”.

Eta bai pozik zenbatu ere kantinak. Eta egia, gero! Hainbeste lore polit ikusi ebazan, zein baino zein ikusgarriagoak, baina halan eta guztiz ere, eroan beharreko uraren erdia baino ez eban eroaten eta...Eta honek atsekabetu egiten eban. Urketariak badinotso orduan: –“Konturatu al zara honetaz? Lorak zeure alderdian bakarrik agiri dirala?. Nik hasieratik jakin dot zure zuloen barri, eta euren kontura probetxurik gehien atera gura izan dot. Iturriko bidean lore-haziak erein dodaz zure alderditik, zeuk ureztatu dozuz egunero, eta urte bi honeetan lore txorta ederrak batu ahal izan dodaz, neure Maisuaren aldarea apainduteko. Zarean modukoa izan ez bazina, zeure akats eta guzti, ez zan posible izango edertasun hau”



a.- Kantina bat daukagu gaur berbetan, bere egoera tristea agertu nahirik. Inoren lepoan atzera eta aurrera, eta erdihutsik etxera. Zuloz beterik egoan eta ezin probetxurik atera. Nahi bai, baina ezin gehiago. Hamaika badira holakoak gure artean, orduak eta urteak isilean eta apaltasunez bizi diranak, gehiago egin nahi eta ezinean. Euren buruak gauzeztantzat boteaz.

Zer deritxazu: *Nahi dauanak ezin dau; ahal dauanak ez dau nahi... Zer hobe?*

b.- Jakina, probetxuari, etekinari begiratu ezker... Baina hor bakarrik neurtzen al da pertsonaren balioa? Produzitzea ete da gizakiaren baliorik haundiena? Eta zintzotasuna, maitasuna, zerbitzu-espirtua, solidaitza ez ete dira ezer? Eta bere zuloei esker, bide baztarrean hazi diran lorak? Loren dotoretasunak ez al dauka baliorik? Gure etxe baztarretan, egunak joan eta etorri, zabaldu daben beroa, poza, batasuna zer?

Zer deritxazu: *Ezagutu al dozuz holako pertsonak zure inguruan?*

d.- Zulodun kantinari esker, "*Neure Maisuaren aldarea apaindu ahal izan dot*". Eta ugazabak, kantina berak ez jakinean, egin eban egintza ederrari begira ipini eban. Eta konturatzen joian arabera, pozez bete jakon barrua: "Nik hori?"

Zer deritxazu: *Pertsona apalak argitu eta baloratzea ez al da eginkizun ederra?*

3- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 21, 1-4)

"Begira egoala, aberats batzuk ikusi ebazan Jesusek tenpluko dirutegian limosna botaten. Ikusi eban andra alargun behartsu bat ere xemeiko bi botatzen, eta esan eban: «Benetan dinotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiak baino gehiago bota dau. Izan ere, beste horreek guztiak sobra dabenetik egin dabe limosna; honek, ostera, bere eskasian, bizitzeko eukan guztia emon dau».



a.- Nazareteko Maisuak bai ekiala ondo begiratzen, pertsonen bihotzak eta asmoak argitan ipiniaz! Bakotxak zenbat ahal eban neurtuta, hortik baloratzen eban bakotxa. Farisear aberatsaren diru-parrastada ondo ikusi eban, baita bere plantak eta ingurutik jaso gura ebazan txaloak ere. *“Horrek jaso dau berak gura izan dauana; ez jako gehiagorik emongo.* Hori gorabehera, horrek lehen bestean jan-edango dau.


Zer deritxazu: Orrazi horregaz gaur ere ule moltzo galantak batuko leukez. Ez ala?

b.- Alarguntxo batek xemeiko bi atera eta lotsaz lez itzi ebazan atabakan. Jesusek arpegiko begiz baino gehiago eta hobeto ikusten eban bihotzeko begiz. Harek bai ulertu pertsonen bihotza! *“Alargun txiro honek beste guztiak baino gehiago emon dau”.* “Gehiago”, hau da, maitasun gehiagoz, bihotz-zabaltasun haundiagoz.

Zer deritxazu: Merezi dau holako gogo garbiz eta apalez jokatzea? Zergaitik?

d.- Jesus Maisuak ondo neurtzen dau pertsonen barrua: *“Beste guztiak sobra daukenetik egin dabe limosna; honek, oster, bere gitxian, biziteko eukan guztia emon dau”.* % 100. Diruz eta gogoz, gehiago ezin. Gehiago hori, batez ere, Jaungoikoaren aurrean. Gitxi al da hori?

Zer deritxazu: Azken batean, nork daki hobeto, zeruko ondasun kutxan nork zenbat daukan, Jaungoikoak Berak baino?



ZAPOEN ARTEKO NORGEHIAGOKA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gu bakotxa garan baino gehiago gara, edo-eta uste dogun baino gehiago izateko ahalmena daukagu. Geuk ere ez dakigu zenbaterainoko ahalmena daukagun. Penagarria da, baina estreinatu bako dohai asko doguz aldean.

Zer deritxazu: *Orain zahartzaroan ere hobetu ahal dogu geure burua, geure bizitza? Zelan?*

b.- Ondo dakizunez, asko eukitea eta ona izatea ez dira bardin. Txarrena, eukiteaz neurtzen dogula alkar gaurko munduan. Nork gehiago euki ala nor hobea izan, bietan ahalegin bardina egingo bagendu...

Zer deritxazu: *Jubilatzea zer da? Bardin al da kristinaua legez eta fedez jubilatzea?*

d.- Baserritarrak ondo dakienez, sagar-madariak urte batzuetan heldu baino lehen usteldu egiten dira. Itxura onak bai, baina barrutik harjoak. Orduan probetxu gitxi. Giroak, haizeak, zezerk kalte egin deutse. Bere sasoiari heldu-heldu eginda kolorez eta saporez zoragarriak egoten dira dilin-dalan adarretik eskegita sagar-madari garauak.

Zer deritxazu: *Zer da aitita-amama bat bizitzan harjoa egotea?*



2.- LAGUNGARRIA: “ZAPOEN ARTEKO NORGEHIAGOKA”

“Kontua zera zan: Torre haundi batera nork igon. Inguruan milaka lagun zarataka eta apustuak egiten. Hasi zan apustua. Baina jenteak ez eban sinisten goraino inor helduko zanik. Laster isildu ziran. Hauxe baino ez zan entzuten:

- Penagarria da! Zapo horreek ez dabe lortuko goraino igotea. Zapoak berehala itzi eben gorako bidea. Baina bazan zapotxo bat, apurka gora joiana, gailurraren bila. Jentetzeak oihuka ziharduan:

- Penagarria! Ez dau inork lortuko!

Eta zapoak lurjota, ezinean etsita... haxe zapo bakarra izan ezik, jo eta jo aurrera, eta gero eta indartsuago, gainera.

Eta jokoa amaitu zanean, guztiak itzi eben norgehiagoka hori, zapotxo haxe izan ezik; ezustean eta guztien kontra, aurrera joian eta gailurreraino heldu zan. Besteak han egozan jakin guran, ea zerk lagundu eutsan azkenera arte helduteko. Eta hara zer jazo zan: zapotxo hori gorra zala!

a.- Jan, lan, lo, jai... Gizaki asko lau horma horreen barruan nasai bizitzera eginda dagoz. Gailurrera begira bizitzea, hara helduteko ahaleginetan jokatzera, norberagan dagozan ahalmenak landutea, gero eta helduago, eginago izatea... Horra kristinau gitxiren bizitzako jarrera zintzoa. Hori da Ebanjelioko bidea bizitzan hazurmaintzea.

Zer deritxazu: *Gogora ekarri egizu urtez eta kapazidadez itxuraz zeure tamainukoa dan bat, baina, zure ustez, Jaunaren aurrean zuk baino bizitzari zuku gehiago ateraten deustona.*

b.- Zapoak, bat izan ezik, biderdian geditu ziran, ahaleginak alperrikoak zirala- eta. Baina hirugarrenak ekin eta jarrai, atsedean hartu, gora begiratu eta saltotxo bat gehiago eginez, gora eta aurrera.


Zer deritxazu: *Zerk eragiten deusku ahaleginak egitera?*

d.- Gorra izatea, ingurukoei entzungor egitea, besteei begira egon barik, norberak egin behar dauana egiteak bai indarra! Esamesak, irribarretxoak, ohiturak...

Zer deritxazu: *Zapo txapeldunak zer erakutsi deustu?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 12, 35-40)

«Zagoze prest, jantziak loturik eta kruseiluak bizturik; izan zaiteze nagusia ezteguetatik bihurtuko zain dagozan morroiak lez, heldu eta atea jo baizen laster edegiteko prest dagozanak lez. Zorionekoak morroi horreek nagusiak, heltzean, zain aurkitzen baditu. Benetan dinotsuet: Jantziak aldaturik, mahaian jesarriazoko ditu eta zerbitzen hasiko jake. Eta gauerdian edo goizaldera badator eta holan aurkitzen baditu, zorionekoak hareek! «Gogoan hartu hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko dan jakingo baleu, ez leuke etxea zulatzen itziko. Egon prest zuek ere, gitxien uste dozuen orduan etorriko da-ta Gizonaren Semea».



a.- Nazareteko Maisuaren erakutsiz, gure munduko bizitza zeruko Aitarean aurrean jokatu behar dogu. Haren ordua noiz etorriko arduraz, itxaropenez jokatzeari.

“Nahiz hirugarren, nahiz laugarren gaudiari etorri”.


Zer deritxazu: *Laugarren gaudiari (zahartzaroan) fedez itzarrik, erne egon eta bizitzeak zer esan gura dau? Zelan bizi behar da?*

b.- *“Ugazaba noiz etorriko zain”.* Holangoa ez da bizi ingurukoak zer ete dinoen, besteak zer egiten ete daben arduraz. Behin jokatuko bizitzako karrera eta merezi dau benetan hartu eta jardutea. Asko jokatzen dau bakotxak.

Zer deritxazu: *Aitarean aurrean bizitza jokatzeak zertara eragiten deusku?*

d.- Jesusen parabolari *“lapurra etxea zulatzen”* ikusten dogu. Gure etxean, guran lapurra sartzea, etxea zulatzea eta dana hondatzea... Geure nortasuna, kristinutasuna kentzea, mundua geugaz jabetzea... Hamaika lapur badabil baztarretan! Hamika hamabiko lapurren eskuetan nasai, jaun eta jabe diralakoan.

Zer deritxazu: *Zeintzuk dira zahartzaroko “lapurrak”, eurak gure jabe egin eta gu euren morroi egin gurarik dabilzanak? Zelan zulatzen dabe “gure etxea”?*



a.- Jesus ez zan isildu gizarteko ezbardintasunaren aurrean. Bera oso-osoan jarri zan behartsuen alde. Gaixo, ezindu eta behartsuen artean ibili zan, batez ere. Aberatsak Beragaz bat egin baino lehen, dirutzatik askatu egiten ebazan, eta behartsuen artean banandu. Eta Ebanjelioa, izan ere, behartsuentzat zan Barri Ona, ez aberatsentzat. *“Kostako jatzue zeruetako Erreinuan sartzea!”*.

Zer deritxazu: *Lazaro eskekoaren antzeko asko dagoz gure artean? Eta zer egiten dogu eurakaz?*

b.- Jesusen parabolako aberatsak bai bizimodua! Norberekeri hutsez eta hotzez gogortuta, txakur-katu gizenak inguruan, baina eskekoa hotzak hiltzen atean. Hau ikusita, errez esaten dogu: Nun da Jaungoikoa? - Hortxe eskekoaren ondoan gosez hiltzen. Hemengoak amaitutakoan dator Jaungoikoaren ordua: Bakotxa merezi dauan lekura.

Zer deritxazu: *Euskalerrian txakur-katuetan kastatzen danagaz zenbat gosez hiltzen dagozanak salbau ete leitekez?*

d.- Jesusen erantzuna zehatza da: *“Moisesi eta profetei jaramonik egiten ez badeutse, hildakoren bat bizitu arren ere, ez dabe sinistuko”*. Jaungoikoari itzi deiogun bere orduan eta bere moduan gauzak konpontzen; bitartean, guk agertu daigun Beragan sinisten dogula, ahal dogun neurrian alkar lagunduz.

Zer deritxazu: *Jaungoikoa isilean bereak egiten ei dabil, batez ere, ONG eta antzeko talde askoren bitartez. Entzun dozu holakorik? Eta parterik hartzen?*




BELDARRA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Ameslari ez dan pertsona ez da urrunera helduko; gainera ez da gizaki lez heldua. Jainkoak berak egin gaitu ameslari, bere antzeko egin gaituanean. Hagaitik, garanak garala, oraindik gehiagoren eta hobeagoren egarriz geldituko gara. Badira ameslariei barre egiten deutenak, euren buruei amesbiderik egundo emon barik. Buru-bihotzez lurrera begira bizi dira, lau hankakoen pare.
Zer deritxazu: *Bardin al da itzarnik eta lotan amets egitea?*

b.- Gudan ase ezineko egarri eta amets horreek erein dituanak ez ete deusku eskeintzen eurak asetzeko balio dauan asegarririk? Bai, emon deuskuz, baina geuk aukerak egiterakoan, ondo ulertu eta aukeratu behar doguz, bestelan asetu ahala hondatu egingo gaitue. Gorputzak, eskatu ahala dana emoten badeutsogu, laster jarriko zaitu zentzun eta espirituaren gainetik, eta orduan...
Zer deritxazu: *Zeintzuk dira gure bizitzan aintzat hartu eta egi bihurtzen ahalegindu behar garan ametsak?*

d.- Ameslari haundiak ere porrota haundiak jasoten dabez bizitzatik. Orduan batzuk ikasi egiten dabe: ametsak dirala gauza bat eta errealitateak beste bat; eta amets egiteari uko egin barik, ahaleginen eta borondate onaren etekina pozik eta eskerronez hartzen dabe. Beste batzuk, ostera, ametsari gogor oratzen deutsoe, ha bera errealitate bailitz. Eta amets egindakoa lortu ezik, dana porrota eta huskeritzat botaten dabe.
Zer deritxazu: *Ametsak amets gelditzen diranean, zer egin?*



a.- Ameslari bati sinistea ez da erreza, gehienetan gizakia gaur-biharko kate motxean lotuta bizi da-ta. Euren artean nagusiena Nazareteko Jesus Maisua. Gehien sinistu eutsenak behartsuak, txikienak izan ziran, holangoak ipini ebazan ametsetan: *“Nire Aitarenean leku asko dago... Ni nagoan lekuan zuok ere egon zaitezten”*. Jakina, hemen zer gura eta haxe daukenak, euren ametsak lurrez bete dabezanak, ezin hegoak jaso: pixu gehiegi edo...


Zer deritxazu: Ameslari on batek (Jesus Nazareteko Maisuak) zelan hartzen ditu ametsen porrotak?

b.- Jesus bera guretzat ametsa da? Mila miloika bere jarraitzaile zintzoak. -odola isurtzeraino jarraitu deutsoenak- ameslari hutsak al dira? Izan ere, egoera triste eta latz batean zerjana, zerjantzia, zeregina martxan ipinten dauana da ameslari zintzoa; bere eskuan dagoan heinean egi bihurtzen dituana. Jesusen erantzuna argia da: *“Neu naz bidea, egia eta bizia”*. Jesusen ametsa ametsik zoragarriena da; baita egi bihurtzen dan ametsik haundiena ere.

Zer deritxazu: Holan dala, martiriak, santuak (Teresa Kalkutakoa eta...) zer ameslari mota dira? Eta zuri ez jatzu atsegin ameslari izatea?

d.- Gogoan hartu: *“Jaungoikoak ez euskun emongo amets egiteko ahalmenik, amets horreek burutzeko aukerarik emon ez baleusku”*. Gure hondarretatik Jainkoak pitxirik ederrenak aterako ditu, geuk izten eta laguntzen badeutsogu. Guk behintzat gailurrera begira bizi eta lurrean ganoraz jokatu behar dogu, handik gorakoa bere kontura itzita.

Zer deritxazu: Xomorroa tximeleta bihurtuta dotore eta bizkor hegaz. Zer egarri sortzen deutsu honek bihotxean?



ZORIONTSU IZATEKO SEKRETUA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Nor ez da zorionaren egarri? Izaki bakotxa, bere erara, baina guztiok gura dogu geure neurriko betetasuna, osotasuna, zoriontasuna. Ura berez doa itsasorantz, txoria aidean, arraina uretan.. Eta gizakia bere barru zuzenaren esanera jokatuz. Gizakiak bere senetik, bidetik urteten badau, potzuan geldituta lizuntzen dan ura edo lehorrera ateraten dan arraina lez da.

Zer deritxazu: Giza-zoriontasuna, unean uneko gozotasuna hutsa dala?

b.- Gehienen uste eta jokabidea gauzak batzea da, pilatzea; baina ezin hor zoriontasuna aurkitu; hori almazena izatea da. Gizakiak bere burua ulertu, jantzi, aberastu behar dau zoriontsu izateko, norbere burua osotuz, garatuz. Gorputz eta arima bakez eta tentu onez bizitzea, buruaren jabe izanez.

Zer deritxazu: Zoriontsu zelan: nahi dauana ala behar dauana eginda?

d.- Eta ez dago benetako zoriontasunik, maitasun bidean heldutasun barik. Maitasuna da zoriontasun bide bakarra gizakiarentzat. Eta maitasuna alkarteko bizitzan agertzen da, bata bestearentzat biziz. Maitasun bidean egun ilunak, negar malkoak ere izaten dira, baina horren gaintetik, horregaz batera eta horri esker, zoriontasunaren jabe.

Zer deritxazu: Maitasuna eta zoriontasuna alkarregaz doazela?



2.- LAGUNGARRIA "ZORIOTSU IZATEKO SEKRETUA"

Neskato bat ibiltalditxo bat egitera joan zan. Bide-ertzean tximeleta bat aurkitu eban, sasitzan katigu, bere hegotxoei gogor eraginez. Neskatoak, tximeletea kontu haundiz hartu, eta hegaz bialdu eban. Hegaz eta hegaz joiala, tximeletea dast!, aingerutxo bihurtu zan; eta esker onez, badinotso neskatoari: "Zeure mesedea oradindu nahi deutsut.. Eskatu egidazu gehien nahi dozuna, lortuko deutsut-eta. Esaidazu zein dan zure gogorik biziena".

a.- Jaungoikoak bere seme-alabok zoriontsu ikusi gura gaitu; baina geure txarkeriz ez gara zoriontsu. Jesus bere Semea bialdu euskun bide sekretua erakustera. Eta zer egin eban: *“Jesukristok izan ebazan asmo berberak izan egizuez zuek ere, bere burua beheratu egin eban, morroi itxurea harturik eta gizonen antzeko eginik”*. Hori da bide sekretua: besteak zoriontsu eginez, norbera ere zoriontsu izan.


Zer deritxazu: *Horretarako zertan jarri behar da uste osoa?*

b.- Jakina, zoriontasuna ez da derrigorrez hartu behar dan bidea, barruko argi batek erakarri behar zaitu, haren egarriz, eragozpen guztien gainetik aurrera egiteko. Jesusi jarraitzea deia eta dohaia da, orduan dator barruko erantzuna, orduan da bat zoriontsu. Ukapena, kurutzua ez da eginbeharra, beste barik; zoriontsu izan gura badozu benetan, barruak eskatuta egin behar dozuz eginbeharrekoak.

Zer deritxazu: *Orduan Jesusi jarraitzea zoriontasun bidea da?*

d.- Zoriontasuna ez da une bateko betekadea; gora begira eta itxaropenez eta uste osoz hartzen dan bide sekretua da, Jesusen antzera: *“Haregaitik, Jaungoikoak ere goratu egin eban, eta izen guztien gainekoa dan izena emon eutson”*. Mendi goi gailur batera igon gura dauana ez da zoriontsu pagopean gozoro etzunda egonez; nekeak neke, gailurra zapaltzeko pozez bidean gora doana baino, izerdi eta guzti.

Zer deritxazu: *Holan dala, zoriontasuna bizitzako arbolan gorengo adarrean dagoan frutu altxorra da. Eta zelan eskuratu?*



ZU NOR ZARA?

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Gaur egun zelako arduraz batzen diran mila lekutan eta mila eratan bakotxaren nortasun-agiriak. Gehienetan izen-abizenak, jaioterria, gurasoak eta... besterik ezer gitxi. Tira, beharrezkoena falta da: Bakotxak gorengo ofizinetan daukagun zenbakia. Eta horrenbestegaz nasai gelditzen gara, ezagutzen gaituelakoan.

Zer deritxazu: *Zer jakin behar da “ni nor nazan” ezagutzeko?*

b.- Hamaika “paperbako”, nortasun agiribako badago baztarretan! Eta horigaitik ez etxerik, ez lanik, ez beste eskubiderik. Eskerrak, gu kristinauok “paperdunak” gara, bai gizartean eta bai eleizan. Eskola, dotrina, auzo eta herri...hor gehiago ezagutzen gaitue. Zenbat ahalegin “paperak” legez eta zehatz eukiteko. Gu bai gu!

Zer deritxazu: *“Nor zara zu”? Paperak dinoena? Besterik ez? Ezer ere ez gehiago?*

d.- Edurnek bai poza bera “nor dan” jakin dauanean! *“Ni neu naz, eta nazan hau bakarra naz munduan”*. Handik aurrera pozago bizi zan, handik arrera ez egoan besteak zer esango eta zer egingo begira. Nortasun sendoa agertu eban. Kristinau bizitzan ere ikaragarritzko gorakadea egin eban. Handik aurrera ez egoan inor, ez ezer bere bidetik aterako ebanik

Zer deritxazu: *“Uste neban baino haundiagoa naz”, Edurnek dinoana egia ete da? Zergaitik?*



2.- LAGUNGARRIA "ZU NOR ZARA?"

Behinola autorlekura hurreratu zan andra bat kezka eta arduraz beterik. Autorleak, entzunak entzunda gero, itaun zuzen eta sakona egin eutson:

- Parkatu, baina **zu nor zara?**
- Ni Edurne Sarasketa naz.
- Ez deusudaz itandu zure izen-abizenak. **Zu zeu nor zara?**
- Zuk ondo ezagutzen dozun Jaime Zalloren andrea naz.
- Ez deusut itaundu noren andrea zaran. **Zu zeu nor zara?**
- Zelan ez dakizula ni nor nazan? Ni Patxi eta Kalixto, zure monagilo ta katekista diranen ama naz.
- Ez deusut itaundu noren ama zaran. **Zu zeu nor zara?**
- Oraintxe jakingo dozu, ba, ni nor nazan. Zure lagun haundienak diran Peru eta Mirenen alabea naz.
- Ez deusut itaundu noren alabea zaran. **Zu zeu nor zara?**

Edurnek gero eta nekezago eta astiroago erantzuten eban; gero eta gitxiago ulertuko baleu lez bera nor dan. Eta isilaldi luze baten ondoren, erantzun eutson:

- Egia, gero eta gitxiago dakit, jakin ere, **neu nor nazan.**
- Oraintxe dakizu inoiz baino hobeto **zu nor zaran.**
- Eta zer egin daiket **ni nor nazan** jakiteko?
- Zoaz eta egunero ordu bete emongo dozu, Jaunaren aurrean jarrita, zeure buruari itaunka: **Ni nor naz?** Eta argitzen zarala uste dozunean, zatoz.

Handik hiru hilabetera han joan jakon Edurne, bakea eta bizipoza eriozala; eta irripartsu badinotso:

- Orain lehen baino hobeto dakit **ni nor nazan.**
- Ez da izango! Antzemon deusut, bai, loteriren bat jausi jatzuna.
- **Ni neu naz**, eta nazan hau bakarra naz munduan; ez lehenago eta ez geroago, inoiz ez da inor izan -ezta izango ere- ni nazan hau izango danik. Jainkoak bere bihotzean sortu nau eta nigaitik bizia emon dauan bere Semeak beste balio dot. Oraintxe konturatu naz: lehen emon dodazan ezaupide guztiak azalekoak eta besteakazkoak izan dira.

Eta autorleak lagunduta, Jaunari esker beroak emon eutsozan, "**ni nor naz**" itaunari erantzuna bilatzen lagundu eutsolako. Eta arin-arin eta pozez beterik etxeratu zan, esan eta esan: Uste neban baino haundiagoa naz. **Ni neu naz**, Jaungoikoa Aitak bere antzeko egin nauana, Jesusek neugaitik bizia emonaz, berrerosi nauana, Espiritu Santuak edertasunez apaindu nauana. Hau guzti hau neu naz. Neu naz hau guzti hau!

ESKERRIK ASKO, JAUNA, NI NEU NAZALAKO!!!

a.- “Zu nor zara”, izan ere, itaun sakona da. Horretarako nortasun-agiriak, ispiluak, sikologoak etabar ez dira nahiko, gitxiagorik ere. Ertzainak-eta zehaztasun gehiago batzen dabez: alkohol kontuak, ADN koak, argazkiak, mila zehaztasun. Baina alperrik. Jakin, jakin, “gero eta gitxiago dakit neu nor nazan”... “oraintxe dakizu inoiz baino hobeto “zu nor zaran”.

Zer deritxazu: Uste dozu nahiko ahalegin egiten dogula geure burua ezagutzen? Zer egin?

b.- “Haren alaba, horren koinatua, urliaren aita... horreek ez zara zu, zureak dira horreek, ez zara zu zeu. Arazo ederra emon eutson: “Egunero ordubete emongo dozu zeure buruari itaunka eta erantzuten: “Ni nor nazan”. Horretarako inguruan musika gitxi behar da, ur sakonetara sartu behar da, benetan hori guzti hori gura izan behar da.

Zer deritxazu: Zuk zeu ezagutzea eta zu zeu izatea erreza al da? Kopia ez dabe balio?

d.- Edurne 70 urtegaz hasi zan pixka bat bera nor zan ezagutzen. Alde batetik horren aurrean ikaratu egin zan, baina bestetik pozez bete, uste eban baino haundiagoa dala ikustean.

Zer deritxazu: Zer uste dozu, askok ezagutzen dabela euren burua? Ondo nortzuk?



3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Mt 16, 13-18)

“Feliperen Zesareara heldu zanean, itaun hau egin eutsen Jesusek bere ikasleei:

–Gizonaren Semea nor dala dino jenteak? Hareek erantzun: –Batzuek Joan Bateatzailea dala; beste batzuek Elias; besteak Jeremias edo profetaren bat. Jesusek itaundu eutsen:

–Eta zuek, nor nazala dinozue? Simon Pedrok erantzun:

–Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea. Orduan, Jesusek esan eutson:

–Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez deustu-ta hazur-maminezko inok agertu, zeruko nire Aitak baino. Eta Nik hau dinotsut: Pedro zara zu, eta hatx horren gainean eregiko dot Nik neure eleizea; eta heriotzaren indarrak ere ez dau menperatuko”.

a.- Dinoenez, Jesus Bera ere apurka ezagutzen joan ei zan. Bere burua benetan ezagutu eban eguna Berarentzat benetako jaiotza barria izan zan: *“Zu zara nire Seme maitea”*, entzun eta beragandu ebanean. Handik aurrera ez dau bildurrik, ez deutso inork alde batera nahiz bestera eragingo, heriotzara arte jokatuko dau. Zer deritxazu: *Jesus horren jarraitzaile izateko, lehenengo norbere burua ezagutzen joan behar da. Jesus ezagutzeak laguntzen al deusku geure burua ezagutzen?*

b.- *“Ni nor nazala dinoe”?* Jesusen kezka eta itaunaren aurrean mila eritxi. Pedrok sekulako erantzuna emon eutson. Esan bai, baina zenbateraino ezagutu eban Jesus? Eta bere burua? *“Ni Zugaitik heriotzaraino joango naz”... “Oilarrak jo orduko zuk hiru bider ukatuko nozu”*. Jesus eta bere burua benetan ezagutu eta gero, orduan bai.

Zer deritxazu: *“Nor naz ni” ezagutzeak pertsona bakarrik izten dau, baina Lagunik onena agertzen jako barruan: Jesus Bera. Nundik bestelan, kristinau zintzoen indarra eta iraupena?*

d.- *“Zu zara Pedro, eta Harri honen gainean jasoko dot nire eleizea”*. *“Harria”*, gizaseme egina, sendoa, menperatu eta nekatu ezina. Orduan bai joan zala kurutzean bizia emoteraino. Holan dala, norbere burua ezagutzeak ondoren itzelak dakarz. Holan ez bada, zeri begira bizi da jentea? Besteak zer esango edo zer egingo, *“kopiak ateraten”?*

Zer deritxazu: *Otoitzak, sakramentuak, alkarteko bizitzak laguntzen ete dabe horretarako? Bai gero?!*



ZUK BARDIN BALIO DOZU

1.- BIZITZARA BEGIRA

a.- Egia esan, kristinauon dotrinan egi zoragarriak aurtortzen doguz. Eta praktikatu? Zelako ardurea Eleiz agintarien aldetik halako teologoren batek, dotrina aldetik labankadaren bat egin ete dauan, euren ustez! Zelako zorrotasuna aztertzen! Liburuak eta txostenak aztertzen eta ustezko akatsak zigortzen! Eta praktika aldetik? Hamaika kristinau ateo agiri da baztarretan eta inork ez dino apenas ezer.

Zer deritxazu: *Dotrinaz kristinau eta praktikaz ateo? Posible al da?*

b.- Gizaki guztiok nortasun eta eskubide bardinak doguz. Hamaika umeki badoa zakarrontzira! Hamaika hamabiko atso-agure (sic) zokoetan tristuraz eta penaz jota! Zenbat mila miloi baztarretan gosez eta mixeriz hiltzen. Bai, gizaki guztiak zor jakezan eskubideak aurtortzen dira, baina euren aldeko egibideak motelak dira.

Zer deritxazu: *Pertsonen duintasunari begira hobetuz ete goaz?*

d.- Gero eta gehiago entzuten dogu salaketa zorrotza, gizakien arteko balioak galdu-gordean dagozala-ta. Batzuek eskubidea ei dogu ugaritasunean biziteko; gehiagok dauke eskubidea biziteko behar daben ogia eukiteko. Pertsonari zor jakon begirunea, duintasuna. Eta begibistan gizakiak zanpatuak dira, langabetuak.

Zer deritxazu: *Gizakiok bardinak gara? Zertan?*



2.- LAGUNGARRIA “ZUK BARDIN BALIO DOZU”

“Irakasle argi batek holan hasi eban bere irakastaldia, bere 200 ikasleei 500 euroko diru-papera erakutsiz eta itaunduz:

- Zeinek nahi dau paper hau? Nahibeste esku jaso zan behingoan. Ondoren holan jarraitu eban: “Zuetariko bati emongo deutsot, baina hauxe egingo deutsot lehenengo. (Eta esku artean tximur-tximur egin eban, paper-pelota bat bihurtzeraino) Eta jarraitu eban esanez: “Eta holan zeinek gura dau?” Eta lehen beste esku gora jasota agiri ziran.

- Ederto!, esan eban. Eta hau egiten badeutsat? (Eta lurrera bota eban eta zapata azpian zapal-zapal egin eban. Eta eskuan hartu eta erakutsi eutsen, eta itaundu ikasleei: “Eta holan ere nahi al dau inork? Eta esku guztiak gora.

Eta hemen etorri zan maisuaren irakatsi sakona:

- "Adiskideok, ikastekorik baliogarriena ikasi dozue gaur: diru-paperari egindako guztiak ez deitso ardura izan; zuok guztiok, edozelan egonik ere, zeuontzat nahi izan dozue, bere balioa ez dalako gitxiagotu. 500 euro beti dira 500 euro.

Gure bizitzan sarriagotan lurjoten dogu, zimurtu egiten gara edo barrua haustuten jaku, gure bizitzako eta inguruko giro eta egoerak aldatzen diranean. Beste barik, kakazaharra garala uste dogu.

Baina bost ardura zer jazo jakun; Jainkoaren begien aurrean lehen beste balio dogu, ez dogu ezer galdu. Garbi nahiz zikin, lurjota nahiz goia jota, Harentzat baloratu ezinekoak gara.

ERAKUTSIA: *Nortzuk edo zer garan, edo zer egiten dogun...ez dago honetan gure bizitzako balioa. Bakarrik **NORENAK** garan gogoan hartuta.*



a.- Pertsona, dan modukoa dala, munduko gauzarik baliotsuena da. Hori autortzen eta onartzen dogu, baina horretarako bihotzez begiratu behar, bihotz bako begiak azalekoa bakarrik ikusten dabe. Baztarretan pilatuta dagozan hainbeste behartsu, gaixo, zahar nork behar ditu?

Zer deritxazu: *Horreek eta gazte lirainak bardin balio dabela?*

b.- Hor dozu diru-papera tximurtuta, hankapean zapalduta...halan eta guzti ere bardin balio dabela? Danak hartzeko prest. Itxureak ez dauala aldatzen diruaren balioa? Eta pertsonak bai?

Zer deritxazu: *Zertan dago pertsonaren balioa?*

d.- "Jaungoikoaren begien aurrean lehen beste balio dogu". Hori da sekretua: Aita-Ama dan Jaungoikoaren aurrean lehen bestean gara seme-alaba. Gure bizitzako benetako balioa honetan datza: "NORENAK" garan gogoan hartuta.

Zer deritxazu: *Sinismenez begiak argituta, gauzak beste modu batean aztertzen eta baloratzen dira. Merezi dau hau sinistek?*

3.- JAUNAREN BERBEEAREN ARGITAN (Lk 1, 46-55)

“Orduan, Mariak esan eban: «Jaunaren haunditasuna dot goresten, pozaren pozez daukat barrua, Jainkoa dot-eta salbatzaile. Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak; horregaitik, dohatsu deituko nabe guztiak gaurdanik. Gauza haundiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak. Santua da eta gizaldiz gizaldi errukitsua begirune deutsoenentzat. Bere indar guztiaz jokatu dau: buru-harroak hondatu ditu, ahaltzuak goi-postuetatik bota eta ezerezak gora jaso; ondasunez bete ditu gose egozanak, eta esku-hutsik bialdu aberatsak; lagun etorri jako bere herri Israeli, bere errukiaz oroiturik: hala berbea emon eutsen gure gurasoei, Abrahami eta ondorengoei betiko».



a.- Guk kristinauok Ebanjeliora jo behar dogu bizitzako gorabeherak baloratzean. Gauza askotan balio ezbardinak dabez munduaren eta Jaungoikoaren aurrean. Jesus Maisua honetan ere harrigarria izan zan, munduko balio gehienak hankazgora ipiniz: Munduko lehenengoak gero azkenengo izango dira, eta munduko azkenengoak lehenengo. Mariaren sinismena dogu eredu: *“Bere mirabe honengan ipini ditu begiak”*.

Zer deritxazu: *Zertan dago Mariaren haunditasuna?*

b.- Mariak Jaungoikoaren jokabidea ikusten dau gizaldirik gizaldi: *“Buru-harroak hondatu ditu, ahaltzuak goiko postuetatik bota eta ezerezak gora jaso”*. Tartean Jaungoikoa Bera ez balego, hau ez litzateke sinisgarri izango. Jakina, gizonak bere ahalmenez eta jakituriz bere burua jainko egiten dauanean, zelan onartu balio eskailera hori?

Zer deritxazu: *Jesusengan Jaungoikoa txikien arteko eta aldeko egin zan. Zu nun zabiz Jainko bila?*

d.- Balio kontu hau zuzen ulertu eta erabili behar dogu. Ezin da geure erara eta gustura erabili. Hona hemen beste harripitxi bat: *“Ondasunez bete ditu gose egozanak eta eskutsik bialdu aberatsak”*. Hau ez da kartera aldaketa. Jainkoaren ondasunak betegarriagoak dira lurrekoak baino: hareek bihotza, gizakia bera barrutik beteten dabe, honeek kartilea eta etxe-baztarrak.

Zer deritxazu: *Kontuan hartzen al dozuz Jaungoikoaren diru-kutxako balioak? Zertan dozu aldatu beharra?*

ZURE ALTXORRIK HAUNDIENA

1.- BIZITZARA BEGIRA

a. “Banitz eta balitz, alkarren atzetik dabiltz”. Hamaika amets gozo eta eder igartu dira bizitzako kakoan eskegita! “Usteak erdiak ustelak”. Halan eta guztiz ere, amets egiten jarraitu behar; ametsak ere loaren eta bizitzaren zati dira.

Zer deritxazu: *Gaztaroan ala zahatzaroan egiten da amets gehiago? Amets bardinak al dira?*

b. Jakina, dana da zoriontsu izan gura dogulako. Baina benetan zoriontsu. Ez daukadan haxe baneuka... eta eskuan daukadana ezin gozatu. Gizartera begira jarten bagara, gizaki bakotxak bere aukerak egiten ditu, baina danak zoriontsu izateko ustez.

Zer deritxazu: *Amets egitea bizitzako legea da. Baina lotan ala itzarrik hobeto?*

d. Barru ona daukanak probetxu gehiago ateraten dau bizitzak eskeintzen deutsozan gauza txikietatik; barru txarra daukana asetzekorik ez dago. Penagarria! Zoriontsu izateko adina eskuan euki, eta ezin zoriontsu izan!

Zer deritxazu: *Gaur arteko bidea barriro egin behar bazendu, zer aldatuko zeunke zoriontsuago izateko?*



2.- LAGUNGARRIA: "ALTXORRIK HAUNDIENA"

Kontu zahar batek dinonez, baebilen gizon bat hondartzan iretargi zuritan. Holako bururakizunak erabiltzan buruan:

- "Nik kotxe barri bat baneuka, zoriontsu izango nitzateke"... "Txalet bat baneuka, ni bai zoriontsu!"... "Nik irabazi haundiko beharleku bat baneuka, orduan bai zorion bete!"...

-

- "Nik baneuka..."


Holako ametsetan ebilela, harri koxkorrez beteriko zakuto baten eztropezu egin eban, eta harrikoxxorrok banan hartuta itsasora bota ebazan, bakotxeko esanez:

- "Zorioneko nintzateke, baneuka..." Harri koxkor bat bakarra gelditzen jakon zakutoan eta bera gorde eban. Etxera heldu zanean, hor nun konturatzen dan harri koxkor hori balio haundiko diamante bat zala.

Konturatzen zara zenbat diamante bota ebazan itsasora, aintzat hartu barik? Gutariko zenbatek botaten doguzan geure altxor baliotsuak, ederrago batzuetaz amets ustelak eginik, ez daukaguna, baina ederragotzat uste doguna itxaroten, esku artean daukagunari baliorik emon barik? Begira zeure ingurura, eta astiro aztertzen badozu, konturatuko zara zein zorionekoa zaran: esku-eskuan daukazu zoriona eta ez deutozu emon dan bestean eder agertzeko balioa.

Hartu gogotan hain baliotsu dan harrikoxxorrarena. Gure bizitzako egun bakotxa diamante baliotsu bat dogu, disdiragarria eta ordezkorik ez daukana.

Zeure eskuan dago beragaz baliatzea edo zeugandik jaurtitea, egundo ez berreskuratzeke moduan.



a. Harrikoxxorrek ziralakoan, diamanteak izan... Inork esan behar nire harrikoxxorrek diamanteak dirala. Nik zaborrontzira botaten dodazanak, baleukez gosez hiltzen dagozan mila miloika errukarrik!

Zer deritxazu: *Diamanteak itsasora bota... Bizitzan egiten al da holakorik?*

b. Kontua zera da: daukaguna baloratzen ikasi eta daukagunari zukua atera. Ez ahaztu: “Balizko erroteak ez dau urunik egiten”. “Balizkoak” ez dagoz gure eskuan, holakoei hobe bakean itzi; ezinari alperrik adarka ekin, ezina horma gogorra da.

Zer deritxazu: *Atzo, gaur, bihar...Zu noiz bizi zara? Bai gero!*

d. Gaur arteko zure bizitza aztertuta, esan ahal dozu beharbada: “Hau edo hori, holan edo halan egin izan baneu, gaur nazan baino zoriontsuago izango nintzaken. Sarri entzun dogu: “Aurreak erakusten dau atzea zelan dantzatu”.

Zer deitxazu: *Zoriontsu ez banaz, zeozer falta edo sobra jat. Bietatik zer gehien?*

3.- JAUNAREN BERBEAREN ARGITAN (Lk 10, 38-42)

“Bidean joiazela, Jesus herritxo baten sartu zan, eta Marta eritxon andra batek etxean hartu eban. Baeban honek Maria izeneko ahizta bat, eta hau, Jaunaren oinetan jarrita, honen berbea entzuten egoan. Marta, barriz, lanpetua ebilen etxeko zereginetan. Orduan, Jesusengana joan eta esan eutson: –Jauna, ondo ikusten al dozu nire ahizteak etxeko lan guztiak nire gain iztea? Esaiozu laguntzeko. Jaunak, ostera, erantzun eutson: –Marta, Marta, gauza askogaitik zabiltz kezka eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderik onena aukeratu dau Mariak, eta ez deutso inork kenduko”



a. Nazareteko Maisua dogu gure irakasle nagusia. Etorri ere, geu zoriontsu egitera etorri zan; gure zoriontasuna zertan dagoan erakustera. Jaungoikoak ez dau gura inork sufritzerik, gitxiago inori sufriduazoterik.

Zer deritxazu: *Jesusi jarraitzea zoriontasun bidea al da? Probatu al dozu?*

b. Marta jo ta su, hau, hori eta bestea Jesusentzat prestatzen; eta Maria Jesusen oinetan entzuten, bere bizitza edertzen, adiskidetasuna gozatzen. Sabela betetzea ona da, bihotza asetzea hobea. Ez dagoz bata bestearen aurka. Biak neurri onean erabiltea da sekretua.

Zer deritxazu: *Sabela bestean bihotza beterik bageunka, zoriontsuago ala...?*

d. Entzun Nazareteko Maisuari: "Arduraz eta urduri diharduzu, Marta, gauza askotan; eta gitxi dira beharrezkoak, edo bat bakarra". Urduri, bestetarako asti barik, beharbada, beharrezkoagoak albora itzita. Albora-karga barik, oreka zaintzea da zoriotasunerako bidea.

Zer deritxazu: *Ura edatean, oiloarena egitea: Ura zurrut egin eta gora begira iruntzi... Geure bizitzara etorrita, zer erakusten deusku?*





LABAYRU IKASTEGIA
Euskal Biblioteka - Donostia

Sarrerako erregistroa

46939 / 2013